

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pasaia



Aurkibidea

Udalerria: Pasaia

Sarrera



Oarsoaldeko eskualdeko udalerria, Errenteria, Lezo eta Oiartzunekin batera. Pasaia osatzen duten lau barrutiak badiaren ertzetan kokatzen dira: Donibane/San Juan, San Pedro, Antxo eta Trintxerpe. Bertako euskara erdialdeko euskararen, nafarreraren eta nafar-lapurteraren eragina duten Bidasoko hizkeretan sailka daiteke. *Argazkia: Jose Antonio Gil Martínez*

- **Biztanleak:** 15.944
- **Euskaldunak:** %37,9

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **68**
- Zintak: **90**
- Pasarteak: **1.723**
- Transkribatutakoak: **56**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **1.723**

Proiektuak

- 101L - Herriz herri
- Badiako ikastola txikiak
- Ermuko Ahozko Ondarea
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Pasai Donibaneko Euskal Memoria
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- Sanjuandarren Oroimena

Hizlariak

Begoña Aginaga Garmendia (1944)

Pasai Donibaneko "Gaztelutxon" jaio zen 1944an. Lorentzo eta Maria gurasoek izandako 7 seme-alaben aldran, beste baten bikia da. 22 urterekin misioetara joateko aukera aztertzen zegoela, Ermuan lan egitea proposatu zioten. "Anaitasuna Ikastola" sortu berrian bizitako harrera eta lan giroak bertan geratzera bultzatu zuten eta harrezkero andereño da bertan, azken urteetan psikomotrizitate espezialista hain zuzen ere. "Anaitasunaren" sorreraren 40. urteurrenaren harira egin da elkarriketa eta ondo gogoan ditu ikastetxearen ibilbidean izandako zailtasun, aldaketa, pedagogia-berriztapenak, anekdotak...

Marixabel Agirre Ruiz (1967)



Sanjuandarra, alaba bakarra. Ama donostiarra zuen eta aita ere bai jaiotzez, baina bi urtetatik San Juanen bizi izandakoa; arrantzalea zen. Amona -beasaindarra- beraiekin bizi zen. Ikastolan ibili zen: lau urterekin Itsasmendi gaineko geletan hasi zen eta, herriko hainbat lokaletan egon ostean, Lizeo sortu berrian jarraitu zituen ikasketak. Donibaneko ikastolari buruzko elkarriketa egin genion.

Beatriz Agirregomezkorta Zelaiaran (1926-2022)



Guraso biak mutrikuarrak zituen, lan kontuengatik Pasai Donibanera bizitzera joandakoak; aita Andonaegi tailerrean egiten zuen lan, arotz moduan, eta amak bajurako itsasontzietako sareak konpontzen zituen. 9 senidetan laugarrena zen Beatriz, eta amona eta osaba bat ere beraiekin bizi ziren. Gerra garaian Beatrizek 10 urte zituen: lehenengo Getariara eta handik Mutrikura joan ziren ihesi, eta urtebete inguru egin zuten Donibanera itzuli gabe. Aita Ondarretan eta Gasteizen egon zen preso eta bitartean ama ospitalean izan zuten, gaixo. Beatriz hamaika lanetan ibilia da: ama zaintzeaz aparte, udako hilabetetan Miarritzera joaten zen umezain, PYSBEn ere ibili zen lanean eta baita bordatzen eta galtzerdiak konpontzen ere. Elkarriketan ilobetako bat zegoen (ahizpa zaharrenaren alaba, Gema).

Joxe Mari Agirregomezkorta Zelaiaran (1936)



Guraso biak mutrikuarrak zituen, eta Mutrikun jaio zen Joxe Mari, 8 senidetan gazteena. Donibanen bizi ziren ordurako, baina gerra hasi zenean familia Mutrikura joan zen ihesi; hilabete batzuen buruan bueltatu ziren. Aitak Andonaegi ontziolan egiten zuen lan, eta amak sareak konpontzen zituen. Biteri eskolan ibili zen Joxe Mari, 13 urterarte. Klarinetea jotzen zuen udal bandan. Pysben hasi zen lanean, lehenengo bakailoa pilatzen eta gero arotz moduan. 1960 inguruan bere kontura hasi zen lanean: aroztegia ipini zuen, anaiarekin eta beste birekin batera. 1971 urte aldera Itsas Jaialdirako karroza ederra egin zuen, arrakasta handia izan zuena. Trintxerpeko emakume batekin ezkondu zen, guraso biak galiziarrak zituena, eta hiru seme izan zituzten. Ubera udal liburutegian egindako elkarriketa.

Ines Agote Alberro (1963)



Aita San Pedrokoa eta ama Ergobiakoa (baina 6 urtetatik Trintxerpen bizi izandakoa), lau senidetan hirugarrena da Ines. Trintxerpeko Araneder kalean bizi ziren. 1966an San Pedron sortu berria zen ikastolara joaten hasi zen eta hurrengo urtean Trintxerpeko ikastolara. Hndik Herrarako Herri Ametsa ikastolara bidali zuten eta Batxilergoa Orereta ikastolan egin zuen. Ikastolen historia jasotzeko elkarriketa egin genion.

Resu Aizkorreta Arruabarrena (1931-2024)



Donibanen jaioa. Aita bertakoa zuen -itsasontzietako mekanikoa- eta ama Irungo Iparragirre baserrikoa. Bost senidetan hirugarrena zen Resu. 5 urte zituela gerra hasi zen, eta 13 hilabete egin zituzten kanpoan: Lekeition, Bilbon eta batez ere Frantzian, Saint-Étienne-n, Lyon ondoan. Biteri ikastetxean ikasi zuen, eta 12 urterekin familiako janari-dendan hasi zen lanean. Ondoren Estelako bulegoetan garbiketa lanetan aritu zen eta 25-31 urte bitartean Vitamex lantegian, arrain-olioa ontziratzen. Lantegia itxi zutenean, berriz, galtzerdiei puntua jasotzen hasi zen, aitak egin zion makina batekin. 38 urterekin Ignacio Laboa arrantzalearekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten. Ubera liburutegian egindako elkarriketa.

Olatz Alberro Bilbao (1963)



Ama San Pedrokoa eta aita Errobikoa (haren gurasoak Trintxerpera joan ziren bizitzera), hiru senidetan zaharrena da Olatz. Hainbat ikastolatan ibili da: lehenengo San Pedrokoan, urtebete, ondoren Trintxerpekoan 4. mailararte eta Herrerako Herri Ametsan ondoren. Batxilergoa, berriz, Orereta ikastolan egin zuen. Ikastolen historia jasotzeko elkarriketa egin genion, Teo anaiarekin batera.

Teo Alberro Bilbao (1964)



Ama san Pedrokoa eta aita Errobikoa (gurasoak Trintxerpera joan ziren bizitzera), hiru senidetan bigarrena da Teo. Umetan Trintxerpeko ikastolan ibili zen (gero Donostiako Los Angeles ikastetxean jarraitu zituen ikasketak) eta ikastolaren historia jasotzeko elkarriketatu genuen, Olatz arrebarekin batera.

Migel Alkaraz Luzuriaga (1942)



Donibanen jaioa, kale nagusian. Ama Corellakoa zuen, nafarra, eta aita bertakoa, sanjuandarra, arotza. Hiru anaietan zaharrena da Migel. 7 urte zituenean, aita hil zitzaien (gerrako zaurien ondorioz); orduan, ama bakailao lantegian hasi zen lanean eta amona -amaren ama- beraiekin bizitzera joan zen. Lehenengo eskola publikoan ibili zen Migel, Biterin, eta gero Antxora bidali zuten ikastera, Recaredo maisuarekin. 14 urtera arte. Ondoren Luzuriaga ontzolan egin zuen lana, 55 urterekin erretiroa hartu zuen arte. Atletismoan nabarmendu zen Migel: hainbat lasterketa irabazi zituen. Zinegotzi ere izan zen, gerraosteko lehenengo hauteskundeetan. Erretiroa hartu ostean, aitona-amonen elkarteko lehendakari ere izan da. [Rosa Sistiaga](#) rekin ezkondu zen, eta bi seme izan zituzten. Euskara galdu zuen umetan, eta helduaroan berreskuratu.

Pepita Amiano Larrañaga (1921)

Josefa Trintxerpeko Martimona baserrian jaio zen; ama bertakoa zuen. Zazpi senidetan txikiena zen. Baserriko lanetan jardun zuen, bere jaiotetxean. Galiziar batekin ezkondu zen, eta seme bat izan zuten.

Borja Arratibel Bilbao (1968)



Guraso biak San Pedrokoak zituen. Aitaren aldeko izeba bat, Pilartxo Arratibel, San Pedroko ikastolako lehenengo andereñoa izan zen. Bera ere ikastolan ibili zen (lehenengo San Pedron, gero Donibanen eta ondoren Pasaia-Lezo lizeoan). Ikastolei buruzko elkarrizketa egin genion, Esti Ledesma lehengusuarekin batera.

Bene Arrizabalaga Elezgaray (1920-2013)



Mutrikun jaioa. Gurasoak hangoak zituen, baina Bene txikia zela Pasai San Pedrorra joan ziren bizitzera gurasoak eta bost seme-alabak; senideetan hirugarrena da Benedikto. Aita sakristaua zuen eta ondoren berak hartu zuen aitaren sakristau lana. Elizako kontuez hitz egin digu batez ere eta garai bateko eliza-mundua nola izaten zen azaldu digu. Ongi gogoratzen ditu garai hartako istorio eta kontuak; kontuez gain, kantu batzuk ere abestu dizkigu.

Antxon Basurko Gereño (1947)



Bonantza auzoan jaioa, etxean. Ama sanjuandarra zuen eta aita ere Donibanen jaioa, baina Mutrikuko jatorriko familia batekoa. Laugarren umea izan zen Antxon, eta adin diferentzia handia zuen bere anai-arrebekin. Izan ere, gurasoak bereizita egon ziren hainbat urtean, gerraren ondorioz: ama Frantzian ibili zen errefuxiatuta, hara eta hona umeekin (ume txikiena Parisen hil zen, urtebeterekin). Aita, berriz, Galesera joan zen, bueltatzeko beldurrez (abertzalea zen eta fitxatuta zegoen). Bueltan Laboanean hasi zen lanean, saregile. Antxon Biteri eskolan eta San Pedroko Misericordia eskolan ibili zen, eta ondoren Don Boscon fundizioko modelista ikasketak egin zituen. Atletismoan ere nabarmendu zen: hainbat sari irabazi zituen. Argazkilaritza da bere zaletasunetako bat. Upera liburutegian egindako elkarrizketa.

Manoli Calafel Trecet (1931-2023)



Pasai Donibaneko Bonantza pasealekuan jaio zen, Beduria etxean. Gurasoak bertakoak zituen, aita arrantzalea eta ama arrain-saltzailea. Bi senide ziren. Eskola publikoan ibili zen Manoli. 14 urterekin Getariara joan zen saregile lana ikastera. Kalez kale arraina saltzen ere gaztetan hasi zen. Ramon Laboa arrantzalearekin ezkondu zen, Donibanekoa hura ere. Lau seme izan zituzten. Gran Karmengo Ama baporea izan zuten, Pasai Donibaneko lau arrantza ontzietako bat.



Cristina Elustondo Elustondo (1945)

Ama San Pedrokoa zuen eta aita Berritxukoa, bizkaitarra. Simon Garin senarra eta biak ikastolen aldeko mugimenduan ibili ziren. Euskaldun berria da. San Pedroko ikastolari buruzko elkarriketa egin genion.

Jabier Esnaola Akarreta (1939)

Buenavistan jaioa, Donostiako Udalari dagokion eremua izan arren Pasai Antxon egin du bizimodua umetatik. Ama Nafarra zuen, Ultzamakoa, eta aita, berriz, Irungoa, Behobiakoa; portuan egiten zuen lana, karga-deskargan. Bi senide ziren. Mojen ikastetxean ikasi zuen Jabierrek, eta ondoren Recaredo Vesga maisuaren eskolan. Euskara zuten etxeko hizkuntza, nahiz eta inguru ia erabat erdaldunean bizi. Errezildar batekin ezkondu zen, eta lau seme-alaba izan zituzten. Buenavistatik Eskalantegi kalera joan ziren bizitzera. Jabier euskal giroa pizten saiatu da beti, besteak beste Euskal Jaiak antolatuz eta panderoa joaz.

Antxoni Etxarri Gereño (1932-2024)



Donibaneko kale nagusian jaioa. Artean umea zela gerra hasi zen, eta hilabete batzuk Bizkaia aldean igaro zituzten. Biterin ibili zen eskolan, 14 urtera arte. Okindegia zuten, eta Antxoni etxeko negozioan ibili zen lanean; gero okindegiaren partez ultramarinos denda ipini zuten. Josten ikastera joaten zen, Pasai Antxora. Arraina saltzen ere ibili zen, Donostiara joanda. Donibanen bizi zen Bermeoko arrantzale batekin ezkondu zen, eta bi seme-alaba izan zituzten. Senarrari kiniela tokatu zitzaion, eta Irunera joan ziren bizitzera: El Vizcaino taberna ipini zuten bertan. Futbola, zezenak eta arrauna ditu zaletasunen artean. Pasai Donibaneko Ubera liburutegian egindako elkarriketa.

Miren Koldobike Etxeberria Almandoz (1961)



Koldo deitzen diote. Aita Errenteriakoa zuen, ama donostiarra baina Pasai Antxora bizitzera joandakoa. Hiru ahizpatan gazteena, Antxoko ikastolan ibili zen, Nekane Auzmendiarekin; gurasoak euskaltzaleak ziren, euskaraz ez zekiten arren. Ama -Maria Luisa Almandoz- irakaslea izan zen Pasai Donibaneko ikastolan (euskara ikasi ostean) eta Pasaia-Lezo lizeoan. Ikastolei buruzko elkarriketa egin genion Koldori.

Gregorio Etxeberria Esteberena (1924-2021)



Pasai Donibaneko “Kuartel zaharra” esaten dioten etxean jaio zen. Ama bertakoa zuen eta aita, berriz, urnietarra. Lau anai-arrebatan zaharrena da bera. Gazterik hasi zen arotz lanetan eta kostaldekoa izaki, itsasontzietako egur-lanak egiten jardun zuen gehienbat eta ederki azaltzen ditu egiten zituzten lanak. Gerra eta gerra ondorengo garaia ongi gogoratzen ditu eta gaztea zeneko istorio politak kontatzen dizkigu.

Elena Etxebeste Martiarena (1931-2022)



Jaizkibelgo Kabite baserrian jaioa. Guraso biak Donibanekoak zituen. Zazpi senidetan gazteena. Hilabete gutxi zituelea etxea erre zitzaion, eta bi urte zituenean ama alargu geratu zen. Bizimodu gogorra izan zuten, urik eta argirik gabe, gerra ondorengo urte latzetan. Oso gutxi joan zen eskolara, urruti geratzen zelako; gero, gau eskolan ibili zen. Lezora joaten ziren mezetara. [Jose Ramon Yarzabalekin](#) ezkondu zen, eta Jaizkibelgo kantina jarri zuten elkarrekin, duela 40 urte inguru. Seme bat izan zuten.

Alberto Etxebeste Sagarmin (1933)



San Pedroko Kanpitzo baserrian jaioa, 3 senidetan zaharrena. Ama Usurbilgoa zen, 12 urte zituenean familiarekin Pasaia joana bizitzera (lehenengo Trintxerpeko Trintxer baserrira eta gero Kanpitzora). Aita, berriz, Hondarribiakoa zen, eta portuan egiten zuen lana. Kanpitzora ezkondu ziren. Albertok (Alberto Ramon nortasun agirian) 18 urte betetzeko zituela hil zitzaion aita. Alberto San Pedroko eskola publikoan ibili zen, eta baita mojetan ere; ondoren, Herrerako La Salle ikastetxean ikasi zuen, 14 urte bete arte. Baserriko lanetan jarduteaz gainera, saregile moduan egin zuen lana: arrasterotako sareak egiten. 1961ean amarradore lanetan hasi zen, San Pedroko kaian: itsasontziak amarratzen. Hantxe hartu zuen erretiroa. Kanpitzotik Mirasol baserrira ezkondu zen.

Libe Garbizu Irazu (1936)



Bilbon jaioa, gerra garaian ama Portugaletera joan zelako ihesi, ume txikiekin. Handik Kataluniara joan ziren, eta 4 urte inguru zituela itzuli ziren Pasai Donibanera. Lau senidetik hiruk egin zuten aurrera: bi mutilek eta Libek berak. Ama Zizurkilgoa zuten, baserritarra, zerbitzera lehenengo Donostiara eta gero Pasaia joandakoa; ezkondu ondoren arrain saltzaile ibili zen. Aita, berriz, Donibaneko Bonantza auzokoa zen, arrantzalea. Bertan bizi izan ziren: "Bonantzako umea" dela dio Libek. Dantzarako trebea zen, eta 8 urterekin txapelketetan parte hartzen hasi zen. Lehenengo inprenta batean egin zuen lana, eta gero PYSBEn, sareak egiten. Josten ere ikasi zuen, eta arropa josten zuen kanporako. Mendizalea izaki, gailur asko zapaldutakoa da bere abarkekin eta gona-prakekin. Juantxo Azkarraga donostiarrarekin ezkondu zen, eta Itsas-mendi elkarte sortu zuten. Ikastolaren sorreran ere buru-belarri ibili ziren senarra eta biak.

Jon Garin Elustondo (1966)



Lau senidetan zaharrena, Simon Garin eta Cristina Elustondo bere gurasoak ikastolen aldeko mugimenduan ibili ziren. Jon Bera San Pedroko ikastolan ibili zen, gero Donibanen eta ondoren lizeoan. Magisteritza ikasi zuen. Ikastolei buruzko elkarrizketa egin zitzaion.

Simon Garin Iradi (1941)



Hernanin jaioa, 1965ean Pasai San Pedrorara ezkondu zen. Hiru seme eta alaba bat izan zituzten eta bertako ikastolara eraman zituzten. Pasaia-Lezo lizeoa sortzeko lan handia egin zuen Simonek eta horri buruz elkarrizketatu genuen. Euskaldun berria da.

Mila Garmendia Lertxundi (1932)



Aita sanjuandarra zuen eta ama Aiakoa Orio): 17 urterekin Donibanera joan zen neskame, eta bertan geratu zen bizitzen. Mila umea zela, familia Bilbora joan zen ihesi, gerra hasi zelako. 9 senidetan zaharrena izanda, Milari etxean lan asko egitea tokatu zaio ume-umetatik: ezin izan zuen eskolara joan; iluntzeetan partikularrera joaten zen, pare bat ordu. Frantseseko klaseetara ere joan zen. Aitak PYSBEn egiten zuen lana eta ama estraperloan aritzen zen (esnea, ogia, haragia, patata... saltzen, etxetik zein etxez etxe). Aita gazterik hil zen, 57 urterekin. Amak "Helados La Maravilla" izeneko janari-izozki denda ipini zuen, eta Mila bertako dendaria izan da erretiroa hartu zuen arte. 35 urterekin gida-baimena atera zuen. 40 urterekin hasi zen nobioarekin, eta gero ezkondu egin ziren. Emakumeen lehen estropadetan parte hartu zuen, 60ko hamarkadaren hasieran, eta baita saria irabazi ere. Ubera liburutegian egindako elkarrizketa.

Reme Gaztelumendi Goikoetxea (1925)



Pasai San Pedron jaioa; gurasoak ere bertakoak zituen, eta 3 senidetan zaharrena da bera. Gerra garaian, seme-alabek amarekin joan behar izan zuten Ondarrura. Ongi gogoratzen ditu gerrak ekarri zituenak, eta orduko gertaera eta istorioak. Gaztetxoa zenean, arraina saltzen hasi zen; ondoren, eskabetxerian ibili zen; eta, denbora bat eta gero, ezkondu arte, kontadoreetan aritu zen lanean.

Manuel Gereño Urretabizkaia (1929-2022)



Pasai Donibaneko Puzkazarreta baserrian jaioa, aita bertakoa zuen eta ama Asteasukoa. Sei senide izan ziren aurrerakoak. Herriko eskolara joan zen, eta txikitatik trebatu zen baserriko lanetan. Esnea partitzen zuten Pasai Donibanen, eta Lezora ere joaten ziren saltzera. Bakailaoa deskargatzen ere egin zuen lana. 24 urterekin, itsasoan hasi zen; Pasaiako itsasontzi txikietan egin izan du lana beti: antxoatan, atunetan, bixigutan...

Iñaki Goikoetxea Sorondo (1933)



Bilbon jaio zen, baina Pasai Donibanen bizi izan da betidanik. 9 senidetan zaharrena, ama Hondarribiakoa zuen eta aita donibane bertakoa. Asko zirenez, bi zaharrenak izebaren etxean bizi ziren. Lehenengo herri eskolan eta ondoren Herreran ibili zen eskolan, fraideekin. Aitaren familiako negozioa San Pedro eta Donibane lotzen dituen itsasontzia (motora) zen, eta bera ere hantxe ibili zen lanean, 14 urtetatik erretiroa hartu zuen arte. "Iñaki Boteroa" bezala ezagutzen dute herrian. Garai batean 4 linea zeuden, eta gaur egun bakarra geratzen da. Bera langintza horretan hasi zenean, arraunean eramaten zuten jendea batetik bestera (gerra garaian baporea errexisatu zieten). Beste hainbat lan ere egin ditu, betiere itsasontziarekin: materiala eta animaliak garraitu, turistekin arrantzara joan, eskola-umeei bisita gidatuak egin itsasadarreko bizimodua erakusteko...

Maria Jesus Huizi Narbarte (1939)

Pasai Antxon jaioa, Linazasoro etxean. Gurasoak Goizuetakoak zituen. Lau senidetan txikiena zen Maria Jesus; lehenengo biak Goizuetan jaio ziren. Lanarengatik joan ziren Pasai Antxora. Aitak ikatz saltoki bat jarri zuen han. Ikatza eta egurra saltzen eta partitzen zuten. Maria Jesus eskola publikoan ibili zen 13 urtera arte, eta ondoren etxeko negozioan hasi zen lanean. Gainera, Errenterian beste saltoki bat jarri zuten; bi dendetan egoten zen bera. Lezoko batekin ezkondu zen, Pasai Antxora. Ezkondu ondoren, edertasun saloi batean ere egin zuen lana.

Fabian Iparragirre Manzisidor (1917-2014)



Pasai Donibanen jaio zen Fabi. Aita ataundarra zuen eta ama Pasai Donibanekoa. Bertako eskola publikoan ikasi zuen, Anastasio Arakama maisuarekin 14 urtera arte. Sareak egiten ikasten aritu zen Meipin, eta saregile lanetan jardun izan du beti. Pasai Donibanen bizitu zen 36ko gerra hasi arte. Amaiur batailoiko gudaria izan zen beste herritar batzuekin batera. 1936an hil zitzaion aita; hargintzan eta igeltsero bezala egiten zuen lan. Ama, berriz, baxurako arraina saltzen ibiltzen zen. Gerra bazetorrela eta jende askok ihes egin zuen itsasontziz Bilbora. Fabi eta bere familiakoek ere hala egin zuten. Han ibili zen gudari, San Andres batailoian lehenengo, gero Bolibar batailoian eta Amaiur batailoiairen berri jakin zutenean bera eta beste kide bat batailoi hartara joan ziren. Santoñan errenditu behar izan zutenean gatibu erori eta langile-batailoietan aritu zen barrakoia eta bideak egiten. Gero soldadu egon behar izan zuen Iruñean, San Kristobalgo kartzelako zaindari lanetan. Soldaduskan urtebete egin ondoren Pasai Donibanera bueltatu zen. 1948an ezkondu zen Juanita Herrera lezoarrarekin. Hiru seme-alaba izan zituzten. Saregilea izan da beti. Bere kontura aritzen zen lanean; Trintxerpen zuen lantokia eta hainbat itsasontzitarako sare berriak egiteaz gain sare-konponketak ere egiten zituzten.

Pedro Isasi Andikoetxea (1940)



Fruizen jaioa, guraso biak bertakoak zituen. Aita gerra garaian kanpoan ibili zen, eta bueltan etxea uzteko esan zieten; orduan -Pedrok 7 urte zituen- Bermeora joan ziren bizitzera, baserri zahar bat erosita. Zorpetuta geratu ziren. Zortzi senidetan seigarrena, ez zuen eskolara joateko aukerarik izan. 11 urterekin harrobi batean ibili zen lanean, baserria berritzeko harria ateratzeko. 12 urterekin morroi egon zen beste baserri batean eta 13 urterekin kontserba lantegi batean hasi zen lanean. 17 urterekin anai zaharrenak Pasai Donibanera eraman zuen berarekin: PYSBEn hasi zen lanean, alturako arrantzan, bakailaotan. 20 urtean ibili zen han, eta ondoren Oiartzungo Tajo kooperatiban, erretiroa hartu arte. Donibane bertako emakume batekin ezkondu zen (Larrabideko Ixiarrekin) eta bi seme-alaba izan zituzten. Ubera liburutegian egindako elkarrizketa.

Pili Jaio Saez (1921)



Aita Bilbokoa zuen eta ama Herrerako baserri batekoa, Pasai Donibanera bizitzera joandakoak. Bertan jaio zen Pili, zortzi senidetan zazpigarrena (5ek egin zuten aurrera). Umea zela hil zitzaion aita. Familia abertzalekoa izaki, gerra aurrean Batzokian ibiltzen zen dantzan eta antzerkia egiten. Gerra sasoian, 16 urte zituela, ihesi joan ziren. Habana itsasontzian joan zen Erresuma Batura, anaia txikiarekin. Anaia zaharrena gudari ibili zen. Bueltatu eta gutxira Andaluzian egin zituzten lau urte, Puerto de Santa Marian, senitarteko bat preso zegoelako han. Gero, 1954an, Filipinetara joan zen, Manilara umezain. Bueltan, Tornillos Molinao enpresan egin zuen lan.

Joxean Korta Fachado (1930-2020)



Torreatzen jaioa. Ama San Pedrokoa zuen eta aita ere umetatik han bizitua zen, jaiotzez Getxokoa izan arren; hark Pysben egiten zuen lana, bakailao lantegian. Aitona galiziarra zuen. Seme bakarra zen. Eskola publikoan ibili zen lehenengo eta gero Trintxerpeko Cervantes akademian. 14 urterekin hasi zen lanean, saregile. Berrotaranekin 27 urtean ibili zen. Lanik gabe geratzean arkupeetako arrandegia hartu zuen. Arraunean ibili izan da. Ezkondu egin zen eta bi seme izan zituzten.

Maria Eugenia Laboa Sagarzazu (1965)



Meipin jaioa, 8 urte zituenean San Rokera joan ziren bizitzera. Aita sanjuandarra zen eta ama San Pedron jaioa (San Juanera ezkondua). Hiru senidetan bigarrena, Donibaneko ikastolan ibili zen. Bonantzan hasi eta herriko hainbat lokaletan egon zen, eta Pasaia-Lezo Lizeoko lehenengo promoziokoa izan zen. Filosofia ikasi zuen eta Lizeoko irakasle bihurtu zen.

Didaka Lasa Bastarrika (1966)



San Pedron jaioa, aita Errenteriakoa zuen eta ama, berriz, Herrerakoa (baina guraso ataundarrak zituen). Arreba eta biak San Pedroko ikastolan ibili ziren. Etxeko hizkuntza euskara zen eta gurasoak ikastola bultzatzen ibili ziren (aita, Joxeba, ere elkarriketatu genuen). Ikastolari buruzko elkarriketa egin genion Didakari.

Joxeba Lasa Iriarte (1933)



Errenterian jaioa, aita Lezokoa zuen eta ama Oiartzungoa. 1965ean San Pedrora ezkondu zen; emaztea Herrerakoa zuen (baina gurao ataundarrak zituena). Bi seme-alaba izan zituzten (alaba 16 urterekin hil zen) eta biak ibili ziren San Pedroko ikastolan. Guraso bezala ikastolaren aldeko lanetan ibili ziren, besteak beste Lizeoa sortzeko dirua biltzen. Ikastolari buruzko elkarriketa egin genion. Didaka semea ere elkarriketatu genuen.

Iune Laskibar Urresti (1985)



Gurutze Urresti irakaslearen alaba, ikastolen historia jasotzeko elkarriketatu dugu. Umetan monja ikastetxean ibili zen, gero San Pedroko ikastolan eta ondoren Pasaia-Lezo lizeoan.

Estibalitz Ledesma Arratibel (1973)



Ama San Pedrokoa zuen eta aita Antxokoa. San Pedroko ikastolako lehenengo andereñoa, Pilartxo Arratibel, izeba zuen. Ikastolei buruzko elkarriketa egin geneion, Borja Arratibel lehengusuarekin batera.

Jose Mari Legarda Martinez de Ilarduia (1938)



Araian jaioa, Araban, Donostiara joan zen izeba-osabengana, soldaduska garaian. Biantxin hasi zen lanean, Antxon. Donibanera ezkondu zen eta bertan bizi izan da. Kultur mugimenduan murgildu zen eta zinegotzia izan zen; baita alkatea ere, bi urtez. Ikastolaren aldeko lanetan ibili zen. Lau seme-alabak ikastolara bidaltzeaz gainera, udaletxetik Pasaia-Lezo lizeoa eraikitzeko baimenak lortzen lagundu zuen eta Lizeoko batzordean egon zen hainbat urtez. Euskaldun berria da.

Florentino Legorburu Etxebeste *Tito* (1930-2017)



Arrokaundieta baserrian jaioa; aita Jaizkibelgoa zuen eta ama Hondarribiakoa. Hamar senidetik zortzi atera ziren aurrera. Herriko eskolan ibili zen. Baserriko lanetan ikasi zuen umetatik. Hamalau urterekin saregile hasi zen lanean, eta hori izan du lanbidetzat, beste makina bat lan ere probatu dituen arren: Luzuriaga lantegian ere ibili zen, baita bakailaoa deskargatzen eta artzain ere. Arrokaundieta baserritik Eguzkialdera joan ziren bizitzera, artean gaztetxoa zela. Arraunean ibili da: 1956an lehen bandera irabazi zuten Kontxan. Donibaneko batekin ezkondu zen.

Mari Karmen Legorburu Etxebeste (1937)



Zortzi anai-arrebetan gazteena. Ama Hondarribiakoa zuen, aita sanjuandarra. Arrokaundieta jaio zen eta 5 urte zituenean Eguzkialde etxera joan ziren bizitzera. Herriko eskolan ibili zen eta eskola utzi zuenean etxeko fruta, barazkiak eta esnea saltzen hasi zen. 18 urterekin misiotarako nahia piztu zitzaion. Saturrarango komentura joan zen eta handik Gasteizera, gotzaiaren laguntzaile izatera, eta Gasteiztik Markinako eskola laboralera. Madrilen eta Lisboan prestatu ondoren, Angolara joan zen misiolari, 1967an. 5 urte igaro zituen han, gaixotu zen arte. Markinara bueltatu zen eta Gasteizen ere ibili zen lanean, batez ere emakumeekin. Maria Jesus, Ramoni eta Florentino bere anai-arrebak ere elkarriketatuta daude Ahotsak proiektuan.

Maria Jesus Legorburu Etxebeste (1923-2017)



Arrokaundieta baserrian jaioa. Ama Hondarribiakoa zuen eta aita Pasai Donibanekoa. Zortzi senide ziren. Ez ziren etxe jabeak eta artean gaztetxoa zela Eguzkialde baserria egin zuten beherago, Larrabiden, eta hara joan ziren bizitzera. Herriko eskola publikora joan zen Maria Jesus. Baserriko lanetan ibili zen umetatik; bera zen etxeko jostuna. PISBE lantegiko bulegoak garbitzen ere egin zuen lana. Erreteriar batekin ezkondu zen, etxera, eta hiru seme-alaba izan zituzten. [Ramoni](#) ahizparekin batera egindako elkarriketa. Argazkian ezkerrekoa da Maria Jesus.

Ramoni Legorburu Etxebeste (1933-2020)



Arrokaundieta baserrian jaioa. Ama Hondarribiakoa zuen eta aita Pasai Donibanekoa. Zortzi senide ziren. Ez ziren etxe jabeak eta artean gaztetxoa zela Eguzkialde baserria egin zuten beherago, Larrabiden, eta hara joan ziren bizitzera. Herriko eskola publikora joan zen Ramoni. Baserriko lanetan ibili zen umetatik, besteak beste esnea partitzen, eta interina lana ere egin du. Pasai San Pedroko [Joxe Sagarzazur](#)ekin ezkondu zen, etxera, eta lau seme-alaba izan zituzten. [Maria Jesus](#) ahizparekin batera egindako elkarriketa.

Nekane Maritxalar Garbizu (1957)



Aita Errenteriakoa zuen eta ama Antxokoa. Alaba bakarra, 1962an Antxoko ikastolan hasi zen, 9 urterarte; Kontxita Beitiarekin eta Nekane Auzmendirekin ibili zen. Filologia Hispanikoa ikasi zuen, Donostian. Errenteriako Koldo Mitxelena institutuko irakaslea izan da erretiroa hartu arte. Badiako ikastola txikien historia jasotzeko egindako elkarriketa.

Agustin Migeltorena Larraburu (1958)



Donostian jaioa, 12 urtetatik Antxon bizi izan da. Gurasoak nafarrak zituen, euskaldunak; beste asko bezala, aita Luzuriaga lantegira lanera joandakoa. Don Bosco ikastetxean ibili zen umetan. Irakasle Ikasketak egin zituen gero. Argi zeukan euskaraz irakatsi nahi zuela. Andoingo ikastolan egin zuen urtebete, eta 1980an Pasaia-Lezo lizeoan hasi zen lanean; bertako zuzendari ere izan zen aldi batez. Ikastolei buruzko elkarriketa egin genion, Emi Mujika irakaslearekin batera.

Joxe Ignazio Murua Elizondo (1947)



Errenterian jaioa, guraso biak bertakoak zituen. 1971. urtean San Pedrorra joan zen bizitzera. Euskararen aldeko lanetan ibili izan da; besteak beste, San Pedroko ikastolako lehendakaria izan zen eta Gau Eskola sortu zuenetako bat; irakaslea izan zen bertan. Topografoa izanik, Pasaia-Lezo lizeoa egiteko planoak ere berak egin zituen. Ikastolari buruzko elkarriketa egin genion.

Xabier Oiarbide Oliden (1937-2021)



Zortzi senidetan gazteena. Aita Mutiloakoa zuen eta ama zumaiarra; lanak eraman zituen biak Pasai Antxora, eta hantxe ezagutu zuten elkar: aita portuan aritu zen lanean, eta ama neskame moduan joana zen Pasaiara. Eskola nazionaletan ibili zen Xabier, eta 12 urterekin Erreenteriara bidali zuten fraideengana. Gazterik hasi zen Luzuriaga lantegian lanean; 14 urte egin zituen han, eta ondoren 13 urte josteko makina industrialak egiten zituen PAFF lantegian. Beste tailer batzuetan ere jardun zuen lanean.

Kasiano Olano Esnaola (1952)



Donostiako Moneda baserrian jaio zen, baina gero Trintxerpera joan ziren bizitzera. Bertan, aita Izkiña izenarekin taberna jarri zuen martxan eta bera ere bertan hasi zen lanean 22 urterekin. Gaur egun berak du tabernaren eta jatetxearen ardura, eta Mari Karmen emazteak egiten ditu sukaldari lanak. Motokrosean ibilia da, hiru urtez, ezkondu aurretik.

Emilio Olasagasti Lizaso (1920-2016)



Emilio Olasagasti Usurbilen jaio zen, gurasoak bertakoak zituen. Baina, hiru urterekin, familia osoa Pasai San Pedroko Trintxer baserrira etorri zen bizitzera. Aita San Pedroko kale-garbitzaile eta lurperatzailea zen. Sei senidetan bigarrena zen Emilio. Gutxi joan zen eskolara. Hamalau urterekin, Pasai Antxoko txapel-fabrikan hasi zen lanean. Gerora, portuan aritu zen berriz itsasontziak prestatzen eta garbitzen, baita amarratzaile-lanetan ere. Hogeitaemeretzi urterekin, baserritik Pasai Antxora joan zen bizitzera. Geroztik bertan bizi izan da.

Luisa Otero Atorrasagasti (1920-2014)



Pasai Donibaneko ontziralekuan jaioa. Zazpi senide ziren. Aita arotza zuten, bertakoa; ama, berriz, Altzakoa zen. Gerra aurretik janari-denda zuten; baina, gerra garaian ihesi joan zirenez, kendu egin zieten. Pysben egin zuen lana, eta gero Biantxin. [Claudia Sein](#) eta [Anttoni Seguro](#)arekin batera egindako kontu-saioa, gerrako kontuak jasotzeko.

Iñaki Pascual Erkizia (1941)



Donostian jaioa, bi urte zituenean Pasai Antxora joan ziren bizitzera. Lau senide ziren, bi neska eta bi mutil. Aita Errioxakoa zuten, umetan Donostiara joana bizitzera, eta ama donostiarra. Iñakik Donostiako Eskola Frantsesean ikasi zuen, eta Jaurnartzea ere San Bizente elizan egin zuen, amak hala nahi zuelako; horregatik, neurri batean "koxkeroa" dela dio. Antxoko Merkataritza Akademian kontabilitatea ikasi ondoren, banketxe batean hasi zen lanean. Bi banketxetan ibili da lanean, erretiroa hartu arte. Euskaldunberria da Iñaki; 18 urterekin hasi zen euskara ikasten. Jaizkibel mendi taldearen egoitzan elkarriketatu genuen. Izan ere, mendia da bere zaletasun nagusia.

Bibiano Puy Aizpurua (1946)



Donibanen jaioa, aita bertakoa zuen eta ama Donostiakoa. Hiru senidetan zaharrena da Bibiano. Plazan bizi ziren. 12 urtera bitartean herriko eskola publikoan ibili zen. Ondoren, gau-eskoletan marrazketa lineala ikasten aritu zen. 15 urterekin itsasoan hasi zen, etxeko baporean, aita jubilatutik egin zelako, eta 45 urte eman ditu arrantzan. Itsasora joan beharrak bizitza irauli ziola dio: futbola, pilota eta arrauna zituen gustuko, baita ikastea eta marraztea ere, baina ez ziren bateragarriak arrantzale-bizimoduarekin. Erretiroa hartu zuenean, marrazten hasi zen, batez ere Donibaneko kaleak eta paisaiak.

Juano Puy Mariezkurrena (1946)



Zinkuentaerreka auzoan jaioa, sei senidetan laugarrena. Ama nafarra zuen, Eratsun herrikoa, baserritarra, neskame joana Donibanera. Aita Donibane bertakoa, Gaztelu baserrikoa; aita portuan egiten zuen lana, lokomotora batean, eta makina bat ordu pasatzen zituen etxeko baratzean ere. Juanok (Juanito bezala ere ezaguna) Biteri eskolan ikasi zuen, 14 urterarte. Tronboia jotzen zuen udal bandan, eta hainbat kirolean ibili zen: pilotan, atletismoan eta arraunean, Koxtape taldean. OTIS igogailu lantegian egin zuen lana 36 urterarte; krisialdi ekonomikoa zela medio, lantegia utzi zuen, eta Euskal Filologia ikasten hasi zen. Ordurako ezkondata zegoen eta bi seme-alaba zeuzkaten. Geroztik institutoko irakasle moduan jardun du, erretiroa hartu zuen arte. Toponimiazalea da eta Donibanen gaskoiek izandako eragina ere ikertu du. Ubera liburutegian egindako elkarriketa.

Joxe Sagarzazu Etxebeste Xurdo (1933-2021)



Hondarribian jaioa, Amuten, gurasoak bertakoak zituen. Hiru urte zituenean gerra hasi zen. Aita frontera joan zen, eta ama Frantziara joan zen ihesi, seme-alabekin; handik Kataluniara bidali zituzten. Gerra bukatzean Hondarribian ez zuten etxerik. Pasai San Pedrora joan ziren. Zortzi senide ziren. Joxe kofradiako eskolan ibili zen eta eskola publikoan ere bai. 13 urterekin hasi zen lanean, Torre Vergara kaldererian; ondoren, Larrea tailerrean, mekaniko. Hiru hilabete egin zituen arrantzan, soldadutza itsas armadan egin ahal izateko. Boxeolari ona izan zen (Espainiako txapelduna pisu arinetan) eta arraunean ere primeran moldatzen zen. San Pedron hasi zen arraunean eta gero Pasai Donibanen ere ibili zen; Kontxako bandera irabazi zuten hiru urtean. [Ramoni Legorbururekin](#) ezkondu zen, Pasai Donibanera, eta lau seme-alaba izan zituzten.

Jone Sanz Elorza (1949)



Erreterian jaioa (ama bertakoa zuen), Jonek 4 urte zituenean familia Buenavistara joan zen bizitzera eta 14-15ekin Antxora (aita Antxokoa zen eta portuan egiten zuen lana). Geroztik bertan bizi izan da. Lau senidetan zaharrena, Anunciata moja ikastetxean egin zituen ikasketak, Batxiler laborala barne, dena gaztelaniaz. Idazkari moduan hasi zen lanean eta ondoren, oposaketak atera, Hernaniko udaletxean. Ezkondu eta ama zelarrik, irakasle ikasketak egin zituen modu librean. Antxoko ikastolan hasi zen lanean, HHn, 1976an, eta Pasaia-Lezoko Lizeoko irakaslea izan da erretiroa hartu arte (Antxon, San Pedron eta Pasai Donibanen). Ikastolari buruzko elkarriketa egin genion.

Anttoni Segurola Egia (1919-2018)



Pasai Donibaneko Erroteta baserrian jaioa. Bederatzi senide ziren. Aita uztargilea zuten. Anttoni Bordaundi baserrira joan zen bizitzera, eta handik ezkondu zen, arrantzale batekin. Irunera joan ziren bizitzera. Sareak egiten eta konpontzen egin zuen lana. [Claudia Sein](#) (erdian) eta [Luisa Oterorekin](#) (eskuinean) batera egindako kontu saioa, gerrako kontuak jasotzeko.

Claudia Sein Legorburu (1919-2019)



Pasai Donibaneko Bordaundi baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama Lezokoa. Bederatzi senide ziren. Claudia mojetan ibili zen eskolan. 11 urterekin umezain bidali zuten. 23 urterekin ezkondu zen. Saregilea izan da. [Anttoni Seguro](#) eta [Luisa Otero](#)ekin batera egindako kontu saioa, gerrako kontuak jasotzeko.

Patxi Sein Legorburu (1921-2014)



Pasai Donibaneko Bordaundi baserrian jaio zen, bederatzi anai-arrebatan seigarrena. Aita ere bertakoa zuen eta ama Lezokoa. Fraideetan ikasi zuen eta baserriko lanetan hasi zen mutil koxkorra zela. Donibaneko elizako kanpai-jolea izan zen gaztetan. Lau urteko soldaduska egin ostean Meipin hasi zen lanean, baporeek arraina deskargatzen zuten tokian arraina prestatzen. Urte gehien baporeak prestatzen eta zaintzen egin zuen lan: guardia egiten, mantentze-lanetan, itsasoratzeke prestatzen... 55 urterekin jubilatatu zen arte. Pakita Etxarri sanjuandarrarekin ezkondu zen. Emazteak arrandegia izan zuen Donibane kalean bederatzi urtez, eta Patxik arrandegian ere egin zuen lan. Hiru seme izan zituzten eta bertako Donibane kalean bizi izan dira.

Gema Sistiaga Agirregomezkorta (1953)



Hiru senidetatik bigarrena, guraso biak sanjuandarrak zituen. Herriko eskolan ibili ostean, administrari ikasketak egin zituen, Antxoko Urtasun akademian. Familia abertzalekoa, herriko kultur mugimenduan murgildu zen gaztetxotatik: dantza taldean, txistua jotzen... 1972an, 19 urterekin, Donibaneko Ibai Ondo ikastolan hasi zen lanean. Irakasle titulua atera zuen. Gerora Pasai-Lezo ikastola sortuko zuten; bertan jubilatatu zen, 42 urteren ostean. Trikitilaria ere bada, pandero jotzailea: Mentxu Alkortarekin bikotea osatu zuen eta plazaz plaza ibili ziren 80ko hamarkadatik aurrera. Trikitixa Elkarteko lehendakari ere izan zen. Hainbat itsas zeharkaldi egin ditu, Albaolarekin, eta lasterketa herrikoietan ere parte hartu izan du.

Rosa Sistiaga Iparragirre (1950)



Bonantza auzoan jaioa, guraso biak Donibanekoak zituen. Aita itsasontzi mekanikoa zen, eta itsas inspektore moduan egin zuen lan hainbat urtean. Sei senidetan bigarrena zen Rosa. Amona eta izeba ere beraiekin bizi ziren. Eskola publikoan ibili zen Rosa, 14 urtera arte, eta gero administrari ikasketak egin zituen Antxon. Alabaina, ez zuen horretan lana egiteko aukerarik izan, etxean bere beharra zutelako. [Miguel Alkaraz](#)ekin ezkondu zen, eta bi seme izan zituzten. Mutikoak koskortu zirenean, lanean hastea erabaki zuen Rosak: besteak beste Gureak-en ibili zen, eta baita Kutxako Gizarte-ekintzan ere, kultur eragile moduan. Herrian ere hainbat saltsatan burubelarri ibili da: Bonantza auzo-elkartean, jai batzordean...

Xeberiano Sistiaga Legorburu (1921-2019)



Donibaneko Bordaundi baserrian jaioa (gaur egun desagertua). Hiru senide ziren. Etxe ondoko moja ikastetxean ibili zen bederatzi urte arte, eta ondoren Biteri eskola publikoan. Baserritik ateratzen zuten bizimodua. Sagardoa egiten zuten etxean, eta sagardotegia zuten. 16 urterekin MEIPI arrandegian hasi zen lanean. 1953. urtea arte baserrian bizi izan zen. Gero, Guztiz Eder etxea egin zuen familiak, Santa Ana ermitatik gertu. Hondarribiako [Karmen Toledo](#)ekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten. Besteak beste sagardogintza eta gerrako kontuak aipatu ditu.

Lourdes Sistiaga Lujanbio (1945)



Donostiako San Antonio klinikan jaioa, Pasai Donibanen bizi izan da beti. Aita bertako Bordaundi baserrikoa zen eta ama plazakoa, arrantzale baten alaba. Hiru senidetan zaharrena zen Lourdes. Eskola publikoan ikasi zuen, eta ondoren baserriko lanetan (besteak beste, esnea eta barazkiak saltzen) eta familiako sagardotegian aritu zen lanean, ikastola sortuberrian ume txikiekin andereño lanetan hastea proposatu zioten arte. Gau-eskolan euskara irakasten ere ibili zen. Magisteritza titulurik gabe artean; geroago atera zuen, Bergarako UNEDen. Ezkondu egin zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten, eta tarte batean irakaskuntza utzi zuen; gero, Pasaia-Lezo Lizeoan egin zuen lana urte askoan. 2018an Oarsotarrak saria jaso zuen, euskararen alde egindako lanarengatik. [Xeberiano Sistiaga](#) osaba ere elkarriketatuta dago.

Karmele Sistiaga Toledo (1954)



Hiru senidetan zaharrena, ama Hondarribiakoa zuen eta aita Donibaneko Bordaundi baserrikoa (biak daude elkarrizketatuta Ahotsak-en). Eskola publikoan ibili zen umetan, eta Batxilergoa Anunciata moja eskolan hasi bazuen ere, beka bati esker Zaragozan amaitu zuen. Ondoren, Donostian Turismo ikasketak egiten ari zela, Donibaneko ikastolan hasi zen lanean, bertan irakasle beharra zutelako. Andereño ibili da erretiroa hartu arte: lehenengo Donibaneko ikastolan eta ondoren Pasaia-Lezo lizeoan. Magisteritza titulua atera zuen. Badiako ikastola txikien historia jasotzeko elkarrizketatu genuen.

Migel Mari Torrea Etxabe (1966)



Aita San Pedrokoa eta ama San Juangoa, lau anai-arrebatan zaharrena da Migel Mari. San Pedroko ikastolan ibili zen eta gero Pasaia-Lezo lizeoan. Ondoren Madrilen egin zituen ikasketak. Ikastolari buruzko elkarrizketa egin genion.

Felipe Uriarte Camara (1944)



Donibaneko Camara etxean jaioa, bere ama Angelita bertakoa zen, Camara jatetxeko nagusiaren alaba. Jatetxean egiten zuen lana. Aita, berriz, Galdakaakoa, PYSBEra joana lanera; arrantzalea, Galerna bakailao-ontzian ibiltzen zen. Bost senide ziren. Felipek sei urte zituela, familia Galiziara joan zen bizitzera. Aitak Copiva enpresan aurkitu zuen lana, bakailao-ontziak prestatzen. Udan bi hilabete igarotzen zituzten Donibanen; amak eta senide zaharrenek jatetxean egiten zuten lana eta ume txikienak Lete baserrira bidaltzen zituzten. 19 urte zituenean familia Donibanera bueltatu zen. Gurasoak Camara jatetxearen jabe bakar bihurtu ziren (anai-arrebei beraien zatia erosita) eta familiako negozioan lana egitea egokitu zitzairen seme-alaba guztiei. Felipek Ingeniaritza ikasi zuen Donostian. Eskalatzen eta mendi irteerak egiten ere hasi zen. 24 urterekin motxila hartu, eta Frantzia aldera joan zen bizitzera, Chamonixera; han zegoela, Cervino mendiaren gailurra egiteko aukera izan zuen. 1974an Everesterako lehen euskal espedizioan (Tximist espedizioan) hartu zuen parte. 1830 metrora iritsi zen, Migel Rosenekin batera. 1980an Everesterako bigarren euskal espedizioan ere hartu zuen parte; orduan Martin Zabaleta gailurrera iritsi zen. 1981ean *Euskaldunak Everest mendian*, *Buru ilun lurruntsua* liburua idatzi zuen. Hainbat komunikabidetan idatzi izan du. Mendi gidarien Mendiak eta Herriak elkarteko sortzaile eta buru da. Euskaltzalea, euskara galdu, berreskuratu eta sutsuki defendatu duena.

Jose Ramon Yarzabal Salaberria (1930-2019)



Jaizkibelgo Zubiondo baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama Lezokoa. Sei senidetan hirugarrena. Ez zen eskolara joan, gerra parean tokatuta. 11-12 urterekin morroi lanetan zebilen. Arroketan lanpernetan eta lapetan ibili zen umetatik. Gerra ondoren, etxea militarrek kendu zieten. Baserriko lanetan eta arrantzan ibilia. Kabiteko [Elena Etxebesterekin](#) ezkondu zen, eta kantina jarri zuten elkarrekin. Seme bat izan zuten. Aditua da lanperna kontuetan.



Emilia Zabaleta Labaien (1944)



Elena Zurutuza San Sebastian (1935)

Trintxer etxean jaioa, aita Arraiozkoa zuen eta ama Andoaingoa. Lau senide ziren, hiru neska eta mutila. Irungo Anaka auzora ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Itsasoa

1.1. Sare motak

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Manzisidor, Fabian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-003/005
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:08:47. **Bukatu:** 00:10:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena:** Sare mota desberdinak zeuden: ontziaren potentziaren arabera tamaina zuten sareek.

Transkripzioa

- Eta sare mota desberdiñak zeuden? Sare mota, sare klase desberdiñak bazeuzten?
- Berdinek, barku denak ez zuten berdine batzuk haundixoguak, bestiak txikiyo. Zenbat eta barkua indar gehio, potentzi gehio zerian, motorran, ba ibiltzen zuen sare haudio huak ta txikiyogok zianen txikiyo. Baiño sare haundiak zian.
- Haundiak zian?

- Bai.

- Metro askokuak?

- Bai, metro askokuak. Bi beso bezela izaten zun ta geo atzeaka itxi-itxiya ta arraia bi beson zerian sartzen zan ta sartzen zan, sartu sare barrena ta han zakuan, hantxe zakuan gelditzen zan. Geo zakuari jartzen genion barrengo aldian tranpa bat, ez kanpoa ihes iteko arraiak. Ta han gelditzen zan. Sartzen zana han gelditzen zan. Ta geo hoi, igo iten barkuak, beak igoko. Iruitzen zaionian patroiai igotzen zun, bueno, saria gora ta igotzen da ta igotzen zuten barkuak makinillakin igotzen zuten ta geo arraia han etortzen zan zakuan etortzen zan arraia.

1.2. Txipiroiak Pasaiko portuan

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Manzisidor, Fabian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-003/012
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:20:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak
- **Laburpena:** Lehen, txipiroiak harrapatzeko, zaldiaren buztanarekin egindako aparailuak erabiltzen zituzten. Txipiroiak portuan bertan harrapatzen zituzten lehen.

Transkripzioa

- Eta ordun erabiltzen zan materiala arrantza iteko, txipiroitako ta ze, oaingo material berbera zan?

- Ez, ze gaiñea deitzen zan "con cola de caballo" ta izaten illiak.

- A, belarrak edo?

- Horrekin. Deitzen zaio, oain ez naiz goatzen nola dan, deitzen zan. Ta horren zeakin ze iñak, trentzatua, Ta horrekin egiten zan korapillo kabolakok, zea bakoitzak korapillo bat, korapillo bat ta korapillo bat ta hola. Ya atzeaka iten zian, ta harrikin. Gu ta oain bezela ez zan orduan. [...] beheko muturrian ta zea, gu [...] moduko zeak fin-fiñak. Baiño beste gaiñekuak dana [...].

- Ya. Eta txipiroiak-eta nun hartzen zenituzten?

- Edozein lekutan.

- Batelakin noa, batelakin noa ateatzen ziñaten?

- Portuan bertan igual harrapatzen zan txipiroia ta txipiroi txiki hoi San Juaneko denboretan, San Juan denbora ordurako ya hasten zan portuan barruen txipiroi txikik hola. Hasten zan.

- Eta Jaizkibel atzeko aldian eta hortik'e ibiltzen ziñaten?

- Bai ta geo, bueno, horrea juten zian arrantzaliak eta juten zian ta. Goiza izaten zan onena, goiz galba eta geo illunabarra izaten zan onenak. Ya eguna argitzea eta geo illuntzea're bai.

- Goizian goiz?

- Ta geo egunez ere igual harrapatzen zan, ez? Baiño ura haundiyo hondua haundiyo zeon lekura juten zan zea, eguna argitzea. Ta bestela, berriz, goizian eta illunabarrian arroka bazterrian. Ur gutxiyan, zea gutxi, lau-sei braza. [...] aparejua ta tira ta.

1.3. Arrainen inguruko lanetan ibilitakoa

- **Hizlaria(k):** Sein Legorburu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-004/033
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:56:41. **Bukatu:** 00:57:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena:** 20-24 urte bitartean soldaduskan egon zen. Hura bukatutakoan, zortzi urte egon zen lanean Meipin arraina kaxatan sartzen, arrainei burua kentzen, arrainak garbitzen, zabaltzen... Gerora, arrandegia jarri zuen bere kontura.

Transkripzioa

Ta zenbat urtekian joan ziñan zu Loiolara soldaduska, soldadu?

- Ba hoge urtekin.
- Hoge urtekin?
- Bai.
- Hogeitik hogeita lau urte arte?
- Bai, bai, bai, bai. Han [ibili] giñan gu.
- Baiño ia aurretik hasiya al ziñan lanian?
- Lanian hasi? Ez, mollian bai, mollian ibildu nintzan [etxeko] mollian baiño geo arraiya asko ekartzen zituen honea Meipira, ta hor arraiakin, arrayiean zortzi urte in nitun, zortzi urte, zortzi urte fijo.
- Zertan hori, ze lanetan?
- Ba arraiya kajetan jartzen ta buruak kentzen matxetiakin, burua ken..., leatza hartu ta burua kentzen. Zapoai buruak ateratzen. Dena ikasi genun, arraiya. Dena, arraiya garbitzen, dena ikasi genun. Arraiya zabaltzen'e bai ikasi genun, buruak.
- Zer zeon arraindegia hor eo zer?
- Geo nik arraindegia jarri hemen.

1.4. Arrokatan ibiltzearen arriskua

- **Hizlaria(k):** Calafel Trecet, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberría, Idoia
- **Erref:** PAS-019/027
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:43:26. **Bukatu:** 00:45:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak
- **Laburpena:** Arrokatan lanperna eta muskuilu bila ibiltzea arriskutsua da. Ezbeharrak egon izan dira horregatik.

Transkripzioa

- Ta lapak bai, lapak harrapatzen zian han arroketan. Gu ez giñan hara juten.
- Zuek hemen inguruan?
- Bai, hura peligrasua zan ba, ta da ta da. Oain ere itsaso haundia daonian, peligrasua da. Zeatikan eoten omen dia zulueta, zenbat eta zulo gehio

hobeto. Ta zulo hoieta sartzen bazea zeorrekina [...] hara hor hara hor, antsi horrekin ustekabian jaixten zea eta geo zuluak badie ezin dianak itea, larri asko, bai, larri asko. Ta ituak ere badia hor.

- Olatuak han harrapatuz gero?

- Geo, mariajia gora joatea ta han baldin bazeuden, itxea etorri biharko dezu. Handik ezin da, handik igual ez zea ateako. Batzuek ateatzen zien, klaro. Baiño zuluak txarrak dia, zulo hoi ez da ikusten dituzu lanpernak-o, lanpernak gehienetan ta muskuilluak'e bai. Ta harren atzetik bixka bezela joaten zea ta geo atea nahi eta ezin atea. Hori omen du zuluok arroketara joanda, sartu iten zea ta geo ezin atea, larri asko. Ta ituak'e badie, hemen mutil bat bazan itua, nik izautzen nuena urte asko da, ni txikiya nitzen. Ostiral Santu Euna zan gaiña, lanperneta jun ta gixajoa ito in zan. Bai, peligrosua da arroakak. Gu ez giñan arroakazaliak, gu beti hemen. Han puntetan bai ibiltzen giñen, baiño ez haitz azpian e! Hoiak harri koskorra ta harri koskorra botiaz ta loriak hartuaz-ta ibiltzen giñen.

1.5. Sareekin lanean

- **Hizlaria(k):** Legorburu Etxebeste, Florentino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Odriozola Zugarramurdi, Irati
- **Erref:** PAS-023/015
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:18:08. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena:** Sareekin egin izan du lan, eta orduko teknikak azaltzen ditu.

Transkripzioa

- Beste gaiñeakuan hola arrantza jun izandu gea, nik sarian eiten nuen lana, sarian eiten nuen lana eta barkun [...] nagusiak eta iten zuenian geo pruebak itea sariak eta probatzea, motorrak eta probatzea juaten zian ta orduan juaten giñan gu eun guzirako beakin. Goizian ateatzen giñan ta iñularreako etxea etortzen giñan barku bat prueba in ta geo, bai. Beste gaiñekuan, oso polita zan e, nik ez nun behiñ'e ikusi hola nola moztzen dituzten sariak, nola altxatzen zituzten hoi zan ateduna. ateuna esaten genuna. Ateuna da bakarrik aitzen dana. Bi ate eamaten ditu horrek, sarian aurrekaldetik, aurrian ematen ditu. Ta harrekin joaten da saria irikitzen harrekin, denak dijoazte arrastaka, saria onduan ta ate hoiyek zabaltzen dute, altura ematen diote; ta gaurko egunian, berriz, oso ezberdiña dakate hasi aparatua, saria goro, behero arraiya nun markatzen duten aparatua dazkite, dena dena, saria gorao ibili eo behero ibili. Ta aparatua markatzen duten bezela, arraiya harrapatzen dute. Baiño orduan, arraiya nahikua zan. Arraiya orduan harrapatzen zan...

1.6. Sareak konpontzeko teknikak

- **Hizlaria(k):** Legorburu Etxebeste, Florentino

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia - Odriozola Zugarramurdi, Irati
- **Erref**: PAS-023/020
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:26:32. **Bukatu**: 00:27:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Sareak hausten zirenean, nola konpontzen zituzten azaltzen du.

Transkripzioa

- Eta sariak hausten zianen e bai?
- Sariak hausten zianian ba, aberiya batzutan kriston aberiyak eta geo haiyek in behar dia, konpontzekua baldin bazan konpondu eskuz, dana eskuz ta orratzak hartu, orratzakin lehenbizi in behar dezu garbitu dena ondo, koapilloak dana ondo, baiño ez zaitezela deskuidatu zeatik izaten da zuk hasteko [oina bana?] jarri behar diozu, bat, lotzeko, ta geo maillak, según ze maillak, askotan igual bi mailla zabaleran eamaten dituzu aberi guztiyan; bestian, berriz, igual hiru eo lau. Ta behin hiru ero lautik gora hasi ezkeo han puska bat sartu bihar da, puska bat. Bestela lan asko ematen du aberiya horrek, eamaten du bukatzen.
- Ta lan hortan zuek aitzen ziñazten?
- Bai, bai, gu. Exeita jarri alki batian, lurrian aitu izandu gea lurrian. Abilidadia orduan gehio zeon lurrian. Geo, alkiyakin, geo gerriya, beti gerri makurrian, beti gerri makurrian. Igual pasatzen zenun goiz guztia aberi batian e, ezertako altxa gabe. Orratza bestiak bete eta zuk segi lanian.

1.7. Sareak egitea vs sareak konpontzea

- **Hizlaria(k)**: Legorburu Etxebeste, Florentino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia - Odriozola Zugarramurdi, Irati
- **Erref**: PAS-023/022
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:29:34. **Bukatu**: 00:30:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Saregile gehienak gizonak ziren, baina baziren emakumeak ere. Sareak egitea eta konpontzea bi zeregin desberdin ziren, eta denek ez zekizkiten biak egiten.

Transkripzioa

- Ta denak gizonezkok aitzen ziñazten saregille?
- E?
- Gizonetakoak denak saregille?
- Bai. Bazian emakumiak. Hemen San Juanguak bazian, aber: Juanita, Elvira, Maria, Erramunda. Geo, hemen PISBEn, PISBEn ibili izandu dia Erramunda; hoiyek bi ahizpa uste det ziala. Bai, hemen San Juango asko. Bueno, ezautu degu, bai. Arrasteruan, ezautu ditut nik e bost emakume, bai, arrastero saillian. Baiño hemen PISBEn, orduan, gehio bazian, bai, PISBEn. Gero, saria iten zutenak. Karo, saria iten dunak eta aberiyak oso

ezberdiña da. Saria iten duna, iten zuenak aberiyak-et iten ez daki, ez zekiten. "Pues nere koiñata baten..., andria oain siestan do, harrek saria ingo zizun baiño aberirikketa ez zekiten iten. Ez, saria in bai.

2. Aisia

2.1. Estropada hobeak lehen

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Manzisidor, Fabian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-003/013
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:20:39. **Bukatu:** 00:22:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Arrauna
- **Laburpena:** Estropadak beti ezagutu izan ditu Fabianek. Lehengo estropadak hobeak iruditzen zitzaizkion, herrien arteko norgehiagoka izaten baitzen orduan. Donostian eta Bilbon izaten ziren estropadak orduan. Apustu-giroa egoten zen lehen ere.

Transkripzioa

- Orduan, arraunak eta izaten zian, esan nahi det, traineruan zeak eta oain dian bezela?
- Bai, estropadak.
- Estropadak-eta izaten zian?
- Bai, beti.
- Beti ezautu dituzu zuk?
- Ordukoak oaindikan oaingok baiño polito izaten zan. "Amor" propiyo gehio. Herriye, herriye herriyen kontra ateatzen zan ta. Herriye herriyen kontra, San Pedro, San Juan, Oriyo, Hondarrabiya ta hola ateatzen zian.
- Eta hemen bertan'e San Juango bokal hontan'e ingo zian estropadak, sarrera hontan?
- Bai, fiestetan ta hola, baiño orduan ez zan izaten herritan serio. Kontxan. Kontxako preparatzen zian eta geo Bilbaorako'de bai zeozer, baiño Kontxako gehio.
- Ta orduan bazian koloriak-eta?
- Bai, baita orduan bai. Kamiseten koloriak.
- Eta zuek arroxa jazten zenuten?
- Ez genun guk eamaten, ez zeon diruik-eta. Ez [...] ibiltzen.
- Baiño juten ziñaten?
- Oain ibiltzen duten bezela kamisetak-eta ez genun ibiltzen.
- Baiño juten ziñaten ikustea Donostira?
- Bai, ikustea bai, klaro.
- Ta apustuak eta baita ohitura bazeon?
- Hoi bai. Bai, "calle Portaletas" Donostiyan. Nei atea ziaten batian apustura iten bueno ya, ez mutil koskorak gehio, haundiyo nitzala apustura iten korridoriakin ta. Dirua eamaten ta aitu zian telebisiyuan. Atea ziaten [...], telebisiyuan bota zuten.
- Ta ze in zenun ordun? Ze ziñan?
- Orduan? Irabazi in nun apustura ta kobratzea jun nitzan.
- Ta diru asko apustua ite zan?
- Ez, gutxi gutxi. Ez dakit, orduan zenbat jokatuko zan ba, hoge duro ta hamar duro ta hola. Ta hori're asko zan orduan.

2.2. Orduko estropadak eta markak

- **Hizlaria(k)**: Sein Legorburu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: PAS-004/025
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:42:46. **Bukatu**: 00:43:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- **Laburpena**: Orduko estropadatan hainbat herrik hartzen zuten parte: San Pedrok, San Juanek, Donostiak, Hondarribiak... Patxiren osabaren traineruak marka hautsi zuen Kontxan bere garaian, 19:17ko denbora egin zuen.

Transkripzioa

- Ta orduan estropadak eta izaten zian beste herritakuekin ta?
- Bai, bai ,izaten zian San Pedro ta San Juan ta izaten zian Donostiyan, Donostikuak eta Hondarrabikuak eta izaten zian. Gue osabak-eta,

difuntuak-eta, ni nere osaba Patxiku beak jaso zian nei, bere besotakoa nitzan, osaba Patxikuk eta haiek marka hautsi zuen, "diecinueve diecisiete" harek in zuten.

- Hara!
- Haiek jarri zuten marka.
- Nun?
- Donostiyan.
- Kontxan?
- Kontxan. "Diecinueve diecisiete" Ta marka hua ez zuten hausten orduan. Oain, aixago hausten dutela esaten dute oain. Ez? Oain ere ez?
- Ba hautsiya dao baiño...
- Bai, ez dakit zenek, Oriyok eo ez dakit zenek.
- Castrok.
- Castrok hautsi al zun?. Norbaitek bai hautsi zun "diecinueve diecisiete".

2.3. Aita futbolzalea

- **Hizlaria(k)**: Sagarzazu Etxebeste, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: PAS-013/008
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:14:17. **Bukatu**: 00:15:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena**: Aitak, gaztea zela, Roca futbol taldean jokatzen zuen; osabak, ordean, Real Unión futbol taldean. Ezkondukoan, Valentziara joan ziren Joxeren gurasoak, eta han ere aita futbolean aritzen zen.

Transkripzioa

- Geo beste gauza bat. Nere aita, nere aita bere denboretan gaztia zanian futbolian ibiltzen zan e, Real Unión denboa batian Real Madrid baiño hobio zan garai batian. Orduan, nere osaba Antonio Sagarzazu Kanpandegi Real Uniónen jokatzen zun. Eta nere aita, Vicente Sagarzazu Kanpandegi Rocan. Nola hemen Sanse Realen launtzaillia, ba nere aita Sansen, Rocan jokatzen zun. Zian filiala Real Unioneakua. Amuteko zelayian.
- Orduan ona zen futbolean aita?
- Ba-bai. Geo ezkonduata Valentzia jua ziian ta han Valentzian futbolen ibili zan. Ta ama haserre, ri-ra!, uxatu danak [...] eta etxea. Aspertu iten zan bea bakarrik egun guzian etxian, ta aitta...
- Baina Valentzian jaio zian zure aurrekoak?
- Nere anai zaharrena Valentzian jaio zan.
- Lehenengoa jaio zan?
- Lehenengoa. Beste hiruak Amuten, ta geo beste lau San Pedron.
- Ordun, zortzi zeate?
- Zortzi.
- Ez zineten gutxi.

2.4. Arraunlari zen garaiko baldintzak

- **Hizlaria(k):** Legorburu Etxebeste, Florentino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Odriozola Zugarramurdi, Irati
- **Erref:** PAS-023/044
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:11:10. **Bukatu:** 01:12:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Arrauna
- **Laburpena:** San Juango traineruan arraunlari zebilen garaian, zer arropa eta dutxa izaten zituzten azaltzen du. Bateletan asko jokatzeko zuten garai batean.

Transkripzioa

- Eta arropatan ze ibiltzen zenuten?
- Arropa?
- Denok bazenuten traje, denok traje iguala?
- Trajia oain bezela txandarrakin ta? (Barre). Jesus, maria ta jose. Hara!, almazena genun kamaran. Bakizu kamara nun daon? Horren onduan genun almazena ta gero pixka bat lehentxogotik izan deguna plaza aldexio. Gaur erropak busti-bustiyak lagatzen bagenitun, hurrungo eunian han almazena jartzen genitun zintzilik; haiyek busti-bustiyak jantzi, uda ta negua e. Negua, lehen kontatu dizuten berrogeita gehio urte in zuena zuhaitzak eta erre zitunak zeak, jelak. Gu, orduan, plazan elurra jeltua ta hankutsik... Bestela espartañekin ateratzen, ta total espartañekin joan edo ez joan berdin-berdin zan, berdin-berdin. Guk bakigu, lehenbiziko bateletan hasi giñanian, hementxe elizako onduan, taller bat zan arotzeria. Ta han iten genitun, handik batela botzen genun pruebetako. Ur hotzakin duxatzen, negu gorri-gorri-gorrian, Santo Tomaseta gu hasten giñan bateletan estropadak jokatzeke. Geo, Donostiko jaiyetan ta geo, Pazkuetako hasten giñan atzea, zea, trainerillan. Baiño guk bateletan ta estropada asko jokatzen genitun. Lehenbizi-lehenbiziko urtietan estropadak bateletan ia denak. Geo hasi zian trainerillak eta. Nik bakit, hoi eguardian estropadak jokatu eta gero, beriz atzaldian jokatua batelien.

3. Politika

3.1. Gerra hasierako ezbeharrak eta ihesak

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Manzisidor, Fabian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-003/023
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:37:04. **Bukatu:** 00:40:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Gerran gudari ibili zen Fabian. Gerra hasi zeneko oroitzapenak kontatzen ditu. Erreketeek baserri batean ama bat eta bere hiru seme hil zituzten. Fabianen familia Getariara eta Bilbora joan zen ihesi.

Transkripzioa

- Zu gerran ibilita zaude?
- Bai, bai.
- Eta gudari izandakoa zea?
- Gudari.
- Nola izan zan hori? Gerra honea sartu zanian, sartu zianian, nola...
- Gu, izandu zan. Ni gaztea nitzan oaindik, baiño gerra seitzen du ni mendira jun nitzan, Jaizkibelea eta ya gerra ze iñe zan, altxia.
- Bai, honea aillatu zian.
- [...] sartzen ta.
- Tropak eta honea aillatu zian.
- Etorri zan kalera menditikanen, igande batian arratsaldian ta etorri ta kalera ta jode, kalia izugarrizko alborotua. Zea, moruak zetoztela Jaizkibeldi barrena ta zea-ta. Nik amai-ta: "menditik nator ta nola? han ez moruik ez ezer"-ta esan niyon. Ta ez zan moruik eta ezer'e. Eta "ez da moroik zer, zer da?". Ta o Pisbeko barkotan alborotoa. Pisbeko barkoetan hartu erropak eta maletak eta Pisbeko bakaillaotako barkuta jendia ta han sartu, ta han sartu ta barkuak bete ta alde Bilbaora.
- Eta zu barku hartan ziñan?
- Ez nitzan jun. Gu herriyan gelditu giñan ta jendiak alde in zuten ta ni ta hola beste, ni bezela beste batzuk ere herriyan gelditu giñan ta herriyan, geo bijilantzian ibiltzen giñan, baiño bai bazetozen, baiño ez sartu ziela Jaizkibelea. Hemendik barrena, reketiak zetozen, ez moruak. Moruik ez zan azaldu hemen, reketiak. Eta hemen, hil ere in zituzten zerian, baserriko zean, reketiak. Hemen, baserriyan badie hillak, afusillak, tiroz.
- Miurako alde hortan esan nahi dezu?
- Estaziyotik goiko baserrin batea.
- Bai, bai. Ama eta hiru seme, ezta?
- Bai. Alegiya, tiroa botzen aitu ziela beak eta hil in zituztela.
- Bai, hil in zituzten bai.
- Ta oso zeak zian, errex hiltzen zuten reketek. Ta txarren-txarrenak hoiek izandu zian, reketiak. Moruak-eta, hor moroik ez zan azaldu eta guk oandikan in genun zerian, astebete in genun herriyan bertan ta herriya gelditu zan hutsa. Hutsa! Jo ta bueno, azkeneko zerian ba astebete eo pasa genun, ta barkuan sartu giñan ta barko txiki batian, arrantzako barkuan, jun ta Getaira sartu giñan. Han sartuta.
- Famili osoa edo?
- Familiya Bilbaora junda, "hermanak" Bilbaon zeuden.
- Zure, zure familiya, aita-amak eta anai-arrebak-eta?
- Aita ez, aita hilla zan. Gerra aurren, "treinta seis"ian, gerra baiño lehenuo hil zan.
- Ze urtetan goatzen dezu? Ze urtetan hil zan zure aita gogoratzen dezu?
- "Treinta seis"ian.
- "Treinta seis"ian bertan hil zan.
- Baiño hillabete batzuk lehenuo. Bi-hiru hillabete lehenaotik hilla zeon.
- Eta ama ta anai-arrebak-eta?
- Ama beste bi anai gazteekin eta alabakin jun zian Bilbaora. Ta beste bi anai zaharrena, hua frentea jun behar zan Loiola jun zan. Lehenotik gerra altxatu zanian, zerian, frentea, Loiola jun zan. Eta ni hor gelditu zan ta geo jun nitzan ba barkuan, zerea Getaira, geo Getairatik Bermeora jun giñan ta geo Bermeotik Bilbaora.
- Baiño zu bakarrik ez ziñan?
- Han geo billatu nitun ama-ta galdezka zerian, billatu nitun-ta.

3.2. Frontera joateko izena eman zuen

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Manzisidor, Fabian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-003/024
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:40:55. **Bukatu:** 00:42:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerran, Fabian Bilbora iritsi zenean, senideekin elkartu zen berriro eta frontera joateko izena eman zuen. San Andres batailoian egotea tokatu zitzaion. Handik Amaiur batailoira joatea erabaki zuten lagun batek eta berak.

Transkripzioa

- Ta geon han, han naola, gerra hasi zan ta frentea jun bihar, geo. Apuntatu, beste San Andres batailloian.

- Zu apuntatu ziñen?

- Bai eta frentea.

- Eta noa? Nun ibili ziñan?

- Hoi, ba Bizkaiko zerian, Gorbeako behian ta aldamenian, inguruan danak ta geo Santander partian'e bai ta.

- San Andres batailloia zan.

- Bai, baiño geo, gehigo San Andres batailloia. Ta geo handikan pasa giñan, ni juntatu nitzan beste laun batekin ere, nere launakin.

- San Juanguak?

- Bai, zeon "batallón Bolivar" eta tokatu giñan deskantsatzea jun giñan zerian, harrekin topatu nitzan eta harrek esan zian: "Amaiur halako lekutan zioke eta joango al gea?" ta "goazen!" eta in gendun permisoa eskatu kapitanaia eta esan non handik alta ekarri behar genula.

- Ze ekarri?

- Alta, ya hango permisua nola guazen hara eta zea ta zea. In gendun laja armak eta genekagun zeak eta ofizialak eta ikusi gabe zeai, jun, biyok juntatu giñan ta ospa, alde in gendun.

- Ta noa?

- Ta apuntatu giñan "al batallón Amaiur". Herriko denak han zeuden ba gehienak eta gu batailloi haitan guk gutxi ezaunak hola zerian ta hara jun giñan.

3.3. Frontean, italiarrek harrapatu zituzten arte

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Manzisidor, Fabian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-003/025
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:42:37. **Bukatu:** 00:45:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Amaiur batailoian ibili zen gerran; nondik nora ibili ziren azaltzen du: Bizkaian, Santanderren, Santoñan, Laredon... Azkenean, errenditu egin ziren eta italiarren esku geratu ziren.

Transkripzioa

- Zuek hara jun nahi zenuten?
- Bai eta "batallón Amaiur" juntatu giñan ta geo han ibili giñan.
- Ta batailloi horreta, horrekin nun ibili ziñaten?
- Ba Bizkai partian'e bai eta geo zerian, Santo, Santander partea jun giñan ere, Torrelavegako mendiyeta eta handikanen etorri zaigu billa zea Santoña jun bihar genula, barku inglesak zetoztela gure billa, bueno zea itea ta handikan'e Frantzira juteko eta danak "hartu bire ezkerretati eskubira sartu zeatikan hemengo [...] sartuko zeate-ta". Ta bide ezkerreta batailloi guziya jun giñan Santoña. Santoña jun giñen ba barkoik ageri ez. Eon ta eon ta hurrengo egunen etorri ta bat'e ez. Lau egun-o bost pasa gendun han ageri ez. Atzerriko bazetozten, jaitsi ziguten Coñan, Santander aldetik eta Bilbao aldetik ta esan ziguten errenditzeko, bestela artilleriakin hasiko ziela zerian eta ez giñen errenditzen. Ta atzeneako, errenditu in bihar izandu gendun, zeatik barkuik ez zetozen-ta. Klaro
- Ta ya ezin zenuten gehio?
- Errenditu giñanian, italianuak sartu zian ta haik harrapatu zuten ta filan formatu ta armak eta botzeko zerea, formatu ta armak botzeko horrea, aldamenea botzeko [...]. Ta pasa-pasa ta eraman zuten kanpo futbol batea ta han [...], gau guziya han patzen "al interperie" kanpo futbolen ta geo hurrengo egunetik hasi zian, zea Laredora eamaten, kanpo futboletik Laredoa. Ta han jarri ziguten zeria, almazen plaian alanbradakin ta itxi ziguten dana eta jun eunetik eunera jun zian ba lokaletan sartzen guri, batzuk fabrika batea, besteak beste eskoletako zerea, zereta lo iteko-ta. Ta han sartu giñan ta han pasa genun, ez dakit, hillabete-o igual pasako genun o hola.

3.4. Gerran preso han eta hemen

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Manzisidor, Fabian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-003/026
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:45:02. **Bukatu:** 00:47:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Amaiur batailoian ibili zen gerran, eta italiarren esku geratu ziren. Zaragozako kontzentrazio-gune batean eduki zituzten, eta gerora lanean Langileen Batailoian. Handik, Bilbora bidali zituzten trenez eta eskolapioetan egon ziren urtebete kartzelan.

Transkripzioa

- Ta geo handikan formatu, batailloiak formatu zituzten ta handikan San Juan de Mozarrifar, Zaragoza, guri biali ziguten. Beste batzuek "a Miranda de Ebro"-ta. Zaragoza biali ziguten ta hara jun giñan, Zaragoza ta han San Juan de Mozarrifar "a un campo de concentración" zerea, papelera zahar bat zeola han ta han kanpo, izugarritzko kanpoa ta hara eraman ziguten. Ta handikan'e geo, formatu ta "por compañías" lanea bialtzen zuten: bagoia kargatu, deskargatu, kamioia kargatu frentea bialtzeko ta biberiakin ta gauzakin ta holaxe lanian han aitu giñan. Geo, handikan bi hillabete o hola in genun han ta geo han pikatxoia eman ziguten ta pala ta biriak itea.
- Trabajadore bezela?

- Biscarrués ta hor baten bat bizi; Biscarrués, Sabiñana ta hor barrena ibili giñan ta handikan geo zereaka, Kataluña aldea, Almacellas, Leridako ondoa ta Almacellas han bitartio hortan, denbora hortan urtebete ta gehio pasa genun. Ta geo handikanen, han geundela: "venga, a formar" danei. "A formar" esan ziguten ta "ze pasatzen ote da 'a formar'?". Ta ez genekiun ta beno: "Fulano de tal pase ahí, Fulano de tal pase ahí " ikusten genun. "Ze ingo dute afusilatu-o?". Ta [...] geo enteratu giñan ba eskolta batetik Bilbaora goazela. Kartzela, Eskolapiota. Bilbaora esan zigutenian ba gu kontentu ta "Prepara los equipajes" ta hala "a esto" ta gu bagoieta. Bagoian kargatu, bagoietan, han ezer gabe ta Bilbaora gabaz trenian eta Bilbaorantz ein. Aillatu giñanian eaman ziguten "a los Escolapios". Han sartu ziguten ta han pasa genun urtebete ta gehio, kartzelan sartu ta hantxe, jan ta lo bakarrik iten genun hor, ez ziguten lanik iten utzi.

3.5. Fronteko bizimodua

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Manzisidor, Fabian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-003/027
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:47:28. **Bukatu:** 00:51:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gudari ibili zen bitartean, non ibili zen azaltzen du. "Eusko gudariak" abesten zuten garai hartan. Frontean jateko eta lo egiteko nola moldatzen ziren azaltzen du.

Transkripzioa

- Gudari bezela ibili ziñanian, zenbat denboan ibili ziñan gudari bezela? Hasi ziñanetikan Santoñan harrapatu zintuzten arte, ya errenditu ziñaten arte?

- "Trabajo", zerian lehenbizi San Andresen zerian, lanian ta ibili giñan ta geo, ya sei hillabete-o hola in genun atzenian.

- Ta ze ibiltzen ziñaten, mendiz mendi ta hola pentsatzen det ezta?

- Mendiyan armakin frentian, frentian egon ta relebatzen ta zerian. Enemigoa baldin bazetorren, tiro, alkarri tiroka.

- Ta han zer ziñaten euskaldunak?

- Bai, Amaiurren danak euskaldunak. Ta hemengo jendia hoixe, bizi zian Gipuzkoa aldeko jendia dana Amaiurren. Ta bestian, beste batailloietan Bizkai aldekoak, bizkaitarrak eta hola.

- Ta Amaiurren ordun herriako jendia're bazenun? Herriko jendia, San Juangua ta bazan?

- San Juangua ta asko, jende asko. Horreatik jun giñan gu Amaiurrea, horregatik jun giñan.

- Eta kantatu ta hola ingo zenituzten zuen kantak?

- Bai, "Eusko Gudariyak" gera hori.

"Euzko Gudariyak gera
Euzkadi askatzeko,
gerturik dauzkagu odola
bere alde ez emateko".

- Hoi zan pixkat sentimentua adierazten zuna, ez?

- Bai.

- Zuek han egotian ze sentimentu zenuten-edo.
 - Bueno, geo zea, kantatzeko gogoik ez zan izaten.
 - Ez zan izaten, ez?
 - Ez. Han ze in ta lo, lo faltian ta zerian ta ez zen pakia zanian. Ordun, retaguardiya pixkat atzea jun ta lo iten genun, tapatu ahal zan bezela zeakin ta kaputxakin ta zean-ta. Ahal zan bezela lo ta, zutik, ixirita're bai lo ta ahal zan bezela.
 - Asko ziñaten?
 - Batailloi bat, bai.
 - Bastante. Bai. Eta jana-ta, nola? Jatekua-ta nola?
 - Jan? Zeak iten zuten, atzian, frentetik zerea ta geo ekarri iten zuten muluakin-ta.
 - Astuakin ta hola?
 - Manduakin ta.
 - A manduakin?
 - Manduakin, bai.
 - Ekartzen zizueten jana, zuek jatekua.
 - Jatekua, beti beti.
 - Beti beti ez zan ailleatuko? Beti ez zan ailleatuko?
 - Ez, keba. Goizian atakia eo baldin bazan, konbatia baldin bazan bat'e jan gabe eon bihar ta boltsak ematen zizuten ya kontserbako gauzak eta zean ba jateko hola zerian. Zeozer zanian.
 - Ta beti birian topatuko zan jendia launtzeko prest zeona, ezta?
 - Launtzeko? Han dana launtzen giñan, gue aldekuak.
 - Bai, zuen bai alkarren artian baiña gero...
 - A beste jendia? Ez, frentin ez zan jendik eoten, beste jendeik. handi alde, biali iten zituzten frentian-ta.
 - Oseake enfrentamendu zuzena zeon han. Enfrentamendu zuzena?
 - Bai. Han ezin zan, beste jendeik ezin zan euki. Tiroka ta zea, gaiñea artilleriyakin ta zeakin ta. Handik beak alde iten zuten gaiñea.

3.6. Francoren lagunak garrantzia

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Manzisidor, Fabian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-003/038
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:10:21. **Bukatu:** 01:11:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra ostean, Frankismoa etorri zen. Alemaniak eta Italiak lagundu izan ez baliote, Francok ez zukeen gerra irabaziko. Alemaniarrek kriminalak izan ziren.

Transkripzioa

- Gero, gerra bukatu zanian etorri zan, klaro, Franco, frankismo garai gogor guztiya, ezta? Hor debekua...
 - [...] zian, abiazizua dana alemanak laundu ziyoten ta guk ez genekaun launtzik esateko. Ta akabo! Holaxe galdu genun zea. Oan, ez bazuten alemanak eta italianuak laundu, Francok ez zun gerra irabaziko, ez zun irabaziko. Baiña hoiek laundu zioten abiazizukin, bonbardeua txikitzen zuten dana alemanak: Gernika ta zea guziya. Hoiek kriminalak izandu zian,

alemanak'e.

- Txikitu zuten dena.

- Pertsonen zeriak soldaduskan aurrian ez, baiño zerian bonbardauakin ta izugarriyak in zituzten.

3.7. Frontera garbi joan eta zikin itzuli

- **Hizlaria(k):** Sagarzazu Etxebeste, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** PAS-013/006
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:12:05. **Bukatu:** 00:13:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra aurretik, aitzak Antxoko moilan egiten zuten lan zamalanetan; gerran, Katalunian ibili zen frontean. Joxek baditu gerrako oroitzapenak: kanoiak eta soldaduak frontera garbi-garbi joaten ziren; eta etorri, orde, zikin-zikin.

Transkripzioa

- Ta aita gerra aurretik zertan zebillen lanian?

- Antxon moillan.

- Moillan?

- Moillan.

- Moillako lanetan karga ta deskarga ta?

- Hoixe bai. Barkuak deskargatzen ta barkuk kargatzen Antxoko mollar lana iten zun. Geo gerra bukatu zanian jua zan hara ta ospa ospa. Ta launak behar.

- Nun ibili zian frentia ta ze batailloi bakizu?

- Hemen e hemendik Pasaitik hasi zian barkua ta Terranova juaten zian, San Juan, Saint Pierre Miquelon ta hoita, paraje hoita. Terranova joaten zien.

- Baiña aitzak lehorrian iten zun lana?

- Aita lehorrian baiño geo "ya" baporian, barran, makinan.

- Gerra garaian frentera, frentera jun zen?

- Bai, Kataluñan.

- Aita Kataluñan ibili zan frentian?

- Bai, morroiyaikin, republikakin.

- Ta ze batailloi eo zer zan bakizu?

- Ez dakit ze batailloi zan, hoixe ez dakitela. Batailloia ta numeroa ez dakit.

- Nik bakit etortzen zienian mandua ta kañoia ta zikiñ-zikiñak etortzen zian. Berriz juaten zien denak brillante-brillante juaten zian. Relebo iten zian, batzuk etorri frentetikan ta bestiak jua iten zian.

- Kataluñan zeundetela hori?

- Bai, Kataluñan. Nik hori ezautu det.

- Zikin-zikin jun ta geo bueltan?

- Bai. Frentera, kañoiak denak brillante, denak garbi-garbiyak, mandua garbi-garbiya, dena txukun-txukun, taka-taka-taka. Baiño geo bueltan etortzen zienian, nekatua, jende nekatua, ziikiña ta bizarrakin. Ta gero hara, haruzkuan berriz denak garbi-garbiyak joaten zien.

3.8. Gerraren alde ilunaz ez zen konturatu

- **Hizlaria(k):** Sagarzazu Etxebeste, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** PAS-013/007
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:13:48. **Bukatu:** 00:14:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Jende asko hil zen frontean, baina bera umea zenez, ez zioten ezer esaten. Aita ez zuten preso hartu inoiz.

Transkripzioa

- Han asko hilko, jende asko hilko zan frentian. Aitan ezaunak ere hilko zian?
- Bai baiño nei ez ziaten ezer esaten.
- Karo.
- Hirutik sei urtea, edade adiñ hortan ez da, ez da...
- Aita preso hartu suten momentu baten?
- Ez. [Hua preso ez zuten harrapatuko].
- Abilla zan.
- Motela ez zan e, motela ez zala, mekauen...

3.9. Gerraosteko gosea

- **Hizlaria(k):** Etxebeste Martiarena, Elena
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** PAS-016/006
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:09:27. **Bukatu:** 00:10:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerraostean, jendeak estutasunak pasa zituen.

Transkripzioa

- Orduan, gaiñea, garai haitan ez pentsa e, gerrako denboan ta hemen "en general, bastante" ondo dabillena're gaizki pasa zun. Nik uste det baietz. Nik ezautzen nun[anaz] konturatzen naiz matrimoniyo bat biyek lanan itten zutela. Ba ez zuten haurrik eta gerrako denboa zen eta etorri zen honea, asko ezautzen genun eta beai beira ta beira ta beira ta halako batian gizona harrittu iten zen eta ne amak iten zun hizketan ta Rafael zun izena ta, "Rafael, zenbat flakatu zea?" Ta bea in zen harritu. Ni hain ttikiya ta konturatzeko zenbat flakatu zen bea. Ez, gauza polittak badia, bai, badia, "o sea", polittak ikusteko e, ez pasatzeko haitatikan.

3.10. Francoren bisitak ogi gehiago eta hobe ekarri

- **Hizlaria(k):** Etxebeste Martiarena, Elena
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

- **Erref:** PAS-016/013
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:20:10. **Bukatu:** 00:21:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerraostearekin batera, garai gogorak etorri ziren. Janari gutxi egon zen. Abuztuan, baina, Franco Donostiara etortzen zenean, ogi gehiago eta hobe izaten zuten.

Transkripzioa

- Ta geo, horren ondorea, oso goorra zen gerra etorri zenean. Ia orduan ogiya aillatu zen garai batean, zea bi boillo denantzako. Zea, nola raziyoko ogiyak izaten dian zea bokadillo bat jartzeko, bokadillo un poco amplio esaten den bezelakoa, holako bi, eta horrekin ze?
- Denantzako?
- Denantzako. Holaxe, gogorra, gogorra. Geo izaten zen politta agostuan Franco etortzen zen Donostira ta orduan ogiya gehio izaten zen, "que rico".
- Bai, propina orduan, Franco etorri zen?
- Bai, ogi gehio izaten zen ta zuriyaua; bestela, beltzagua izaten zen baiño, orduan, hemen pasten zun, ez dakit zenbat denboa pasten zun; hala izaten zen, bai.
- Ordun, razionamendua aldatu egiten zen Francokin?
- Bai, bai, bai, bai, bai.

3.11. Gerrako tiroen oroitzapenak

- **Hizlaria(k):** Etxebeste Martiarena, Elena
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** PAS-016/015
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:25:38. **Bukatu:** 00:26:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra hasi zeneko oroitzapenak ondo gogoan ditu: tiroka ari ziren soldaduak, eta beraien etxera Lezoko amona bat etorri zen babes bila.

Transkripzioa

- Orduan, gosia gosia're pasa zenuten?
- Bai, bai, bai. Orduan, nik uste gehienak pasa zutela gosea.
- Zu akordatzen zea gerra hasi zanian ze, hemen ze ze gertatu zen gerra hasieran?
- Goatuko ez naz ba, oso, oso ondo gaiña goatzen naz. Oso ondo goatzen naz.
- Zuk bost urte zenitun?
- Bai, hola hola izango nitun. Ni treinta y unokoa naz, otsaillekoa eta handik tiroka han hauntzagotik, hemendikan bi kilometroa gutxi gorabehera esaten dizut, piñuteia zen eta geo torreaño etorri zian. Eta gue aitta, amona bat Lezon bizi zen. Ta amunak esan [omen] zun ikara ematen ziola, mendira nahi zula ta. Nere amak esaten zun "hobeto zauden Lezon, ez hemen. Hemen tiroka ai dia [...]". Ta amunak esan zun nahi zula, beno,

gela jarri geniyon amunai beak lo itteko eta kandela behar zula, kandela ta esaten zion nere amak nere amak bere amai esaten zion nere amonai "ez, ez, ez, kandela ez, bestela tira ingo dizute". "Ez, ni xaharra naz ta nik behar dut-ta". Joan zen leihoa ta danba tirua. Ta orduan ya...

3.12. Soldaduen errukia

- **Hizlaria(k):** Etxebeste Martiarena, Elena
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** PAS-016/019
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:34:28. **Bukatu:** 00:35:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- **Laburpena:** Soldadu batzuek behiak eraman nahi izan zizkieten, baina azkenean ez zituzten eraman, familiak haien behar handia zeukalako.

Transkripzioa

- Ta zuei e arkumerik eta edo?
- Ez genun arkumeik eta guk.
- Oillaskoik eo kendu zizueten?
- Batek hemendik eaman zittun behiak martxan hartuta. Behiak eamaten baziguten eta Andreko, beste baserrian andria alarguna zen eta hua're etorri zen, ume guziyak osea pelikula, pelikula; ez eamateko, dena nearrez ta bueno, joan zien. Behiakin ze ingo zuten ez zuten ezer eingo, behiak eamanda ze ingo zuten behiakin, kanpon utzi nonbaite? Biño, denboa gutxi zen e, biño gutzako tristia zan ta batik bat taka-taka, dirua ta umiai. Nik oain askotan pentsatu izan dut tartian, denak haundiak badia [sartzen ze] etxe barrenian. Biño gu [atera] iten giñan, hoi bai e, "contra la pared, contra la pared!" esaten zuten horkuak eta gu paretan ondon. Hoi bai, pareta ondolik joaten giñan.

4. Ohiturak eta bizimodua

4.1. San Kristobalگو gotorlekuko zaintzaile

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Manzisidor, Fabian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-003/029
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:52:27. **Bukatu:** 00:56:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Langileen Batailoian egon ostean, soldaduskara joan behar izan zuen. San Kristobalگو gotorlekuan behin preso batzuek ihes egin eta zentinela hil zutenekoa kontatzen du. Fabian gerora izan zen San Kristobalگو zaintzaile eta gustura egoten zen han.

Transkripzioa

- Ta geo handikan'e soldaduska "al regimiento America a Pamplona", soldaduska.
- Prisionero hartu ta tartian soldaduxka ordun?
- Geo, soldaduska. Hork urtebete ta geo pasa eta geo soldaduska ta berriz'e soldaduskako denbora itea.
- Zenbat urtekin hori, soldaduska?
- Segidan, dana segidan, dana segido izandu zan.
- Dena segido izan zan, klaro.
- Hillaete hori bakarrik laja ziaten etxea. Kartzelatik biali ziatenian. Eta...
- Bilbon?
- Bai. Ta soldaduska hasi ta soldaduskan neola Pamplonan, konpañi bat hilletik hillea relebatu iten zan "al Fuerte San Cristobal" presuak kontutea eta gero, nei tokatu zaiten geo jutia, tokatu zanian gue konpañia, jun giñan gora, San Kristobal. Eta han eun batian, han naola egun batzuk banemaazkin eta han nagola zea "garita de la muerte" deitzen ziyoten, handik itzuli in zuten ofizialak, militarrek. Bueno, ofizialak guetakuak zianak ta ihes in zuten zentinelara ia hil zuten gaiñea, ihes iteko hil in bihar. Hil zuten ta handik iges in zuten eta toki hartan, geo garita harri deitzen ziyoten "garita de la muerte". Eta iñork ez zun jun nahi izaten, ezautzen zunak ez zun jun nahi izaten hara eta nei tokatu zitzaiten batian ta zer ikusiko ta han garitan naola: "Fabi, Fabi!" ta. Nei nere izenakin deika. "Aiba!" Beidatzen det eta aiba! San Juango herrikua, nere herrikua, "comisario político" zena, "pena de muerte" k hil zuna. Ta hizketan beakin aitu giñan han zerian, ta nik deitu niyon "hor kontuz ofizialakin", atzeko aldian han lo iten zuten zerian apartamentotxo batian. Ta "kontuz" zea nik eta hizketan handikan'e. Bere amai-ta ze iteko ze.
- Ze esan-o. Bai.
- Ta geo ni zerea etortzen zian, Pamplona etortzen zian horren ama-ta erropak eta nei ekartzeko ta beakin hizketan eoten nitzan nola eendu nitzan zean ta poza hartu zuten. Geo, danak horreatik, zea horrek, herriko horrek, deitu bee lagunai ta kartzelan zeudenai ta beakin zeudenai ta deitu ta erakusten, Amaiurren ibiliya nitzala ta zean ta San Juangua nitzala ta jo, danak nei ikustea ibiltzen zien. Ta gero, tokatzen giñanian hara, eunetik eunera tokatzen zanian, nei beste tokira igual tokatu ta kanbiyatu iten gendun. Horrea tokatu zanen, nik horrea jutun.
- Harea eskatzen zenun juteko haiengana ezta?
- Nik bai. Nik ez nakan beldurrik orduan ze iteko.
- Hombre! Ez zitzaizula ezer pasako zuri, ezta?
- Ez. Gustora jutun nitzan horrea, beakin hitz iteatikan-eta.
- Klaro. San Kristobalgo kartzela hortan euskaldun asko eon zan.
- Asko zeuden bai.
- Asko zeuden prisionero. Hemen hartu ta harea eramanak.
- Geo horrea eramanak, "Fuerte de San Cristobal". Beste batzuk beste tokira-ta.

4.2. Anaiak ez zuen edaten sagardorik

- **Hizlaria(k):** Sein Legorburu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-004/010
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:16:25. **Bukatu:** 00:17:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- **Laburpena:** Patxiren anaia batek ez zuen sekula edaten sagardoa. Soldaduskara joan zen eta handik bi urtera etxera bidali zuten oso gaixo zegoelako; hala hil zen 3 hilabeteren buruan.

Transkripzioa

- Nik guk anai bat genun sagardoik ez zun probatu're iten harrek, [xixarrik] ere ez, behiñ ere. Hura, ta zuen katillo bat katillo bat katillo handi bat beretzako aparte. Ta geo soldado jun zan ta soldaduska joan zala soldaduskan harrek bi urte in zitun, ta itxea bialdu zuten gaxoikanen. Bai, zea, bakizu, nola izaten da, "pues" ez zeola ohitua eaten basotatik eta zeatikan'e kazuetatik ta hola ta harek beak eamaten zula katillua erositat soldaduskan ere, baiño baporian ta juaten zianean puskatzen bazun geo nunbaitetik ean in bihar ta botillatikanen, eta gaxoik etorri zan fuerte, etorri zan kanzerrakin itxea ta pasa zun, zenbat?, hiru hillabete pasako zun bizirikan, beti eztulka ta beti zean ta.

4.3. Karga gehiegi eramateagatik baporeak hondoa jo zuenekoa

- **Hizlaria(k):** Sein Legorburu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-004/046
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:23:32. **Bukatu:** 01:24:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak
- **Laburpena:** Baporeek sirenak izaten zituzten, eguraldi txarra zenean elkar ez jotzeko. Bapora batean, behin, arrain gehiegi sartu zuten eta baporea hondora joan zen, karga ezin izan zuelako aguantatu.

Transkripzioa

- Ta izaten zituzten sirenak eo baporiak ordun sirenak?
- Sirenak? Bai, espezialak'e bai. Han, itsasuan alkarrekin ibiltzen zian ta askotan baporiak txistuka. Igual laiñua betia itsasua, ta txistuka baporiak, alkarrei txistuka.
- Baezpare?
- Baezpare. Jo gabe alkar, txoke in gabe ta. Sariakin arpilla sartu gabe ta. Buenooo!, txistuka ta asko e.
- Ta ordun ekaitzak ere izango zian?
- Ekaitzak? Bai galantak ekaitzak izaten zituzten. Uuuu! Baporiak ia galduak, galdu're bai [...] ta hua hondoa jun zan. Baiño hua ekaitzakin ez, arraiya gehiegi sartu baporian barrenen, bodegan asko iduki, ta geo larogei tonelada eo ez dakit zenbat hartu zuela sarian. Dena sartu batian ta baporia ipurdiz gora hondoa.
- Karga gehiegi?
- Karga gehiegikin, aguantatu ezin. [...] pixkanaka sartu, polliki, bost tonelada, lau tonelada; pixkanaka sartu, iriki, jarri bere tokiyan, ta ez zan hondoa jungo.

4.4. 'Pasaiaiko plazatik' bertsoa

- **Hizlaria(k):** Sein Legorburu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-005/066
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:22:39. **Bukatu:** 01:24:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** 'Pasaiaiko plazatik'en hainbat bertso abesten ditu.

Transkripzioa

- Pasaiaiko plazatik, dator notiziya...

Pasaiaiko plazatik
dator notiziya:
zezen bat atera da
jenioz biziya;
kantatutzero nua
bertan ikusiya,
kontsolatzeko triste
daguen guztiya.

Santiago-eguna
Pasaian siñale,
allegatu ez danak
egin beza galde;
hasiieran jendia
zezenaren alde,
azkenian etziran
arriatu-zale.

Torillo-bazterreko
barrera tartian
zezen bat pasatu da
kolera batian;
plazatikan kanpua
zeudenak pakian,
erdiyak purrukatu
ditu hanka-pian.

Batek txapela falta,
bestiak txaketa,
lurrian silipurdi
negarrez eta buelta;

- Bueno bukatu da!
- Earra, earra. Buruz dakizkizu!
- Bai, baiñon... bai baiñon hamalau bertso dia.
- Bai, asko dia.
- Baiño denak eztakizkit e!? Baiño pixkat badakit, pixkat badakizkit.
- Badakizu. Memoriyan dituzu.
- Bai, bai.
- Ondo, ondo. Oso ondo kantatzezu gaiñea e!

4.5. 'Eskerrik asko, Jauna'

- **Hizlaria(k)**: Sein Legorburu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: PAS-005/090
- **Iraupena**: 0:00:14. **Hasi**: 02:03:36. **Bukatu**: 02:03:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- **Laburpena**: 'Eskerrik asko, Jauna' abesten du.

Transkripzioa

Eskerrik asko Jaun
biyotz-biyotzetik
eskerrik asko Jaun
orain eta beti

4.6. Arropa erosi egiten zuten

- **Hizlaria(k)**: Etxebeste Martiarena, Elena
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberría, Idoia
- **Erref**: PAS-016/012
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:18:20. **Bukatu**: 00:20:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Lehen arropa gutxi zeukaten, eta ama ahal zuen bezala moldatzen zen denen arropa garbitzeko. Arropa eginda erosten zuten Errenteriako "Irunesa" dendan. Amak ez zuen izaten denborarik arropa josteko.

Transkripzioa

- Eta erropa're ez zenuten eukiko nahi beste?
Keba!, keba! Amak iten zittun ohira bidali guri ta batzuen su ondoan jarri garbituta ta ahal zun bezela, neguan, behintzat. Udarán, pues ez, ez, keba!, keba! Orduan zen pobrezia, hola esaten den bezela, haundiya, haundiya, haundiya.
- Erropa ze iten zen, tela erosi ta gero etxian josi ala nola iten zenuten?
- Ez, nik izautu dut kalia Errenteyan erosten genitula, oaindik goatzen naiz zein dendetan ta.
- Tela?
- Ez, ez; egiñak, egiñak, egiñak, bai, egiñak.
- Ta nola izena zun dendak?
- Irunesa, ordun esaten zioten, Calle Viterin dao oaindikan'e, oaindik segitzen du.
- Orduan erropa inda, soiñekoa ta?
- Bai, bai, arropa gutxi; juxtuak eosten zian ta igual baten batek ematen zizun. "Era un regalo" esaten dan bezela.

- Amak ez zun eukiko denborarik josteko ta.
- Jesus, Jesus, Jesus. Goizian kalea juan ta zazpi ume hemen; Jesus, Jesus. Ez ez zeon.
- Gainera alargun gelditu zanian zuek txikiyak izango ziñeten?
- Hoixe, nik hamahiru urtetik azpian geatu nitzan, ta bestia hamahiru urtetik hamalaura, zazpi geatu giñan. Zaharrenak hamalau eskasakin eta ni hiru eskasakin geatu giñan.
- Orduan, lanerako esku gutxi ta jateko?
- Bai, apetittu ona.

4.7. Milizianoak etxean

- **Hizlaria(k)**: Etxebeste Martiarena, Elena
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: PAS-016/018
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:33:13. **Bukatu**: 00:34:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerrako milizianoen janzkera, hizkera... gogoan ditu. Milizianoak ez ziren denbora asko egon Elenaren familiaren etxean, baina orduko anekdotak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Ta milizianoak ta emakumiak hemen eon zienak nola zeuden jantzita?
- Buzuekin, "buzo kaki".
- Buruan bazuten txapelen bat eo zerbait?
- Hemen eondu zienin nik ez nioten ikusi. Karo, nik komuneko leihotik beiratzan nion, klaro, ni ume ttikiya ta bakizu, "curiosidad". Ikusten niyon petxo handiyakin ta nik beitu... (barre).
- Haiek bazekiten euskaras?
- Erderaz ibiltzen zien gehienak hemen, erderaz, erderaz ibiltzen zien.
- Irun aldekoak izango zian igual?
- Posible da, posible da. [...] nundik noa zabiltzaten biño ikusten zen tarten bazakitela euskaraz zeatiken konturatzen zien zenek zakin euskaraz ta zenek ez.
- Ordun, batzuk bazekitenak?
- Klaro, klaro, karo.
- Denbora asko in zuten hemen?
- Ez, ez, ez, ez. Bastante aguro joan zien.
- Ta gero bestiak ere agudo?
- Bai. Geo nere amai esaten zioten "ui, atzetik heldu dienak gosia daka. Teta jango dizute" haur txikiagatik, neregatik. Nere ama ikarakin jan ingo ziotela (barre).

4.8. Dotrinaren garrantzia

- **Hizlaria(k)**: Etxebeste Martiarena, Elena

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: PAS-016/026
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:49:21. **Bukatu**: 00:50:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- **Laburpena**: Lehen oso inportantea izaten zen dotrina ikastea: Elenak San Juango elizan eta etxean amarekin ikasi zuen. Orduan ikasitakoak oraindik gogoan ditu.

Transkripzioa

- Ta oso inportantea izaten zen lehen dotrina ikastea?

- Bai.

- Komunioa iteko. Nun ikasi zenun?

- San Juanen, San Juanen, bai.

- Eskolan ez?

- Ez, ez, ez. Elizaa joaten giñan, elizaa. Ta geo amak, amak etxian. Hamar mandamentuk eta bestea, bestea nola zen? Artikulu fedeak dirade hamalau, lehenengo zazpiak[...] ta beste saspiak [...] gure Jesukristo jaungoiko ta gizo...]. Joe, amak ya hartzen zizun aber, benga ta benga, ta bueno, hara joatea. Oaindikan goatzen naz [...]. "Lelengua jaio zala Santa Maria Birjina [...] Kristo jaio baiño lehenao jaio ezker", ta bueno. Geo, beste zazpi mandamentuk'e bazien. Ta ni harritzen naizela pixka bat oain askotan burua etorrita. Hamar mandamentuk ta geo azkeneko hamar mandamenduak enzerratzen dela [bitan], zerbitzea, amatzea jangoikoa gauza guztien gaiña amor projimua geren burua bezela..." Ta lehenatikan hainbeste mandamentu ekartzen zun, hor dena bukatzen zen. Lehenbizikoak alferrik zeozten. Baiño orduan dotriña bai, baiño asko etxian nola ez jua ta ibiltzetik asko atzeneko momentutan, zea dotriña.

4.9. Apaizari konfesatutako lehenengo "bekatua"

- **Hizlaria(k)**: Etxebeste Martiarena, Elena
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: PAS-016/027
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:50:53. **Bukatu**: 00:51:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Lehenengo aldiz konfesatu zenekoa gogoan du. Anai-arreben artean ezizenak jartzen zizkioten elkarri; eta horren harira konfesatu zuen bere lehenengo "bekatua".

Transkripzioa

- Biño, nola esango dizut ba nik, goatzen nas lehenbiziko zea konfesiyoa in nula. Esan dizut ba lehen, pelotetan ibiltzen giñala ta nere anai batei hola batat bestiai motia jartzen genion ez, eta nere anaiak zun Kiko. Ta batzuk, "Nik ez dut kristal hori hautsi ta denek esaten genun, iñork ez genula hautsi. Baiño ama etortzen da ta "baiño zeinek hautsi du kristal hau?". Ta nere anaiak esan zun harek ez zula in. Eta guk esaten genun gozian jaiki ta hautsi zula hua. Ta geo nik ta bestiak danak esaten genun: "Kiko, Kiko

jaikiko, goizeko seietan komuera juan ta kristala hautsiko". Ta joan zan ba apaizana ta "aber, aber, esan nazu ze pekatu dakazun, ze in dittuzu?". Ta beai esan nion: "Kiko, Kiko jaikiko goizeko seietan ta komunea joan ta kristala hautsiko". "A, ta lapurtu in dezu txokolatea amai?". "Ez zun txokolateik".

4.10. Garbitegiko ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Calafel Trecet, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: PAS-019/006
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:08:07. **Bukatu**: 00:10:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Manoli joaten zen lehen garbitegira. Egun bakoitzean arropa mota bat garbitzen zuten. Arropa tontorraren gainean arroparik onena jartzen zuten. Arropa garbitegian garbitu ostean, etxean lehortzen zuten.

Transkripzioa

- Eta erropa garbitu ere bai?
- Bai, labaderoa joaten nitzen ni. Ni nee ixtoriya kontatuko dizut. Ni joaten nitzen iturrira, hemen baztarrian labaderoa bazeon haundi bat, oain'e hor dao, baiño ez da iñor joaten. Joan, futbolekoak-o jazteko ibiltzen dute labaderoa. Eta egun batian, astelehenian, por ejemplo, arropa zuriya iten genun ta geo hurrengo egunian, arropa kolorezkua. Bi txandetan iturrira ta han bueno, jabonatzek genitun arropak eta geo, zea kalderian tontor-tontorra jarritz arropak onena baldin bazenun gain-gaiñian. Zertako? Jendeak ikusteko. Ohitura. Arropak onena, gona azpiko bat-o bazenun, han puntillak erakutsiz. Ai ama! Oain ez dao holakoik. Ta bueno, ohitura hoiek zien. Hartzen genitun bi, bi zeak, bi nola deitzen die, bi pozal deitzen die, "pozos". Bueno, bi zea ta bat jabonatzeko ta bestia aklatzeko. Geo han aklatatu, ondo-ondo ta seka-seka in eskuakin. Bueno, bihurtu ta geo etxea. Ta etxean ba balkoiak, balkoi ederra dao hemen bai, ta hemen berehala lehortzen zien arropak. Eta geo labadora atea zan ta labadorak beak ateatzek du ya ze eiña arropa, bihurtua. Ta ez zun beharrik orduan eskuz ta aitzeko.

4.11. Harria ateratzen izandako istripua

- **Hizlaria(k)**: Calafel Trecet, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: PAS-019/011
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:18:52. **Bukatu**: 00:20:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

- **Laburpena:** Egun batean, arropa garbitzen ari zirela, inguruko etxe bat egiten ari zen langileetako batek istripua izan zuen menditik harria ateratzen ari zela.

Transkripzioa

- Egun batian, ixtoriya kontatuko dizut. Jabonatzen ai giñen hor goian eta etxe bat iten aldamenen etxe berri bat, hor iten ai zian gizaseme pilla bat, zea horkoak, Cacereseakoak zian. Eta in bihar izaten zuten hormen beheian arroak atea, arroak ateatzen ai zian, harriyak itxia iteko. Ta harriyak ateatzen ta egun batian hoi: "auxilio, auxilio" ta hoi. "Ze pasatzen da?" ta gizon denak korrika. Ze pasako zan, arroka uste baiño lehenaotik erori zan ta gizon bat harrapatu zun. Ta "uy, que le ha cogido". Ze harrapatu du gizaseme bat eta berihala igo zian kuadrilla ta zeakin, "este" ez dakit nola deitzen zien burni haundi haiyek. Bueno.
- Palanka?
- Bai, palanka. Palankakin hasi zien aber harri hoi, harri haundiya zan ta gixajo hurai "tai-tai-tai" azkenean za[...] atea zuten, baiño birian zeamatela ospitalea hil zan. Hil in zan gizon hura. Ai! Eta hor ibiltzen zien harriyak ateatzen itxi hori iteko. Hor dao itxia iña.
- Askotan, normala zen harrik hortik ateratzea?
- Bai, bai, harriya, mendiyan harriya zeuden ta handik harriya ateatzen zuten.
- Hemengo etxiak'e horko harriakin daude inda?
- Ba bai, bai. Ta hau ere bai, hau ere itxi hoi. Itxi hoik urte asko ditu. Etxe zaharra da.

4.12. Komeni zitzaiena konfesatzen

- **Hizlaria(k):** Calafel Trecet, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** PAS-019/021
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:33:51. **Bukatu:** 00:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** San Juango parrokoaren etxean lapurretan ibiltzen ziren umetan; baina maistrak izan zuen horren berri eta zigortu egin zituen. Orduko konfesioak gogoan ditu, komeni zitzaiena bakarrik konfesatzen zuten.

Transkripzioa

- Ta hemen, apaiza aldatu zanian, parrokoa, parrokoa aldatu zan. Jesus! Orduan ere parrokan etxean sartuta ibili giñan. Ta ze lapurtuko ta estanpak eta libruak, ezertako. Eta bastrarera horrek jakindu zun eta aber abiso: "A ver, Manolita y su cuadrilla; vengan ustedes aquí", "oain'e badeu". Eta hartu denai Don Kijoten liburua kajakin, baakizu zer zien, entziklopediak. "De rodilla" jarri hola ta libro bakoitxian hemen. Hola iten genunian behera-behera-behera-behera maistrak: "¡A ver!". Gora berriz ere. Eta bueno.
- Belauniko orduan?
- Bai, belauniko. Ta holaxen. Lapurtu, bueno lapurtu, txorakeiyak lapurtu. Ta

han ere enteratu zen maistra, apaizan itxea sartu giñala ta: "[...] ustedes el favor de llevar todo lo que han robado". Ze eaman bihar genun? Libru zaharrak eta zeak, santuen zeak, estanpak eta oi, oi, oi, oi.

- Geo lapurtutakoa konfesatu iten zenuten?

- Bai, konfesatu behar deu, konfesiya. Ai ama! Ze konfesiyo iten genuen. "¡Ai dios mio!". Komeni zitzaguna konfesatzen genun.

4.13. Konfesatzean zer kontatu?

- **Hizlaria(k):** Legorburu Etxebeste, Florentino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Odriozola Zugarramurdi, Irati
- **Erref:** PAS-023/039
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:00:03. **Bukatu:** 01:01:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Dantza lotua egitea bekatu zen arren, egin egiten zuten, eta gero Florentinok ez zuen konfesatzen. Behin apaizarekin izandako anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

- Ez dantza ta ez kantatu ere ez?

- Kantatu, kantatu guk iten genun baiño dantzatu're bai e. Txikierdi ta joaten giñen, Oillolumea ta juaten giñanian dantzatzen genun, hoi dudik be, pekatua baiño guk dantza iten genun.

- Eta ze izaten zen sueltoan eo?

- Ez, denea; eskatuan ta helduta ta. Ta zenbat eta gehio heldu hobeto oandik, bai, bai.

- Ta geo "igual" hoi konfesatu beharko zen ,ez?

- E?

- Konfesatu ta?

- Nik ez, nik ez. Gaiñea apaiz bat bagenun guk hemen jatorra. Hola eoten zan. Zuk zuk komeni zaizkizunak esan hola bea. Ta besteik? Eta ez. Di-da eiten zizun, ala kanpoa. Batian galdetu zian "bBeno zuri galdera in behar dizut, aber". Ta bea zan, bea zan nazionalista e, nik iten nun lan iten nun tokiyan apaiz hoi. Ta esan zian "Zuk lapurtzen al dezu?" "Bai jauna" esan niyon holaxe "Bai jauna lapurtzen det nik". Ta "ze lapurtzen dezu?"

"Txatarra, saillian puxkak sobratzen dianak eta, hori lapurtzen det". "Ba hoi ez da pekatua. Zuri lehenagotik iten dizu nagusiak". Beak eantzuna. Apaizak hoixe eman zian, ta bea soziyua zan apaiz hori, bai.

5. Baserria

5.1. Barrikak estaltzeko tapak

- **Hizlaria(k):** Sein Legorburu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-004/008
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:13:41. **Bukatu:** 00:14:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
- **Laburpena:** Barrikatik edaten hasten zirenean, tapatu egiten zituzten. Behien gorotzarekin eta lurrarekin tapa egiten zuten.

Transkripzioa

- Eta noiz isten zenuten barrika?
- Barrika tapatzen genun ia eaten hasteako ta barrika tapatu, tapa ondo. Jarri kortxoa zaku batekin, arpillerakin, tapatu ta geo iten genun behien gorotzakin hondarrakin masa ein ta barrikai gaiñetikan kapa jarri.
- Gorotzakin?
- Gorotzakin.
- A bai e?
- Behien gorotzakin, ta lurrakin masa, masa in. Nola iten da zementua lurrakin?
- Bai.
- Masa in hola eta erdi-lehorra erdi-bustia tapatzen genun ondo, arpillera bat gaiñian jarriya, tapatzen genun kortxua ta dena ondo ta primeran hustu arte, hua hustutzian dena kendu.

5.2. Lana egin behar eta ezin dotrinara joan

- **Hizlaria(k):** Sein Legorburu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-004/021
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:36:33. **Bukatu:** 00:37:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- **Laburpena:** Dotrinara askotan ezin izaten ziren joan eta apaizak zigortu egiten zituen. Lan asko egiten zuten garai hartan, baita igande goizetan ere, nahiz eta hori bekatua izan.

Transkripzioa

- Baiña dotriña ikasiko zenuten baiña, dotriña ez ziñaten juten?
- Dotriña bai, apaizak earrak eman'e bai.
- A bai?
- Karo, ez giñen joaten askotan ta. Ezin genun joan, itxian lanian goizetik hasi, saarrak biltzea, belarra ebakitzea, belarra biltzea, artua botatzera, babarruna botatzera. Gelditu gabe lanian. Askotan jai goizian'e lana iten genun. Ta pekatu haundiya zan. Apaizak harrapatzen bazuten lanian, izuarritzko zea ematen zuen, e.
- Baiño igandero mezeta?
- landero, jaiero, mezetaa etortzeko ta. Ezin genunian belarrak edo sagarrak bildu bihar, sagardua igual eaman bihar momentu hartan, ta denak utzi ta han aitzen giñan gu lanian.

6. Familia eta harremanak

6.1. Txorien habiak harrapatzen

- **Hizlaria(k):** Sein Legorburu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-004/015
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:25:26. **Bukatu:** 00:26:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Jolaserako denbora gutxi izaten zuten umetan, baina txorien habiak harrapatzen aritzen ziren: habiko txorikumeak hartu, txapelarekin tapatu, eta jan egiten zituzten. Patxik beti erabili izan du txapela.

Transkripzioa

- Oso ttikitan hasi ziñen lanian baiño jolastu jolastu're ingo ziñaten ez?
- Jolastu gutxi iten genun guk.
- Gutxi?
- Bai. Gu beti.
- Baiña txoritan eta hola ez ziñaten ibiltzen? Txoritan, kabitan eo?
- Txoriak eta kabiak harrapatzen genitun umetan zeoztenian millegarruenak eta xoxuenak billatzen genitun ta umiak, hiru-lau ume eta krimena iten genun.
- Ze iten zenuten ba?
- Umiak hartu, kaiola eo kabian ta igual saltatu ingo zian ta txapelakin ddau ! tapatu txapelakin, hartu kabiya ta ekarri, hil ta kaxuela. Bakizu ze txori jatiak iten genitun. Ai ama!
- Baina zuk ttikitan txapela ibiltzen zenun?
- Beti.
- Bai?
- Jaiotzetik.
- A bai e.
- Txapela. Bai, bai, bai. Jaiotzetik. Nik eta beste anaiak ere bai e.
- Txoritan ta kabitan bai?
- Txoritan ta kabitan ba bai, baiño zelaian ai ziñala belarra ebakitzen kabiak sagarren, sagar arbol gaiñian. Igual arana gaiñian, igual murtxika gaiñian, kabiak.

6.2. Joxeren arrainak eta aurrezkiak

- **Hizlaria(k):** Sagarzazu Etxebeste, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** PAS-013/013
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:21:17. **Bukatu:** 00:22:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Joxe arrokatara joaten zen umetan eta han harrapatutako hainbat arrain ekartzen zituen etxera; amak, baina, ez zuen oliorik izaten, eta ezin izaten zituen prestatu. Joxek enkarguak egiten

zituenean, amak sos batzuk ematen zizkion; gero sos haiek zertarako erabiltzen ziren azaltzen du Joxek.

Transkripzioa

- Ta zuek arroketa ta joaten ziñaten?
- Bueno, Jesus Maria ta Jose, arroketa ni... Hara! Amak bakizu nola esaten zian?: "Joxe, ez nazu arrai gehiago ekarri, ez dakat olioik eta". Pantxua, barbariña, lupi txikia... Ekartzen txitxarrua... Hemen kanalian e, kanalian. Lamutia, lamutillua, ta dena. "Joxe, ez nazu arrai gehiago ekarri, ez dakat olioik eta..."
- Denak zuk harrapatuak?
- Ez zun diruik etxia erosteko ta. Eta nik iten nitun enkarguak, eiten nitun enkarguak autobus hori San Pedron arkupi hartan, autobusa gelditzen zan ta iten nun enkarguak ta ematen zian bi xox, hiru xox, ta ni eltxetxoa. Ta amak: "Joxe, zer, eltxetxoa puskatu dizut, etorri da argiyena ta ordaindu behar niyon nik, ez nekan diruik eta". (Negar). "Erosi, erosi eltxetxua. Berriz ere erosi eltxetxua... (barre). Zenbat aldiz! Bai, nei bakarrik, etxian iñor gehioi ez. Baizik..., haiek ez zuten aurreatzen.

6.3. Ikatza itsasotik hartzen zutenekoa

- **Hizlaria(k)**: Sagarzazu Etxebeste, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: PAS-013/014
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:22:28. **Bukatu**: 00:23:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Egur eta ikatz bila Joxe joaten zen umetan. Trintxerpeko moilan barkuetatik itsasora eroritako ikatza hartzen zuten lagun batek eta berak. Gero, bizkarrean eramaten zuen ikatza etxera.

Transkripzioa

- Ta egur billa ta ikatza billa ta ni joaten nitzan e.
- A bai? Ta nora?
- Itzazpera eta mendira're bai, baiña normalian Itzazpian, Ondartsu aldi hortan ta. Ta ikatza Trintxerpeko moillan nola ikatza barkuak, ikatza hartzen zuten erori iten zan itsasoa. Ordun Joxe Mujika, nere laun bat, eta ni joaten giñan been botiakin hara ta arrastre, arrasta bat bagenun beak preparatua joaten giñan, bota. Boga, boga, boga aurea. Lotu batela ta tira, ra!, ra!, ra!. Ta hustu. Eskoria etortzen zan, ikatza're bai, ta ikatza bereixi, bestia bazterrea.
- Ta gero lehortzen utzi?
- Ur, ur azpitik ikatza ateatzen genun baiña erortzen zan itsasoa. Hori Trintxerpen.
- Gero, lehortzen utzi beharko zenuten?
- Ez, berihala berihala joaten zan ura.
- Ta bestela ikatz billa nola joaten ziñen, karrotxo batekin ala bizkarrian?
- Bizkarrian, dana bizkarrian hemen, mekauen, denboa hoitan...

6.4. Lurra eta txapa garbitzeko moduak

- **Hizlaria(k):** Calafel Trecet, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** PAS-019/003
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:05:47. **Bukatu:** 00:07:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Lurra egurrezkoa zen, eta egurra garbitzeko zer tresna erabiltzen zituzten azaltzen du. Suaren txapa ere tresna haiekin garbitzen zuten.

Transkripzioa

- Lurra egurre, egurra garbitzeko ta nola iten zenuten?
- Ba bota ur pixkat, geo lejia ta geo askotan, horrekin nahikua zan: lejia ta jaboi pixkat eta geo harraskatu. Ta beste askotan, berriz, zea baze[...]ion, hondar bat espeziala saltzen zan. Nola deitzen zian haiek holako. Ez dakit, orain ez naiz goatuko. Egurra, zea hondarra zan, espezial bat hondarra ta harrekin harraska-harraska-harraska ta alanbriakin'e bai, alanbre bat fin[...] saltzen zan ta harekin ere harraskatzen genun ta zuri-zuriyak lurra-ta. Ta txapa're bai. Txapa garbitzen genun suen txapa, ba hondar horrekin ta alanbriakin ta harriyak ta bueno, beti zea berriyek ta txuri-txuri eoten zan txapa ta karbonera deitzen geniyan toki hori, katxa[...] bat eoten zana. Ta lurra're bai, lurra're [...] etxi hontan egurra zan eta txiki hori frantsesa eo ez dakit zer zan ta txuri-txuri-zuriya ta zenbat eta txuriyo jarri agudo zikindu.

6.5. Uretako bihurrikeriak eta estutasunak

- **Hizlaria(k):** Calafel Trecet, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** PAS-019/019
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:30:32. **Bukatu:** 00:32:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- **Laburpena:** Umetan arrokatara joateko ohitura zuten, eta han igerian ibiltzen ziren. San Juandik San Pedrora igerian joaten ziren, eta itsasontziren bat zetorrenean, estutasunak pasatzen zituzten. Uretan egiten zituzten bihurrikeriak kontatzen du.

Transkripzioa

- Arroketara ta?
- Bai, arroketara igeri, igeri ta arroketara hor puntetan. Arroka zuluak badaude, hor batzuek hemendik Hondarrabira pasatzen dianak-eta. Harea're juten giñan, han sartuta. Oi! Diablua giñen, diabluka. Ta bueno, han'e ibiltzen giñen bai, arroketan.
- Igerika han?
- Ba igeri? Hemendik San Pedroaiño igeri. Ta geo buelta, ta geo igual

erdiyan gaudela: "bapore bat datorrela!". Hortik ikusten baita merkantiak eta korrika-korrika-korrika, zeak iten eskuko zeak "tris-tras-tris-tras". Etortzen giñan honea, berriz. Ai ama! Igeri. Nik laun bat nuen, nuen ta det Lezon esan dizuten hori, Dionisia deitzen da. Ta esaten nion: "Dionisia, jarri nee gaiñian, benga, biyok salto ingo deu-ta". Jartzen zan nee gaiñian ta biyok salto. Ta gora zijoala bea, bea aurretik gora ta ni bihian ta heltzen nion hanketik ta ez niola jartzen gora igotzen ta harren apuruak, zirti-zarta ematen zian. Kanpua ateatzen giñenian: "ez naiz gehio jungo zukin" esaten zian, "no voy a ir más contigo, no" ta berihala aixkidetu ta beinga berriz. Bai. Ai Jesus!

6.6. Teilatuz teilatu bihurrikeriatan

- **Hizlaria(k)**: Calafel Trecet, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: PAS-019/020
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:32:06. **Bukatu**: 00:33:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Ganbaraz ganbara ibiltzen ziren, teilatu batetik bestera salto eginez. Apaizari ganbaran gordeta zeuzkan liburu eta estanpak lapurtu egiten zizkioten.

Transkripzioa

- Ta ibiltzen giñan gu, ganbaraz ganbaraz. Ze iruitzen zaizu? Ganbaraz ganbaraz. Teillatutik e! Teillatutik salto iten genuen bestea ta geo, oain'e dao, etxe hortan. Hola, kala, ganbareta sartzeko [irikiya]. Bai.

- Atia?

- Bai, zea bat kalaboia, boia esaten zioten kalaboia. Bueno, hortik salto iten genuen. Ta hemen onduan, apaiza bizitu zen ta hor ganbaran zituzten libruak eta estanpak eta ze karajotakoak hoiek denak. Lapurtu iten genitugun. Eun batian, nee laun horrek hartu du rolo haundi bat eta beste laun batek, mutil batek esaten dio: "Dionisia, ekarri nazu nei hori", "ez dizut emango, nik hartu det-eta", "emanazu nei!", "ez!", "zu zer zea ba mandon!". Ta azkenian, nazka-nazka in zun ta eman zion: "Aiba ba! Tori!". Eman zion ta etorri zan bea eta beidatu zun zer zan ta argazki haundi bat zan. "Oi! Nik ez det nahi hau. Tori, tori!". Zua zuk nahi baldin bazu, biyek teillatuan ya borrokan. Azkenean, beak joan behar izandu zun, lajatzea. Hartu ta laja zun, goitik bota zun ta gu giñan, bueno, bueno.

- Ta apaiza ez zen konturatzen gero gauzak falta ziala?

- Ez, dena botia zekaten dena, ta geo beste etxia joan zian bizitzea ta.

6.7. Dantza egiteko zaletasuna

- **Hizlaria(k)**: Calafel Trecet, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: PAS-019/023
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:36:15. **Bukatu**: 00:37:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Mutilekin dantza egitea bekatu zen, baina beraiek egiten zuten, hala ere. Oiartzunera joaten ziren dantzara eta iluntzean etxera itzultzzen ziren.

Transkripzioa

- Pekatua zen mutillekin dantza itea're?
- Bai, bai. Pekatua mutillakin dantza itia. Ze, ze iten genun mutillakin dantza-ta zer? Hitz ein ta farrez. Bai, hori're iten genun bai, mutillakin pikatu dantzan ibiltzia ta zea, bueno, zertako Jaingoikoa jarri du "el hombre y la mujer"? Zertako jarri ditu orduan? Pekatua baldin bazan? Ai ama! Zenbat pekatu iten genun. Beti kondenatuak.
- Baiño iten zenuten dantza mutillekin?
- Bai, bai. Juten giñan zerea, Oiartzungo [...]eko eskobatzzen [...] eta zea, joaten giñan Oiartzungo zea, tabernetan ta akordeoia jotzen zuten ba igandetan. Ta haraiño joaten giñen dantza itea ta dantza in ta geo gauian hala, zea kakahuesak erosi ta hoiek janaz etxea.
- Kakahuesak ze, tabernan?
- Erosi bai tabernetan saltzen zituzten kakahuesak eta pikuak eta huak, haiekin erosi ta haiek janaz bidian oiñez etortzen giñan e!
- Neska-mutillak?
- Karo, xoxak gastatu iten genitun ta geo oiñez baiñon bakizu, batek kontua ta bestea kontua farrez iñaz, bai.

6.8. Lehengo umeak zoriontsuagoak

- **Hizlaria(k):** Legorburu Etxebeste, Florentino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Odriozola Zugarramurdi, Irati
- **Erref:** PAS-023/007
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:08:11. **Bukatu:** 00:09:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Lehen gazteak zoriontsuagoak omen ziren. Gutxi behar izaten zuten jolasteko. Harrika ibiltzen ziren jolasean Lezokoen kontra. Orduko hainbat jolas aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Gerrateko gauzak oso tristiak dia. Ta gu oso pozik bizi giñan, oain baino poza gehiokin gazteiya, e. Beste gauz bat zan e, oaingoakin konparatzeko. Oain, nik neetzako, ez dakit ba, jolasten'e gaur jendiak ez daki gu ibiltzen giñan bezela. Guk jolastu asko iten genun. Guk hemen kalia ez bagia kalea ez bagia, oso gutxitan jaixten giñan kalea, mendiyan ibiltzen giñan gu jolasten. Gerran ibiltzen giñan e, gu gerreruak izandu gea, lezotarren kontra ta harriyak, harri pillak preparatu ta harrika ta. Kalea etortzen giñanian, ba mendiyan ibiltzen giñan gu amarrutan ta korrika bai Gaztelutxo, kaskoko mendi hoitatik honea beheraiño korrika bata bestiai ezin harrapatu ta; bueno. "Tren avios", geo "Antxobiri konkon", geo

[ainluzetan], ta geo txibakin e bai, ta gauz askotan ibiltzen giñan gu e, orduan. Kalia, kalea etortzeko amorrutan eoten giñan.

6.9. Klean beti jolasean

- **Hizlaria(k):** Legorburu Etxebeste, Florentino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Odriozola Zugarramurdi, Irati
- **Erref:** PAS-023/009
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:09:52. **Bukatu:** 00:10:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Kalera etortzen ziren bakoitzean jolasten aritzen ziren. Orduko jolasak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Eta noiz jolasten zenuten, asteburutan eo?
- Bai, kalea etortzen giñan egunero.
- Eunero?
- Eunero etortzen bagiñan eunero; ez beti ez genun gauza berdiña iten baiño bai bai, gehienian amarrutan, esaten dizut ba, amarrutan. Hola jartzen giñan sei laun lepotik helduta bakotxa bata bestiai, ta bestiak salto. Sei eo zortzi laun. Eta bat zea in behar zun harrapatu zure gaiñea ez salto iteko ahal baldin bazan. Ta harrapatzen bazenun salto in baiño lehenuotik zu libre eta bestia jarri, geo harren gaiñea salto iteko; ta holaxe ibiltzen giñan. Gauza politak zien hoiek denak. "Atxibiri konkon" bat hola jartzen zan, geo atzekaldetik zuri bestia hola helduta eta haiyen gaiñea salto iten zenuen. Bai, ta hola. Oso jolas politak zian. Politik. Pelotan'e piskat ibiltzen giñan, asko ez.

7. Natura

7.1. Antxetak jateko ohitura

- **Hizlaria(k):** Sein Legorburu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-004/037
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:03:25. **Bukatu:** 01:04:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Natura » Fauna » Hegaztiak
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Antxetak erosi eta saltzeko prestatzen zituen Patxik. Jendeak oso gustura erosten zituen txori haiek, eta jateko nola prestatzen zituzten azaltzen du. Gerora galarazi egin zuten txori haiek harrapatzea.

Transkripzioa

- Jendeak erosi iten zun hua?
- Mekauen la leche.
- Nola jaten zan hua?
- Hua jaten zan arrozakin paella in kazuelan, igual lau txori jarri puskatuta, ondo garbituta arrozakin. Ze goxua!
- Bai e?
- Mekauen. Ni erotu iten nitzan jaten. Garbitzen'e bai e, baiño bai jaten'e.
- Ta geo ze in zan, ohitura galdu?
- Ba geo galarazi in zuen harrapatzia txoriyak, galarazi in zuen. Hoi, bestela ez zan txoririk izango munduan.
- Ta nola harrapatzen zituen txoriak?
- Amuakin.
- Arrantzaliak?
- Arrantzaliak baporian jun ta arrantzaliak oain nausiai ez [...] ekartzen, arrantzaiak beak saltzen zuen ta guk arrantzaliei paatzen geniyon ba bi pezta eo hiru pezta eo zianak arrantzaliai pagatu, txori bakoitza. Ta ekarri danak, "aiba, bostehun hemen". Kontatu, bostehun askotan ekartzen nun e.
- Askok, asko.
- Askotan.

7.2. Lehen arrain asko kostan

- **Hizlaria(k):** Sein Legorburu, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** PAS-004/040
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:06:22. **Bukatu:** 01:07:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Fauna » Natura » Itsas fauna » Arrainak
- **Laburpena:** Francok ekarritako baleak ikusi izan ditu; kaxaloteak ere ikusitakoa da Patxi. Lehen arrain mota asko zegoen.

Transkripzioa

- Ballena, ballena.
- A, ballena? Ikusi bai. Francok ekartzen zunian katxalotiak, hemen, mollian. Usteltzen, usaia daiyola, hor egondu zian luzian. Bai baiñon ballenik ez. Bueno, ballena..., zea, Francok ekartzen zitun urtian bi eo hiru ba Pasaira ta bestia ez dakit noa ta bestia bakit noa ta ekartzen zitun. Ta honea ekarri ta hemen ikusten genun dena. Baiño haundiyak dia, e, tonelada askokuak, e. Hogeita hamar toneladakuak eta.
- Arrai asko zan orduan?
- Puuff, arraiya...
- Antxua're bai asko?
- Ze esaten dezu, antxua? Nahi aiña. Sardiña nahi aiña. Berdela nahi aina, akulak, akulak txikiyak holakuak goxo-goxuak zian. Ta haundiyaguak'e bazian. Geo akulak zuten orratza bat bezela, muturrian hola. Orratza e, xorrotx-xorrotxa. Eta harekin, harekin arraiyak harrapatzen zituztela ta jan beak, beak jateko. Izugarrizko arrai pillak genitun guk orduan.

7.3. Lapak non eta nola

- **Hizlaria(k):** Sagarzazu Etxebeste, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** PAS-013/017
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:29:21. **Bukatu:** 00:30:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk
- **Laburpena:** Lapak non egon ohi diren azaltzen du. Lapak gordinik jaten zituzten lehen.

Transkripzioa

- Lapak hartzeko toki onena zein izaten zen?
- Leku onena? Leku ona, segun ze harriya, segun ze harriya lapa ona ematen du, txarra ematen du baiño leku onena arkaitz, itsasuan, arkaitzen. Ura jotzen dun tokiyan, ruuum, goraiño han goiyen eoten dia, goiyen e. Bihian ez dia eoten. Bihan bai, baiño bihan eote dia beste lapa bat ia belarrakin tapatua, ya. Hoiek jaten ditut nik e, nik denak jaten ditut. Ta baiña goikuak hobiao izaten dia. Ta neguan onduena. Geo ia [haria], batzuk bolada bat ia oain uda aldian ia [hariakin] izaten dute baiño neguan ez dute [haririk] izaten.
- Ta lapa gordiñik jaten zenuten?
- Bai, nik lapa gordiña askotan jan det.
- Eta egosita ere bai?
- Bai baiño nik gehiena gordiñak jan ditut, ogi puxka batekin raka-raka, ta hoi ardoik ez nula eamaten. Kostaa ez nun eamaten ardoik.

7.4. Txoriak zaintzeko ardura

- **Hizlaria(k):** Calafel Trecet, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** PAS-019/016
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:27:23. **Bukatu:** 00:28:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Natura » Fauna » Hegaztiak
- **Laburpena:** Bera ez zen txorizalea, baina seme bat bai. Behin hainbat txori oparitu zizkien, baina bero handia zen egun batean hil egin ziren gehienak. Txori haiei buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Ta txori kabi billa ibiltzen ziñeten?
- Txoriye nik ez. Ez giñen gu txorizaliak. Nik txorizalea nun medikua dana gaur, mutil hura. Harek zuen txori bat, ez dakit, ez dakit nola deitzen zan. Nik ez nitun ezautu're iten. Oso ona, reklamoako eskantzen ziguten, reklamo emateko. Eta Iñakina zen ta harrekin harrapatua txori pilla bat honea ekartzen zizkien, ama kontentsiorik gabekoa. Eta alpistia eman, garbi-garbi in goizetan ta hemen balkoiyian jartzen nitun. Eta behin batian jarri nitun ta hego haizia zeon ta maindire bat hor soko hortan jarri giñun, sombra emateko. Ta hara, nee amak ustegabian ez zun galdetu're in ta

maindiria jaso ta barrena sartu. O txori denak beruakin hil zian. Nere semia! Baiño bizitu zian bi-o hiru ta bat, [[Zuriya] deitzen zion bati, hura zen reklamoako oso ona, oso ona gaiñea txoriya.

7.5. Muskuiluak eta txirlak

- **Hizlaria(k)**: Calafel Trecet, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: PAS-019/026
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:41:53. **Bukatu**: 00:43:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk
- **Laburpena**: Ez ziren lapa bila ibiltzen, baina muskuiluak biltzen zituzten, errekan. Han txirla zuriak zeuden.

Transkripzioa

- Arroketara juten ziñetenian lapa billa ta ibiltzen ziñeten?
- Ez, ez. Gu ez. Gu ez giñan lapa billak eta lanpernak. Muskuluak hemen.
- Muskuilluak bai?
- Hemen bai muskuilluak.
- Ta ze tokitan eoten zian onenak, muskuillu onenak?
- Ba onenak hor, errekan. Errekan deitzen diogun horri, Arkotikara. Almejak ere hor txuriak izaten zian, txuri-txuriek. Ta hemen beltzak ta plazan'e beltzak eta enbarkaderoan'e beltzak. Baiño hor txuriyak eta hemen denian beltzak.
- Zeintzuk zian hobeak? Hobeak ze?
- Txuriyak. Hobiak-o. Janea bota ezkeo arrozakin hola, bestea zea bat zuten txuriyek, denak txuriyak nahi genitun, baiño bueno. Hor bakarrik zan puxka hoi, hemendik hasi ta haraiño.
- Ta maria aprobetxatu beharko zenuten?
- Bai, klaro, maria bihan zeola almeja biltzen, muskuluak'e bai. Muskuluak onenak hor izaten zian, paretian eoten zian ba.
- Behekaldekuak onenak?
- Bai, zenbat eta behero hobe ta haundiyo ta zea batekin atera genitun ta ateatzen geniyon igual kutxare zahar batekin "txa-txa" juaz eta muskulua geo garbi-garbi ta geo etxea egosteko ta guk kuadrillak guk jateko. Baiño giñan.

7.6. Soberako arraina baratzera

- **Hizlaria(k)**: Legorburu Etxebeste, Florentino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia - Odriozola Zugarramurdi, Irati
- **Erref**: PAS-023/016
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:19:15. **Bukatu**: 00:20:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Fauna » Natura » Itsas fauna » Arrainak

- **Laburpena:** Lehen arraina aukeran zegoen, eta soberan zegoena baratzera botatzen zuten.

Transkripzioa

- Guk ekarri degu astuakin San Pedrotik, gabarra kargatu, leatzen buruba, leatzen burua, xapuak, bixiguak, txitxarro ta holakua zelairako ta zelaian zabaldu, oso ona zan, hori zelairako oso gorotz ona zan. Gaurko eunian zapoik ez dezu botako ez, bixiguik ere ez. Ba orduan dena, aukera zan. Arraiya ekartzen zuten. Barkua betia etortzen zan, hemen gaur atea ta bihar biharko "ya" esaten zan bezela. Arraiya tope inda etortzen zian, betia, bodega betiakin etortzen zian, arraiya. Oan, berriz, jangoikuan etxea juaten dia hillabete oso-osuak-eta pasatzen dituzte, bi hillabete-hiru hillabete igual etxea etorri gabe, han hor Ameriketa aldian ez dakit non deskargatzen dituzte, gero kamioiekin ta ekartzen dute arraiya.

7.7. Lehengo negu gogorrak

- **Hizlaria(k):** Legorburu Etxebeste, Florentino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Odriozola Zugarramurdi, Irati
- **Erref:** PAS-023/030
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:45:28. **Bukatu:** 00:46:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Natura » Meteorologia
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** Lehen neguak gogorrangoak ziren orain baino. Elurretan hanka-hutsik ibilitakoa da Florentino, asko gustatzen zitzaion hanka-hutsik ibiltzea. Urte batean otsail oso-osoa egin zuen elurra eta izotza; orduan Jaizkibelgo pinuak ihartu egin ziren.

Transkripzioa

- Ni elurretan hankutsik ibili izandu naiz. Ta zuek artua bakizute zer dan ez? Artaberdia, artaberdia behiantzako iten zana. Artaberdia ebaki ta nik hankutsik artaberdia ebakitako tokiyan ibiltzen badakit. Nik zenbat errieta aitu ditut gurasoenetik hola ibiltzen nitzalako. Ni hankutsik, baiño amorratua nitzan. Izugarriya hankutsik, e. Nei espartiñak berriak-eta ematen ziaten, jazten ditut eta geo kendu ta hankutsik ibiltzen nitzan ni, bai, hankutsik. Oain, nik ez dakit e, biño orduan bezelako, zenbat urte izango dia, hemen piñuak eta erre zitunian, otsaila oso-osu-osua in zuen elurra ta jela, elurra ta jela. Berrogei ta gehio urte dia hoi in zuena. Maiña bat goatuko dia gure edadekuak. Orduan, piñua Jaizkibelen piñua erruz zeatu zian, ihartu zian jelakin, bai. Baiño guk ibaian, guk ibaian ezautu deu jela; bai, bai, hoi egiya da.

8. Ekonomia eta industria

8.1. Lan-baldintza duinak lortzeko borroka

- **Hizlaria(k):** Sagarzazu Etxebeste, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** PAS-013/021
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:36:28. **Bukatu:** 00:37:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Tailerrean egin izan du beti lan. Lehen lan-baldintza gogorrak ziren: egunero egiten zuten lan, eta igandetan mezara joateko tarteak izaten zuten libre goizean. Greba egin zituzten lan-baldintza hobekitzeko, eta lortu zituzten.

Transkripzioa

- Nik beti tailerrian lan in det, ta tailerrian orduan normalian ez zan zortzi ordu iten baizik askotan igande goizetan'e lanea joan behar izaten genun. Baiño igande goizetan mezeta joan behar genun, igande goizian mezetaa joan, hau bezela mezeta joan eta gero lanea eguardi arte.

- Igandetan ere lana, orduan?

- Bai, bai, ta launbata egun osua. Ta gero're bai iten genun "Sabado Inglés" lortzeko, launbat atsaldian jai iteko lehenbiziko greba. Geo greba launbata osua iteko. Geo bueno. Beti gaixo batzuk izaten giñan tartian baiña ondo zeon lana itia, baiña... Oaingo ia gehiegi, oaingo ia pasten ai dia. Baizik lehen lana baldin bazan barko bat itsasoa bialtzeko, mariñelak jateko ekartzeko lan in behar zenun, baten bat madarikatu in behar da, bi ordu gehio hiru ordu gehio? Bueno, izorrai. Baiña jode!, hamar edo hamabost famili ez utzi ogiyik gabe. Ne pentsamentua, e.

8.2. Lana aldatzeko erabakia

- **Hizlaria(k):** Sagarzazu Etxebeste, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** PAS-013/030
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:59:02. **Bukatu:** 01:00:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Bidasoa Behereko lantegiak
- **Laburpena:** Behin Nicolas Ferrer ingeniariak berekin lan egiteko eskaini zion, baina ez zen joan. Ezkondu ostean, baina, bai aldatu zuen lana, etxetik urruti gelditzen baitzitzaion Asensio Larrearen tailerra.

Transkripzioa

- Geo, e Nicolas Ferrero ingenieruak esan zian, "nahi dezu nekin lan egin? Zenbat irabazten dezu?". "Hogeita hamabost pezta". "Nik berrogei emango dizut". Ta tailerrian esan nion Ascensio Larreai. "Larrea!" "¿Qué?". "Me voy a otro sitio. La cuenta". "¿Por qué ya marchas Joxe, por qué ya marchas?".

"Porque me pagan cinco pesetas más". "Joxe!, yo te estoy pagando a tí más que la categoría que tienes y por dinero tú no te vas, yo también te las doy". Ta han geatu nitzan, ezkontuta gero're, azkenian aldatu nitzanian handik Olaizea esan zidan: "¿Por qué vas?" Trintxerpetik honea, bazkaltzea etorri, juan ta etorri bi ordu, denboik ez, juxtu ibiltzen nitzan, ez nau denborik ematen. "Horrentxegatik utzi dizut, bestela ez ziñan joango hemendik". Esan zian garbi, seme bat baiño gehio maite zian.

- Hori bertakoa zen?

- Gasteizkua, Alavakua, hangua zan, Ascensio Larrea.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Sare-konpontzaile izandakoa (PAS-003/003)

Lehen Donibanen 4-5 baxurako ontzi zeuden. Trintxerpen arrasteko ontziak zeuden eta haien sare-konpontzaile izan zen Fabian. Lana nola antolatzen zuten azaltzen du.

2. Sareak konpontzeko tresnak (PAS-003/004)

Gaztea zela ikasi zuen sareak konpontzen. Hartarako zer tresna erabiltzen zituzten azaltzen du.

3. Sare-konpontzaileen lan-baldintzak (PAS-003/006)

Sareak biltegi luze batean konpontzen zituzten. 8-16 ordu bitartean egiten zuten lan, sarea prest egoteko zuten denboraren arabera.

4. Mariskoa harrapatu eta jan nahi ez (PAS-003/010)

Umetan uretan aritzen ziren beti jolasean. Mariskoa harrapatzen ibiltzen ziren, baina ez zitzaien gustatzen gero haiek etxean jatea. Lehen hondartza zegoen Pasaiaiko badian, baina denborarekin desagertu egin da.

5. Sagardi asko zituzten etxean (PAS-004/002)

Sagardi asko zituzten etxean eta zaindu egiten zituzten. Arbola handiak zituzten, eta zer klasetako sagarrak lortzen zituzten aipatzen du. Baserriaren jabeari 100 kilo sagar, bi litro esne eta dozena bat arrautza ematen zioten urtero.

6. Sagarrak saldu eta etxean sagardoa edan (PAS-004/003)

Sagarra auzoan saltzen zuten, dolare handia baitzeukaten haiek. Etxean sagardo asko edaten zuten; txarrotik edaten zuten. Taloa jaten zuten, ogi gutxi. 9 senide ziren etxean: 7 mutil eta 2 neska.

7. Sagarrak biltzen zituztenetik dolarerainoko bidea (PAS-004/005)

Sagardoa egiteko, lehenbizi sagarra bildu egiten zuten. Zer tresna erabiltzen zituzten aipatzen du. Aise biltzen zuten sagarra, egunean 30-40 zaku. Zakuak gurdiz eramaten zituzten auzora, han bizkarrean hartu eta ganbarara igotzen

zituzten. Ganbaratik beheko solairura bidea eginda zegoen, sagarrak makinara zuzenean bota zitzaten. Horrela, makinak sagarrak txikitu egiten zituen.

8. Sagarra zapaltzeko sistema (PAS-004/006)

Sagarra zapaltzeko, 500 kiloko ardatz bati lotutako plaka bat erabiltzen zuten. Horrela, sagardoa irteten zen hartarako prestatutako bideetatik, eta sagarraren zukua erraz biltzen zuten.

9. Upelak eta barrikak (PAS-004/007)

Sagarraren zukua upelatan sartzeko, egurrezko baldeak erabiltzen zituzten. Barrika bakoitzean 800 litro sartzen ziren.

10. Sagardoa edateko moduak (PAS-004/009)

Sagardoa edateko, barrika jakin batzuk erabiltzen zituzten, egurrezko kanilak baitzeuzkaten haiek. Barrika bat husten zenean, beste bat irekitzen zen berehala. Sagardoa botilatan sartzen zuten, eta sartu aurretik pare bat aldiz probatzen zuten.

11. Aitona ito egin zuten (PAS-004/012)

Aitona ito egin zuten. San Anton egunean, Lezora joaten ziren baserritarrek urteko zorrak kitatzera. Aitona handik etxerako bidean zetorrela, berandu zen eta hil egin zuten itota.

12. Txoriei buruzko ezagutzak (PAS-004/016)

Lehen txori asko zegoen eta haien kanta ezagutzen zuten. Txori mota batzuen ezaugarriak aipatzen ditu. Kukuen eta txantxangorrien harremana azaltzen du. Lehen hontz asko zegoen.

13. Kanpaiak jotzeko ardura zeukaten (PAS-004/017)

Kanpandorreko kanpaiak beraiek jotzen zituzten igandero. Kanpaiak jotzeko teknika azaltzen du. Kanpaiak noiz jotzen zituzten aipatzen du. Lau kanpai-jotzaile elkartzen ziren.

14. Eskolan erdaraz (PAS-004/020)

Eskolan erdaraz ikasten zuten arren, Patxik gutxi zekien erdaraz garai hartan. Lehen erdara oso gutxi entzuten zen kalean. Eskola bat jarri zuten, baina Patxiri ez zitzaion gustatzen hara joatea, erdaraz egiten baitzen han.

15. Antxoko moilako lana (PAS-004/023)

Aitak baserrian laguntzen zuen, baina etxetik kanpo Antxoko moilan egiten zuen lan egunean 8 ordu. Seme-alabak izateagatik, puntuak zeuzkan eta gehiago ordaintzen zioten. Moilan zamaketa lanetan aritzen zen aita. Patxi bera ere ibili zen lan haietan. Garabiak beti ezagutu izan ditu Pasaian.

16. Lagunen artean trainerua erosi zutenekoa (PAS-004/024)

Lagunen artean traineru bat erosi zuten. Tipularekin pasatzen zuten trainerua, azkarrago joan zedin horrela. Traineruarekin estropadatan ateratzeko asmoa zeukaten beraiek.

17. Gerran, anaiek izandako bizipenak (PAS-004/028)

Gerra hasi zenean, 14 urte zituen Patxik. Orduko oroitzapenak gogoan ditu. Gerra hasi zenean, anaia bat etxean gelditu zen. Herriko gazte asko joan ziren Bizkaia aldera frontera. Anaia bat Amaiur batailoian aritu zen borrokan. Gerora, Asturias aldera eraman zituzten euskaldunen 4 batailoi. Han San Juango mutil batzuk hil zituzten. Anaia Asturiastik Bizkaira bueltatu eta errenditu egin zen, beste hainbat gizonekin batera. Orduan Valentziara eraman zituzten Langileen Batailoiarekin.

18. Soldadutzako oroitzapenak (PAS-004/032)

Soldadutzan lau urte egin zituen Patxik: Loyolan sartu zen eta geroago Bizkaira eraman zuten. Telefono-transmisioez arduratzen ziren beraiek. Loyolan zeudela, San Fernando egunean festa ospatzen zen.

19. Meipiko lana utzi eta baporeak prestatzera eta zaintzera (PAS-004/035)

Meipin egin zuen lan 8 urtez; 60 mutilek egiten zuten lan han. Garai hartan, Pasaian 500 itsasontzi zeuden. Meipiko lana utzi zuenean, baporeak prestatzen eta zaintzen egin zuen lan: guardia egiten, mantentze-lanetan, itsasoratzeko prestatzen... 35 urtez egon zen han lanean.

20. Arrandegian saltzen zuten arraina (PAS-004/036)

Baporeak zaintzen ibiltzen zen garaian, arrandegia jarri zuten etxekoan artean. Patxik ekartzen zuen arrandegirako arraina. Beraiek saltzen zituzten arrain motak aipatzen ditu. Patxik antxetak erosten zituen eta saltzeko prestatzen zituen.

21. Izurdeak jateko prestatzen (PAS-004/038)

Izurdeak erosten zituenean, etxean prestatzen zituen saltzeko. Horretarako zer egin behar izaten zuen azaltzen du.

22. Almejatara (PAS-005/002)

Marea jaisten zenean, aitzurra eta baldea edo sagarra biltzeko otarra hartuta joaten ziren almejatara. Errenteria aldetik zetorren erria lehor-lehor geratzen zen, eta lohi handia izaten zen. Lohiarekin ez zikintzeko, baporetik lortutako bota luze batzuk janzten zituen. Bestela, zakuekin lotzen zituzten hankak.

23. Arpilerak (PAS-005/003)

Baporeetan arpilera asko erabiltzen zen. 10-12 dozena arpilera eramaten zituzten itsasora. Arpilera zertarako erabiltzen zen. Itsasoratzeko baporeak prestatzen zituen Patxik.

24. Atoiontzari deitu behar (PAS-005/005)

Itsasoratzeko baporeak prestatzen zituen Patxik. Atoiontzari ("remolcador") ditu behar izaten zion baporea gasolioz kargatzera eramateko.

25. Baporeari gasolia botatzen (PAS-005/006)

Itsasoratzeko baporeak prestatzen zituen Patxik. Errenteriako errioaren izkinan moila txiki bat zegoen, eta han botatzen zioten gasolia.

26. Ikatzezeko baporeak I (PAS-005/007)

Ikatzezeko baporrei buruzko azalpenak. Bapore handiek ekartzen zuten ikatza. Asturiastik ekartzen zuten ikatz asko. Egurrezko edo txapazko bapore txikiak ikatzez nola kargatzen ziren kontatzen du.

27. Ikatzezeko baporeak eta motordunak (PAS-005/008)

Ikatzezeko baporeei buruzko azalpenak. Kalderak eta sua. Sua nola egiten zen. Motorra martxan jartzea. Erregaia: ikatza eta egurra. Motordun ontziei erregaia nola botatzen zaien azaltzen du.

28. "Arraina pilaka, gorotza bezala!" (PAS-005/009)

Baporeek zer arrantzatzen zuten. Aipatutako arrainak: zapoa, merlenka ("pescadilla"), legatza, amuarraina, palomita, muxumartina... Itsasontziko lanak: arrainak garbitzea eta sailkatzea.

29. Patroien jakinduria (PAS-005/010)

Patroiek ondo zekiten non zer arrain ibiltzen zen.

30. Bi egunean, 80 tona bisigu (PAS-005/011)

Ontzi batzuk libre zuten 200 metroan antxoatan ibiltzeko. Itsasontzi handiak, handik kanpo joan behar zuten. Ontzi handiek arrain asko ekartzen zuten: bakailaoa, maluka... Itsasora atera, eta bi egunean 80 tona bisigurekin bueltatu.

31. Baporeak eta arrantza (PAS-005/013)

Bapore batzuk goizean itsasora atera eta iluntzerako bueltatzen ziren. Arraina ondo harrapatzen ari baziren, bi egun ere pasatzen zituzten itsasoan. Baporeen prestaketari buruzko azalpena.

32. Baporeak prestatzen (PAS-005/014)

Baporeak itsasora atera aurretik haiek prestatzen aritzen zen Patxi. Bodegak garbitu, 500 kaxa sartu, 10 tona jela jarri...

33. Itsasoan zirela, arrainei tripak atera (PAS-005/015)

Itsasoko eginkizunak. Sareak ordu bat eta bi ordu artean egoten ziren arrastan. Arrainak: oilarra, merlenka ("pescadilla"), legatza, zapoa, maluka, bakailaoa... Baporea itsasoan zela, tripak kentzen zizkien arrainari. Tripak kentzearen arrazoiak: eguzkiak joz gero, arrainak usain handia hartzen du.

34. Arrainak arraina jan (PAS-005/016)

Baporetik itsasora botatako arrainak, arrain-buruak... beste arrainek jaten zituzten. Itsasoan bakailao buruak kentzen zituztenean, uretara botatzen zituzten eta beste bakailaoak pilan joaten ziren hura jatera.

35. Bakailaoa irekitzeko makina (PAS-005/017)

Baporeetan makinak jartzen hasi ziren arrainak ireki eta garbitzeko. Makina nolakoa zen eta nola funtzionatzen zuen azaltzen du.

36. Baporeak binaka (PAS-005/018)

Baporeak binaka ateratzen ziren itsasora. Tresnak: sarea, kableak, mailleta. Lan-tresnak nola erabiltzen zituzten azaltzen du. Itsasontziko eginkizuna: makinekin arrainei burua eta tripak kentzea.

37. Sareak aberia (PAS-005/019)

Sareak puskatzen zirenean, nola moldatzen ziren azaltzen du. Bakailaoa sarearekin harrapatzen zuten, behin ere ez kanabera eta amuarekin.

38. Bi "redero" (PAS-005/020)

Baporea itsasora atera aurretik Patxi eta beste gizon bat aritzen ziren hura prestatzen. Bapore bakoitzak bi sare eramaten zituen, eta bi mutil, bi "redero" arduratzen ziren sare horietaz.

39. Otarrak (PAS-005/021)

Baporeetako lana nola izaten zen. Marinelen eginkizuna eta antolamendua. Otarrak zertarako erabiltzen ziren.

40. Edaria, kupeletan (PAS-005/022)

Itsasontziko bizimoduari buruzko kontuak. Edaria kupeletan eramaten zuten.

41. Itsasontziko lanak (PAS-005/023)

Behin arraina harrapatuta, itsasontzi barruan egiten ziren lanei buruzko azalpena. Gazitzailea edo saladora. Gatza, arraina kontserbatzeko.

42. Jatekoa itsasoan (PAS-005/024)

Itsasontziko bizimoduari buruzko azalpenak. Jatekoa nola eramaten zuten azaltzen du.

43. Baporeko sukaldaria eta laguntzailea (PAS-005/025)

Baporean, sukaldaria eta laguntzailea joaten ziren. Sukaldiaren eta laguntzailearen eginkizunak.

44. Itsasontzia garbitzea (PAS-005/027)

Itsasontzia porturatu eta arraina ateratakoan, itsasontzia garbitu behar izaten zuen Patxik. Garbiketa lanei buruzko azalpenak ematen ditu.

45. Arrainaren kontserba, itsasoan (PAS-005/028)

Itsasoan arraina kontserbatzeko moduak. Izotza, amoniako eta zapia.

46. Baporeetako komuna (PAS-005/029)

Baporeetako komunari buruzko azalpenak. Kapitainak eta peskak goian zuten komuna eta dutxa. Marinelek, behean, itsasontziko ertz batean zuten komuna. Komunean egindakoak, itsasora joaten ziren. Udar, komuneko atea kentzeko ohitura.

47. Txakurra baporean (PAS-005/030)

Lehen, txakur bat joaten zen bapore bakoitzean. Gerora, utzi egin zioten txakurra eramateari. Gorabeheraren bat izaten zenean, txakurra zaunkaka hasten zen abisua emateko.

48. Marinelen arropak (PAS-005/031)

Arrantzaleak itsasora ateratzerako nola janzten ziren azaltzen du: sira, botak, larruzko txapela... Udarari, eguzkiarekin erre egiten ziren arrantzaleak.

49. Arrantzaleen bainuak (PAS-005/032)

Eguneko lana bukatu eta motor txikia jartzen zuten martxan. Baporea geldigeldi egoten zen. Eta arrantzaleak uretan mulgintzen ziren. Gero, gora igo eta dutxa hartzen zuten.

50. Igeritan ez zekitenak (PAS-005/033)

Baziren igeri egiten ez zekiten marinelak. Igeri egiten ikastera derrigortzen omen zituzten. Ur gainean ibiltzearekin nahikoa izaten omen zen: "gutxi nahikoa harako!"

51. Itsaso txarra (PAS-005/035)

Itsaso txarrarekin itsasontzia martxa erdian jartzen zuten. Martxa handian joanez gero, muturra sartzen baitu ontziak.

52. Patroia eta lemazaina (PAS-005/036)

Patroiaren eta lemazainaren ("timonel") eginkizunei buruz hitz egiten du.

53. Bakailaotara (PAS-005/037)

Zazpi-zortzi eguneko bidea zuten hara iristerako. Itsasoan zenbat denbora egiten zuten.

54. Patroia eta irabazia (PAS-005/038)

Patroi ona zenak, irabazien ehuneko bat eskatzen zion nagusiari. Patroiaren egitekoak.

55. Izarrak eta iparroratza (PAS-005/039)

Iparroratzak eta izarrak erabiltzen zituzten itsasoan nabigatzeko. "Barkua konpentsatzea": mendien kokapenaren arabera iparroratzaren neurriak hartzea. Mapak.

56. Itsasontzien aparatuak (PAS-005/040)

Itsasoaren sakontasuna neurtzen duen aparatuari buruz hitz egiten du.

57. Komunikazioa beste itsasontziekin (PAS-005/041)

Itsasoan zebiltzan baporeak elkarren artean nola komunikatzen ziren kontatzen du.

58. Lainoarekin, gorriak ikusi (PAS-005/042)

Lainoa zenean, baporeak sirena jotzen joaten ziren sareak botata zituztenean.

59. Arrainaren deskarga eta sailkapena (PAS-005/043)

Baporea porturatzen zenean, gizonek arraina deskargatzen zuten eta emakumeek arraina sailkatu.

60. Arrainaren salmenta I (PAS-005/044)

Behin arraina sailkatzen zenean, nagusiak benta jartzen zuen. Arrainaren salmentari buruzko azalpenak. Arrainaren prezioa.

61. Arrainaren salmenta II (PAS-005/045)

Euskaraz egiten zen arrainaren salmenta. Erosleak esportatzaileak izaten ziren: arraina tonatan erosten zuten. Kanpora bidaltzen zen arrain asko.

62. Salmentako dirua (PAS-005/046)

Arrainaren salmentatik ateratako dirua nagusiarentzat izaten zen. Bapora batzuetan, ordea, nagusiak salmentatik ateratakoaren zati bat patroiarari eta kontramaisuari eman behar izaten zien. Patroien soldatak.

63. "Txakurrena" (PAS-005/047)

"Txakurrena" zer zen azaltzen du. Kokotxak, bakailao buruak, karrilerak... izaten ziren. Kontramaisua arduratzen zen "txakurrena"ren salmentaz.

64. Armadorearen "sekretaria" (PAS-005/049)

Armadorearen idazkariak zer eginkizun zituen aipatzen du. Idazkaria arduratzen zen diru kontuetaz.

65. Saregileak (PAS-005/051)

Saregileen lanari buruzko azalpenak ematen ditu. Sare berria nola egiten zuten. Saregileen artean bat izaten zen arduradura, eta beste bost-sei saregile izaten zituen bere aginduetara.

66. Sare konpontzen (PAS-005/052)

Sare-konpontzaileen lanari buruzko azalpenak ematen ditu.

67. Sareak tindatzea (PAS-005/053)

Sareen tindaketari buruzko azalpenak ematen ditu. Sarea tindatuta ilunago geratzen da, eta, horrela, arraina ez da ikaratzen. Marroi kolorea hartzen zuten sareek.

68. Kofradia (PAS-005/054)

Pasai Donibaneko kofradia non zegoen aipatzen du. Egunero altxatzen zuten kofradiako bandera. Kofrafian arrantzari buruzko erabakiak hartzen ziren.

69. Karmengo Amaren Eguna (PAS-005/055)

Arrantzaleen zaindaria da Karmengo Ama. Uztailaren 16an, Trintxerpetik Lezo aldera prozesioa egiten dute baporeekin. Apaizaren bedeinkazioak.

70. Baporeen bedeinkazioak (PAS-005/056)

Bapora bikote berria ekartzen zutenean, bedeinkatu egiten ziren. Bapora asko Zumaian egindakoak izaten ziren. Behin baporeak bedeinkatuta, armadoreak

bazkaritara gonbidatzen zituen. Camara edo Txulotxo jatetxera joaten ziren bazkaltzera.

71. Itsasoratu aurretik, bazkaria (PAS-005/057)

Bi baporeak itsasora joan behar zutenean, nagusiak bazkaria ematen zien idazkariari, bi kapitain, bi peska eta lau makinistei.

72. Santio jaiak (PAS-005/059)

Patxi gaztea zela, zortzi egunean zezenak izaten ziren Santiotan. Lasturtik ekartzen zituzten txekor eta betizuak.

73. Zezenak (PAS-005/061)

Patxi gaztea zela, zortzi egunean zezenak izaten ziren Santiotan. Entzierroa. Zezenak uretara salto egindako kontuak.

74. Arrosariak baporearen zubian (PAS-005/062)

Bapore gehienak gurutzeak eta arrosariak eramaten zituzten zubian.

75. Flota eta gerrako erasoak (PAS-005/063)

Herriko baporeen izenak aipatzen ditu: Ama Guadalupekoa, Lurdesko Ama, Gure Ametsa (lehengoa eta bigarrena). Gerra denboran, Gure Ametsa baporeek asko sufritu zuten itsasoan. Arrantzan ari zirela, hegazkinek eraso egin zien. Egurrezko bi bapore urperatu egin zituzten tripulazio eta guzti. Berdingabea eta Liraina baporeak justu libratu omen ziren.

76. Baporeen arteko harremana (PAS-005/064)

Inguruko herrietako baporeak oso ondo konpontzen ziren elkarrekin.

77. 'Salamancara' bertsoa (PAS-005/068)

"Txiki-txikitatik Salamancara..." bertsoak abesten ditu.

78. Guadalupera, nobenako mezara (PAS-005/071)

Igandetan, Guadalupera joaten ziren nobenako meza entzutera. 10-12 mutil joaten ziren Jaizkibeldik oinez.

79. Ikurrina baporetan (PAS-005/072)

Gerra ondorenean, ikurrina debekatuta zegoen. Patxik baporetako eskailerak zuri, gorri eta berdez margotzen zituen. Baporeko zubian ere ikurrina jartzen zuen.

80. Alkate jauna (PAS-005/073)

Pasai Donibaneko alkateei buruz hitz egiten du. Gehienak, EAJ-PNVkoak izan direla dio. Lehen, alkatea bastoiarekin (aginte makila) joaten ziren meza nagusira.

81. Itsasoa zikin (PAS-005/074)

500 barku zeuden garaian itsasoa zikina egoten zen. Itsasontziak garbitzean, bertako olio uretara joaten zen.

82. Almejak, txirlak eta muskulikuak (PAS-005/075)

Marea jaisten zenean, aitzurra eta baldea edo sagarra biltzeko otarra hartuta joaten ziren almejatarak. Almejak, txirlak eta muskuiluak nola biltzen zituzten azaltzen du.

83. Amak prestatutako almejak (PAS-005/076)

Amak almejak nola prestatzen zituen kontatzen du. Almejak arrozarekin. Bederatzi anai-arreba eta gurasoak izaten ziren mahaiaren bueltan. Ogiaren orde, taloa jaten zuten.

84. Aitaren soldata eta ogia (PAS-005/077)

Bederatzi anai-arreba ziren, eta aita bakarrik egiten zuen lana etxetik kanpora. Aitaren soldatari buruzkoak. Ez zuten ogia erosteko dirurik izaten. Nolako ogiak zeuden lehen. "Boilo frantsesa".

85. Oiartzunera, errotara (PAS-005/080)

Patxiren amak egiten zituen taloak. Oiartzungo errotak. Artoa entregatzen zuten, eta arto-irina jaso. Bi alditan harrapatu zuen guardia zibilak artoarekin errotara zihoala. Artoa kendu zioten bietan.

86. Lapak (PAS-005/082)

Lapatarak joaten zireneko kontuak. Jateko nola prestatzen zuten lapa.

87. Harrobiko kamioia kargatzen (PAS-005/083)

Gerra denboran, harrobia egin zuten Gaztelutxon. Mitiliarrak jarri ziren bertan lanean. Patxik kamioiak kargatzen laguntzen zuen lehenagotik. Harrobiko lanari buruzko azalpenak. Bolbora kartutxoekin harria nola ateratzen zuten kontatzen du.

88. Sagardoa (PAS-005/084)

Urtero egiten zuten sagardoa. Larunbatero egiten zuten barrikotea. Txalaka sagarra.

89. Bolbora kartutxoekin arrantzan I (PAS-005/085)

Mutil kozkorra zela harrobiko kamioiak kargatzen ibiltzen Patxi. Egun batean, dozerdi bolbora kartutxo hartu zituen harrobitik, eta lagunekin arrantzara joan zen. Bolborarekin nola arrantzatu zuten kontatzen du. Tresnak: salabardoa eta kanabera. Apasta: itsasoan arraina erakartzeko erabiltzen den masa. Apasta nola prestatzen zuten kontatzen du.

90. Bolbora kartutxoekin arrantzan II (PAS-005/086)

Egun batean, dozerdi bolbora kartutxo hartu zituen harrobitik, eta lagunekin arrantzara joan zen. Bolborarekin nola arrantzatu zuten kontatzen du. Arrainak urazalean geratu ziren, baina salabardoarekin ezin harrapatuta ibili ziren. Txanela batean joan ziren hiru lagun arrainak hartzera. Harrapatutako arrainak: doradak, erlak eta muxarrak.

91. 14 lagunentzako afaria (PAS-005/087)

Egun batean, dozerdi bolbora kartutxo hartu zituen harrobitik, eta lagunekin arrantzara joan zen. Arrantzatutakoarekin, 14 lagunek afaldu zuten komentuan. Komentua hutsik zegoen, eta auzokoek zuten bertako giltza.

92. Trintxer baseritik Kanpitxo baserrira (PAS-008/002)

Lehen, Trintxer baserri ingurua nolakoa zen deskribatzen du: dena basoa zen, zenbait baserri zeuden inguruan... Urtebete inguru egon ziren Trintxer baserrian, Andonaegi armadoreak erosi zuen arte. Orduan, Kanpitxo baserrira joan ziren, San Pedrora. Errentan egon ziren han.

93. Aitaren lanak, eta Trintxerperen itxura lehen (PAS-008/003)

Aita kale-garbitzaile eta lurperatzaile izan zen San Pedron eta Trintxerpen. Lehen, bera mutikoa zela, lau bat etxe zeuden Trintxerpen, besterik ez; gainerakoan, dena baserriak eta basoa ziren han. Aitak Pasaiaiko udaletxeko langilea zen.

94. Ibiltzeko zaletasuna, bide berriak ezagutzeko gogoa (PAS-008/010)

Baserritik behera, portua eta itsasoa zegoen; gora, mendia eta basoa. Emiliok mendira joateko ohitura handia zuen; ibiltzea gustatzen zitzaion. Gaztetan egindako ibilaldiak aipatzen ditu.

95. Txapel-fabrikan lanean (PAS-008/012)

14 urterekin, Antxon txapel-fabrikan hasi zen lanean: 3 pezeta ematen zizkioten 8 lanorduren trukean. Txapel-fabrikan zer lan egiten zituzten azaltzen du.

96. Portuan, txapel-fabrikan baino lan-baldintza hobeak (PAS-008/013)

Txapel-fabrikan zebilela, konturatu zen portuan lan eginda gehiago irabazten zela. Hara joan zen lanera; baina, orduan, gerrara eraman zuten.

97. Barkuak margotzeko jakin beharrekoak (PAS-008/016)

Lehen, barkuak egurrezkoak izaten ziren. Barkuak margotzeko pausoak, materialak eta tresnak zein ziren azaltzen du. Gasolioarekin garbitzen zuten pinturak zikindutakoa.

98. Galegoak "El poblado de Francisco Franco"n (PAS-008/018)

Pasaiaiko "Poblado de Francisco Franco"ri buruz hitz egiten du. Horko etxeak errentakoak ziren, baina azkenean maizterrak etxeen jabe egin ziren. Galiziatik jende asko etorri zen "Poblado"ra. Galegoen etxeetan, 6, 8, baita 10 apopilo ere bizi ohi ziren. Andonaegi armadoreak ekarri zuen jende asko Galiziatik, arrantzarako lan-baldintza okerragoak onartzen baitzituzten haiek.

99. Itsasoan egindako gehiegikerien ondorioak (PAS-008/019)

Lehen, Pasaian, barku asko zegoen; etengabe sartzen eta ateratzen ziren. Orain, arraina asko gutxitu da, garai batean gehiegikeria handiak egin zirelako. Lehen, arrain txikiak harrapatzen zituzten, eta itsasora botatzen zituzten, handiak estimatzen baitziren salmentan.

100. Bi gerraren eragina (PAS-008/021)

Lehen, Pasaiaiko portuan, lan handia zegoen. Emilio karga eta deskargako lanetan ibili zen. Gerora, II. Mundu Gerra etorri zenean, barkuak metrailatu egiten zituzten; eta, horregatik, inor ez zen ausartzen itsasora irteten. Anaia zaharrena gerratik bueltan hil zen; Emilio gerran zen orduan, eta ez zioten etxera itzultzeko baimenik eman. Beste anaiak gerrara joan behar zuela, Emiliok haren lana hartu zuen portuan. Orduko lan-baldintzak aipatzen ditu.

101. Pasaiaiko portua lehen (PAS-008/023)

Lehen, Pasaiaiko portua nolakoa zen azaltzen du. Padura zegoen, eta uretan jolasean ibiltzen ziren umetan. Muskuilu asko zegoen inguru hartan, baina galegoek bildu eta garbitu egin omen zuten ingurua.

102. Euskararen beherakada Pasaian (PAS-008/025)

Eskolan erdaraz ikasten zuten. Pasai San Juanen ondo xamar gorde zuten euskara; baina, gainerakoan, Pasaian, euskara galdu egin zen, giroa aldatu zen. Gerra bukatu eta gero hasi ziren "Poblado"a eraikitzen Pasaian.

103. Gerra hasi zenean, bikarioa hil zuten (PAS-008/026)

Gerra Zibila hasi zenekoa gogoan du. 15 urte zituen. Trintxerpeko bikarioa hil zuten, eskuindarra izateagatik.

104. Gerran, herria hustu egin zen (PAS-008/027)

Gerra etorri zenean, gehienek Bilbo aldera egin zuten alde. Beraiek, ordea, herrian gelditu ziren; aitzak erabaki zuen ez zela handik mugituko.

105. Arraina aukeran zegoeneko garaia (PAS-008/032)

Lehen, arraina aukeran zegoen. Horrenbeste, batzuetan baratzerara bota behar izaten baitzuten, simaurra egiteko.

106. Sei urte soldadu (PAS-008/036)

Soldadutzan sei urte eman zituen. Gerran, nondik nora ibili zen eta zer komeria bizi zituen azaltzen du. Lizentziatu ostean, etxera itzuli zen; baina berriro mobilizatu zituzten handik gutxira.

107. Soldadu zegoela, sarna harrapatu zuen (PAS-008/037)

Soldadutzako denbora gehienez, mendian ibiltzea tokatu zitzaion. Sarna ere harrapatu zuen.

108. Itsasoko txoriak (PAS-008/047)

Itsasoko txoriak lehen eta orain nola bizi ziren alderatzen du. Txori klaseak aipatzen ditu. Txori batzuk lagungarriak izaten ziren arrantzarako.

109. Lehen orain baino txori gehiago zegoen (PAS-008/048)

Lehen txori asko ibiltzen zen beraien baserri inguruan. Ehiza egiteko ohitura zuten etxean. Txori asko zegoen garai batean; baina orain galdu egin da asko, belarra kentzeko pozoien ondorioz.

110. Txoriak harrapatzeko teknikak (PAS-008/049)

Ehizarako, apeuan aritzen ziren. Horrela, hainbat txori klase harrapatzen zituzten. Txoriak harrapatzeko teknikak azaltzen ditu.

111. Txoriak harrapatu, eta kaiolara (PAS-008/050)

Garai batean, txori asko harrapatzen zituzten. Batzuk saldu egiten zituzten, jendeak kaiolatan eduki zitzaizkion etxean. Karnaba omen da txori kantaririk onena.

112. Txoriak harrapatu, eta platerera (PAS-008/051)

Garai batean, txori asko harrapatzen zituzten. Harrapatutako txori batzuk jan egiten zituzten. Txoriak harrapatzeko zepoan, ogi puska edo arto alea jartzen zuten.

113. "Gaizto amorratuak izan gara" (PAS-009/003)

Umetan, herriko eskolan ibili zen. Maistrari buruzko azalpenak ematen ditu. Umetako gaiztakeriak: sagarrak ostu, eskola orduan San Pedrora igerian joan, katu harrapatzen ibili... Erdietan ez zen eskolara joaten.

114. Etxean, euskaraz (PAS-009/005)

Eskolak erdaraz izaten ziren: zigorra jartzen zien euskaraz eginez gero. Etxean, euskaraz egiten zuten. Francoren denboran, galarazita zegoen kalean euskaraz hitz egitea.

115. Arropak eta garbitokiak (PAS-009/007)

Umetako arropak nolakoa izaten ziren. San Juan bezperan estreinatu ohi zen arropa berria. Gaztetan, etxe atzeko garbitokira joaten zen arropak garbitzera. Garbitokia nolakoa zen azaltzen du. Garbitokian, kantuan aritzen ziren arropak xaboitzen zituzten bitartean. Gero, kale aldean beste garbitoki bat egiten zuten.

116. "Ujuka, arraina" (PAS-009/010)

Gazterik hasi zen arraina saltzen beste bi lagunekin batera. Moilan arraina pisatzeko eta prestatzeko postua jartzen zuten, eta Manoli "ujuka" joaten zen kalean barrena. Manolik enkarguak hartu, lagunak eskatutakoa prestatu eta, gero, etxez etxe entregatu ohi zituen eskariak. Arratsaldetan, sare-konpontzera joaten zen. Arraina ohol batean jarri eta buru gainean edota saihets aldean eraman ohi zuen.

117. Donostiako moilara, arrain bila (PAS-009/011)

Baporeak Donostian sartzen ziren, eta Manoli hango moilara joaten zen arrain bila. San Pedron hartzen zuen Donostiarako autobusa. Arrainez betetako kalderak autobus gainaldean joaten ziren. Autobus gidariek arraina osten omen zien: "haiek arrantza hobea edukitzen zuten lehorrean" dio. Herrian saltzen zuen arrain gehiena, bertan baitzuen parrokia hartua. Zerbait saldu

gabe geratzen bazitzaion, Lezora edota Erreteriarra joaten zen. Herrira lehenbizi iristen zenak saltzen omen zuen gehien. "Antxoa, antxoa!" edo tokatzen zen arraina esanez joaten zen kalean barrena, eta bezeroak leihora hurbildu eta zain egoteko esaten zioten; gero, kalean egiten zuten salerosketa. Arrasteroko arraina, Trintxerpen hartzen zuen.

118. Arrain-salmenta; neurriak (PAS-009/012)

Arrain-salmentari buruz hitz egiten du. Antxoa eta berdela dozenaka saltzen ziren. Arrasteroko arraina, berriz, pisatuta.

119. Mantala jantzita, arraina saltzeko (PAS-009/013)

Mantala jantzita ibiltzen ziren arraina saltzen. Uztailaren 27an, Arrantzale Egunean, mantala eta lepoan zapia jantzi ohi zuten.

120. "Los cuatro caballos" edo lau baporeak (PAS-009/016)

Etxeko baporea nolakoa zen azaltzen du. Herrian egin zen itsasontzi berrietan lehendabizikoa izan zen Manoliren etxekoa. Ondoren, beste hiru egin ziren. "Los cuatro caballos" esaten zien. Baporeen izenak: Karmengo Ama (Manoliren etxekoa), Santa Faustina, 'Nuevo Virgen de la Torre' eta 'Gran San Luis'. Herriko Goldarazena ontziolan egin ziren lau baporeak. Lehenago eduki zituzten ontziak nolakoak ziren aipatzen du.

121. Gizonezko eta emakumezkoen lehorreko lanak (PAS-009/017)

Arraina deskargatzea, aparejuak eta beita prestatzea... gizonezkoen lana izaten zen. Arraina deskargatzera Trintxerpera joaten ziren. Hilean behin, Manolik komandantziara joan behar izaten zuen baporeko liburua zigilatzen. Tripulazioan 14-15 lagun zeuden izena emanda. Salmenta, emakumeek egiten zuten, eta horretan aritzen zirenei "pixonera" esaten zien. Herriko hainbat "pixonera" aipatzen ditu.

122. Getariara, "sarean" ikastera (PAS-009/018)

Gaztea zela ikasi zuen sareak josten. 14 urte zituela, Getariara joan zen Fidela izeneko maistra batekin sareak egiten ikastera. Getarian egon zen denboran, etxera bueltatzeko gogoz egon omen zen. Etxera nola bueltatu zen kontatzen du. Behin etxean, aitarekin sare txiki bat egin zuen: sarea nola egin zuten azaltzen du.

123. Kotoizko sareak: lehortzea eta tindatzea (PAS-009/019)

Garai batean, kotoizko sareak erabiltzen ziren, eta, erraz usteltzen zirenez, aldian-aldian jarri behar izaten ziren lehortzen. Sareak tindatu egiten ziren ez hondatzeko. Sareak tindatzea: galdara handi batean jartzen zen ura irakiten, hari tinda bota eta han sartzen ziren sareak. Geroago hasi ziren nylonezko sareak, gogorrangoak.

124. Sarearen mailak (PAS-009/020)

Sareak nolakoa izaten ziren: erdian, maila txikia; hegaletan, maila handia; kortxoak eta berunak non jartzen ziren... Sareak estrainatu behar zirenean, kortxo artean Ama Birjinaren irudiren bat jartzen zuten zorte ona izateko.

125. Sareak, hariak eta orratzak (PAS-009/022)

Sareak josteko orratzak: egurrezkoak eta plastikozkoak izaten ziren, eta hainbat neurritakoak ziren. Sareak egiteko hiru hari mota erabiltzen zituzten: egin behar zen sareko zatiaren arabera. Saregintzan aritzeko tresnak Donostian, 'Efectos Navales'en, edo Hondarribiko kooperatiban erosten zituzten.

126. Baporeko, bi sare-konpontzaile (PAS-009/024)

Sare-konponketari buruzko azalpenak. Lana nola egiten zuten kontatzen du: sarea pasaratzea, konpontzea... Bapore bakoitzak bere sare-konpontzaileak izaten zituen. Normalean, baporeko bi emakume aritzen ziren sare-konpontzen. Sareak oso hondatuta iristen zirenean, sare-konpontzaileek elkarri laguntzen zioten.

127. Sare-jostea: aulki txikietan edo lurrean eserita (PAS-009/026)

Sare-konpontzaileen lana, nekagarria. Bizkarreko minak. Kuxin baten gainean edo aulki txiki batean eserita aritzen ziren sare-konpontzen. Sare-konpontzaileen arteko harremana nolakoa zen azaltzen du.

128. Sare-konpontzaileen arteko giroa (PAS-009/027)

Sarea josteko sarea bera hankekin nola tenkatu behar izaten den azaltzen du, hankak gurutzatuta. Lan asko izaten zuten, baina beti kontentu aritzen ziren. Sare-konpontzaileen arteko harremana: giro onean aritzen ziren lanean, kantuan, elkarri adarra jotzen, atsedenaldiko kafesnea... Pasadizo batzuk kontatzen ditu.

129. Zakotea (PAS-009/029)

Zakotea: marinel bakoitzak bere janaria eramateko poltsa. Manolik prestatzen zituen etxeko baporeko gizonen zakoteak. Zakote bakoitzean zer sartzen zuen aipatzen du.

130. Atunetara, Algecirasera (PAS-009/030)

Bapore berria ekarri zutenean, Manoliren senarra-eta Algecirasera (Cádiz) joan ziren atunetara. Bi hilabete egin zituzten itsasoan. Atuna kanaberarekin harrapatzen zuten.

131. Atuna nola harrapatzen zen (PAS-009/032)

Atunetarako arto-malutak erabiltzen ziren. Gizonek prestatzen zituzten aparejuak. Atuna kanaberarekin harrapatutakoan, tresna batekin buruan jota hiltzen zituzten.

132. Txurikinak, atunetarako (PAS-009/033)

Atunetan txurikinarekin egiten zen, arto azalarekin egindako aparejuarekin. Etxeko andreek tindatu egiten zituzten. Orraztu egiten zuten azala, eta amuaren bueltan jarri, "kamufilatuta". Gero, nylonezkoak atera zituzten.

133. Oiartzunera, dantzara (PAS-009/040)

Gaztetan, Oiartzun aldera joaten ziren dantzara. Hango auzoetan, soinu-jolea izaten zen, eta dantza soltean aritzen ziren. Errenterian hartzen zuten

Oiartzunera joateko autobusa. Manoliri asko gustatu izan zaio dantzatzea eta kantatzea.

134. Antxoa kontserbatzeko prozesua (PAS-009/044)

Antxoa asko harrapatzen zenean, arrantzale bakoitzak antxoa kopuru bat eramaten zuen etxera. Manolik bizilagun batekin gazitzen zuen antxoa etxeko biltegian. Antxoa gatzunetan jartzea, garbitzea (tripak eta burua kentzea), potoetan sartzea... nola egiten zuten azaltzen du.

135. Atunaren arrantza eta beita (PAS-009/046)

Atunetarako, antxoa erabiltzen zen beita gisa. Itsasontzi bakoitzak sei eta bederatzi haztegi ("bibero") artean izaten zituen; han edukitzen zituzten antxoak, bizirik. Antxoak bizi zeudela, amuan jarri, kanabera bota eta atuna harrapatzen zuten. Atuna ontzira igo, hil eta hozkailuan gordetzen zituzten, jelatan. Arrantzak dituen arriskuak.

136. Atunaren kanpainaren nondik norakoak (PAS-009/047)

Etxeko baporearekin atun bila nora joaten ziren aipatzen du. Atunetan, Santander aldean eta etxetik gertuxeago ibiltzen ziren. Horrelakoetan, 15 eguneko kanpaina izaten zen. Algecirasera joan zirenean, bi hilabete egin zituzten itsasoan. Ontziaren ezaugarriak (hokailua, komuna...), kanpaina bakoitzeko jan-edanak, jela... nola izaten ziren kontatzen du.

137. Irrati bidez itsasontzikoekin komunikatzen (PAS-009/048)

Manoliren senarra eta semea arrantzaleak ziren. Haiek noiz bueltatuko egoten zen etxean. Irrati bidez jakinarazten zioten noiz bueltatuko ziren etxera, sarea hautsi zela, zenbat arrain harrapatu zuten (klabea hitz eginez esaten zioten)...

138. Amonak itsasoan galdu zuen aita (PAS-009/050)

Denborale baten eraginez, Manoliren amonak aita eta hainbat anaia itsasoan itota galdu zituen. Itsasontziek gaur egungoek baino potentzia gutxiago izaten zuten, eta ontziak buelta emanda ito omen ziren.

139. Igerian ez zekiten arrantzaleak (PAS-009/051)

Lehen, arrantzale guztiek ez zuten jakiten igeri egiten. Etxeko baporeko ba omen ziren tripulazioko bi kide igerian ez zekitenak.

140. Iaioa igerian (PAS-009/052)

Gaztetako ibilerak. Igerian non ikasi zuen. Askotan, San Pedrora joaten ziren igerian. Lagun arteko jolasak. Bainujantzia, "holako-holakoa": hasieran, hanka artean kateorratza jarritako soineko zahar bat erabiltzen zuen... Udatiarrek txanponak botatzen zizkien uretara jauzi egin eta hartzeko.

141. "Tres navios en el mar" eta beste jolas batzuk (PAS-009/053)

Gaztetako ibilerak. Jolasak: "Tres navios en el mar", bata bestearen gainetik salto egiten, sokasaltoan... ibiltzen ziren. Neskak eta mutilak elkarrekin aritzen ziren jolasean.

142. Umetako gaiztakeriak (PAS-009/054)

Gaiztakeriak: baserritarrei sagarrak osten, kanposantutik larrosak harrapatzen... ibiltzen ziren. Kilker bila joaten ziren, gero etxean edukitzeko.

143. Aita eta osaba lanpernatan (PAS-009/057)

Manoliren aita eta osaba ibili ohi ziren lanpernetan, baina ez zuten oso gustuko. Lanpernetan ibiltzeak zer arrisku dituen aipatzen du. Lanpernak estimazio handia izaten zuten, eta diru asko ateratzen zen haien salmentarekin. Hala ere, Manoliren aitak etxerako edo opariren bat egiteko bildu ohi zituen soilik.

144. Olagarrotan (PAS-009/058)

Manoliren aita-eta arroketan ibiltzen ziren olagarrotan. Olagarroak nola harrapatzen zituzten: kaiolekin. Beraiek egiten zituzten kaiolak. Behin etxeratutakoan, balkoian jartzen zituzten lehortzen olagarroak. Olagarroa plantxan erreta jan ohi zuten.

145. Langostatan (PAS-009/059)

Manoliren aita eta osaba langostak harrapatzeko ibiltzen ziren. Beraiek egiten zituzten langostak harrapatzeko kaiolak. Kaiola barruan atun buruak sartzen zituzten beita gisa.

146. Almejak, lapak eta muskuiluak (PAS-009/062)

Manoli ez da iaioa izan almejak biltzen. Donibaneko bi-hiru tokitan (errekan, plazan...) harrapatzen zen almeja. Tokiaren arabera, kolore ezberdina izaten zuen almejak (zuria, beltza...). Almeja itsasbeheran eta aitzurrarekin atera ohi da hondar azpitik. Lapak arroketan biltzen ziren: Lezo aldetik jende asko joaten zen Donibanera lapa bila. Muskuilu asko zegoen lehen.

147. Etxean arrain faltarik ez (PAS-009/063)

Etxeko baporea edukita, etxean ez zen arrain faltarik izaten. Askotan, etxean arrain asko izanez gero, txistera luze bat hartu eta arraina saltzera joaten zen herrira. Donibanen arraina ondo saltzen zen.

148. Bisiguaren arrantza, eskuz (PAS-009/064)

Bisiguaren arrantza, eskuz. Antxoa beitzeko erabiltzen zen. Manoliren aitona bisigutan ibiltzen omen zen. Kostako beste herri batzuetako lagunak joaten ziren Donibanera bisigutara, eta beraien etxean egiten zuten lo.

149. Baporeko sareak eta berrikuntzak (PAS-009/066)

Manoliren etxeko baporeak bi sare handi zituen, antxoatarakoak (bat hausten bazen, bestea erabiltzen zuten). Txitxarroarako eta beita egiteko beste bi sare (zaharragoak hauek). Guztira, lau-bost sare izango zituzten. Antxoatarako beti sare onak erabiltzen ziren. Lehen, begiz jakiten zuten sarea non bota (arrainaren zuritasuna antzematen zuten, gizon bat joan ohi zen txanelean...); gero, radarrak hasi ziren.

150. Arraina deskargatzen eta baserriko lanetan (PAS-010/003)

Meipira joaten zen lanera, arraina deskargatzera. Baserriko lanetan ere aritu izan da; esnea partitzen zuten herrian.

151. Birigarroak etxean hazi (PAS-010/005)

Umetan birigarroak hartzen zituzten habietatik, eta etxean hazi.

152. Eskopetarekin, usotan (PAS-010/007)

Eskopetarekin ere ibiltzen zen, usotan.

153. Lapatan eta lanpernatan, arroketan (PAS-010/008)

Lapa bila asko ibili da umetatik. Saldu ere egiten zituzten, Lezon. Lanpernak ere bai. Arraina ere arrantzatzen zuen, karraspioak eta. Olagarrorik ez.

154. Arrantzan, atunetan (PAS-010/010)

24 urterekin itsasoan hasi zen, arrantzan. Atunetan, lehenengo.

155. Arrantzan, antxoatan eta atunetan (PAS-010/011)

16 lagun joaten ziren itsasontzian. Antxoatan, gauez. Atunetan, zortzi kanabera erabiltzen zituzten aldiko. 16-18 egun egiten zituzten itsasontzian, bertan jan eta lo. Sukaldari ere ibili zen.

156. Atuna Getarian deskargatzen zuten (PAS-010/013)

Atuna Getarian deskargatzen zuten. Benteroek erosten zieten arraina; benta euskaraz izaten zen han. Denen artean itsasontzia garbitu, eta etxera.

157. Antxoatan, gauez (PAS-010/014)

Antxoatan ere ibili izan da. Gauez. Sarea nolakoa zen. Salabardoarekin ateratzen zuten arraina saretik itsasontzira. Antxoa asko zenean, ezin dena saldu eta simaurretarako ere erabiltzen zuten.

158. Eguberrian, bisigutan eta txitxarrota (PAS-010/016)

Neguan, bisigutan eta txitxarrota. Eguberri aldera hasten ziren. Aparejoarekin ibiltzen ziren, amuetan sardina gazitua jarrita. Karretearen batzen zuten aparejoa.

159. Bisigutara, lau orduko bidea (PAS-010/020)

Bisigutara joateko lau orduko bidea egiten zuten, eta hurrengo egunean bueltatu. Janaria norberak eramaten zuen etxetik. Beti ezagutu du komuna itsasontzian.

160. Armadoreak eta jorna (PAS-010/021)

Zazpi-zortzi arrantza ontzi zeuden lehen Pasaian. Armadoreak. Joralaren partiketa nola izaten zen. "Partiya" eta "txakurrena".

161. Sare konpontzaileak eta sareak (PAS-010/027)

Sare konpontzaileak. Barku bakoitzak bereak zituen, baina elkarri ere laguntzen zioten. Sareak tindatu egiten zituzten Meipin, eta Bonantzan jarri lehortzen.

162. Patroi onak arrain asko harrapatu (PAS-010/033)

Denetariko patroiak zeuden; patroi onek nebera betetzen zuten. Beste ontziak zeuden tokira joateko ohitura zegoen. Atunetakoa zen kanpaina gogorrena.

163. Kontserba lantegiak; antxoak salmueran (PAS-010/034)

Kontserba lantegiak Orion eta Getarian zeuden. Pasaian ere bazen bat. Eskabetxea. Antxoa asko zenean, etxean ere jartzen zuten salmueran.

164. Gerra hasi zeneko oroitzapenak (PAS-010/038)

Gerrako oroitzapenak. Jendea arroketara joaten zen, babesleku bila. Ez zuten inor etxean hartu. Soldaduak izan zituzten inguruan, eta kafesnea ematen zieten.

165. Gerraostean, astoarekin errotara (PAS-010/039)

Gerraostea. Errotarik ez zen inguruan, eta Oiartzunera joaten ziren artoarekin, gero taloak egiteko. Ogi gutxi zegoen. Astoarekin joaten ziren, batzuetan gauez. Udaletxera babarruna eraman beharra.

166. Euskara diferenteei buruzko iritzia (PAS-010/040)

Pasaiako euskara eta Oiartzungoa desberdinak dira. Donostiakoa eta Tolosakoa garbiak dira. Hondarribikoak "karramarruk" dira. Bizkaiera "zikina" iruditzen zaio.

167. Errentan bizitzearen gorabeherak (PAS-011/003)

Etxean errentan bizi ziren, eta behin amak etxearen teilatua konpontzeko eskatu zion jabeari; hark, ordea, ez zuen konpondu nahi izan, eta gainera errenta igo zien. Gerora, jabea boto eske etorri zitzaien, eta amak ez zion nahi eman izan. Errenta dirutan ematen zuten.

168. Arrokaundietaren egitura eta bizia (PAS-011/006)

Baserria zaharra zen: hiru logela zituen eta denak han kabitzen ziren. Gerra garaian, lehengusuak ere etortzen ziren. Etxean mantak eta maindireak beti izaten zituzten. Etxean ez zuten urik eta urrutira joan behar izaten zuten arropa garbitzera.

169. Baserriko lana eta aitaren soldata (PAS-011/007)

Antxoko moilan egin zuen lan, baina soldatarik gabe gelditu zen ez ziotelako abisatu zer egin behar zuen soldata hura jasotzeko. Baratzetik lortzen zuten jeneroa entregatu egin behar izaten zuten gerra ostean. Errotara astoarekin joaten ziren. Etxean bazuten makina bat garia ehotzeko.

170. Iturrirako bidean izandako komeriak (PAS-011/009)

Etxean ez zuten urik, eta behorrarekin joaten ziren edateko ur bila. Iturria nahiko urruti zegoen. Behin anaia eta ama joan ziren ur bila, eta elurra hasi zuenez, behorra etzan egin zitzaien; asko kostata altxa zuten.

171. Errekara arropa buru gainean zeramatela (PAS-011/011)

Arropak garbitzera errekarara joaten ziren. Arropa buru gainean eramaten zuten, burutea jarrita. Burutea nola jartzen zuten azaltzen dute.

172. Lehengo emakumeen bizimodua (PAS-011/013)

Ama astoarekin joaten zen kalera esnea banatzera. Lehen bizimodua gogorra zen. Gurasoek biek egiten zuten lan kanpoan, baina etxeko lanak amaren ardura izaten ziren. Gaur egungo emakumearen ardurei buruzko iritzia ematen dute.

173. Etxeko koltxoiak, argia eta haizea (PAS-011/016)

Etxeko koltxoiak artilez egindakoak ziren; urtero harrotzen zituzten. Etxean argia izateko nola moldatzen ziren azaltzen dute. Etxean beldur handia pasatzen zuten haizearengatik; izan ere, tabikea bota zuen behin.

174. Baserritik kalerako bidea (PAS-011/025)

Beraien baserritik kalera joateko bide txarrak zeuden, baina beraiek ondo ezagutzen zituzten bideko txokoak. Mezara sartzeko beste oinetako batzuk eramaten zituzten. Euritik babesteko, zakua jartzen zuten gizonak buruan.

175. Ilea ondo zaintzen zuten (PAS-011/027)

Ilea astean behin garbitzen zuten. Eskolan zorriak izan zirenean, Ramonik ez zituen izan. Amak ondo zaintzen zituen seme-alabak. Ramonik San Juanen bainua hartzen zuenean, gero minak izaten zituen ilea orrazteko, eta horregatik ez zuen ikasi igerian. Uretan sartzeko, soineko zaharrak janzen zituzten.

176. Eskolara joaterako, nekatuta (PAS-011/029)

Eskolan zer ikasten zuten azaltzen du Ramonik. Liburuak erabiltzen zituzten. Anaia oso goiz jaikitzen zen ur bila joateko, eta horregatik, eskolara iristerako nekatuta egoten zen.

177. Birigarroaren nahia (PAS-011/033)

Anaiak txorien habia bila aritzen ziren; haiek harrapatutako birigarroak Ramonik zaintzen zituen. Egun batean, gizon batek birigarro bat eskatu zuen, dentista izanda, kontsultan eduki nahi baitzuen. Han, ordea, birigarroak ez zuen abesten.

178. Kilkerak etxean (PAS-011/035)

Kilkerrak harrapatzen zituzten umetan, eta gero etxean edukitzen zituzten, poto baten barruan, zuloak eginda.

179. Lanpernak harrapatzeko arriskuak (PAS-011/036)

Gizonak lapa eta lanperna bila joaten ziren. Aitaren arreba bat ito egin zen lanperna bila joanda. Lanpernak harrapatzea arriskutsua da edozein tokitan.

180. Bizikletan ibiltzeko grina (PAS-011/038)

Bizikletan ibiltzeko grina handia izaten zuen Ramonik, baina amak ez zion uzten. Bizikletan gonarekin ibiltzen zen.

181. Emakumeen lana Pysben (PAS-011/042)

Pysbetik 9 barku joaten ziren Ternuara. Bakailao hura gazitu eta saldu egiten zen. Bakailaotan emakumeek lana gogor egiten zuten. Emakumeen eta gizonen artean lehiaketa egiten zuten, nork lan gehiago egingo.

182. Etorkinak eta erdara Pasaian (PAS-011/043)

Pasaian aldaketa handia egon zen, kanpotik jende asko etorri baitzen. "Manchurriano" deitzen zieten etorkinei; batzuek ikasi zuten euskaraz, baina beste batzuek ez. San Juango emakume euskaldunei gustatzen zitzairen erdaraz hitz egitea.

183. Trabajadoreak, "miseria batean" (PAS-012/002)

Gerra garaiko oroitzapenak: tiroketak, soldaduak baserri inguruetan... lhesean zebiltzan Lezoko bi mutil Arrokaundietan ezkutatu zirela kontatzen dute. Trabajadoreak Hondarribiko bidea egiten ikusten zituzten, "miseria batean". Baserritarrek behiak zelaira ateratzen zituztenean, trabajadoreak behien errapeetara joaten omen ziren esnea hartzera. Preso zeuden soldadu horiek Jaizkibelgo txabola batzuetan erretiratzen ziren.

184. "Hik sekula ezin den esan espainola haizenik!" (PAS-012/004)

Gerra ondoren, eskolak erdaraz izaten ziren. Galarazita zegoen euskaraz egitea. Etxean, ordea, euskaraz egiten zuten. Ramonik kontatzen du Juan Joxe anaiak zera esaten ziola: "Hik sekula ezin den esan espainola haizenik!". Legorburutarrak ez ziren politikan mugitzen, baina joera abertzalea zuten.

185. Errazionamendua, estraperloa eta erregistroak (PAS-012/005)

Errazionamendua nola izaten zen azaltzen dute: tiket batzuk ematen zituzten, eta haiekin dendara joan behar izaten zuten jaki bila. Baserrian artoa eta garia biltzen zutenean, hainbesteko bat udaletxean entregatu behar izaten zuten: "ia ez zitzaigun geratzen etxerako ezer ere". Udalean lana egiten zuen gizon bat etxeko laguna zen, eta hark abisua ematen zien guardia zibilak erregistroa egitera noiz joango ziren: horrela, gauzak gorde egiten zituzten. Ramoni eta Maria Jesusen ama txikuriarekin ibiltzen zen estraperloan.

186. Jana bai, baina aukeran ez (PAS-012/008)

Arrautzak saldu egiten zituzten, eta ateratako diruarekin kalean zerbait erosi ohi zuten etxerako. Ez zuten nahi beste arratza jaten, baina ez zuten goserik pasa. Udaletxean uztatik jasotakoaren hainbesteko bat entregatu behar izaten zuten; etxerako ez zen behar adina baba geratzen beti.

187. Otorduak eta sukaldea (PAS-012/009)

Otorduetan, familia guztia bildu ohi zen mahaiaren bueltan, eta guztiek ontzi bakarretik jaten zuten. Sukaldean ekonomika zeukaten. Posterako, arroz-esnea izaten zuten.

188. Gabonetan, oparirik ez (PAS-012/010)

Gabonetan, turroia eta melokotoia bidali ohi zien senide batzuek. Erregeetan ez zen oparirik izaten. Anaia bat igeltsero lanetan aritzen zen, eta, Gabonetan, urte batean egutegi bat oparitu zioten: hark arreba gazteenari opari moduan jarri ziola kontatzen du. Ez zen ohiturarik Gabonetan oparirik jasotzeko.

189. 'Orain bi mila urteko kanta' (PAS-012/012)

Gabonetan, anaiak bertsotan aritzen ziren etxean. 'Orain bi mila urteko kanta'ren bertso bat esaten du: "Lehen iturri honetan, ura ona zan, orain nahastua eta hotza, gure artean behin egin zuen lurmentzen ez dan izotza".

190. Erreenteriara, dantzara (PAS-012/016)

Erreenteriara joaten ziren dantzara. Oinez egiten zuten joan-etorria. Garai hartan, Erreenterian euskara gehiago egiten omen zen. Lezo eta Oiartzun aldeko mutilak ere bertan biltzen ziren. Maria Jesusek eta Ramonik beti goiz etxeratu behar izaten zuten: ahizpa gazteenari beranduago etxeratzen usten omen zioten.

191. Afal aurretik, arrosarioa (PAS-012/019)

Afal aurretik, arrosarioa errezatzen zuten etxean. Amak errezatu ohi zuen, eta familiako beste guztiak inguruan egoten ziren.

192. "Hobe ditun zazpi oiartzuar galego bat baino!" (PAS-012/020)

Erreenteriako dantzaldia bukatuta, izaten zen etxera joateko laguntza eskaintzen zien mutilik. Ramonik Gurmensindo izeneko mutil galego batek etxera lagundu zioneko pasadizoa kontatzen du. Etxera bidean, anaia Gaspar ikusi zuten urrutira eta...

193. Hilerokoa, "tabu" (PAS-012/023)

Hilerokoa etorri zitzaientean, ez zekiten zer zen. Etxean ez zien gai horri buruzko azalpenik eman. Eskolan azaldu zioten Ramoniri zer zen hilerokoa.

194. Musu ematea, "bekatu mortala" (PAS-012/024)

Elizaren jarrera eta debekuak. Ramonik adibide bat ematen du: "bagenekien Aste Santuan prozesiotik atera eta mutil batekin paseoa joan eta musu emanez gero bekatu mortala zela". Musu emanez gero, konfesatu egin behar izaten zen.

195. Don Enrike medikua (PAS-012/026)

Don Enrike medikuari buruzko azalpenak. Altzakoa zen, eta batetik bestera behorarekin edota oinez ibiltzen zen. Erditzean laguntzeko, medikua joan ohi zen etxera.

196. Bedeinkazioak (PAS-012/027)

Baserrian ur eta kandela bedeinkatua edukitzen zituzten. Erramua ere edukitzen zuten. Ekaitza izaten zenean, kandela pizten zuten. Kandelario egunean, otsailaren 2an, kandelak bedeinkatzen zituzten San Juan elizan. Hurrengo egunean, San Blas egunean, janaria bedeinkatzen zen. San Anton Egunean, artoa bedeinkatu ohi zen. Don Fermin apaiza soroak eta baratzeak bedeinkatzera joaten zen baserrira, eta, trukean, fruta-arboletan ikusten zituen brinoi onenak eskatzen zizkien.

197. Umetatik egur txikitzen (PAS-012/030)

Umetan, ez zuten panpinarik eduki. Umetatik, etxeko zereginetan lagun behar izaten zuten. Zazpi urterako Ramoni egurra txikitzen aritzen zen, eta Maria Jesusek arropa pilo bat konpondu behar izaten zuen. Etxeko bakoitzak bere eginkizunak izaten zituen.

198. Hiletak (PAS-012/034)

Norbait hiltzen zenean, hilotza bi gau osoz edukitzen zen etxean, eta senide eta auzokoak biltzen ziren hildakoaren alde errezatzeko. Hilkutxa bizkarrean eramaten zen, eta, atzetik joaten ziren senide eta auzokoak. Elizkizunaren ondoren, hilkutxa bizkarrean hartu eta kanposantura eramaten zuten. Gaixo zegoen pertsona hil aurretik, apaiza akolito batekin joaten zen azken igurtzia ematera. Erramua ur bedeinkatuta sartu eta harekin bedeinkatu ohi zuen apaizak hilotza.

199. Misioak eta kalbarioak (PAS-012/037)

Misioak eta kalbarioak nolakoa izaten ziren azaltzen du.

200. Maiatzeko loreak (PAS-012/038)

Maiatzeko loreetan meza bereziak izaten ziren. Loreak eramaten zitzaizkion orduan Ama Birjinari. Ramonik abesti bat abesten du.

201. Injekzioak ematen ibilia (PAS-012/041)

Amari injekzioak eman behar izaten zizkion Ramonik, eta praktikarekin ikasi egin zuela dio. Horrela, auzoko etxeetan ibiltzen zen zeregin horretan.

202. Auzolana (PAS-012/047)

Garai batean, inaurkinak ebakitzeko, bideak konpontzeko... auzokoen laguntza izaten zen. Lanean aritu eta gero, gazta, ogia eta tragao izaten zen.

203. Gerran batetik bestera (PAS-013/002)

Gerra Zibila hasi zenean, Hondarribitik Iparraldera joan ziren ihesi. Handik Kataluniara joan ziren; eta, gerra bukatu artean, han egon ziren: senide guztiak sakabanatuta egon ziren hainbat familiatan; gerra bukatu eta zenbait urte pasa ostean, Joxek lortu zuen berriro harremanetan jartzea bera hartu zuen familiarekin. Gerra garaian, soldaduekin ibiltzen zen Joxe. Behin soldaduek ilea moztu ziotenekoa gogoan du.

204. Gerratik itzultzeko pasatako komeriak (PAS-013/003)

Gerra bukatu arte Katalunian egon zen Joxeren familia. Aitak frontetik deskantsuak izaten zituenean, baserri batean lurra goldatzen zuen. Baserri

hartakoei esker, aita ibiltzeko baimena (salbokonduktoa) lortu zuen etxera etortzeko. Euskal Herrira itzuli zirenean, etxean ez zieten utzi sartzen aita gorriekin ibili izanagatik; horregatik, Pasaiara joan ziren. Lana bilatzeko ere arazoak izan zituen aita.

205. Gerratik itzulitakoan aita lana lortzeko izandako arazoak (PAS-013/004)

Gerratik itzulitakoan, aita arazoak izan zituen lana bilatzeko; baina azkenean lortu zuen arrantzako barku batean hasia lanean. Barkuan ikatza nola kargatzen zuten azaltzen du Joxek.

206. Gasolioa arraina baino merkeagoa zenekoa (PAS-013/005)

Lehenengo barkuen motorren ezaugarriak aipatzen ditu. Batzuetan, barkuek gasolioa botatzen zuten itsasoan, horrela arrain gehiago sartzeko. Lehen arrainak gehiago balio zuen gasolioak baino.

207. Hondarribiko eta San Pedroko bizimoduak (PAS-013/009)

Hondarribian bizi zirela, amak etxeko lanez gain, baserriko lanak ere egiten zituen. San Pedrorra bizitzera joan zirenean, amak nahikoa lan bazuen 8 seme-alaba gobernatzeko.

208. Txoriekin jolasean (PAS-013/010)

Umetan zer jolasetan aritzen ziren azaltzen du Joxek. Txoriak harrapatzen ere ibiltzen ziren: abata (erreklamua) nola prestatzen zuten aipatzen du. Txoriak etxera eramaten zituzten, baina ez zituzten jaten. Bazegoen jaten zituenik, baina.

209. Birigarroaren nahia (PAS-013/012)

Etxean birigarroa izaten zuten, eta ondo zaintzen zuten. Behin dentista bat etorri zitzaion, eta birigarroa eraman nahi izan zuen bere kontsultarako; han, ordea, birigarroak ez zuen abesten, eta itzuli egin zion. Neguan txoriak tiragomarekin harrapatzen ibiltzen zen Joxe ere. Tiragoma berak nola prestatzen zuten azaltzen du.

210. Arrantzarako erabiltzen zituen aparailuak (PAS-013/015)

Joxe arrantzara joaten zen, eta orduko teknikak azaltzen ditu. Arrantza-aparailuak eta sareak nolakoak ziren deskribatzen du. Larunbatetan sareak tindatu egiten zituzten.

211. Lapa bila ibiltzeko abiadurak (PAS-013/016)

Arrantza-aparailuak zaldi-ilez egindakoak ziren. Lehen arrain eta txirla asko zegoen inguruko kostan. Aita eta Joxe bakoitza bere aldetik lapa bila joan zireneko anekdota kontatzen du. Lapak nola hartzen zituzten azaltzen du.

212. Lanpernak biltzen aritua (PAS-013/018)

Lanpernatan ere ibili izan da Joxe. Hartarako, salabardoa nola erabiltzen den azaltzen du. Joxek biltzen zituen lanpernak etxean jaten zituzten normalean. Lanpernak non bildu izan dituen aipatzen du.

213. Lanpernak biltzen ibiltzearen arriskuak (PAS-013/019)

Lanpernatan ibiltzea arriskutsua da. Behin lanpernak biltzen zebilela pasatako estutasuna kontatzen du. Jende asko hil izan da lanpernak biltzen. Amari ez zitzaion gustatzen Joxe lanperna bila joatea, bere aitarekin esperientzia txarra izan baitzuen.

214. Lehengo hezkuntza eta zigorrak (PAS-013/022)

Umetan San Pedroko kofradiako eskolan ikasi zuen, eta han maisu asko izan zituzten. Gerora, herriko eskolan ikasi zuen. Orduko maisuak onak ziren eta haien zigorrak gogoan ditu.

215. Olagarroak eta nekorak harrapatzen (PAS-013/026)

Nekorak eta olagarroak harrapatzeko, otarreak erabiltzen zituen. Otarre horien funtzionamenduaz hitz egiten du; haien barruan nekorak eta olagarroak egonez gero, olagarroek hustu egiten zituzten nekorak. Arrantza mota hori egiteko leku eta teknika aproposi buruz hitz egiten du.

216. Arrantzarako otarreak prestatzen (PAS-013/027)

Lehen otarreak beraiek nola prestatzen zituzten azaltzen du. Beraien aurrekoek beste material batzuk erabiltzen zituzten. Otarreetan harrapatutakoak Donostiako Bretxa azokara eramaten zituzten saltzeko; hara autobusez joaten ziren.

217. Galdarategiko lana eta kontrola (PAS-013/028)

13 urterekin hasi zen lanean, galdaragile. Sutegiko lan-prozesuaz hitz egiten du. Galdarategi hartan 10-15 langile zeuden. Lehenengo soldata gogoan du: 5 pezeta eta 5 xentimo.

218. Asensio Larrearen tailerrean lanean (PAS-013/029)

Galdarategiko lana utzi ostean, mekaniko hasi zen Asensio Larrearen tailerrean. Han zer lan izaten zituzten azaltzen du.

219. Itsas armadan sartzeko, itsasora lanera (PAS-013/031)

Joxe itsasoan ibili zen 3 hilabete, horrela itsas armadan egiteko soldaduska. Itsasoan ikasi zituen gauez arrantza egiteko ikasitako teknikak.

220. Antxoaren kanpainaren nondik norakoak (PAS-013/032)

Antxoa bila nora joaten ziren aipatzen du. Behin Baionan harrapatu zituzten kostatik hurbil xamar eta kartzelara eraman zituzten. Antxoaren kanpaina bukatzean, atunetan joaten ziren. Antxoatara joateko, barkua nola prestatzen zuten azaltzen du.

221. Antxoaren norabidearen arabera bota sarea (PAS-013/033)

Antxoak harrapatzean, sarea bota aurretik, arrainaren joera norakoa zen begiratu behar zuten. Orduan sarea nola botatzen zuten azaltzen du. Sareak eskuz jasotzen zituzten. Antxoak barkuan nola gordetzen eta mantentzen zituzten azaltzen du.

222. Arraina lehorrera ekartzen (PAS-013/034)

Antxoa harrapatzen zutenean, goizerako lehorrera joaten ziren deskargatzera. Antxoa barkutik deskargatzeko nola moldatzen ziren azaltzen du. Orduan erabiltzen zituzten neurriak aipatzen ditu. Arrandegian jartzen zitzairen izotza arrainei.

223. Arrainaren salmenta Pasaian (PAS-013/035)

Arrainaren salmenta hainbat portutan egiten zen. Salmentan bakoitzak zer funtzio zituen azaltzen du.

224. Antxoa soberan zegoeneko (PAS-013/036)

Garai batean antxoa asko zegoen; soberan gelditzen zen arraina, sardinatan erabiltzen zuten apasta moduan. Etxean antxoak nola prestatzen zituen azaltzen du.

225. Portura poltsarekin, arraina dohainik eramateko (PAS-014/002)

Arrantzan ibili zen garaian, antxoa soberan egoten zen, eta oparitu egiten zuten. Jendea poltsarekin joaten zen portura, arraina dohainik lortzeko. Horri buruzko iritzia ematen du.

226. Ezin saldurik zegoen arraina (PAS-014/003)

Garai batean, ezin saldurik egoten zen arraina baratzean botatzeko erabiltzen zuten. Bestela, arrainarekin irina egiten zuten.

227. Antxoaren neurria, lekuaren arabera balioa (PAS-014/005)

Antxoaren neurriaren balioaz hitz egiten du: handia gehiago estimatzen dute fabriketan, errazago egiten baita lan harekin; txikiak, ordea, goxoagoa izan arren, lan handiagoa eskatzen du. Antxoatan denbora gutxi ibili izan da Xurdo.

228. Atuna harrapatzeko, non eta nola (PAS-014/006)

Atunetara, lehen barkuak nora joaten ziren aipatzen du. Beraiek kanaberarekin joaten ziren, eta karnata bizia erabiltzen zuten. Atuna harrapatzeko teknika eta pausoak azaltzen du.

229. Atuna harrapatzeko, malutak (PAS-014/008)

Garai batean, atuna harrapatzeko, maluta erabiltzen zuten. Malutaren osaera nolakoa izaten zen azaltzen du. Lehengo eta oraingo aparailuak alderatzen ditu.

230. Arrantzako irabazien banaketa (PAS-014/013)

Xurdo arrantzan ibili zen garaian, besteen erdia kobratzen zuen. Salmentan irabazitakoaren banaketa nola egiten den azaltzen du. Partiketa armadorearen etxean egin ohi zen.

231. Uretatik kautxua ateratzen aberastu (PAS-014/014)

Garai batean, itsasoan gehiago irabazten zen lehorrean baino. II. Mundu Gerran, itsasoan hondoratutako alemanen barku batetik kautxua ateratzen zuten garaian, diru asko atera zuten.

232. Jaiegunetan, arrantzaleak lanean (PAS-014/016)

Jaiegun batzuetan, arrantzaleek lan egin behar izaten zuten: sarea garbitzen, biltzen, zabaltzen... Xurdo harri bila aritzen zen, barkuaren aurrealdean jartzeko.

233. Baporeko bizimodu iluna (PAS-014/017)

Baporeko bizimodua iluna izaten zen. Xurdoren ardura izan ohi zen gauez etxez etxe joatea ate-joka, itsasora joan behar zutela abisatzeko.

234. Baporeko usainak eta ohiturak (PAS-014/018)

Batzuetan, baporean egiten zuten lo. Nola antolatzen ziren aipatzen du. Han, kirats handia egoten zen. Komunak izkinan egoten ziren. Norberak bere jana eramaten zuen ontzira. Gomazko botak erabiltzen zituzten, belaunerainokoak; eta, buruan, txapela.

235. Arrain gehiegi harrapatzen zeneko bandera (PAS-014/019)

Arrain asko harrapatzen zen garaian, bandera jartzen zuten. Egun horietan, ez ziren arrantzara joaten, bestela ezingo zutelako saldu.

236. Bakailaoa eta trioak (PAS-014/020)

Bakailaoa harrapatzeko itsasontziak besteak baino handiagoak izaten ziren. Pixkanaka, gero eta tona gehiago ekartzen zituzten. Gran Solen arrantatzeko, trioan joaten ziren ontziak; nola antolatzen ziren azaltzen du.

237. Boxeoan txapeldun, eta ideiak garbi (PAS-014/023)

Gaztetan, boxeoan ibili zen; nola hasi zen aipatzen du. Donostiako gimnasio batean aritu zen entrenatzen. Espainiako txapeldun izan zen. Orduan kanporatu zituen boxeolarien izenak gogoan ditu. Frente de Juventudesekoa ez izateagatik, ordea, berari ez zioten Espainiako selekziorako deitu; bere aurkariei, bai.

238. Bi kategoria goragoko aurkaria izan zuenekoa (PAS-014/024)

Espainian, Ingalaterraren aurka jokatu behar izan zuen Xurdok txapelketa batean; denak irabazi zituen. 1954an, bera baino bi kategoria goragoko boxeolari baten aurka jokatu zuen; orduko pasadizoak kontatzen ditu.

239. Boxeoan, inor atrebitu ez bere aurka (PAS-014/025)

Boxeoko teknikak ikasteko, egunero joaten zen gimnasiora. Hasi eta urtebetera, profesionalek ere ez zuten nahi izaten bere aurka egin.

240. Irabazten uzteko eskatzen ziotenekoa (PAS-014/026)

Jesus Tolosa boxeolariari buruz hitz egiten du; gimnasioan, irabazi egiten zion. "Kokolo"k dirua eskaini zion, irabazten uzteagatik.

241. Boxeolari onak (PAS-014/027)

Kalbete eta Garcia-Lluch izan zituen irakasle boxeoan. Paco Bueno oso boxeolari ona iruditzen zitzaion. Beste boxeolari on batzuk aipatzen ditu.

242. Boxeoko eskularruak eta oinetakoak (PAS-014/028)

Lehen, boxeoa aritzeko, zer tamainatako eskularruak eta oinetakoak erabiltzen zituzten aipatzen du.

243. Boxeoa utzi zuenekoa (PAS-014/029)

Boxeoa, 3 urte eman zituen; zergatik utzi zuen azaltzen du.

244. 1957an Espainiako txapeldun arraunean (PAS-014/031)

Arraunean hasi zeneko kontuak. San Pedron hasi zen, Olabe anaiekin. 1957an, Espainiako txapeldun izan ziren. Orduko argazkiak erakusten ditu.

245. Santanderrera taxian, leporaino beteta (PAS-014/032)

Arraunean, behin, Espainiako txapelketara joan ziren taxian, Santanderrera: batela, arraunak eta 7 lagun. Egun hartan, txapelketa irabazi egin zuten.

246. Lehengo eta oraingo batelak (PAS-014/035)

Lehengo batelaren argazkia erakusten du. Gipuzkoako txapeldun izan ziren, 4 arraunlari zirela, 1946an. Gerora, batelak aldatu egin ziren; gizon bat gehiagorentzako lekua jarri zuten. Batelak egurrezkoak ziren lehen.

247. Joxe Etxeberria, patroï onena (PAS-014/038)

Patroï onena Joxe Etxeberria izan zen: gizon goxoa, bazekien noiz eta nola eskatu, nola animatu... Maisu onena bera izan du.

248. Joxe Etxeberriarekin Kontxako estropadetan (PAS-014/040)

Joxe Etxeberria patroïaren argazkia erakusten du. Kategoriako maisua izan zen. Kontxako estropadan izandako bizipenak kontatzen ditu; patroïak oso ondo zekien nola gidatu arraunlariak.

249. Lehengo eta oraingo entrenamenduak arraunean (PAS-014/043)

Lehen, arrauneko entrenamenduak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Arraunlariak lanean aritzen ziren, eta entrenamendura joateko baimena eskatu behar izaten zuen Xurdok. Gaurko entrenamenduak 1.000 aldiz hobeak dira, baina gehiegikoak. Orduko elikadura.

250. Berari eskainitako bertsoak (PAS-014/046)

Berari dedikatutako bertsoak erakusten ditu: "Xurdo"ren azaña

251. Nongoa da zure hizkera? (PAS-014/049)

San Pedroko eta San Juango euskara berdina iruditzen zaizkio; Hondarribikoa, pixka bat desberdina. Bere hizkerari buruz hitz egiten du. Umetan, euskaraz egiten zuen; gero, katalanez; gero, erdaraz; eta azkenik, euskaraz.

252. Aitona Galiziatik etorria (PAS-015/002)

Ama San Pedrokoa zen, baina bere aita Galiziakoa: soldaduska egitera hona etorri zen eta hemen ezkondu zen. 74 urte zituela itzuli zen lehenengo aldiz Galiziara arrebari bisita egitera. Gerora Trintxerpera galiziar asko etorri ziren.

253. Txoriak harrapatzeko zaletasuna (PAS-015/007)

Umetan txoriak harrapatzen ibiltzen ziren, abata (erreklamua) nola egiten zuten azaltzen du. Neguan amua jartzen zuten zizarearekin, eta orduan harrapatutako txoriak jan egiten zituzten.

254. Lapak biltzen (PAS-015/010)

Arrokatara gutxi joaten ziren, arriskutsua baitzen. Lapak biltzeko labana erabiltzen zuten. Lapa nola jaten den aipatzen du.

255. Lapak eta muskuiluak (PAS-015/011)

Lehen txirla asko harrapatzen zen. Marea oso behean zegoenean, aitzurra hartuta joaten ziren txirla bila. Muskuilu asko zegoen lehen hemen, baina ez zuen orain adina estimazio.

256. Sareak tindatzeko ohitura (PAS-015/014)

Aitona sareak josten aritzen zen. Sareak tindatzeko zer egiten zen azaltzen du. Sareak tindatuz gero, denbora gehiago irauten zuten.

257. Sarearen araberako lanak (PAS-015/015)

Arrasteroen sareak gizonek konpontzen zituzten, eta bapore txikietako sareak, ordea, emakumeek. Sareen artean zeuden aldeak azaltzen ditu.

258. Sareak, hariak eta orratzak (PAS-015/017)

Hainbat sare mota zeuden, eta josteko orratzak ere tamaina ugaritakoak ziren. Hariak hainbat klasetakoak ziren eta Alacant aldetik ekartzen zituzten. Sareak nola prestatzen diren aipatzen du.

259. Sarea gora eta behera (PAS-015/019)

Sarearen zatiak aipatzen ditu. Sarea hondora joateko, kateak jartzen zituzten, eta sarea gora altxatzeko, kortxoak.

260. Baporeak binaka eta hirunaka (PAS-015/021)

Baporeak binaka ibiltzen ziren. Gran Sol aldera joaten zirenean arrantzan, hiru itsasontzi joaten ziren, eta nola moldatzen ziren orduan aipatzen du. Sareak tindatzeko askak egoten ziren, eta nola tindatzen zituzten azaltzen du. Baporea lehorrera etortzen zen bakoitzean tindatu behar izaten zuten sarea, eta hilabete gutxi batzuk irauten zuten sare haiek.

261. Sareen eta barkuen bilakaera Pasaian (PAS-015/022)

Guztira 190 barku zeuden Pasaian, eta beraz, 400 saregile inguru egongo ziren. Gaur egun ez dago hainbeste barku eta saregile gutxi behar da. Sareak ere aldatu egin dira.

262. Barkuak lehorrera iristen zireneko lanak (PAS-015/023)

Lehen Pasaian saregile asko zeuden. Barkuak iristen zirenean, hainbat lan egin behar izaten ziren: arrainak deskargatu, pisatu, saldu... Arrainak otarreetan eta kaxatan sartzen ziren.

263. Arrainaren salmentako arauak (PAS-015/024)

Barkuen artean zozketa egiten zuten arraina nork lehenengo saldu erabakitzeke; beste batzuetan, lehorrera iristen ziren ordenaren arabera egiten zuten salmenta. Salmenta non egiten zen azaltzen du.

264. Arrainaren salmentako sistema (PAS-015/027)

Arrainaren salmenta goizeko 6etan hasten zen, eta askotan goizeko 11k arte egoten ziren han. Salmentako sistemari buruz hitz egiten du.

265. Arraunean hanka-hutsik (PAS-015/031)

Arraunean ibili zen gaztetan, baina ezkondu zenean utzi egin zuen. Arraunean hanka-hutsik ibiltzen ziren. Makina bat katarro harrapatu zuten horregatik. Entrenamenduetan zer egiten zuten azaltzen du.

266. Gerraren beldur, ihesi (PAS-015/034)

Gerra hasi zenean, sei urte zituen Joxeanek. Frantziara egin zuten ihes bapore txiki batean, eta 42 egun egon ziren han. Azkenean, Lezoko apaiza joan zen beraien bila. Pasaian baziren Errusiara joan zirenak ere gerratik ihesi.

267. Baserria erre zitzaieneko nahigabea (PAS-016/002)

Baserrian jaio zen, eta oso txikia zela erre egin zen etxea. Lehen baserriak zer egitura zuen azaltzen du. Etxea erre zenean, aita nahigabe handia hartu zuen eta handik 2 urtera hil zen; ama alargun gelditu zen, 7 seme-alaba zituela.

268. Anaiak meningitisa izan zuenekoa (PAS-016/004)

Anaia bat oso gaixo egon zen meningitisak jota, baina bizirik atera zen. Medikuak Frantziatik ekarri zuen anaia salbatzeko botika.

269. Etxean ura eta argia (PAS-016/005)

Ura ekartzeko, urrutira joan behar izaten zuten. Etxean ez zuten ez argirik ez urik. Argia egiteko, kriseiluak izaten zituzten; karburoa, kandelak... ere erabiltzen zituzten.

270. Karga eramateko moduak lehen (PAS-016/008)

Gurasoak ondo zeuden garaian, esnea eta barazkiak San Juanen saltzen zituzten. Herrira oinez joaten ziren eta astoak eramaten zuen karga. Emakumeek lehen buruan eramaten zuten karga. Festatan lehiaketak egiten ziren karga buruan noraino eramango zuten ikusteko.

271. Auzolanak eta Langileen Batailoiak bideak egiten eta zaintzen (PAS-016/010)

Lehen bide txarrak zeuden baserritik kalera. Orain dagoen bidea Langileen Batailoiak egin zuen, eta nola egin zuten azaltzen du. Lehen auzolanak izaten ziren bideak txukuntzeko.

272. Kupoa entregatu behar zeneko komeriak (PAS-016/014)

Gerra ostean, janaria lortzeko nola moldatzen ziren azaltzen du Elenak. Garai hartan, guardia zibila etortzen zen entregatu beharreko kupoaren bila. Orduan pasatako komeriak kontatzen ditu.

273. Ama babesteko grina (PAS-016/016)

Gerra garaian, beraien etxea ez zen leku ona, tiroak gertu baitziren. Nola babesten ziren azaltzen du. Beti izaten zuen beldurra amari zerbait gertatuko zitzaiona, eta beti esaten zion ondo zaintzeko eta gordetzeko.

274. Umetako jolasak gerraren arriskuaz jabetu gabe (PAS-016/020)

Gerra garaian umeak zirenez, ez ziren konturatzen arriskuaz. Umetan zer jolasetan aritzen ziren azaltzen du.

275. Euskara defendatzeko beldurrik ez (PAS-016/024)

Euskara etxean egiten zuten, baina kalean ez, guardia zibilen beldur. Gerora Elenak ez du beldurrik izan guardia zibilen aurrean ere euskara defendatzeko.

276. Sinesmen handiko apaiza (PAS-016/029)

Apaiz bati buruz hitz egiten du: elurra egin zuen egun batean, inguruko baserriko amona gaixo zegoen eta apaiza, hala ere, etorri egin zen. Sinesmen handiko gizona zen hura.

277. Norbait hiltzen zeneko ohiturak (PAS-016/030)

Norbait hiltzen zenean, bizkar gainean eramaten zuten. Kasu bakoitzean hildakoa eramatea nori zegokion aipatzen du. Kanposantuan linbora zihoan jendearentzako lekua zegoen. Lehengo hilkutxak gogoan ditu. Gaubeilak izaten ziren orduan eta hurrengo egunean elizara eramaten zen gorpua. Ingurutik etxera etortzen zen jendea arrosarioa errezatzera. Orduan zer jaten zuten azaltzen du.

278. Atsolorra eta ezkontzak (PAS-017/001)

Umeren bat jaiotzen zenean, amari egiten zitzaion bisitari atsolorra esaten zitzaion. Normalean, auzoko emakumeak biltzen ziren atsolorrean. Ama erditu berriari zerbait eman ohi zitzaion opari gisa: botila bat kina, esaterako. Ezkontzen kasuan ere bazen ohitura bat: ezkonberriek auzokoei txokolatea partitzen zien, eta, gero, auzoak oparia egiten zien haiei.

279. Hildakoen inguruko ohitura (PAS-017/003)

Familian norbait hilez gero, kandela fin bat pizten zen elizan. Gehienetan, lau puntako kutxa bat izaten zen, eta kutxaren erdian trapu beltz bat jartzen zen urtebetea: trapu horrek adierazten zuen hil berria zela, "cuerpo presente". Lurrean jarri ohi zen kutxa, jakineko tokian.

280. Erramua eta ur bedeinkatua (PAS-017/004)

Erramu egunean, erramua bedeinkatzen zuten. Trumoi edota gaixoaldiren bat izaten zenean, kandelari ur bedeinkatua bota ohi zitzaion.

281. Behiak jeztea eta gobernatzea (PAS-017/007)

Goizean jaiki eta lehenbiziko lana behiei pentsua eman eta esnea jeztea izaten zen. Behien zaintzaz hitz egiten du. Behia jetzi ta gero, errapea esne beroarekin ondo igurztea garrantzitsua da behiak errapeko min eta gogortasunik ez izateko eta esnea ondo ematen jarraitzeko. Negu partean, arbia eta erremolatxa eman ohi zien behiei. Udaran, berriz, belarra eta pentsua. Eguraldi onarekin, zelaira ateratzen zituzten.

282. Iratze-bilketa (PAS-017/008)

Iratzelekua baserritik gertu zuten. Metatan bildu ohi zuten iratzea; gero, behien azpiak egiteko erabiltzen zuten. Erretereri aldetik joaten omen zen jendea Elenaren baserriri ingurura ira biltzera.

283. Oiartzungo erro tara (PAS-017/011)

Oiartzungo erro ta batera eramaten zute artoa ehotzera. Baserritar bakoitzak kartila batekin joan behar izaten zuen, eta hura erro tan erakutsi egin behar izaten zen; gero, bertan apuntatzen zuten jasotako irin kopurua. Oiartzungo erro tara bidean, guardia zibilek kontrola jarri ohi zuten jakineko tokian: astoarekin joaten zirenean, kontrola pasatu behar izaten zen; "isilketan" joanez gero, oinez, bidezidor batetik egin ohi zuten joan-etorria.

284. Sukaldea (PAS-017/013)

Baserriko sukaldea nolako zen azaltzen du: ekonomika, "tximeneta"... Auzoko baserri batean lurreko sua zutela gogoratzen du: beraien baserrian ere hala omen zen erre aurretik, baina Elenak ez zuen hori ezagutu.

285. Denak kazola batetik jaten (PAS-017/014)

Otorduetan, familia guztia bildu ohi zen mahaiaren bueltan, eta bakoitzak koilara bat hartu eta guztiek ontzi bakarretik jaten zuten.

286. Oilaskoak, saltzeko (PAS-017/017)

Oilaskoa oso noizean behin jaten zuten etxean. Hazitako oiloak saldu egin ohi zituzten. Salmentan ateratako diruarekin etxerako hainbat elikagai erosten zituzten: olio a, azukera, arropa...

287. Lanperna bildu eta saltzen (PAS-017/018)

Amarekin lapa bila joan izan zen umetan. Lapak gordinik eta txapa gainean erreta jaten zituzten. Anairekin, berriz, lanpernatara joaten zen neskabila zela. Bildutako lanpernak etxera eraman, egosi eta kalean saldu ohi zituzten. Lanpernatarako zer tresna erabiltzen zuten azaltzen du.

288. Berbena-belarra (PAS-017/021)

Gibeleko arazo batzuk tarteko, enplastuak egin izan ditu berbena-belarrarekin. "Nik berbenan fedea badut" dio, baina Elenak aipatzen du ez dela egunero erabiltzekoa. Infekzioen kasuan erabili behar dela dio.

289. Jaizkibelgo kantina (PAS-017/025)

Duela 40 urte inguru senarrarekin batera Jaizkibelgo kantina ireki zuen Elenak. Kantinako lanak eta gorabeherak kontatzen ditu: ez zuten argirik eta jela bertara eraman behar izaten zuten edariak freskatzen jartzeko. Saldu gabe geratzen ziren edariak kaskoak eskuz garbitu behar izaten zituen banan-banan. Edariak, ogitartekoak, azeitunak, patatak... zerbitzatu ohi zituzten. Eguraldi ona egiten zuenean eta asteburuetan ireki ohi zuten kantina. Kantinara joaten zen jendearekin sortzen zen harremanaz mintzo da Elena.

290. Senarra, auzokoa (PAS-017/027)

Elenak txiki-txikitatik ezagutzen zuen gero bere senarra izango zena. Auzo berekoak ziren. Auzoan, adin beretsuko kuadrilla zegoen (etxe bakoitzean bost-sei senide izaten ziren, elkarren nahiko segidakoak). Nobiotako kontuak. Auzoko gazte batzuk Erreteriarra edota Oiartzungo Txiki-Erdira joaten ziren; Elena ez da askotan joandakoa (ez du gustuko jendetza artean ibiltzea, eta dantzan egiten ez duela ikasi dio).

291. Gaztetan, aldaparik ez (PAS-017/028)

Oiartzunera eta Erreteriarra oinez joan ohi ziren bidezidorretan barrena: "gaztea zarenean ez duzu ikusten alparik!". Erreteriarra ahizparekin joaten zen, eta ez zuten etxeratzeko ordurik izaten.

292. Dantza lotua eta kongregazioa (PAS-017/029)

Elenak eta bere ahizpak ez zekiten dantzan. Lezora joan ohi ziren meza entzutera. Hilean behin, kongregazioa izaten zen. Erromerietan, ba omen ziren dantza lotuan aritzen zirenak zelatzen zituztenak, eta, gero, kongregazioko egunean, dantza lotuan aritutako neskei zintza zuria eman beharrean morea jartzen zien zigor moduan: horrela, elizan biltzen zen jendeak bazekien zeinek egin zuen mutil batekin dantza lotuan. Elena ez zen kongregazioko kide.

293. Portuko eta baserriko jendearen euskara (PAS-017/033)

Pasai Donibaneko portuko jendearen eta baserritarren euskara ez da berdina Elenaren ustez. Mendi aldekoek Lezo eta Pasai Donibane aldeko euskara nahasten omen dituzte. Hitzetan eta doinuan omen dago aldea.

294. 3 ahizpa ohe bakarrean lotan (PAS-018/003)

Bere jaiotetxearen egitura nolakoa zen azaltzen du: 3 neskak ohe batean egiten zuten lo. Koltxoiak artilearekin egindakoak izaten ziren.

295. Gaztetako arrantza, gauez (PAS-018/012)

Umetan arrantzara joaten ziren, eta era guztietako arrainak harrapatzen zituzten. Gauez aritzen ziren, eta zer teknika erabiltzen zituzten azaltzen du.

296. Arroketako arrantza (PAS-018/015)

Arroketan zer arrain mota harrapatzen zuten aipatzen du: muxarrak, zabiak... Zabiak jatean, amesgaiztoak izaten dira. Lupiak izaten zuen estimazio handiena.

297. Kabarrokak (PAS-018/016)

Etxean arrain asko jaten zuten. Kabarrokak. Behin, 5-6 kiloko kabarroka harrapatu zuten.

298. Arrantzarako leku jakinak eta kanaberak (PAS-018/017)

Arroketan, leku jakinak egoten ziren arrain mota bakoitza harrapatzeko. Kanabera erabiltzen zuten arrantzarako. Hondarribitik ekartzen zituzten. Kanabera onek luze irauten zuten hondatu gabe.

299. Atuna harrapatzeko pausoak (PAS-018/022)

Atunaren arrantza nola egiten zuten azaltzen du, pausoak. Karnata erabiltzen zuten. Atunetako aparailuak. Lan nekagarria da atuna harrapatzea.

300. Itsasontziko bizimodua (PAS-018/023)

Itsaso txarra zenean ere, arrantzan ibilitakoa da. Atunetan zebiltzaneko lan-baldintzak aipatzen ditu: itsasontziko otorduak, sukaldariak, edariak...

301. Arrasteko ontziko janzkera (PAS-018/024)

Atunetara joan zirenean, 16-17 lagun izan ziren arrasteko ontzian. Orduan erabiltzen zuten arropa norberak egiten zuen; zer janzkera izaten zuten aipatzen du.

302. Atun bila joan aurretik, izotza pilatu (PAS-018/025)

Arrantzan atun bila joan aurretik, itsasontzia nola prestatzen zuten azaltzen du: izotza pilatzen zuten, geroago atuna bertan sartzeko.

303. Ingalaterra eta Irlanda aldera arrantzan (PAS-018/028)

Ingalaterra eta Irlanda aldera joan zirenekoa kontatzen du. Hiru barku ibiltzen ziren elkarrekin, "trioan". Barku horietako bat arduratzen zen sarea bota eta biltzeaz. Orduko lan-baldintzak eta zereginak aipatzen ditu.

304. Patroiaren begi ona (PAS-018/029)

Patroiak jakiten du sarea non eta nola bota. Arraina saretik atera, eta hura garbitzen ematen zuten gau osoa. Arraina nola garbitzen zuten azaltzen du.

305. Itsasontziko giroa eta lanak (PAS-018/031)

Batzuetan, lo gutxi egiten zuten itsasontzian, lan asko egoten baitzen. Barkuaren norabidea eramateko izaten zituzten komeriak aipatzen ditu. Itsasontzian, gehienak galegoak ziren.

306. Arraina deskargatzen (PAS-018/037)

Arraina deskargatzen ibili izandakoa da Joxe Ramon. Lan horren gorabeherak kontatzen ditu.

307. Gerra ostean, gosea: bat eta handia (PAS-018/046)

Gerra ostean, gosea pasa zuten: bat eta handia. Baserriko jeneroa entregatu egin behar izaten zuten.

308. Berak egindako salabardoa (PAS-018/052)

Lanpernak biltzeko salabardoa erakusten du. Nola erabiltzen zuten azaltzen du.

309. Eskolako gaiztakeriak eta zigorrak (PAS-019/014)

Señorita Elena izan zuen maistra. Orduko zigorrak eta gaiztakeriak gogoan ditu. Arrosak lapurtzen zituztenean, kanposantura eramaten zituzten.

310. Aitaren arrantzarako aparailuak (PAS-019/030)

Aita arrantzalea zen, motor txikiarekin joaten zen arraina harrapatzera. Hartarako erabiltzen zituen aparailuak nolakoak izaten ziren aipatzen du Manolik.

311. Arrantzarako karnata (PAS-019/032)

Arrantzan karnata gisa erabiltzen zituzten arrain motak eta tresnak aipatzen ditu: txurikinak, kodainak...

312. Sareak armatzen (PAS-019/033)

Sareak konpontzen egin izan du lan Manolik. Sarea armatzeko piezak bi dendatatik ekartzen zituzten. Etxean aritzen ziren sareak armatzen. Sarearen zatiak aipatzen ditu.

313. Sareak bedeinkatzen (PAS-019/036)

Sarea armatu ostean, bedeinkatu egiten zituzten eta kortxoan medailatxoak sartzen zituzten.

314. Sareak armatzeko eta erabiltzeko teknikak (PAS-019/038)

Sareak armatzeko, hainbat orratz mota egoten ziren. Sareak erabiltzeko teknikak eta zatiak aipatzen ditu.

315. Sareak tindatzen (PAS-019/040)

Nylonezko sareak erabili aurretik, kotoizko sareak erabiltzen zituzten. Sareak nola tindatzen zituzten azaltzen du.

316. Sareak zabaltzen (PAS-019/042)

Sareak zabaltzeko hainbat gizon behar izaten ziren.

317. Sareak konpontzen izaten zuten giroa (PAS-019/044)

Sarea hautsita baldin bazegoen, moilan uzten zuten; biltegian konpontzen zituzten denbora luzerako konponketak behar zituzten sareak. Nola aritzen ziren lanean azaltzen du.

318. "Oxaba" itsasontziaren zain (PAS-020/003)

"Oxaba" deitzen zioten beraien itsasontziari. Txikia zen, eta antxoatan ibiltzen zen. "Garbi-otarrak". Zain egiten ziren laguna eta biak, arraina lehenbailehen hartu eta saltzera joateko.

319. Itsasontzian irratia jarri zutenean (PAS-020/004)

Itsasontzian irratia jarri zuten garaiko kontuak. Binaka ibiltzen ziren baporeak. Arrain asko harrapatzeko, patroia ona izatea inportantea zen. Radarra jarri aurretik, begiz ikusten zuten. Antxoatan.

320. Atunetan I (PAS-020/005)

Atunetan, beita biziarekin egiten zuten. Batzuek beita botatzen zuten bitartean, beste batzuek kainaberarekin egiten zuten arrantza. Eta beste bi atunak neberan sartzen egoten ziren. Getarian saltzen zituzten gehien.

321. Jornalak (PAS-020/006)

Arrantzaleen jornamei buruz hitz egiten du. Patroiak zenbat kobratzen zuen. Juan patroia saiatua zen, eta ondo konpontzen zen beste patroia batekin; arraina non zegoen esaten zioten elkarri. Bertakoekin ez zuten beti harreman ona izan. Lehia zegoen itsasontzien artean.

322. Pasaiaiko itsasontziak eta kanpainak (PAS-020/007)

Bajurako lau itsasontzi zeuden Donibanen eta bat San Pedron. Alturakoak, berriz, asko; arrasteroak. Beraiek antxoatara joaten ziren maiatzean, eta, gero, atunetara.

323. Atunetan II (PAS-020/008)

Itsasontzi gehienek sei bibero zituzten. Aljeciraseraino joan ziren bi urtean. "Kazan" ere ibiltzen ziren, baina erositako materialarekin, ez txurikinarekin. Kainaberekin gehiago harrapatzen zen. Izotza MEIPIn erosten zuten.

324. Itsasontziko dokumentazioa (PAS-020/009)

Itsasontzi bakoitzak bere liburua zeukan, dokumentazioa. Hilero joaten ziren zigilu bila, "rola" pasatzera. Getariako eta Pasaiko komandantziara joaten ziren.

325. Antxoaren neurria: kaxa (PAS-020/010)

Antxoaren neurriak. Aurretik, arroa erabiltzen zen, beste ontzi bat. Gero, kaxaka saltzen zuten; 30 kilokoak ziren hasieran eta gero txikiagoak. Kaxa trukea egiten zuten sal-erosketan, eta bodegan sartzen zituzten kaxa berriak. Kaxak nola betetzen zituzten, antxoaz.

326. Benta, Trintxerpen (PAS-020/011)

Benta Trintxerpen egiten zen. Txipiroekin ere joaten zen bera lonjara, pisatu eta saltzera. Benta emakumeek egiten zuten, eta benteroak ere bazeuden, gizonezkoak, gauez egiten zutenak benta. Bola botatzen dute orain; lehen ez.

327. Benta, Trintxerpen II (PAS-020/012)

"Pixonerak" zeintzuk ziren. Leona Donibanekoa zen, eta kofradiako lanak ere egiten zituen. Hiru ziren. Kontxita zen beste bat eta hirugarrena Trintxerpekoa

zen. Txipiroia saltzera joaten ziren beraiek. Antxoa ere erosten zuten, baina itsasontzietan zuzenean, bentaren zain egon gabe (gero kofradian ordaintzen zuten).

328. Arraina saltzen, etxez etxe (PAS-020/013)

Kaldera buru gainean zutela ibiltzen ziren, arraina saltzen. 20-30 kilo. Dozenaka saltzen zuten antxoa eta bestea pisatuta, kiloka. Julirekin eta Raimundarekin ibiltzen zen. Arrasterotako arraina ere saltzen zuten.

329. PYSBEko langileak (PAS-020/018)

PYSBEEn bazkaltzen zuten hango langile gehienak, potajea eta ardoa (pezeta baten truke). Familia denetan zegoen norbait han lanean. Ehundik gora langile izango ziren. San Roketan meza eta bazkaria izaten zen langileentzat; behin zerbitzera joan zen bera, eta hogei duro eman zizkioten. Gutxi kobratzen zen, baina kotizatu egiten zuten, eta erretiroa dute orain.

330. Baserritar asko MEIPIIn lanean (PAS-020/021)

Baserritar askok egiten zuten lana MEIPIIn, izotz lantegian edo arraina deskargatzen.

331. Txanelean soinekoa zikindu (PAS-021/002)

Umetako kontuak. Txanelean sartu eta sareak tindatzeko tintarekin soinekoa zikindu zuenekoak kontatzen du. Amaren eta zaintzailearen errietak.

332. San Juanetan, soineko eta alpargata berriak (PAS-021/003)

San Juan bezperan janzten zituzten soineko (batak) eta alpargata berriak. Umetako gaiztakeriak. Zaintzaileak egiten zion arropa.

333. Ama, arrain-saltzailea Oiartzunen (PAS-021/005)

Manoliren ama berrogei urtean aritu zen arraina saltzen Oiartzunen. Arrain salmenta nola izaten zen kontatzen du. Saltzen ez zuen arrainarekin trukea egiten zuen baserritarrekin. Arraina, babarrun eta arrautzen truke.

334. Adona, zaintzailea (PAS-021/006)

Adona izeneko emakume nafar batek zaintzen zituen Manoli eta anaia. Emakume oso ona zen.

335. Lagunei ilea moztu (PAS-021/008)

Umetako gaiztakeriak. Lagunei ilea moztu zienekoak kontatzen du.

336. Edariak eta azeitunak ostu (PAS-021/012)

Umetako kontuak. Ostatu bateko almazen batetik edariak eta azeitunak ostu zituzteneko pasadizoa.

337. Mozkorra pasatzeko, iturripean burua sartu (PAS-021/014)

Herriko ostatu bateko almatzen batetik edariak eta azeitunak ostu zituzteneko pasadizoa. Kuadrillan mendira joan, eta almatzen harrapatutakoak jan eta edaten zituzten. Mozkortu egin ziren. Mozkorra pasatzeko, iturripean burua sartutera joan ziren.

338. Kamioian zintzilikatuta Lezora (PAS-021/015)

Dentistarenera joan behar zuen Manolik, baina joan ordez kamioi baten atzean zintzilikatu eta Lezora joan zen. Trastokeriak.

339. Amak mozkortuta harrapatu (PAS-021/016)

Herriko ostatu bateko almatzen batetik edariak eta azeitunak ostu eta mozkortu zireneko kontuak.

340. "Manolita y su cuadrilla" (PAS-021/017)

Eskolako kontuak. Zigortu egiten zituzten: belauniko, besoak zabalduta eta esku banatan liburu bat zutela egonarazten zien. Maistrak ez zituen jotzen.

341. Amak zapatilarekin jo (PAS-021/018)

Umetako kontuak. Zapatila berriak beltz-beltz eginda eramane zituen etxera. Amak zapatilarekin jo zuen.

342. Lagunarteko kontuak (PAS-021/019)

Denek berarekin jolastu nahi izaten zuten. Dionisia lagunari buruzkoak. Mutil batek katu bat bota zion Dionisiari pantorriletara.

343. "Gira náutica" (PAS-021/021)

Sozietatekoek "gira náutica" esaten zioten karrozen itsas bira antolatzen zuten. Herrian, jendea faroliloekin egoten zen hura ikusten.

344. Santio jaiak (PAS-021/022)

Herriko festak. Santiotan zortzi egunean musika izaten zen. "Manolak": emakumez jantzita ateratzen ziren sozietateko gizon batzuk. Sozietatekoek zezenak toreatzen zituzten.

345. Sokamuturra (PAS-021/024)

Santio jaietan, zezena egoten zen. Manoli sokamuturrean ibiltzen zen. Sokamuturrean zezenarekin gertatutako pasadizoa.

346. Beti astakeritan (PAS-021/025)

Umetan, belaunak beti bendatuta ibiltzen zituen. Beti astakeritan ibiltzen zela esaten du.

347. Jaietan, gonbidatuak etxean (PAS-021/026)

Herriko jaietan gonbidatuak izaten zituzten etxean. Zer jaten zuten kontatzen du. Ospakizunei buruzko kontuak.

348. Konstantzia Musika Banda (PAS-021/029)

Pasai Donibaneko 'La Konstantxi' Musika Bandari buruz hitz egiten du. Itsasoan entseiatzen omen zuten.

349. Elizaren debekuak eta kongregazioa (PAS-021/034)

Mutilekin dantza egiten zuen. Elizaren eragina: mutilekin dantzan aritzen zirenei komuniorik ez ziela emango esaten zuen aipaizak. Mariaren alabak kongregaziokoa zen Manoli. Konfesatu egin behar.

350. Don Pedro apaiza (PAS-021/035)

Don Pedro apaizari buruzko kontuak. Apaizaren sermoiak. Beldurra.

351. Mutil kontuak (PAS-021/038)

Manoli mutil batekin zebilen, baina hark laga egin zuen. Gero, bere senarra izango zenarekin "amistadea" nola hasi zen kontatzen du.

352. Nobiotan (PAS-021/039)

Nobiotan zer plan egiten zituzten. Antxoko edo Errenteriako zinera, paseora... Ezkutuan muxu ematea.

353. Senarra, arrantzalea (PAS-021/041)

Manoliren senarra arrantzalea zen. Ezkondu eta gero, Manoliren familiako barkoan hasi zen lanean.

354. Etxeko martxa (PAS-021/042)

Manoliren senarra itsasoan zen bitartean, etxeko gira nola izaten zen kontatzen du. Manoli sareko lanak egitera joaten zen, eta bere amak bazkaria eta Manoliren semeak zaintzen zituen. Etxeko zereginak.

355. Labadora erosi (PAS-021/043)

Manoliren amak xabotzen zuen arropa. Amak ez zuen nahi labadora erosterik. Labadora erosi zuten.

356. Lehorreko bizimodua (PAS-021/044)

Senarra itsasoan zen bitartean, Manoli arduratzen zen lehorreko lanetaz. Sareak, itsasontziko paper eta diru kontuak...

357. Legatzaren arrantza (PAS-021/045)

Etxeko barkuari buruzko kontuak. Negu gutxitan joan ziren legatzaren arrantzara. Eskuz, aparejuekin, arrantzatzen zuten. Arrainaren benta, Trintxerpen. Merlenka ("pescadilla"), mediana, legatza...

358. 'Partila' (PAS-021/046)

Lehorreko lanak. 'Partila'. Etxean egiten zuten diru partiketa. Irabazten zenaren erdia gehi zati bat ontziarentzat zen, eta bestea marinelen artean banatzen zen (14 gizon). Gizon batzuei, baporearen partetik beste diru zati bat ere ematen zien.

359. "Milotarrak" (PAS-021/049)

"Milotarrak", antxoa ateratzeko erabiltzen ziren saskiak. Manoliren anaiak arrain asko ematen zion jendeari.

360. "Tresmallosa" (PAS-021/050)

"Tresmallos" sareari buruzko azalpenak. Antxoatako sareak baino motzagoak ziren.

361. Arrain ona, arrain "zakarraren" truke (PAS-021/051)

Antonio Quiroga izeneko gizon bat beraien laguna zen. Hark motor txiki bat zuen. Tratua zuten: baporean arrain "extraordinarioa" bazen (misera, langosta...) hari ematen zioten, eta berak arrain "zakar" guztia ematen zien.

362. Amuak beitatzen (PAS-021/053)

Emakumeak sareak josten aritzen ziren. Manoliren amak amuak beitatzen zituen etxean.

363. Argiarekin arrantzatzea (PAS-021/055)

Arrainak argia ikusten duenean erotu egiten da. Argiarekin arrantzatzea galarazia zegoen.

364. Aitarekin sarea josi (PAS-022/004)

Behin etxean, aitarekin sare zatiak elkartu eta sare bat egin zuen: sarea nola egin zuten azaltzen du. Aita motor txikian itsasora atera, eta sare harekin 100 arroa harrapatu zituen.

365. Maria Jesus saregilea (PAS-022/006)

Bazen Pasai Donibaneko saregileen artean Maria Jesus "maistra" esaten zioten saregile bat. Berari ez zitzaion horrela deitzea gustatzen. Berak gidatzen zituen beste saregileak. Iaioa zen sareak konpontzen eta armatzen.

366. Gerratik ihesi (PAS-022/009)

Gerra etorri zenean, Manolik zazpi urte zituen. Manoliren aitaren barkuan jende mordoa sartu eta Getariara joan ziren. Getarian ezagunak zituzten, eta lokal handi batean egon ziren denak. Getariatik Frantziara alde egin zuen Manoliren familiak.

367. Getariatik Frantziara (PAS-022/010)

Getariatik Frantziara alde egin zuen Manoliren familiak. Han ere ezagun batzuk zituzten, eta beste lokal batean egon ziren.

368. Etxera bueltatu (PAS-022/011)

Frantzian zirela, Pasai Donibanen erreketekak bakarrik zeudela eta etxera bueltatzeko abisua jaso zuten. Talaitik guardiek identifikatzeko eskatu zieten gogoratzen du. Erreketeekin tratu ona zuten. Etxea nola zegoen.

369. Sirena jo, jendea gordetzeko (PAS-022/012)

Gerra garaiko oroitzapenak. Erreketeak. Abiazioa somatzen zutenean, beheko sotoan ezkutatzen ziren. Sirena jotzen zuten jendea gorde zedin. Jendea mendi azpiko zuloetatik Hondarribiko partera pasatzen zen.

370. Aitona atxilotu (PAS-022/016)

Gerra denborako kontuak. Norbaitek Manoliren aitona salatu eta kartzelan sartu zuten. Donostian, Ondarretako kartzelan egon zen aitona. Manoli joaten zen aitonari jana ematera. Aitonari jarritako salaketa: barkuarekin jendea Frantziara eramatea leporatzen zioten. Epaiketako egunean ez zen azaldu salaketa jarri zuena, eta aitona libre utzi zuten.

371. Salaketa faltsuak (PAS-022/017)

Gerra denborako kontuak. Pasai Donibanetik Getariara joan ziren gerratik ihes. Getarian egon ziren denboran, Manoliren aita eta osaba arrantzara ateratzen ziren. Egun batean, alto eman zioten eta etxera joateko agindu. Antza, gizonak Frantziara pasatzen zituztela salatu omen zuen norbaitek. Salaketa faltsua zen.

372. Fusilatuak (PAS-022/019)

Gerra denborako kontuak. Manoliren amaren lagun baten senarra atxilotu eta fusilatu egin zuten.

373. Gizona itsasoan (PAS-022/024)

Arrantzale familien bizimoduari buruzkoak. Senarrak denbora asko pasatzen zuen itsasoan (Bi-hiru urtean neguko bi hilabete Algecirasen pasatu zituen). Amak eta berak eramaten zuten etxea. Amari buruzko kontuak.

374. Saregileen arteko giroa (PAS-022/025)

Saregileen lana. Gogor aritzen ziren lanean. Saregileen arteko giroa. Etxera kafesne bila bidaltzen zuen Maria Jesusek (saregileen arduradun egiten zuenak).

375. Arrantza-motak (PAS-022/033)

Lehen, begiz arrantzatzen zen. Gero, aparatuak jartzen hasi ziren itsasontzietan: sondak. Sarda: arrain multzoa. Majua.

376. Euskara galarazita zegoeneko garaia (PAS-023/004)

Eskolan dena erdaraz egin behar izaten zuten; euskara galarazita egon zen hainbat urtetan. Behin arazoak izan zituzten guardia zibilekin euskaraz hitz egiteagatik.

377. Eskuz egindako pilotekin jokatzeko (PAS-023/010)

Pilotan ibiltzeko, eskuz egindako pilotak erabiltzen zituzten. Pilotak nola egiten zituzten azaltzen du.

378. Txori arrak harrapatzen (PAS-023/013)

Lehen neguan hegaberak harrapatzen zituzten; horretarako zer teknika erabiltzen zituzten azaltzen du. Txori emeak aske uzten zituzten, arrek hobeto abesten baitzuten. Harrapatutako txoriak oparitu egiten zituzten.

379. Umetako arrantza (PAS-023/014)

Umetan arrantzan ibiltzen ziren ibaian, gauez. Orduan zer arrain harrapatzen zituzten aipatzen ditu. Itsasoan ere ibili izan da arrantzan Florentino.

380. Sareak prestatzeko lana (PAS-023/019)

Sareak nola prestatzen zituzten eta nola funtzionatzen duten azaltzen du.

381. Sareak armatzeko pausoak (PAS-023/021)

Sareak armatu egiten zituzteneko prozesua azaltzen du.

382. Sareak nola egiten ziren (PAS-023/023)

Sareak nola egiten ziren azaltzen du.

383. Arrainekin egindako txikizioa (PAS-023/024)

Beraiek egindako sareekin era guztietako arrainak harrapatzen zituzten. Sare mota okerra erabiltzeagatik, txikizioa egin zen arrainekin. Orduko gorabeherak azaltzen ditu.

384. Arrantzarako sareak eta teknikak (PAS-023/026)

Araudiak aipatutako sareak zergatik ez ziren erabiltzen azaltzen du. Arrantzarako teknika ugari zeuden eta haiei buruz hitz egiten du.

385. Teknologia hobetzeak arrainei eragindako kaltea (PAS-023/027)

Arraina asko hondatu da azken urteotan. Lehen arraina bilatzeko teknika sinpleagoak erabiltzen zituzten.

386. Lehengo arrantzaleen meritua (PAS-023/028)

Lehengo marinela barku txikietan eta eskasetan ibiltzen ziren. Lehengo arrantzaleen bizimodua gogorra zen: neguan pasa behar izaten zituztenak aipatzen ditu.

387. Lehengo udak eta beroak (PAS-023/031)

Lehen udak beroak ziren. Behin gizon bat ito egin zen beroarengatik Jaizkibelen. Gaur egun beroak erre egiten du; lehengo beroa jatorragoa zen. Lehengo eguraldiari buruz hitz egiten du.

388. Zakur zintzoaren ohiturak (PAS-023/034)

Lehen zakur bat bazuen, eta oso zintzoa zen. Haren ohiturak aipatzen ditu.

389. Arraunean izandako bizipenak (PAS-023/041)

Arraunean ibilitakoa da Florentino. Orduan nola entrenatzen zen azaltzen du. Batel mota ugaritan aritu izan da arraunean. Traineruan ibiltzeko izandako gorabeherak kontatzen ditu. Kontxako bandera eta Espainiakoa irabazi zuten traineru zaharrenekin. Orduko baldintzak orain baino gogorragoak ziren.

390. Traineruan arazoak (PAS-023/042)

1960an traineruan arazoak izan zituzten, eta bitan zatitu ziren. Txapelketa ugari irabazi zituzten lehenago.

391. San Juango trainerua morea zeneko garaia (PAS-023/043)

Florentino arraunean zebilen garaian, San Juango trainerua arrosa zen; lehenago, baina, morea izan omen zen. Koloreen banaketa nola egin zen azaltzen du.

392. Arraunlarien eserlekuak (PAS-023/045)

Batelean 5 lagun sartzen dira, trainerillan 7 eta traineruan 14. Nola antolatzen ziren lehen eta orain azaltzen du.

393. Txapelketetara joateko bidaiak (PAS-023/046)

Txapelketak kanpoan izaten zirenean, zer baldintzatan bidaiatzen zuten azaltzen du. Bidaia haietako batean komeriak izan zituzten.

394. Portugaleteko estropadetarako bidaia (PAS-023/047)

Behin Portugaleteko estropadetara Lasarteko tripulazioarekin joan zen Florentino. Bidaia hartan izandako bizipenak kontatzen ditu.

395. Lujanbio eta Etxabe patroiak (PAS-024/002)

1956tik 1959ra Joxe Angel Lujanbio izan zen Donibaneko patroia. 1960ko hamarkadako lehen urteetan, berriz, Bibiano Etxabe.

396. Azken estropada, Koxtaperekin (PAS-024/003)

Florentinok azken estropa 1972an jokatu zuen, Koxtaperekin.

397. Traineruan, denak herriko arraunlariak (PAS-024/004)

Donibanetik jendea erruz joaten zen Kontxako estropada ikustera. Garai batean, ia ez zen ordezeko arraunlaririk izaten; "ez zegoen aukerarik" dio Florentinok. Traineruan arraunlari guztiak herriak zireneko pasadizo bat kontatzen du. Berarekin batera arraunean ibilitako bi oiartuar aipatzen ditu.

398. Sareak tindatzea (PAS-024/007)

Nylonezko sareen aurretik, kalamuzko sareak erabiltzen zituzten. Kalamuzko sareak tindatu egin behar izaten ziren. Sareak tindatzeko zer prozesu jarraitu behar izaten zen azaltzen du.

399. Sareak konpontzeko hari motak (PAS-024/009)

Sareak konpontzeko hariak lodiera ezberdinetakoak izaten dira, egin beharreko lanaren eta sare zatiaren arabera. Kalamuzko harien kasuan, hari mehea, hari lodia... esan ohi zien. Nylonezkoen kasuan, berriz, lodiera zenbakien arabera bereizten da.

400. Sare-konpontzaileek arteko giroa (PAS-024/012)

Sare-konpontzaileak kantuan eta hizketan aritzen ziren lanean zebiltzan bitartean. Etxe bakoitzetik bost-sei lagun aritzen ziren sare-konpontzen. Teilapean eta kanpo librean aritzen ziren lanean; sareak kanpoan luzatzen zituzten ondo lehor zitezen. Sare-konpontzaileen artean futbol partidak jokatzen zituzten, zaharrak gazteen aurka. Mutikoa zela sare-konpontzaileen afari batera joan zeneko pasadizoa kontatzen du.

401. Kalamuzko eta nylonezko sareak (PAS-024/013)

Kalamuzko eta nylonezko sareen arteko aldeari buruz hitz egiten du. Kalamuzko sareak, bustian, aise usteltzen ziren. Nylonezko sareak, berriz, toki itxi batean 10 urte iraun ditzake; eguzkiak hondatzen du sare mota hori.

402. Bajurako sareak (PAS-024/014)

Bajurako sareak nolakoa izaten diren azaltzen du. Emakumeak aritzen dira bajurako sareak konpontzen, gizonezkoek baino esku finagoak dituztelako eta orratzak eta sareak txiki-txikiak izaten direlako.

403. Emakume saregileak (PAS-024/015)

Emakumeak bajurako sareak konpontzen non aritzen ziren kontatzen du. Emakume asko aritzen zen bajurako saregintzan. Garai batean, herrian bajurako sei-zortzi ontzi izango zirela dio Florentinok. Emakumeak inguruko beste herrietara ere joaten ziren sare-konpontzera.

404. Alga biltzea I (PAS-024/017)

Jaizkibelgo Azabaratza kalan eta Urruñan alga biltzen aritu izan da. Algak bildu eta biltegian jasotzen ziren lehortzeko. Behin lehortutakoan, fardoak egin eta kanpora saltzen ziren (Burgosera, Asturiasera...). Alga horiek elikagaiak prestatzeko, botikak eta koloniak egiteko... erabiltzen ziren. Algaren arriskuez hitz egiten du.

405. Alga biltzea II (PAS-024/018)

Urte sasoiaren arabera, itsasoak alga desberdina botatzen du. Alga bilketa nola egiten den azaltzen du. Alga lehorrean saltzeak lan gehiago ematen du, baina dirua ere bai.

406. Elizaren eragina (PAS-024/020)

Garai batean, Aste Santua nola ospatzen zen azaltzen du. Herri guztiak parte hartzen zuen prozesioan. Elizaren indarrak mintzo da: "prozesiora joaten ez zena behatzarekin apuntatutzen" zela dio. Lezon elizaren eragina nabarmagoa zen: dantza lotuan aritutako neskei kongregazioan zinta ezberdina jartzen zien, besteen aurrean nabarmen uzteko. Lezon, balkoi tarteetatik zelatatzen omen zituzten dantza lotuan aritzen zirenak. Pasai Donibanen, berriz, libre zen dantza lotuan egitea.

407. Dantzaldiak eta bilerak (PAS-024/021)

Herriko jaietan bakarrik izaten zen dantzaldia Pasai Donibanen. Bileretan ibili ohi ziren gehien: Txiki Erdi, Hiru Bide, Altzibar, Oialume, Bentas... Orduko bilerak eta dantza-saioak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

408. Neska-laguntzak (PAS-024/022)

Neska-laguntzei buruzko kontuak kontatzen ditu. Lehen, neska bati musu bat ematea "gauza handia" zen. Elizaren eraginaz eta debekuez mintzo da.

409. Soldata, amari (PAS-024/024)

Lanean irabazitako soldata amari ematen zion ezkondu zen arte. Aparteko lanetatik (arrain-deskargatik...) ateratzen zuen dirua berarentzat jasotzen zuen.

410. Sareak egiteko prozesua (PAS-024/028)

Sareak nola egiten diren azaltzen du. Prozesua erakusten du.

411. Gerrako oroitzapenak (PAS-024/030)

Gerra hasi zenean, Florentinok sei urte zituen. Itsasontzietatik botatzen zitzuten tiroetako balak baserri aurreko iratze-metetan sartzen ziren. Donibanetik jende askok ihes egin zuen mendi aldera, Bilbora... Arrokaundietan kaleko jendea hartu zuten. Herrerako fusilamenduetako tiro-hotsak entzuten zituzten. Trabajaadoreak gogoratzen ditu Jaizkibelgo bidea egiten.

412. Gosea, gerra denboran (PAS-024/031)

Gerraren eraginari buruz hitz egiten du. Eskuzko errota txiki batekin txikitzen zuten artoa. Esne nahikoa zuten baserrian. "Gosea ezagutu dugu, baina ez kalekoek bizitako modukoa".

413. Arrokaundietatik Eguzkialdera (PAS-024/033)

Hego haizeak kalte handiak eragiten zituen Arrokaundieta baserrian. Etxe jabeak ez zien uzten kalteak konpontzen, eta berak ere ez zuen obrarik egin nahi. Gauzak horrela, gurasoek lurrak zituzten Eguzkialden eta hara joan ziren bizitzera, artean Florentino gaztetxoa zela.

414. Soldaduak, lapurretan (PAS-024/035)

Arrokaundietan bizi zirela, soldaduek (trabajaadoreek) arbia eta esnea harrapatzen zien. Florentinoren aitak lapurretan harrapatu, baserrira eraman eta behar zutena eskatzeko esan zien, ez lapurretan aritzeko. Donibanen ibiltzen ziren soldaduei buruzko kontuak.

415. Eskolako gozokia eta erdara (PAS-025/003)

Eskolako maistra gogoan du. Eskolara azukre pixka bat eramaten zuten, noizean behin miazkatzeko. Geroago, 7-8 urterekin, beste eskola batera joan ziren, eta han dena erdaraz egin behar izaten zuten, nahiz eta andereñoa euskalduna izan.

416. "Servidora de usted" esateko zailtasunak (PAS-025/005)

Eskolan, "servidora de usted" esan behar izaten zuten ikasleek, maistrak haien izena esaten zuenean. Orduko anekdota kontatzen du Remek.

417. Eskolako maistra zorrotzak eta haien ohiturak (PAS-025/009)

Eskolan, neskek eta mutilek aparte ikasten zuten. Jolastokira irteteen ere, neskek eta mutilek ez zuten elkar ikusten. Maistrak zapi bat botatzen zienean, horrek esan nahi zuen gelara itzuli behar zutela. Orduko maistren izenak eta zigorrak gogoan ditu.

418. Egun batetik bestera, lezioa ikasi behar (PAS-025/010)

Eskolan denetik ikasten zuten liburu bakarrarekin: geografia, Espainiako historia, erlijioa, aritmetika... Egun batetik bestera ikasten zuten lezioa, eta andereñoak galdetu egiten zien, ea ondo ikasi zuten ikusteko.

419. Maistra, Francoren lehengusua (PAS-025/011)

Remeren ahizparen maistra Francoren lehengusu propioa zen. Maistrak galdetu zion nor zen estatuburua; eta, erantzuten ez jakiteagatik, sekulako masailekoa eman zion.

420. Aita Pasaian, eta beraiek Ondarroan (PAS-025/015)

Gerra hasi zenean, Ondarroara joan ziren; aita, ordea, herrian gelditu zen, gizonei ez baitzieten joaten utzi. Hala ere, egun batean, Ondarroara joan zen beraingana. Poz izugarria hartu zuten hura ikustean.

421. Izeba, Francoren aldeko espioia (PAS-025/016)

Amaren izeba karlista amorratua zen, espioi-lanetan ibilitakoa. Ondarroara tropak sartu zirenean, izebak gosaria ematen zien Francoren soldaduei.

422. Bandera espainola ikusitakoan, jainkoari eskerrak ematen (PAS-025/017)

Izeba espioi-lanetan ibiltzen zen Francoren tropen alde. Izeba haren etxean, jende asko hartu zuten. Ondarroan, bandera espainola mendian jarri zutenean, jainkoari eskerrak eman zizkion belaunikatuta. Etxeko giroa nolakoa zen azaltzen du.

423. Gerratik itzultzean, etxera sartzeko baimena behar (PAS-025/019)

Gerratik itzuli zirenean, baimena behar izan zuten sartzeko. Lagun karlista bati esker, azkenean, lortu zuten baimen hori; lortu bitartean, amonaren etxean egon ziren. Garai hartan, oraindik gerra ez zen bukatu, eta jende asko falta zen herrian, ihes eginda baitzeuden.

424. Errazionamenduko janaria non, noiz eta nolakoa (PAS-025/021)

Errazionamendu garaian, olio, azukrea, patatak, garbantzuak, babarrunak... banatzen zituzten, noizean behin. Ilaran egon behar izaten zuten zain; eta, jeneroa bukatzen zenean, bazen batere gabe geratzen zenik. Errazionamendua non banatzen zen azaltzen du. Garai hartan, ogirik ez zen; horren ordez, opil borobilak ematen zituzten, gogorrak eta txarrak. Gerora, batata jaten zuten.

425. Estraperloa, dirua zutenentzako luxua (PAS-025/023)

Gerra ostean, ogi zuria lehenengo aldiz jan zutenean, pozez zoratzen zegoen jendea. Garai hartan, dirua zeukanak estraperloko jeneroa erosten zuen. Estraperloan, nor eta nola ibiltzen zen aipatzen du. Beraiek, janaria lortzeko, ondo moldatu ziren, zorrak ordainduko zituzten konfiantza baitzeukaten saltzaileekin.

426. Txirlak prestatzeko, sardinen latetako olio (PAS-025/024)

Etxean 6 ziren: gurasoak, 3 seme-alaba eta osaba bat. Janari gutxi zegoen garaian, aita eta osaba Lezora joaten ziren txirla bila. Txirlak prestatzeko, sardinen latetako olio erabiltzen zuten.

427. Fusilamenduak: bidegabeak eta gizagabeak (PAS-025/027)

Gerra garaian, fusilamenduak izan ziren. Fusilatutako gizon baten istorioa kontatzen du: gorrientzat egin zuen lan, eta horregatik hil zuten. Esaten denez, fusilatutako gizonak itsasora botatzen zituzten.

428. Kartzelako bizi-baldintza negargarriak (PAS-025/028)

Gerra garaian, kartzelan egon zen jendea baldintza negargarrietan bizi zen. Remeren senarra preso egon zen, eta hark bizitakoak kontatzen ditu.

429. San Cristobaletik ihes egin ala ez? (PAS-025/029)

"La fuga de San Cristobal": Remeren senarra han zen, eta berak ere ihes egiteko asmoa zuen, baina ez joateko aholkatu zioten. Azkenean, geratzea erabaki zuen; ihes egin zuten guztiak harrapatu eta hil egin zituzten.

430. Antonio... eta abizena entzuteko beldurra (PAS-025/030)

Gerra garaian, Remeren senarra kartzelan egon zen. Guardia zibilak gauero ibiltzen ziren begira; noizean behin, preso bat hartu eta fusilatu egiten zuten. Behin, aita-seme batzuk kartzelan egon, eta semea fusilatu zutenekoa kontatzen du.

431. Kolikoak izateagatik, tuberkulosoan gelara (PAS-025/032)

Gerra garaian, Remeren senarra atxilotu egin zuten. Izan ere, senarra batzokian ibiltzen zen: Euskadiko dirua Bilboko bankura eramane zuten, eta salatu egin zuten. Kartzelan zegoela, koliko izugarriak izaten zituen; behin, oinazearen oinazez, behin ezin izan zuen jaiki, eta tuberkulosoak zeuden gelara eramane zuten. Zorionez, ez zen kutsatu. Handik urte batzuetara, giltzurruna kendu zioten.

432. Kartzelan egon izanagatik, lana bilatzeko zailtasunak (PAS-025/033)

Gerra garaian, senarra 3 urtez egon zen atxilotuta. Handik herrira itzuli zenean, ez zioten eman nahi izan lanik, ezta itsasoan lan egiteko pasaporterik ere. Azkenean, ahalegin handiak egin eta gero, lortu zuen pasaporte.

433. Bakailao-ontzien garai onenetako lan pila (PAS-025/034)

Gerra ostean, Remeren senarrak Buenavistan egin zuen lan "efectos navales"en. Gerora, itsasontzietarako salgaiekin lan handia egin zuten bakailao-ontzientzat. Ontzi haiek sei hilabetetik behin porturatzen ziren, eta senarraren lantegian berritzen zuten behar zuten material guztia.

434. Francoren debekuekin, Pasaia erdaldundu (PAS-025/037)

Francoren diktadura etorri zenean, denak erdaraz hitz egitera ohitu ziren Pasaian. Herria asko erdaldundu da horren ondorioz, euskararen transmisioa eten egin da.

435. Galegoen etorrerarekin, erdara berehala zabaldu zen herrian (PAS-025/039)

Pasaiara kanpotik etorritako jendeari buruz hitz egiten du. Galego asko etorri zen, eta "El poblado de Franco" eraiki zuten. Haien etorrerarekin, erdara berehala zabaldu zen herrian. Hala ere, beraiek etxean dena euskaraz egiten zuten.

436. Gripe beldurgarrien garaia (PAS-025/042)

Lehengo gaixotasun arruntei buruz hitz egiten du: gripeak gogorrakoak ziren, jende asko hil zen, erraz kutsatzen zen. Horren ondorioz, hil-kanpaiak jotzea galarazi zuten, gaixo zeudenak ez adoregabetzeko.

437. Lehen sendatu ezin ziren gaixotasunak (PAS-025/043)

Tuberkulosia gaitz arriskutsua zen lehen, gehienak hil egiten ziren. Gainerakoan, jende gazte eta ume txiki asko hiltzen zen, txarranpinagatik, eskarlatinagatik... Botikarik ez zegoen lehen gaitz horiek sendatzeko.

438. Amak bakar-bakarrik izan zuen haurra (PAS-025/044)

Lehen, emakumeek etxean izaten zituzten haurrak. Remeren ama bakar-bakarrik zegoen etxean, erditu zenean; haurra hilda jaio zen, ordea. Garai hartan, ez zen orain bezala zaintzen haurdunaldia.

439. Telefono gutxi zegoeneko komunikazioa (PAS-025/045)

Haurra izatean, medikuaren laguntza eskatzeko, beregana joan behar izaten zen. Lehen ez zegoen telefonorik, eta herrikoen artean albisteak nola jakinarazten ziren azaltzen du.

440. Arraina saltzen ibilia (PAS-025/047)

Reme ibilia da antxoa eta sardina saltzen. Orduko giroa eta tratua nolakoa zen kontatzen du. Salmenta goizean goiz hasten zen, baporeak portuan sartzen zirenean. Eskabetxeroek arrain kopuru handiak erosten zituzten.

441. Antxoa prestatzeko prozesua eskabetxerian (PAS-025/049)

Eskabetxeran lan egindakoa da Reme. Antxoak garbitzen aritzen zen bera. Antxoa prestatzeko prozesua nolakoa izaten zen azaltzen du.

442. "Contadores"en lanean ibili zenekoa (PAS-025/051)

"Contadores"en lan egin zuen Remek. Orduko lan-ordutegia aipatzen du. Kontagailuen barruko piezak egiten ziren lantegi hartan, eta berari torloju txiki batzuk egitea tokatu zitzaion. Fabrikara joateko, autobusa hartzen zuten egunero; bazkaltzera etxera etortzen ziren. Baten bat falta bazen, orduko autobusak zain egoten ziren.

443. Emakumeak ezkontzean, lana uztera behartuta (PAS-025/053)

Ezkontutakoan, emakumeek lana utzi egin behar izaten zuten. Lehenago, emakumeek, ezkondu eta haurra izan ostean ere, lanean jarrai zezaketen; baina, Remeren garairako, hori debekatu egin zuten.

444. 32 urte, pertsonaren arabera aldatu (PAS-025/054)

Reme 32 urterekin ezkondu zen. Adin horretan ezkontzeari buruz, jendeak esandakoak gogoan ditu: antza denez, 32 urteak ez dira berdin guztientzat.

445. Komunio eguna: bazkaria, jantzia eta eskupekoak (PAS-025/056)

Lehen, San Pedron, bi komunio egiten ziren: bata, 7 urterekin; bestea, 12 urterekin. 2. komunioa egin ostean, "Mariaren Alabak" kongregazioan sartzen ziren. Komunioko jantzia nola lortu zuten azaltzen du. Komunioko bazkaria etxean ospatzen zuten, eta etxeakoak bakarrik elkartzen ziren. Komunioa egindakoan, familiartekoengana joaten ziren, eta eskupekotxo bat jasotzen zuten horregatik. Diru hori gurasoei ematen zieten.

446. "Zer den niretzat euskara? Gauzarik ederrena" (PAS-025/059)

Remerentzat, euskara da gauzarik ederrena. Batzokian abesten zituzten kantuak abesten ditu.

447. Batzokiko kultura-ekitaldiak eta Pasaiaiko euskarak (PAS-025/060)

Batzokian zinta-dantza eta antzerkia ere egiten zuten. Pasaian euskara aldatu egiten da leku batetik bestera. Alde horiei buruz hitz egiten du.

448. Sakristau izateko ohitura familian (PAS-026/005)

Aita sakristau zen elizan, eta hura hil zenean, Benek hartu zuen haren ardura. Sakristauaren lana zer izaten den azaltzen du.

449. Sakristau zenerako lanean hasia (PAS-026/006)

Sakristau lana egokitu zitzaionerako, Benek bazuen bere lana ere: itsasontzien deskarga kontrolatzen aritzen zen.

450. Gerran apaiza hil zuten (PAS-026/007)

Sakristaua zen San Pedroko elizan. Garai hartako apaiza Felipe Goena zen, gerra hasieran hil zutena.

451. Mezako ohiturak (PAS-026/009)

Lehen jauna hartzera baraurik joan behar izaten zen eta emakumeek burua estali behar izaten zuten. Emakumeak eta gizonak eserleku mota desberdinetan esertzen ziren; bakoitzari non esertzea tokatzen zitzaion azaltzen du.

452. Mezak latinez (PAS-026/011)

Lehen mezak latinez izaten ziren. Orduko errezoak gogoan ditu.

453. Konfesatzera zer konfesatu ez zekitela (PAS-026/012)

Konfesioak larunbat arratsaldetan izaten ziren. Astero joaten ziren, nahiz eta ez zuten jakiten zer esan. Konfesatokiak desberdinak izaten ziren emakumeentzat eta gizonentzat. Konfesatu ostean, apaizak penitentzia ematen zuen. Behin mutil bati gertatutako anekdota kontatzen du.

454. Kanpai motak (PAS-026/017)

Kanpaiak jotzeko hainbat modu zeuden, eta sakristauaren ardura izaten zen haiek jotzea. Kanpai mota desberdinei buruz hitz egiten du.

455. Lehengo prozesioak (PAS-026/021)

Lehengo prozesioak nolakoak izaten ziren azaltzen du: ibilbidea, musika, egitaraua...

456. San Pedro eguneko meza (PAS-026/023)

San Pedro egunean meza izaten zen, Erromatik ekarritako erlikiari musu eman, eta abestu egiten zuten.

457. "Pedro zera" (PAS-026/031)

"Pedro zera" kanta abesten du.

458. Elizako otoitzak (PAS-026/035)

Arrosarioaren zatiak aipatzen ditu. Elizako otoitz eta kanta batzuk aipatzen ditu.

459. Jauna hartzeko ogia (PAS-026/040)

Jauna hartzeko ogia non eta nola egiten zuten azaltzen du.

460. Gerran Lekeitiora ihes egin behar (PAS-027/003)

Gerra hasi zenean, 10 urte zituen, eta Lekeitiora egin zuten alde herritik; 10 hilabete egon ziren han. Aita gerrara joana zen ordurako, eta preso hartu zuten. Aita etxera itzuli bitartean, amak nola-hala moldatu behar izan zuen familia aurrera ateratzeko.

461. San Juandik jende askok egin zuen alde gerran (PAS-027/004)

San Juanen gerrak zer eragin izan zuen azaltzen du: jende askok egin zuen alde. Beraiek Lekeitioan egon ziren; eta, han ere nazionalak sartu zirenean, ihes egin behar izan zuten.

462. Gerran, etxe hutsetan lapurretak (PAS-027/005)

Herrian jende gutxi geratu zen gerra garaian. Geratu zirenetako batzuk aipatzen ditu. Osabak zaindu zuen etxea, beraiek kanpoan egon ziren bitartean; baina hainbat etxe hutsetan lapurretak egon ziren.

463. Gerra ostean euskarari eusten (PAS-027/008)

Gerra ostean erdaraz egiteko eskatzen zuenik bazegoen, baina beraiek euskaraz egiten zuten beraien artean. Pasai San Juanen hobeto eutsi zitzaion euskarari San Pedron baino.

464. 'Cara al Sol' abesteko gogoa (PAS-027/009)

Gerra ostean, Cara al Sol abesten aritzen ziren gazteak kalean. Behin bera ere abesten atera zen, baina ama konturatu zenean, errieta galanta bota zion.

465. Gerra osteko goseari eusten (PAS-027/010)

Gerra ostean gosea pasa zuten, baina nahiko ondo egon ziren beste batzuen aldean. Ogia eta olioak aberastasun handia ziren orduan.

466. Lehenengo pausoak lan-munduan (PAS-027/013)

Gerra bukatzean, Gregoriok 13 urte zituen eta pinuak aldatzen hasi zen lanean Jaizkibelen. 14 urterekin Luzuriagan sartu zen, bonbatarako kaxak egiten; asteen 2 pezeta irabazten zituen. Gerora arotz izateko hasi zen ikasten.

467. Arotzeria jarri arteko lanak (PAS-027/014)

Soldadutza bukatu zuenean, aita lan egiten zuen arotzerian hasi zen lanean. Han urtebete egin ostean, lagun batzuekin batera sortu zuen arotzeria, itsasontziak egiteko.

468. Negozioa pixkanaka hazten (PAS-027/015)

Arotzerian lan asko zutenez, lokal handiagoa behar zuten; eta orduan bazkide berri bat sartu zen negozioan. Horrela, barku asko egin zituzten. Arrantzarako itsasontziak egin zituzten gerora, eta handik hartu zuten erretiroa.

469. Arotzeriako egurraren jatorria (PAS-027/016)

Arotzerian egin zuen lan, eta egurra nondik ekartzen zuten azaltzen du.

470. Makina lortu artekoak (PAS-027/018)

Lehen eskuz egiten zuten lan, ez baitzuten dirurik makinak erosteko. Makinak nola lortu zituzten azaltzen du.

471. Lehen lana gogorrakoa (PAS-027/021)

Lehen egurraren kalitatea okerrakoa zen eta gehiago nekatzen zen lanean. Lehen eskuz lan asko egin behar izaten zen. Barkuak egiten 5 hilabete inguru ematen zituzten.

472. Elurra zela kamioia gidatu behar (PAS-027/024)

Egurra kamioiekin ekartzen zuten. Behin elurra zegoen eta kamioia gidatzeko nola moldatu ziren kontatzen du.

473. Gaztetatik barkuen inguruan lanean (PAS-027/028)

Umetan ez zuen izan denbora askorik jolasten ibiltzeko. Gaztetatik hasi zen lanean, gehiena barkuekin zerikusia zuten kontuetan. Hainbat etxetako egur-lana ere egin zuten. Krisi garaia ezagutu izan dituzte lanean.

474. Ontzia bukatu eta zozkatu (PAS-027/029)

46 30 Behin ontzi bat egiten ari zirela, festak iristerako saldu nahi zuten, horrela dirua edukitzeko. Azkenean bukatu eta zozkatu egin zuten.

475. Soldadutzan gustura ibilitakoa (PAS-027/033)

Soldadutza Ferrolen egin zuen: anaia hil eta handik 8 egunera joan zen hara. Geroago, soldadutzan Cadiz aldera bidali zuten barku batera; han euskaldunak asko estimatzen zituzten orduan. Barkuan nola moldatzen ziren azaltzen du. Guztira 24 hilabete egin zituen soldadutzan.

476. Soldadutzan euskaldunak oso estimatuak (PAS-027/034)

Soldadutzan Calvo Sotelo barkura joateko eskaini zioten; lehen euskaldunak oso ondo ikusiak zeuden eta eginkizun onak eduki zituzten. Oso ondo pasa zuen han. Jornala dirutan ematen zieten.

477. II. Mundu Gerraren lekuko (PAS-027/036)

Behin elizgizon batzuek Donostiara ekarriko zutela esan zioten. Azkenean, baina, Gregoriok ez zuen nahi izan etorri. II. Mundu Gerra bukatu zenean, Algezirasen zen Gregorio eta han ikusi zituen Normandiako lehorreratzera joan ziren barkuak.

478. Soldadutzatik etxera idatzitako gutunak (PAS-027/038)

Soldadutzan zeuden bitartean etxera gutunak bidaltzen zituen ahal zuenak. Behin lagun batek Gregoriori gutuna idazten laguntzeko eskatu zionekoa kontatzen du.

479. Euskarari buruzko bertsoak (PAS-027/040)

Euskararekiko sentimendua laburtzen duten bertso batzuk abesten ditu. Berak beti euskaraz egiten du.

480. Baserriko lanetan, patroiarentzat (PAS-028/002)

San Pedron jaio zen. Aita hargina zen, jatorriz baserritarra, baina amarekin ezkondu zenean baserriko lanetan ibiltzea eskaini zieten. Itsasontzi asko zituen gizon batek (patroia) etxea eta lurra jarri zizkien horretarako. Jornala txikia zen, baina ez zitzaien jatekoa falta: baratzeko produktuak eta arraina. Ekoiztutakoaren zati bat patroiarentzat zen.

481. Eskolara joan, eta euskara baztertu (PAS-028/003)

Eskolan hasi zenean, ez zekien erdaraz. Maistra euskalduna zen, baina ez zieten euskaraz hitz egiten uzten. Galiziarren seme-alabak asko ziren, eta euskaldunak bost bakarrik. Erdara ikasi, eta erdaraz bizitzen hasi ziren, tontotzat hartzen zituztelako bestela.

482. Anai-arrebeekin ere erdaraz; frankismoa (PAS-028/004)

Ama Andoaingoa zuen eta aita Arraiozkoa. Hiru neska eta mutil bat ziren. Beraien artean erdaraz hitz egin zuten umetatik. Beldurraren sasoia zen; Radio Andorra entzuten zuten ezkutuan eta eskolan bandera espainolarekin kantatu behar zuten. Falangekoak hitzaldiak ematera joaten zitzaizkien eskolara.

483. Trintxerpeko baserriak (PAS-028/007)

Bera umea zela, etxeak eraikita zeuden. Trintxerpeko baserrien izenak esaten ditu.

484. Arrantzaleak etxeratzean, familiarekin Donostiara bazkaltzera (PAS-028/009)

Arrantzaleak hilabeterako joaten ziren itsasora. Pysbekoak 5-6 hilabeterako. Etxera bueltatzean, batzuetan seme-alabek ez zuten aita ezagutu ere egiten. Horregatik, ohitura zuten etxera bueltatzean emaztearekin eta umeekin Donostiara joateko bazkaltzera. Hala, umeak aita bueltatzeko irrikitan egoten ziren.

485. Baserriko lanak (PAS-028/011)

Jolas gutxi egiten zuen umetan. Etxean aita eta morroia izaten ziren. Zaldia zuten eta hiru behi. Ur biltegi bat zuten, eta gerra garaian arrakalatu egin zen; aitak bi ur putzu egin zituen, eta han garbitzen zuten berdura eta marmitak freskatu. Egunetan bitan jezten zituzten behiak, eta ezin ziren esne biak nahastu.

486. Patroiarentzat esnea eta barazkiak prestatzen (PAS-028/012)

Patroiari eta haren familiakoei esnea eta barazkiak eramaten zizkieten, zaldikarroan, egunero. Aita eta morroia txandaka joaten ziren. Patroia Donostian bizi zen. Baserriko gainerako lanak.

487. Aitari laguntzen, baserriko lanetan (PAS-028/013)

Umetan berak egiten zituen lanak. Aitari laguntzen zion, baratzean, fruta biltzen eta zaldiarekin. Donostiatik janari soberakinekin bueltatzen zen aita, eta dena aprobetxatzen zuten: animaliei ematen zieten.

488. Bordaundi baserrian jaioa; komentua ere bazen (PAS-029/002)

Bordaundi baserria, bere jaiotetxea, non zegoen. Erretratua. Teilatupe berean moja komentua eta beste bizitza bat zeuden. Errepublikak etortzean mojak bidali egin zituzten. 1970 inguruan erre zen. Behiak eta idiak. Sagardotegia zuten Bonantzán. Maizterrak ziren.

489. Dolarea eta matxaka; sagar motak (PAS-029/005)

Dolarea nolakoa zuten, modernoa. Eskuz estutzen zuten lehenengo, gero motorrarekin. Sagarrak Goierritik ekartzen zituzten. Sagar moten izenak esaten ditu. Sagardiak. Lur sailak, asko baina txarrak.

490. Sagarra bildu, sagardoa egin eta sagardotegira (PAS-029/006)

Sagarra biltzeko, "kiskaia" erabiltzen zuten. Saski berezia. Zakua bete, eta idiekin eramaten zuten etxera. Idi pareak. Sagardo litro asko egiten zituzten urtean. Sei zaku zen karga bat, eta 200 kargatik gora jo izan dute. Sei kupel zituzten Bonantzán. Idien lanak, bideetan. Garlia. Barrikak, sagardoa garraiatzeko. Bidea.

491. Sagardoa tabernetara; sagarra (PAS-029/007)

Sagardoa nola husten zuten, bonbarekin eta baldeka. Tabernetara eta batzokira eramaten zuten sagardoa. Sagar motak. Lezoko sagarrak zuen fama.

492. Zizarra eta pitarra (PAS-029/008)

Zizarra: irailaren 14a arte erortzen zen sagarrarekin egindako sagardoa. Mikatzagoa zen. Pitarra: sagardoa, ura botata. Zenbat ur botatzen zioten. Gazterik hasten ziren alkohola edaten, etxean. Anisa, 7 urterekin.

493. Dolarea estutzen; patsa (PAS-029/010)

Sagar txikitua zanpatzen. Lexikoa: urkatxua, lakuak, oholak. Motorrarekin egiten zuten, aurretik eskuz. Eguraldiaren arabera, gehiago ala gutxiago estutu behar izaten zen. Hotzaren eta beroaren eragina. Patsa eta patsuloa. Errejiloia.

494. Sagardoa irakiten; kupelak (PAS-029/012)

Sagar ura tinara sarzten zuten, gero barrikara eta ondoren kupelera. Irakiten. Pospolaa itzaltzen bazuen, ez zen tapatzen; bestela bai. Hotzarekin zailagoa zen irakitea. Kupelak. 5.600 litrokoa handiena. Kupelgileak. Barrikak zertarako egiten zituzten.

495. Bonantzako sagardotegia (PAS-029/013)

Bonantzako sagardotegia. Sei kupel zeuden. Aldiko bat irekitzen zuten, bukatu arte. Sagardoa ematen ama eta arreba egoten ziren, emakumeak. Basoka eta botiletan. Prezioak. 1937a, sagar urtea. Jatekoa bezeroek prestatzen zuten, hantxe bertan. "Mojon". Parrilla eta egur ikatza.

496. Donibaneko sagardotegiak (PAS-029/014)

Pasai Donibaneko sagardotegiak aipatzen ditu. Batetik bestera ibiltzen ziren. Errondak. Igelaren jokoa eta toka.

497. Batzokira, gerra aurretik; euskara (PAS-029/016)

Gerra hasi zenean 14 urte zituen. Aurretik, batzokira joaten ziren. Non zegoen azaltzen du. Pasai Donibanen gehienak EAJkoak ziren. Taberna eta oholtza. Antzerkia. Olaziregi. Euskaraz izaten zen. Gerra ondoan euskara nola atzeratu zen. Batzokiko dantza-taldeak. Ez ziren askotan joaten.

498. Zentro errepublikazalea (PAS-029/017)

Zentro errepublikazalea non zegoen azaltzen du. Batzokian baino jende gutxiago izaten zen han. Arraunlari taldeetan bakarra zen errepublikazalea. Karlistak gutxi ziren, eta komunista bakarra zegoen.

499. Gerran Pasai Donibanen; ihesa; hildakoak (PAS-029/019)

Gerra nola hasi zen. Mezatik bueltan esan zien amak. Mutil batek esan zuen falangista zela, bakarra zen. Mutil asko hil zen, gudari joanda. Irailean sartu zirenean, hutsik zegoen herria. Zeintzuk geratu ziren. Bi anaia elkarren kontra ibili ziren gerran. Bere familia ez zen inora joan. Anaia eraman egin zuten. Borrokan hildako herritarrek.

500. Herria hutsik eta sakeoak; erreketek (PAS-029/020)

Herrian gutxi geratu ziren. Jendea itsasontziz joan zen Bilbo aldera. Mezara joan zirenean, kalea hutsik. Etxe asko hustu egin zituzten. Karabineroen kuartela sakeatu egin zuten. Erreketeek ogia ematen zieten esnearen truke.

501. Milizianoak; herritarrek guardiak egiten (PAS-029/021)

Milizianoak. Bertako jendea guardiak egiten ibili zen. CNTko bi neska ibili ziren eskopetak biltzen. Udaletxera entregatu zituzten beste batzuek. Erresistentziarik ez zen izan. Jaizkibelen, nazionalak astebete pasatu zuten Guadalupetik Donibanera joaten.

502. Bonbak; atxilotetak (PAS-029/022)

Zelaira bonba bota zuten, baina ez zen lehertu. Nazionalistak elizak zaintzen ibili ziren. Campsa ere bai. Kaputxinotako tunela lehertu nahi zuten, baina ez zen ezer gertatu. Herritar bati heriotza-zigorra jarri zioten, baina gero barkatu egin zioten (salatzaileak berak eskatuta). Ez zuten inor fusilatu.

503. Apaizen ibilerak gerra garaian (PAS-029/023)

Apaizen kontuak. Donibaneko apaiza Igeldon ezkutatu zuten EAJkoek; fama txarreko apaiza zen. San Pedroko apaiza hil egin zuten; faxistekin Maria Cristinan egon ote zen. Jatamendi ontzia traban jartzeko saioa, portuan inor ez sartzeko.

504. Eskolan mojekin eta Biteri eskolan (PAS-029/024)

14 urte arte ibili zen eskolan. Bederatzi urte arte mojekin, erdaraz; neska-mutilak elkarrekin. Umetako jolasak. Baloirik ez zuten. Biteri eskolan, maisua eta maistra senar-emazteak. Lau erregelak. Makilarekin ipurdian ematen zuen maisuak. Ikaskide baten kontuak.

505. Igandetan zinema mutua eta karta jokoa (PAS-029/025)

Zinema mutua, igandetan: Charlot. Erreal bat kostatzen zen. Erreteriarra joaten ziren batzuek, zinemara. Larunbatetan lana egiten zuten. Igandetan, mezetara eta bezperetara. Karta jokoa aritzen ziren, etxeko sukaldean, zahar eta gazte.

506. Dotrina erdaraz ikasi zuen; Jaunartzea (PAS-029/026)

Dotrina eskolan ikasten zuten, Errepublika etorri arte. Gurutzeak kendu zituzten. Apaizaren etxean. Erdaraz ikasi zuen dotrina, buruz. Jaunartze txikia eta handia. Jaunartzean ama eta biak Donostiara joan ziren bazkaltzera.

507. Txori harrapatzen (PAS-030/002)

Negu garaian, eskolara joan aurretik txoriak harrapatzeko amuak jartzen zituen. Zozoak, birigarroak, txantxangorriak... harrapatzen zituen. Gero, etxean jaten zituzten harrapatutako txoriak. Tiragomarekin eta tranpekin ere ibili ohi zen txoriak harrapatzen. Pneumatiko goma erabiltzen zuen tiragomak eta pilotak egiteko.

508. Inaurkina eta gorotza (PAS-030/006)

Bordaundi baserritik gertu larrea zuten, eta gertu aritzen ziren inaurkina biltzen. Inaurkina ganaduari azpiak egiteko erabiltzen zen. Gorotza atera eta biltegi antzeko baten jasotzen zuten; neguan, zelaian zabaltzen zuten.

509. Ura, argindarra eta komuna (PAS-030/007)

Baserri atarian zuten ura. Errepublika denboran, tanga edo depositoa jarri zen auzoan, eta ura etxera iristen zela jarri zuten. Beti ezagutu izan du argindarra baserrian, baina inguruko beste baserrietan ez omen zen argirik. Etxeko komuna nolakoa zen azaltzen du. Etxe ondoko komentuko ur-sistemari eta komunari buruz hitz egiten du. Dutxa eta garbitokia ere bertan zituzten.

510. Garbitokia, etxetik gertu (PAS-030/008)

Etxe ondoko komentu atarian zegoen garbitokia. Estalpendun garbitokia zen. Auzokoak bertara joaten ziren arropa garbitzera. Beste bi garbitoki non ziren azaltzen du.

511. MEIPI arrandegia (PAS-030/009)

16 urte zituela, MEIPI arrandegian hasi zen lanean. Lehenengo urteetan, arrain freskoarekin aritzen ziren lanean (nagusiki, legatza); gero, bakailaoarekin (1949 urtetik aurrera, gutxi gorabehera). 20 itsasontzi bikote zituen arrandegiak. Itsasontziek non eta nola arrantzatzen zuten azaltzen du. Xeberiano arraina sailkatzen eta burua kentzen aritzen zen.

512. Arrandegiko lana (PAS-030/010)

MEIPI lanean aritzeaz gain, igande gauetan arrain-deskargan aritzen zen San Pedron. Arrandegian zenbat langile ziren eta zer lan-ordutegi izaten zituen azaltzen du.

513. Lan-txanda bakoitzeko, arrain bat (PAS-030/011)

Bi tokitan aritzen zen lanean; MEIPI eta San Pedron. Lan-baldintza eta soldatei buruz hitz egiten du. Lan-txanda bakoitzeko, legatz bat ematen zien. Xeberianoren arreba Donostiara joaten zen arrain hori saltzera. Arrebak arraina zer preziotan saltzen zuen aipatzen du.

514. Esne eta berdura salmenta (PAS-030/012)

Xeberianoren amak esnea eta berdura saltzen zuen herrian. Baserria kaletik gertu zegoenez, jendea bertara ere joan ohi zen berdura erostera.

515. Arrantzaleak eta baserritarak (PAS-030/013)

Arrain-saltzaile asko ibiltzen zen buruan baldea hartu eta "sardina-sardina!" deika. Arrantzaleen eta baserritarren arteko harremanaz hitz egiten du. Baserritar ugari aritu da izan da itsasoan. Patroiei eta ontziei buruzko azalpenak ematen ditu.

516. Donibaneko itsasontziak (PAS-030/014)

Garai batean, bajurako zazpi ontzi eta alturako 22 itsasontzi bikote ziren Donibanen. Ontziak binaka egiten zituzten. Itsasontzi bikoteen izenak aipatzen ditu: 'Euskalerrria' eta 'Alfonso XIII' (Errepublika garaian, 'Hispania' izena jarri zien), 'Galerna' eta 'Vendaval', 'Mistral' eta 'Tramontana', 'Ábrego' eta 'Cierzo',

'Alisio' eta 'Tornado'... Aurreneko bi ontziek ez beste guztiek haizeen izenak zituzten.

517. Gerrako itsasontziak (PAS-030/015)

Gerrako barku, minaketari, destruktore, itsaspeko eta ur-hegazkinak ditu hizpide. Gerra denboran, nazionalek Galerna itsasontzia kanoiarekin ibili zuten. Virgen de Chamorro eta Franco ur-hegazkinak nola pasatzen ziren gogoratzen du. Itsasontzietatik jaurtitako kanoikadak...

518. Francoren bisitak (PAS-030/016)

Franco Donostiara joaten zen bakoitzean, Donibaneko hiru-lau lagun Ondarretako espetxera eramaten zituzten, bat edo beste bere borondatez joaten omen zen. Urte batean, Franco yate batean pasa zen badiatik, alde banatan San Pedroko eta Donibaneko traineruak zituela, herrian kanpaiak jotzen zituzten bitartean.

519. Ia hiru urte eta erdi soldadutzan (PAS-030/019)

Ia hiru urte eta erdi egin zituen soldadutzan. Nondik nora ibili zen kontatzen du. Beran, metrailadore-habiak egiten ibili zen: habia horiek nolakoa ziren azaltzen du. Gerra denboran, eraikuntza zibila erabat geldirik egon zen; porlan eta burni guztiak militarrentzako izaten ziren.

520. Alemaniara janaria bidaltzen (PAS-030/020)

II. Mundu Gerra garaian, janaria bidaltzen zen itsasontzietan Pasaiatik Alemaniara. Denbora horretan, hemen errazionamendua zegoen.

521. Platanoa deskargatzen ibilia (PAS-030/021)

Itsasontzietatik platanoa deskargatzen aritu izan zen Xeberiano. Kokoa zatituta ere ekartzen omen zuten.

522. Oiloak eta arrautzak (PAS-030/024)

Amak arrautzak ere saldu ohi zituen kalean. Baserria kaletik gertu zegoenez, jendea bertara ere joan ohi zen arrautzak erostera. Oilaloka eta txitei buruzko kontuak. "Kolka" edo "loka". "Orduan, banketea zen oilaskoa jatea" dio. Kapoi parek entregatu behar izaten zioten baserriko nagusiari.

523. Santo Tomas Egunean, errenta ordaintzera (PAS-030/025)

Santo Tomas Egunean errenta ordaintzera joaten ziren gurasoak Donostiara. Etxejaberari kapoi parek bizirik eta sagar salmentatik ateratako diruaren erdia eman behar izaten zien. Trukean, nagusiek bakailao bat ematen zien. Santo Tomas Egunean feria egiten zen Donostian. Urte batean, aitari kartera lapurtzeko saiakera egin ziotela kontatzen du. Donostiatik bueltan, gurasoek kartoizko jostailuren bat eraman ohi zien etxera.

524. Santiotako zezenak (PAS-030/027)

Herriko festak, Santiotan. Zezenak ikustera joaten ziren plazara. Mutil kozkorrak zirela, barreretan jartzen ziren zezenak ikusteko, baina udaltzainek handik bildatzen zituzten gizonak jar zitezen. Balkoitik ikusten zituzten zezenak gero. Jende asko biltzen.

525. Arraun kontuak (PAS-030/028)

Arraunean ibilia da Xeberiano. 35 urte zituela Kontxako estropadan atera zen Antxoko traineruan. Hirugarren egin zuten, "besterik ez zegoen ba!" dio. Entrenamenduak. Traineruak eta arraunak nolakoak ziren.

526. Bainuak (PAS-030/029)

Erreka batean ikasi zuen igeri egiten; gero, Luzuriaga aldera joaten ziren igeri egitera. Nolako bainujantzia zuen azaltzen du. Gehien bat mutilak ibiltzen ziren uretan. Neskek nahiko gorabehera izaten zuten arropak janzteko eta eransteke.

527. Donibaneko ontziola (PAS-030/030)

Garai batean, ba omen zen ontziola bat Donibanen, baina Xeberianok ez zuen ezagutu. Bere emaztearen aita aritu zen ontziola horretan lanean. Ontziola non zegoen azaltzen du. Baleontzi bat bertan egin zela esaten omen da.

528. Guztiz Eder etxea (PAS-030/033)

Gutztiz Eder etxea 1950 eta 1952 urte bitartean egin zuen familiak. Guztiz Eder izena zergatik jarri zioten azaltzen du.

529. Dantzaldiak eta bilerak (PAS-030/035)

Gaztetako ibilak kontatzen ditu. Igandetan eta jaiegunetan, Irungo Estebeneako eta Xorruako bileretara joan ohi zen lagunekin. Bertan, trikitia izaten zen. Irunera joan-etorria nola egiten zuten kontatzen du. Erreterian, berriz, musika-banda eta dantzaldia izaten zen. Neska-laguntzea.

530. 1920tik 1977rako Kontxako banderak (PAS-031/004)

1920tik 1977ra bitarteko Kontxako banderaren irabazleak zerrendatzen ditu. Pasai Donibanek zenbat bandera irabazi dituen aipatzen du.

531. Kontxako estropada (PAS-031/005)

Zortzi urte zituenetik urtero joan izan da Kontxako estropada ikustera. Azken urteetan tribunan izan da. 1944an, estropada ondoren, trainerua Donostian hartu eta Pasai Donibanera bueltatu ziren arraunean lau lagun.

532. Jaietako estropadak (PAS-031/006)

Arraun kontuak. Pasai Donibaneko jaietan lau urtean atera zen arraunean. Hiru traineru izaten ziren: baserritarrak, arrantzaleak eta "lehortarrak". Xeberiano baserritarren izenean ateratzen zen. Urte batean laugarren traineru bat ere atera zen, Trintxerpekoa.

533. San Pedrokoekin pikea (PAS-031/007)

Arraun kontuak. San Pedrokoekin pike handia zuten.

534. 'Matxete' patroia (PAS-031/008)

Arraun kontuak. Francisco Laboa 'Matxete' San Juango patroiarri buruzko kontuak. 'Matxete' patroia zela irabazi zuen San Juanek Kontxako bandera 1924an.

535. Jose Angel Lujanbio patroia (PAS-031/010)

Arraun kontuak. Jose Angel Lujanbio patroiar buruzko kontuak. 1956an, Kontxako bandera irabazi zuen San Juanek Lujanbiorekin. 60ko hamarkadan, Lujanbiok lau bandera irabazi zituen Hondarribiarekin.

536. Donostiara, estropada ikustera (PAS-031/012)

Kontxako estropada ikusteko Donostiara tranbian joan ohi ziren. Beran soldadu zela, permisoa eman zion sarjentuak estropada ikustera joateko. Estropada ikustera joan eta izandako istripuak (erorikoak, harriekin min hartu...).

537. Lehenbiziko apustua Kontxan (PAS-031/013)

1941ean jokatu zuen lehenbiziko apustua Kontxako estropadan. Lau lagunek bosna duro jarri zuten. Irabazi egin zuten apustua.

538. Estropadak eta apustua (PAS-031/014)

Estropadak eta jokaturako apustuak ditu hizpide. Irabazitako apustuak eta jokaturako dirua aipatzen ditu. Bazen estropadetan apusturako afizioa, gainerakoan ez.

539. Serenoa (PAS-031/016)

Xeberianoren osaba bat eta lehengusu bat serenoak izan ziren. Serenoaren zereginak: lanak izaten ziren jendea tabernetatik ateratzeko... Etxeetako ateak ez ziren giltzez ixten.

540. Sagarra ganbarara igotzeko sistema (PAS-031/017)

Xeberianoren aitak sagarra ganbarara igotzeko sistema bat asmatu zuen. Lehenago, zakuak bizkarrean hartuta igotzen zituzten.

541. Inaurkina (PAS-031/018)

Belar-meta gutxi egiten zuten, egindakoak "inorkinarekin".

542. Saskigilea eta txistulariak (PAS-031/020)

Urnietatik etorritako Etxeberritarrei buruzko kontuak. Aita saskigilea zen. Saskigileak bost seme zituen, gehienak txistulariak.

543. Ferratzailea (PAS-031/022)

Pasai Donibanen saskigilearen semea zen ferratzailea. Xeberiano Errenteriara joaten zen abereak ferratzera. Hiru kilometroko bidea zuten Bordaundi baserritik Errenteriara. Errenterian bi ferratoki ziren: non zeuden aipatzen du.

544. Laboatarren aroztegia (PAS-031/023)

Herriko arotza zein zen aipatzen du. Toki baten baino gehiagotan eduki zuen aroztegia. Barkoetarako lanak eta enbarkazioak egiten zituen.

545. Hernaniko eta Lezoko feriak (PAS-031/024)

Ostegunetan Hernaniko feriara joaten zen Xeberianoren aita: bera ez da behin ere joan. Pazkoetan, feria izaten zen Lezon.

546. Sare kontuak (PAS-031/026)

Sareak konpontzen plazan edo arkupean. Sareak non jartzen zituzten lehortzen.

547. MEIPIko lana (PAS-031/028)

Gizonak eta emakumeak aritzen ziren bakailaotan. Egitekoak: bakailaoa garbitu, lehortzen jarri, fardoak egin... Gatzak, kontserbatzeko.

548. Donibanetik Irunera bizitzera (PAS-036/002)

Pasai Donibanetik nolatan joan zen Irunera bizitzera kontatzen du. Senarra itsasoan zebilen. Meipin etxea lortzekotan egon zen, baina azkenean kale.

549. Umezain eta sareak josten (PAS-036/004)

Bordaundi baserrian jaioa. Moja komentua ere bazen eraikina, eta mojekin ibili zen eskolan. Umetako lanak. Umezain ibili zen, familia frantses batean. Sarea josten ibili zen, Anttonirekin batera. Itsasontzien izenak esaten ditu. Lau emakume ibiltzen ziren sareak josi eta tindatzen.

550. Sareak josten eta bulegari moduan (PAS-036/009)

Enbarkaderoan jaioa da Luisa. Zazpi senide ziren. Aita arotza zen eta ama baserritarra, Altzakoa. Pysbeko sareak josten hasi zen, baina bulegoan lanean ere ibili da urte askoan. Ezkongabea da.

551. Alderdi politikoaren egoitzak non zeuden (PAS-036/012)

Zentro errepublikarra eta batzokia non zeuden azaltzen du Luisak. Komunisten egoitza oso txikia zen, eta han ibiltzen zena, Mateo, elizatik pasatu gabe lurperatu ei zuten.

552. Batzokira, antzerkia ikustera eta kantatzera (PAS-036/013)

Antzerkira joaten ziren batzokira. Euskaraz ziren funtzioak. Kantatu ere egiten zuten han. Orduan ikasitako abesti bat kantatzen du Klaudiak. Umetan ondo kantatzen zuen, eta baita bere anaiek ere. Artoa aletzeko elkartzen zirenean, kantuan aritzen ziren Klaudiaren anaiak. Ehizatik bueltan ere bai, Anttonik dioenez.

553. Mutilekin dantza egitea bekatu (PAS-036/014)

Batzokian ez zuten dantza egiten. Mariaren alaben kongregaziotik bota zuten Klaudia, helduta dantza egin zuelako.

554. Kongregaziotik nolatan bota zituzten (PAS-036/016)

Kongregaziotik nolatan bota zituzten azaltzen du Anttonik: mutilek bandera irabzi zuten, eta helduta egin zuten dantza haiekin. Bihurriak ziren Klaudia eta Anttoni; harri koskorak botatzen zizkieten neska batzuei. Don Pedro apaizaren kontuak.

555. Herriko mutikoen bihurrikeriak (PAS-036/017)

Biteri eskolan ibili ziren. Medikuaen semearen kontuak, mutiko kuadrilla hark egindako bihurrikeriak: katua gurutzean jarrita eraman prozesioan, txitoak loreak bezala jarri ipurditik makila sartuta...

556. Gerra hasi zenean, ihesi Frantziaraino (PAS-036/019)

Gerraren hasieran, itsasontzia bonbak botatzen hasi zenean, mendira joaten zireen. Anttoniren anaia Bilbon hil zen, gudari joanda. Anttoni eta klaudiaren familiak ere ihesi joan ziren, Erandiora, eta handik Santanderrera eta gero Frantziara; Sant Nazairera. Klaudia Bordelera eraman zuten, eta handik Hendaiara.

557. Hiru urtean herrira itzuli gabe (PAS-036/020)

Luisa Bartzelonaraino joan zen. Hiru urtean ez ziren bueltatu. Donibanetik Bilbora joan ziren, eta handik Ondarrura. Santandertik Asturiasera, eta gero Frantziara, eta handik Bartzelonara. Gernika bonbardatu zutenean Mundakan zeuden. Kolean ere egin zuen lo. Aizkorarekin zuhaitzak mozten ere ibili zen.

558. Patata lapurtzen, gosearen gosez (PAS-036/022)

Frantziatik pasatu bakarrik egin ziren, gero Bartzelonara joateko. Gosea pasatu zuen. Kartzelara ere sartu zuten egun baterako, patata lapurtzeagatik. Trenez bueltatu ziren.

559. Bonbardaketak eta ezkutalekuak (PAS-036/023)

Gernika bonbardatu zutenean, Luisa Mundakan zegoen, eta ahizpa Gernikan. Bizirik agertu zen, menditik barrena. Ezkutalekuak: ohe azpia, zubiak... Anttonik-eta ez zuten goserik pasatu; Luisak bai. Luisaren familiakoak bueltan ez zituzten Pysben lanean hartu.

560. Motorraren aurretik, txalupa itsasadarra zeharkatzeko (PAS-036/025)

Itsasadarra txalupan pasatzen zuten lehen, ez motorrarekin. Santana, Martzelino... botearekin ibili ziren jendea pasatzen.

561. Bueltan, lana bilatzeko arazoak (PAS-036/026)

Donibanera bueltatu zirenean egin zutena kontatzen dute. Luisaren aita botearekin jendea pasatzen hasi zen lanean. Luisa non ibili zen lanean.

562. Gerran hildakoak (PAS-036/028)

Hildakorik ez zuten ikusi, baina Klaudiak gogoan du Erandion presoak bapore batean sartzen zituztela, eta tiro hotsak entzuten zirela. Fusilatu egingo zituztela pentsatzen du. Hegazkinen soinua.

563. Anttoniren anaia nola hil zen gerran (PAS-036/029)

Anttoniren anaia Bilbo aldean hil zen; gudari joan zen, boluntario. Donibaneko beste mutil batzuk ere hil ziren gerran. Albistea nola jaso zuten. Gerran hildako herriko mutilak aipatzen dituzte.

564. Ihesa eta buelta (PAS-036/030)

Gauza gutxiren joan ziren ihesi. Luisaren familian janari denda zuten, eta bueltan ezer ez. Errazionamendu garaian ogia txarra zen, baina artoarekin ondo moldatu ziren. Mojetan zebiltzan garaian, gaileta apurtuen bila joaten ziren Erreenteriako lantegietara.

565. Errazionamendua eta estraperloa (PAS-036/032)

Errazionamendua eta estraperloa.

566. Donibane, herri euskalduna gerra aurrean (PAS-036/033)

Euskararen egoera Donibanen. Karabineroen eta guardia zibilen seme-alabek ere euskaraz ikasten zuten, gerra aurrean. Militarrek herrian.

567. Milizioanoak eskopeta bila etxera; Milagros miliziana (PAS-036/034)

Gerra hasi zenean, eskopeta biltzen hasi ziren. Milizianoen artean emakume bat ere bazegoen, Milagros.

568. Gerratik ihesi itsasontzian; gerrako ontziak (PAS-036/039)

Itsasontzian gerratik ihesi joan zirenekoa. Itsasontziak nolakoak ziren. Pysbeko bakailao ontziak gerraontzi bihurtu zituzten. Bou Navarra.

569. Itsasadarrean baporea urperatu zutenekoa (PAS-036/040)

Pasaiaiko itsasadarra itxi zuten, bapora batekin. Urperatu egin zuten. Ikatz ontzia zen, eta jendeak ikatza hartu zuen. Itsasadarra estuagoa zen lehen.

570. Baserritarrak bakarrik geratu ziren, gerra hasi zenean (PAS-036/046)

Donibaneko jende asko joan zen kanpora gerra hasi zenean. Baserritarrak geratu ziren. EAJkoak ziren gehienak, errepublikarrak ere bai; karlista gutxi zegoen. Emakume baserritarrak egunero joaten ziren Pasaira, astoekin.

571. Garai bateko erremedioak (PAS-036/047)

Klaudiaren ama esnea partitzen ibiltzen zen. Anttoni ere ibilia da horretan, amak ezin zuelako. Amari zain bat lehertzen zitzaion, eta babarrun bat lotzen zuen hankan. Sendabelarrak.

572. Jaiotzetan eta heriotzetan elkarri laguntzen (PAS-036/050)

Don Enrike Arzak zen medikua. Klaudiaren amarekin jaio zen Anttoni. Burniak eramaten zituen medikuak, erditzeetarako. Bizilagunek elkarri laguntzen zioten, baita norbait hiltzen zenean ere. Klaudiak oso handia izan zuen azken umea; bidea ondo irekita zegoela dio, barrez.

573. Haurdunaldia tabua zen (PAS-036/052)

Haurdunaldia tabua zen. Klaudiak urak apurtu zituen, eta zer zen ez zekien.

574. Errotetako kixulabea (PAS-036/054)

Errotetako kapilari buruzko kontuak: presoentzat egin zuten. Karobia zen, kixua.

575. Lehengo Trintxerpe nolakoa zen (PAS-037/005)

Elizarik ez zegoen lehen Trintxerpen, kapila bakarrik. Andonegik eman zuen dirua eliza egiteko. Tabernak eta baserriak. Andonegik kanpotik eraman zuen jendea, itsasorako, Trintxerpera.

576. Euskara gutxi Trintxerpen (PAS-037/007)

Euskaraz gurasoekin ikasi zuen, baina bestela galarazita zegoen euskaraz hitz egitea.

577. Anaiaren gaizki-ulertua eskolan (PAS-037/009)

Anaiari San Pedroko eskolan gertatu zitzaiona, erdaraz ondo ez zekielako.

578. Trintxerpeko eskolak (PAS-037/011)

Kantak erdaraz ikasi zituen gehienak. Eskola publikoa eta ordaindua zeuden; zazpi pezeta ordaintzen zituzten hilean.

579. Erlijioaren indarra (PAS-037/013)

Erlijioaren indarra. Don Serafin apaiza.

580. Trintxerpearren ogibideak (PAS-037/014)

Itsasotik bizi ziren Trintxerpen. Tailerrak ere bazeuden.

581. Argirik eta urik ez etxean (PAS-037/015)

Argirik ez zuten etxean, ezta urik ere.

582. Sasoi bateko jatekoak (PAS-037/019)

Jateko, babarruna. Jaian, garbantzua. Ama Donostiara joaten zen oinez, txaletetara, haragia eramatera; trukean haragi pixka bat lortzen zuen.

583. Aita kartzelan eta anaiak borrokan (PAS-037/021)

Gerra sasoiari aita kartzelan egon zen, eskopeta entregatu ez zuelako, eta lau anaia borrokan. Pasai Antxon egon zen kartzelan aita, baina ez denbora askoan.

584. San Pedro eta San Juan lehian arraunean (PAS-037/031)

Arraunean, etsaiak ziren San Pedro eta San Juan.

585. Donostiatik Pasai Antxora bizitzera (PAS-039/002)

Donostian jaio zen. Aita errioxarra eta ama donostiarra zituen. Pasaiara joan ziren bizitzera.

586. Bizi-baldintza txarrak etxean (PAS-039/004)

Pasaiako etxeko bizi-baldintzak txarrak ziren.

587. Aita kartzelan (PAS-039/006)

Aita kartzelan egon zen, errepublikarra zelako, baina baita oso fededuna ere. Lankideek salatu zuten.

588. Aitaren ogibidea (PAS-039/007)

Aita kartzelan zegoela ama gurasoekin bizi zen. Anaia jaio eta aita kartzelaratu zuten. Kartzelatik irtetean Correosen lortu zuen lana berriro. Familiak ez zien laguntzarik eman, eta Pasaia mugitu ziren.

589. Aita Correos-eko langile (PAS-039/009)

Aita kartzelatik irtetean Trintxerpen ibili zen lanean, kontuen arduradun. Ondoren Correosen ibili zen jubilatuta bitartean.

590. Pasaia portuan eta Trintxerpen diru asko (PAS-039/010)

Aitari lapurtu egiten zioten portuan. Pasaia Portuko mugimendua handia zen. Diru asko mugitzen zen Trintxerpen. Txitxarroak eta bigarren mailako arrainak bota egiten zituzten. Irina egiteko fabrika zegoen, arrain egosi usaina nagusi pasaietan.

591. Luzuriaga eta Campsa lantegiak (PAS-039/011)

Pasaia fabrika handiak: Luzuriaga eta Campsa. Tailerrak, aroztegiak, ozpingintza, Koipe... Etxe gutxiago zituen Pasai Antxok lehen. Beti itzaletan.

592. Pasaia oso herri demokrata (PAS-039/012)

Pasaia oso herri demokrata dela dio, baina autoestimu baxukoa.

593. Pasai Antxoko padura (PAS-039/013)

Pasai Antxo padura zen, uraren gainean eraikia. Mandasko dukearen ideia izan zen Pasai Antxo eraikitzea.

594. Betidanik trena Pasai Antxon (PAS-039/014)

Itsasoaldean egon da beti trena. Portuan eta uretan pasatzen zuten denbora umetan. Hesirik ez debekurik ez zegoen.

595. Arrantza jolas moduan (PAS-039/015)

Txikitako jolasa arrantza zuten, eskuz. Gaztetan ere txalupan arrantzatzen zuten. Lehen arrain kopurua orain baino handiagoa zen. Ondoren zikindu egin zuten ura eta desagertu egin ziren.

596. Eskola frantses eta laikora (PAS-039/016)

Donostiako eskola frantses eta laiko batera joan zen anaiarekin batera. Ondorioz, ez du falangea ezagutu eskolan. Oso oroimen ona du eskolarena eta maisuena.

597. Jaunartzea Donostian (PAS-039/018)

Eskola frantsesean dena frantsesez, eta erlijio gutxi. Jaunartzea Donostian egin zuen. San Bizentekoa dela eta "koxkeroa" dela dio. Dotrina ere han egin zuen, maila gorena lortu ere.

598. Mendira joan aurretik, mezara (PAS-039/019)

Mezetara igandero joaten ziren, baina Pasai Antxoko elizara. Aita elizkoia zela eta denak joaten ziren mezetara. Mendira joan aurretiko betebeharra zen.

599. Orokorrean, herri erdalduna (PAS-039/020)

Euskarazko mezarik ez du ezagutu. Bestela ere euskara ez zen asko entzuten kalean. Kaniketan ibiltzen ziren batzuetan. Etxean ere gaztelaniaz hitz egiten zuten, diktadurari beldurra zioten eta. Pasaia orokorrean oso erdalduna zen.

600. Goierritarrak nagusi herrian (PAS-039/021)

Jende gehiena Goierritik etortzen zen: Zegama, Zerain ingurutik portura etortzen ziren lanera. Luzuriagara nafarrak batez ere, eremu erdaldunetik. Donostia aldetik ere etortzen ziren bulegoetan lan egitera, baina gutxiago.

601. Lagunekin erdaraz (PAS-039/023)

Lagunekin ez zuen sekula euskaraz hitz egiten, guraso erdaldunak baitzituzten gehienek.

602. Euskara ikasteko hiru saio (PAS-039/024)

Hamazortzi urterekin euskara ikasten hasi zen. Lehen irakaslea emakumea izan zuen. Eskolak elizaren lokal batean jasotzen zituen. Serioski 35 urterekin hasi zen ikasten.

603. Euskara ikasiz (PAS-039/026)

Koadrila bat ziren euskara ikasten zutenak. Ondoren batzuek amore eman zuten. Askok irakurtzen zuten.

604. Euskara, militantzia kontua (PAS-039/027)

Hizkuntza ohiturak aldatzea oso zaila da. Ahal dena euskaraz irakurtzen du: egunkaria, aldizkariak... Irratia, telebista... Gaztelaniak dena inbaditzen duela uste du, militantzia kontua dela.

605. Haurtzaroko jolasak (PAS-039/028)

Umetan jaietako zezen-plazan jolasten zuten baloiarekin, txapekin eta kanikekin. Harrapaketetan ere jolasten ziren. Pena ematen dio jolas horiek galdu izana.

606. Ezkutaketetan mutilak nagusi (PAS-039/029)

Ezkutaketetan batez ere mutilen artean jolasten ziren. Frontoian mutilak ibiltzen ziren. Haiek egiten zituzten askotan euren pilotak.

607. San Juan suaren bueltan abestirik ez (PAS-039/030)

Egurra biltzen zuten ezkutuan Beraun aldeko basoan, San Juan surako. Ez zuten abesten San Juan suaren bueltan.

608. Pasai Antxoko jaiak (PAS-039/031)

Herriko jaiak bereziak zirela dio. Etxera beranduago joateko aitzakia ziren. Afaria, musika..

609. Igandero musika banda (PAS-039/032)

Igandero musika bandak jotzen zuen. Abesbatza, kirol taldeak... desagertu dira.

610. Jaizkibel mendi taldeko kide (PAS-039/033)

Jaizkibel mendi taldea 1950. urtean sortu zen. Diru falta zela eta, igandero mendi bueltak egiten zituzten koadrilan. Orain hogeit bat lagun bildu, eta mendira joaten dira elkarrekin asteazkenero.

611. Emakumeak ere elkartearen parte (PAS-039/034)

Jaizkibel mendi taldeko kideak bai gizonezkoak bai emakumezkoak ziren. "Demokratikoki" erabakitzen zirela gauzak dio. Haien elkartean emakumeak ere ateak irekita dituzte.

612. Mendira joatea zaletasun (PAS-039/036)

Natura estimatu behar dela uste du, gaur egungo gizartean ez dela baloratzen. Mendia da bere zaletasun bakarrenetako bat.

613. Altza erabat aldaturik (PAS-039/037)

Inguruan gehien aldatu den parajeetako bat Altza bera da. Berak penaz oroitzen du zein berdea zen Altza.

614. Iluntasuna Pasai Antxon (PAS-039/038)

Trintxerpe eta Bidebietaren sorrera bizi zuen. Pasai Antxon etxebizitza gutxiago zeuden gaur egun baino, orain ez da eguzkirik sartzen.

615. Lehen arotz gehiago orain baino (PAS-039/039)

Arotzak desagertu dira batez ere Pasai Antxon. Gaueko udaltzainik ez zegoen.

616. Eskola utzi eta kontabilitatea ikasi (PAS-039/041)

Hamabost urterekin eskola frantsesa utzi, eta akademia batean kontabilitatea ikasi zuen.

617. Bankuan lanean (PAS-039/042)

Bankuaren munduan egin du beti lan. Lana egiteko modua da batez ere aldatu dena, baina oinarritzak ez.

618. Soldata gutun-azaletan (PAS-039/044)

Soldata gutun-azal batean jasotzen zuen. Ondoren, norberaren kontuan sartzen hasi ziren. Luzuriagan gatazkak egon ziren "xixa" deitutako trikimailuarekin.

619. Bankuetako lana eskuz (PAS-039/045)

Dena eskuz egiten zuten bankuan. Hilabete hasierako garaiak ziren gogorrenak.

620. Hiltegira puxika bila (PAS-039/046)

Arropa garbitzeko harraska Molinaon zegoen, baita hiltegia ere. Bertara joaten ziren puxika bila, jolasteko.

621. Garbigailuan hatza harrapatu (PAS-039/047)

Garbigailuan behatza sartu, eta harrapatu egin zuen motorrean. Bergarako garbigailuak gogoratzen ditu.

622. Irratia diktadura garaiko berri-emaile (PAS-039/048)

Irratia eta telebista sortu zirela gogoratzen du. Lehenengo irratia eta ondoren telebista. Irratia diktadura garaian berriak jakiteko entzuten zuten.

623. Errazionamendua frankismo garaian (PAS-039/049)

Frankismo garaian ez da goseaz gogoratzen. Errazionamendua zegoen, ogi integrala zen denentzat, ogi zuria eta haragia dirudunentzat. Kontrabandoan erosten zen ogi zuria.

624. Tabakoa kontrabandoan (PAS-039/050)

Pasaiako portuan ere kontrabandoa egiten zen, batez ere tabakoarekin. Pasai Antxoko zenbait tabernetan ere bai.

625. Arraina soberan etxean (PAS-039/052)

Arraina soberan zegoela dio. Aitak arraina ekartzen zuen etxera, eta bizilagunen artean banatzen zuen etxean soberan zegoelako.

626. Etxea berotzeko, ikatza (PAS-039/053)

Ikatza zuten etxean, aitari portuko langile batek ematen zion. Kalitate baxuko ikatza zen.

627. Ikatza lapurtu eta herritarrei saldu (PAS-039/054)

Ikatza lapurtzen zuten geldi zeuden bagoietatik, ondoren herritarrei saltzeko. Lapurrak harrapatzeko, ikatza karez igurzten zuten.

628. Medikua etxez etxe (PAS-039/055)

Kalabozo bat zegoen Pasai Antxon. Medikua zegamarra zen, oso fama onekoa. Etxez etxe ibiltzen zen txirrindan.

629. Lehen bizikletak, orain autoak (PAS-039/056)

Mutikotan bizikleta alokatu egiten zuten; orain, berriz, autoak nagusi. Errepide nagusitik pasatzen ziren.

630. Pasai Antxo ondo komunikaturik (PAS-039/058)

Pasai Antxo ongi komunikaturik egon da beti: trena, topoa eta autobusa.

631. "Antxoko umeek birikarik zikinenak" (PAS-039/061)

Portuko eta Luzuriagako zikinkeria zela eta gaixotasun ugari egoten ziren. Birikarik zikinenak zituzten umeak Antxokoak zirelako zurrumurrua ere bazegoen.

632. Donostian jaio eta Pasaiara bizitzera (PAS-040/002)

Donostian jaio zen, eta bi egunetara Pasai Antxora etorri zen. Altzan bizi ziren gurasoak lehenago. Zortzi senide ziren.

633. Aita Goierrikoa eta ama Zumaiakoa (PAS-040/003)

Aita Goierrikoa zen, ama zumaiarra; baserritarrak biak. Aita gaztetan meategi batean aritu zen lanean. Ondoren Saran trenbidea eraikitzen, eta, azkenik, pasaiako portuan. Ama neskame egon zen.

634. Portuko itsasontziek denetarik ekartzen zuten (PAS-040/004)

Denetik ekartzen zuten itsasontziek: janaria, burnia...

635. Anaiak arrantzaleak eta merkatariak (PAS-040/006)

Arrantzalea zuen anai bat. Besteak merkatari.

636. Zapoa zakarrontzira (PAS-040/007)

Itsasontzi asko ikusten zituen txikitan. Zapoa bota egiten zuten, Katalunian jaten hasi ziren arte.

637. Legatza erregina (PAS-040/009)

Legatz asko jaten zen. Toneladaka arrain eramaten zituzten kamioietan Molinaora.

638. Emakumeak arrain-saltzaile (PAS-040/011)

Bajurako arrantza batez ere San Pedron eta San Juanen. Antxon ez zegoen horrelakorik, merkantzia soilik. Bajurako arrantzan antxoa, txitxarroa eta berdelak ziren nagusi. Emakumeek saltzen zuten arraina; buru gainean zeramaten.

639. Platera, arraina saltzeko neurritzat (PAS-040/012)

Platera zen arraina saltzeko neurria. Trukea ere asko egiten zen. Aitak gauez itsasontzi bat zaintzen zuen. Aitak galdara bero mantentzen zuen.

640. Arrantzaleak Ternua, Irlanda eta Eskoziara (PAS-040/013)

Alturako arrantzan batzuk Ternuara joaten ziren. Beste batzuk Irlandara, Eskoziara... legatz bila. Bajurako arrantzakoak, berriz, inguruan. Toneladaka arrain bota eta oparitzen zituzten. Zapi barnean gordetzen zuten arraina gero etxera eramateko.

641. Portuan eta tailer txikietan zegoen lana (PAS-040/015)

Pasai Antxon industria eta tailer txiki asko zeuden, mekanikakoak etab. Luzuriaga erabat handitu arte, tailer gehienak mekanikoak, arotzak...

642. Ikasketak eskola publikoan (PAS-040/017)

Eskola publikora joan zen. Ondoren fraide eskola batera Erreteriarra. Bi urteren buruan lanean hasi zen.

643. Eskolan neskak eta mutilak bereizita (PAS-040/019)

Eskola nazionalak frontoi ondoan zeuden. Neskek beheko pisuan ikasten zuten eta mutilek goikoan.

644. Maisua errepublikarra (PAS-040/020)

Frankoren garaian dena erderaz eskolan. Ez da "Cara al sol" abesteaz gogoratzen. Maisua errepublikarra zen.

645. "Trintxerpe, Galiziako bosgarren probintzia" (PAS-040/021)

Hiru baserriz osaturiko auzoa zen Antxo, ondoren kanpotarrez bete zena. Galiziarrek etorri ziren lehenik: "La quinta provincia gallega".

646. Gurasoek ez zekiten ia erdaraz (PAS-040/022)

Euskaraz Pasaian oso gutxi egiten zen, kanpotarren ondorioz. Gurasoek ez zekiten ia erdaraz, baina haiekin erdaraz hitz egiten zuten seme-alabek.

647. Izebaren baserrira euskara ikastera (PAS-040/023)

Euskara ikasteko erdaraz ez zekien izebaren baserrian hilabete pasa zuen. Erdaraz hitzen bat esanez gero, ez zioten kasurik egiten.

648. Familian erdaraz umetan, euskaraz heldutan (PAS-040/024)

Anai-arrebekin erdaraz umetan. Bere anai-arreba euskaldunek sartu zuten bera euskara elkartean. Horrela, semeari eta bilobei euskara transmititu die.

649. Ikastolak elizari eta EAJri esker (PAS-040/026)

Etorkinak Antxora Cáceres eta Badajozetik etorri ziren. Lehenengo Erreteriarra eta ondoren Pasaia etorri ziren. Pasaia erdalduna dela uste du, dakitenek sakrifizioz ikasia. Bere ustez elizari eta EAJri esker ikasi da euskaraz. Ikastolak haiei esker sortu zirela dio.

650. Ikastolen aldeko mugimenduan ibili zen (PAS-040/027)

Ikastolen aldeko mugimenduan ibili zen. Inguruko lehenengo ikastola 1965. urte inguruan sortu zen, elizak utzitako lokal batean, debekaturik baitzegoen.

651. Alaba ikastolara (PAS-040/028)

Bere lehen alaba 3 urterekin sartu zen ikastolan.

652. Dena buruz ikasten zuten eskolan (PAS-040/030)

Eskolan gutxi ikasi zuen. Alperre zela dio. Fraideetan, ordea, asko. Dena buruz ikasten zuten. Jolas egitea asko gustatzen zitzaion. Frontoian jolasten zuten.

653. Etxean berogailurik ez (PAS-040/031)

Gazteena zenez enkargu asko egin behar zituen. Etxean ez zuten berogailurik: botilak ur beroz bete etab. egiten zuten. Ura eta argindarra bazituzten. Balde batean bainatzen ziren denak.

654. Arropa eskuz garbitzen zuen amak (PAS-040/032)

Sukalderako ikatza erabiltzen zuten, baita egurra ere. Hotza pasatzeaz gogoratzen da. Ama Molinaora joaten zen arropa garbitzera. Geroago, garbigailua eta lehorgailua jarri zituzten.

655. Irrati bakarra eraikin osoan (PAS-040/033)

Irratia: etxe osoan bakarra zegoen, hamahiru urterekin ezagutu zuen. Telebista, berriz, beranduago.

656. Gerraostean goserik ez (PAS-040/035)

Gerraosteko urteetan ez du gosea pasatzea oroitzen, trukea egiten baitzuten eta anaiak kanpoan baitzeuden. Kontrabando handia zegoen Pasaian: tabakoa, droga, janaria...

657. Kontrabandoa gerraostean (PAS-040/036)

Kontrabandoan itsasontziz ekartzen zuten dena. Eskupekoa eman eta tabakoa itsasontzitik ateratzea lortzen zuten.

658. Udaletxeak Antxo baztertuta (PAS-040/038)

Antxo beti itxusia izan dela dio. Udaletxeak bazterturik zuela, dirua soilik San Pedron eta Donibanen mugitzen zela. Arrantzaleek Ternuatik urtean bi aldiz etorri, eta edaten pasatzen zituzten egunak.

659. Luzuriagan lanean gazte-gaztetatik (PAS-040/040)

Hamalau urterekin Luzuriagan hasi zen mekaniko gisa lanean. Bi mila langile inguru zeuden hasi zenean. Greba eskatzen zutenean tailerretan, bulegoek ez zituzten babesten.

660. Luzuriaga: bulegoetan emakumeak, tailerretan gizonak (PAS-040/041)

Luzuriagan denetatik egiten zuten. Bulegoetan emakumeak zeuden, ondoren tailerretan ere hasi ziren lanean.

661. Balio ez zuten piezak, itsasora (PAS-040/042)

Balio ez zuten piezak uretara botatzen zituzten. Burdina kanpotik ekartzen zuten, baita beraiek egin ere. Bost bat kamioi ateratzen ziren lantegitik balio ez zuten piezak itsasora botatzeko.

662. Soldata igotzeko grebak (PAS-040/043)

Grebetan dirua eskatzen zuten, ondo ordaintzen zuten arren. Orokorrean lortzen zuten jarritako helburua.

663. Koinataren enpresan hamahiru urtez (PAS-040/044)

Hamalau urte ondoren, Luzuriaga utzi eta koinataren enpresan aritu zen josteko makinak saltzen, hamahiru urtez. Ondoren, langabezian gelditu zen.

664. Bizkarrezurra zela eta lana utzi zuen (PAS-040/045)

Langabezian gelditu, eta olio garbiketa egiten zuen enpresa batean sartu zen. Ondoren Errenteriako enpresa alemaniar batean sartu zen; hamabi urtez egon zen. Bizkarrezurra zela eta lana egiteari utzi zion.

665. Hogeita hamabost taberna Pasai Antxon (PAS-040/047)

Hogeita hamabost taberna zeuden Pasai Antxon, denetariko dendak. Atsedenetan beti tabernaz taberna ibiltzen ziren.

666. Emakumeek debekaturik zuten tabernetan sartzea (PAS-040/048)

Ardoa, anisa eta koignaka edaten ziren. Puroak erre. Emakumeek debekaturik zuten tabernetan sartzea

667. Zinema Pasai Antxon: "Cine Moderno" (PAS-040/049)

Zine aretoa zegoen Pasai Antxon, baina telebista eta teknologia berriak zabaltzean itxi egin zuten. "Cine Moderno" zuen izena, eta egunero-egunero egiten zuen lan. Igandetan haurrentzako filmak jartzen zituzten. Bakeradak nagusi ziren.

668. Igandero dantzara eta zinemara (PAS-040/050)

Andregaiarekin joaten zen zinera igandero. Dantza ere igandero egiten zuten. Batzuetan Erreteriarra ere joaten ziren dantzara baina bizitza Antxon egiten zuten. Oiartzungo erromeria oso famatua zen.

669. Emazteak etxe azpiko ile-apaindegian egiten zuen lan (PAS-040/051)

Emaztea 16-17 urterekin Antxora etorri zen, ile-apainketa ikasteko. Xabierren ama egunero bere ile-apaindegira joaten zen. Arratsalde batean ile-apaindegiko nagusiak autobusera laguntzeko esan zion, eta horrela hasi zen haien harremana. Emaztea Erreteriarra da, Gaztaño auzokoa. Aita nafarra eta ama Azkoitikoa zituen.

670. Gabonetako kanta bat (PAS-040/053)

Gabonetako kantak amak irakatsi zizkion, beti abestu egiten baitzituen.

671. Eguberrian parrandarik ez (PAS-040/055)

Garai batean ez zen Eguberrian parrandan ateratzen. Olentzero gisa atera da bera, baita bere anaia ere. Ezkerrak ekarri zuen Olentzero. Umetan, berriz, erregeak ospatzen zituzten.

672. Umetan jostailu gutxi (PAS-040/056)

Jostailu gutxi zituzten umetan. Ez zegoen ohitura ez dirurik horretarako. Umetan futboleko jolasten ziren, lapurretan, txapekin...

673. Gazteak eta teknologia berriak (PAS-040/057)

Hurrek ez dakitela jolasten dio, makinekin itsuturik daudela. Ez dago elkarrizketa bat edukitzerik gazteekin. Asko aldatu da dena.

674. Izotz fabrika San Pedron eta Trintxerpen (PAS-040/059)

Danborreroa, bandoa jotzen zutenak, ikazkinak, izotza ebakitzen zutenak... desagertu dira. Izotza hozkailurako. Bloketan moztzen zuten, etxeetarako eta tabernetarako. Garai batean edarian ez zen izotzik botatzen. Izotz fabrika zegoen San Pedron eta Trintxerpen.

675. Egunero baserritarrak azokan (PAS-040/060)

Baserritarrak ere etortzen ziren Pasai Antxora, Altxatik, Molinaotik etab. Hasiera batean astoan, ondoren autoan. Azokan saltzen zuten: haragia, arraina, barazkiak... Egunero zegoen azoka.

676. Esne-saltzailea etxez etxe (PAS-040/062)

Esne-saltzaileak etxez etxe joaten ziren, Errenteriakoak eta Oiartzungoak. Etxeko sobrak ere Molinaoko gizon batek jasotzen zituen, txerriari emateko; "txerrija". Aitak baratze bat eduki zuen, baina gehiena azokan erosten zuen amak.

677. Igandero mezara; auto gutxi Antxon (PAS-040/063)

Mezetara joatera beharturik zeuden. Igandero-igandero mendira joan aurretik joaten ziren. Mendira, berriz, autobusez edo trenez joaten ziren eta ondoren oinez. Ia ez zegoen autorik, soilik dirudunek. Kamioiak, berriz, bai. Taxi bakarra zegoen Antxon.

678. Mendi elkarteko kide gaztetatik (PAS-040/064)

Mendi elkartea zegoen Pasai Antxon, Jaizkibel. Gaztetatik izan zen Trintxerpeko mendi elkartearen parte. Mendian, lanean eta apur bat parrandan pasatzen zuen denbora.

679. Ama nafarra, aita Irungoa. (PAS-041/002)

Ama nafarra zuen, Ultzamakoa. Aita Irundarra. Buenavistan bizi ziren aitak portuan egiten zuelako lan.

680. Eskalantegi kalea, berezia (PAS-041/003)

Bera jaio zenean Buenavista Altxa zen, ondoren Donostiak erosi zuen. Eskalantegi kaleko bizilagunek udala Donostian daukate, baina bizimodua Pasaian egiten dute lan. Eskolara Pasaia etortzen zen.

681. Udaletxeak Antxo bazterturik (PAS-041/004)

Umea zenetik asko aldatu da Antxo. Betidanik baztertu du udaletxeak. Luzuriagak hondakinak errekaratzen zituen. Lana eta jendea besterik ez zegoen Antxon. Luzuriagan hiru mila bat lagun.

682. Lantegian bertan zegoen ikastola (PAS-041/005)

Umea zenean kanpotar jende asko egoten zen hemen: galiziarak, Estremadurakoak, nafarrak... Euskara beraz ez zegoen presente, bere gurasoei esker ikasi du euskara. Ondoren ikastolan ere ibili zen, lantegian bertan jarri baitzuten. Seme-alabek ere euskara etxean ikasi dute. Debekaturik zuten etxean erdaraz hitz egitea.

683. Etxean euskara irakastearen arduradun (PAS-041/006)

Ikastolen alde dago, baina seme-alaben eskolarizazioan oso berriak ziren ikastolak. Horregatik euskara irakastearen ardura berak hartu zuen.

684. Etxean erdara debekaturik (PAS-041/007)

Umetan Buenavistan ez zegoen ia euskaldunik. Pasai Antxon ere gutxi, kanpoko jendearekin euskaraz lantegian baina bertakoekin ez. Etxean

debe katuta zuen erdaraz egitea. Aita Irundarra zen, Urdanibiakoa. Hipikako etxekoa.

685. Antxon tailer txikiak nagusi (PAS-041/009)

Antxo portua eta trena lotuz sortu zela uste du. Tailer asko zegoen, enpresa asko. Baina kaleek berdin-berdin jarraitzen dute. Tailer txikiak ziren nagusi.

686. Industria gehiago bizilagunak baino (PAS-041/010)

Jendea lanera etortzen zen Pasai Antxora. Portua eta Luzuraga nagusi ziren, baina tailerretan ere lan asko zegoen. Industria gehiago zegoen bizilagunak baino.

687. Portuko janaria etxera eramaten zuten langileek (PAS-041/011)

Portura denetatik ekartzen zuten: azukrea, tipulak, platanoak, arroza... Langileek ere etxera eramaten zuten ahal zutenean, zulotxoak eginez, zakuak puskatuz...

688. Pasaiako portua: Trintxerpetik Pasaiara (PAS-041/012)

Portuak sarrera Buenavistan zuen. Portuko zatirik handiena Trintxerpetik Pasai Antxorainokoa zen. Antxotik San Juanera egunero zebilen txalupa. Aita oinez joaten zen lanera portura.

689. Kontrabandoa: portutik herrira (PAS-041/013)

Piezak, irratiak... ere ibiltzen ziren portuan. Kontrabandoa ere egiten zen. Garaian garaikoa zekarten portura. Erlojuak ere ekartzen zituzten, eta kontrabandoan saltzen zituzten herrian.

690. Trintxerpera zinemara (PAS-041/014)

Itsasorako bidea zabalik zegoen beti. Trintxerpera zinera joaten ziren, eliza azpian zegoen. Hamar zentimotan barre egiteko filmeak ikusten zituzten. Hara joateko portutik joaten ziren.

691. Serafin apaiza eta Trintxerpeko zinema (PAS-041/015)

Pasai Antxon ere zinea bazegoen: Cine Moderno. Trintxerpen umeentzako denbora pasa jartzen zituzten filmeak, Antxon berriz ez. Serafin apaiza zen Trintxerpeko zinearen arduraduna.

692. Gaztetan egunero igeri egitera (PAS-041/016)

Arrantzan ez da inoiz ibili, baina jende asko ibiltzen zen portuan. Igeri egiten zuen egunero afizioz. Bere kabuz ikasi zuen igerian. Lagunekin joaten zen. Karramarroak harrapatzen ere ibiltzen ziren, burdin batekin.

693. Etxean dutxarik ez zuten (PAS-041/018)

Bi pisuko eraikina zen haien etxea, eta sei etxebizitza zituen. Ura eta argia bazituzten, baina dutxarik ez. Eskuz garbitzen zuten arropa etxean, ondoren makinaz. Sukaldea suaz pizten zuten, ondoren butanoarekin. Sua pizteko ikatza erabiltzen zuten

694. Aitak egurra bizkarrean eramaten zuen etxera (PAS-041/019)

Aitak egurra bizkarrean eramaten zuen eta ondoren Jabierrek txikitu, sua egiteko.

695. Maisua errepublikarra (PAS-042/001)

Anuntziatan ikasi zuen, monjetan. Ondoren eskola publikoetara joan zen. Adin ezberdinetako ikasleak elkarrekin egoten ziren gelan, maisua Recaredo Besla zuten, errepublikarra.

696. Luzuriagan mekanikari (PAS-042/002)

Gurasoek lantegi handi batean lan egitea nahi zuten, lan ziurra eduki zezan. Horregatik Luzuriagan mekanikari gisa hasi zen, hamalau urterekin.

697. Lantegitik eskolara ikastera (PAS-042/003)

Luzuriagako lan-baldintzak: bederatzi ordu egiten zuten lan, larunbatak barne. Beranduago txandaka egiten hasi ziren. Ondoren Donostian "artes y oficios" ikasten hasi zen. Bederatzi orduz lana egin eta ondoren bi orduz ikasi egiten zuten.

698. Greba gogorak luzuriagan (PAS-042/004)

Luzuriagan greba mordoa egiten zen. Politika kontuak, soldaten igoera, baldintza hobeak...eskatzeko egiten ziren. Behin tiroz jo zuten bere lagun bat greban.

699. Hiru mila langile Luzuriagan (PAS-042/006)

Luzuriagan hiru mila langile inguru zeuden, baina lantegia itxi zenean 270. Denetarik egiten zuten bertan. Pixkanaka-pixkanaka funtzioak eta langileak gutxituz joan ziren. Gainbehera 1957 inguruan gertatu zen.

700. Soldata altua Luzuriagan (PAS-042/007)

Luzuriagako soldatak Euskal Herri mailan hirugarren altuenak.

701. Hautsa eta zikinkeria lantegian (PAS-042/008)

Txatarra erabiltzen zuten batez ere lantegian, eta ondoren funditu. Hautsa eta zikinkeria zen nagusi.

702. Dantzara herriz herri (PAS-042/010)

Dantzara Errenteria, Irun, Igeldo, Hernani eta Donostiara joaten ziren. Pasai Antxon ere bazen, baina musikariek greba egin zuten eta jendea kanpora joaten hasi zen. Garraio publikoan edo oinez jotzen ziren.

703. Ligatzeko modua: dantza eskatzea (PAS-042/011)

Neskak eta mutilak ez ziren koadrilan elkarrekin ibiltzen. Dantzan etab. elkartzten ziren, baina bestela ez. Ligatzeko modua dantza eskatzea zen.

704. Emaztea kafetegi batean ezagutu zuen (PAS-042/012)

Emazteak kafetegi batean egiten zuen lan Donostian. Hitz egiten hasiz ligatu zuen berekin. Andrea erreizildarra da.

705. Mendizalea oso (PAS-042/013)

Mendira asko joaten ziren, gosaltzera batez ere. Pasai Antxotik bertatik oinez joaten ziren, igandero.

706. Arropa dotorea jaiegunetarako (PAS-042/014)

Arropa berezia zuten jai egunetarako. Gainontzekoa, denerako erabiltzen zuten. Igandero trajez eta gorbataz janzen ziren, elizara eta dantzara joateko.

707. Meza ondoren lanera (PAS-042/015)

Mezetara ia igandero joaten ziren. Goizean goiz meza entzun eta lanera joaten zen askotan. Aste santuan ere berdin.

708. Urtebeteteze data oker jaiotza agirian (PAS-042/016)

Buenavistara ezkondu ziren, eta ondoren Eskalantegi kalera etorri ziren. Bi seme Buenavistan jaio ziren, beste biak Pasaian. Bera etxean jaio zen. Epaitegian bere urtebetetzea oker jarri zuten.

709. Medikua Buenavistan (PAS-042/017)

Buenavistan zegoen medikua: "Martija". Bere kontsultara joaten ziren normalean. Oinez ibiltzen zen bera beti.

710. Sendabelarrak (PAS-042/018)

Aitak sendabelarrak erabiltzen zituen: pareta belarra eta azeri buztana. Berak biltzen zizkion. Azeri buztana txiza hobeto egiteko zen. Pasma belarra ere erabiltzen zuten, infekzioentzako.

711. Gazteek umei pilota lapurtu (PAS-042/019)

Mutil zaharragoek pilota kentzen zieten gazteagoei. Pilota, futbola etab. ziren bere ume-jolasak. Kaniketan ere ibili zen. Mendira joaten ziren, eta batez ere igerian ibiltzea gustatzen zitzaion.

712. Alkate bat hiru barrutirentzat (PAS-042/022)

Beti egon da alkate bat barruti guztientzat. Beti hiru barruti izan dira, orain, ordea, Trintxerpe ere batu zaio.

713. Pasai Antxon baserririk ez (PAS-042/023)

Pasai Antxok ez dauka baserririk, denak mugan daude. Garai batean padura baitzen Antxo, itsasoa.

714. Jaunartzea zazpi urterekin (PAS-042/025)

Moja eskola hasieran Romeral taberna parean zegoen, eta ondoren oraingo lekura mugitu ziren. Jaunartzea zazpi urterekin egin zuen, jaunartze txikia soilik.

715. Kantuan eta prozesioetan (PAS-042/026)

Elizak indar gutxiago duela orain dio. Jendeak pentsatuko zuenaren beldur bizi zen jendea. Oraingo apaizak ere ez dira lehengoak bezalakoak. Lau apaiz ezagutu ditu berak, kantuan ibili baitzen gaztetan. Prozesiotan ere ibili zen.

716. Kantu eskean gabonetan (PAS-042/027)

Prozesioak duela hogeita bost bat urte desagertu ziren Antxon. Kantu eskean ibiltzen ziren gabonetan, baina Santa Agedan ez.

717. Olentzero umetatik ezaugutuz (PAS-042/028)

Olentzero umetatik ezagutu du, baina opariak erregetan jasotzen zituzten. Olentzero jesusen jaiotzari indarra emateko modua zen. Gizon moxorrotu bat zen Olentzero. Gabonetan jendea ez zen baserritarrez janzten, diru falta zela eta.

718. Panderoa jotzen bere kabuz ikasi zuen (PAS-042/029)

Panderoa jotzen bere kabuz ikasi zuen. Ezkondu ondoren hasi zen panderoa jotzen ikasten, hogeita bederatzi urte daramatza. Beti erromeria zalea izan da eta trikitia zein panderoa beti gustatu izan zaizkio.

719. San Ferminetan zezen arriskutsuak (PAS-042/030)

Antxoko jaiak San Ferminak dira. Entzierroetako zezenak gogorrak ziren, 300 kilokoak. Behin bi lagun hil zituzten.

720. Festetan euskal jaiaren antolatzaile (PAS-042/031)

San Ferminetan dantza egiten zuten, euskal jaia antolatzen zuen Jabierrek. Herri-kirolak antolatzen zituzten. Elkarte bakoitzak zerbait antolatzen zuen, eta haien elkarteak Arkupe lokotxak, soka-tira eta txingak. Herriarentzat antolatzen zituzten.

721. Harri jasotzaileak Antxon (PAS-042/032)

1979an hasi zen Antxoko euskal jaietan herri kirolak antolatzen. Errekarria Urumeatik ekarri zuten eta harri-jasotzaile mordoa inguratu zen.

722. Estropadak eta bertsolariak Pasaian (PAS-042/034)

Estropadak asko bizitzen dituzte Pasaian. San Pedro eta San Juanen artean eztabaidak egoten dira. Inguruan bertsolaririk ez zegoen, orain bakarra. Urtero ekartzen zituzten bertsolariak jaietan: Lazkao Txiki, Azpilaga, Lasarte...

723. Antxo asko euskaldundu da (PAS-042/036)

Lan handia egin da euskal mugimenduaren alde, ondorioz Antxo asko euskaldundu dela dio.

724. Antxon taberna ugari (PAS-042/037)

Taberna asko zeuden Antxon, bere kalean bertan sei zeuden. Portutik gertu zeuden tabernak jendez gainezka egoten ziren beti. Emakumerik ez zen tabernetan sartzen, orain berriz, alderantziz.

725. Elkarteetan gizonezkoak soilik (PAS-042/038)

Elkarte asko zeuden Pasai Antxon, mugimendu handia zegoen beti elkarteetan. Orduan beti afariak gizonezkoen artean ziren.

726. Tabernetan aukera gehiago lehen (PAS-042/040)

Tabernetan orain baino aukera handiagoa zegoen.

727. Linazasoro etxean jaio zen (PAS-043/002)

Lizanasoro etxean jaio zen, Zumalakarregi kalean. Amonak amari erditzearekin lagundu zion. Amona goizuetatik etortzen zen laguntzera.

728. Lezon ezkondu, baina Pasaian bizi (PAS-043/003)

Lezon ezkondu zen, bere gizona Lezokoa baitzen.

729. Amak ez zekien erdaraz (PAS-043/004)

Ama Goizuetarra zen, eta ez zekien erdaraz. Hori zela eta, ez zen etxetik ateratzen, hilko zuteraten beldur. Igandetan goizeko seietako mezara joateko soilik ateratzen zen. Aita ere Goizuetakoa zen, ikatzarekin egiten zuen lan. Horrela, gaztelania apur bat ikasi zuen.

730. Eskolan burla egiten zieten (PAS-043/005)

Eskolan dena erdaraz egiten zuten. Anai-arrebek, ordea, ez zekiten erdaraz eta burla egiten zieten. Ahizpa zaharrena jo egiten zuten eta berak defendatzen zuen.

731. Umetako jolasak (PAS-043/006)

Eskolan futbolera, "txorro morro piko taio", "bote" eta kromoak ziren jolas nagusiak.

732. San Markora eta erre kara (PAS-043/007)

San Marko egunean San Markora joaten ziren oinez. Molinaoko erre kara ere joaten ziren jolastera udan. Baserritarrei sagarrak lapurtzeaz oroitzen da.

733. Umetako jolasak: sokasalto, zapitxoa eta txapak (PAS-043/008)

Sokasaltoan asko jolasten ziren, zapitxora ere bai. "La piedra" delako joku batera ere jolasten ziren, baita txapetara ere.

734. Txingoa (PAS-043/009)

Txingo jolasaren azalpena.

735. Kartoizko panpinen arropak entretenimendu (PAS-043/010)

Gaur egungo jolasik ez dagoela dio. Gaztetan oso gauza gutxiarekin konformatzen ziren. Etxeko eraikineko neskak bildu eta arropak egiten zizkieten kartoiozko panpinei.

736. Platanoa leihotik behera (PAS-043/011)

Behin bizilagunak emandako platanoa leihotik bota zuen amak esango zuenaren beldur.

737. Karakolaren jolasa (PAS-043/013)

Karakol bate marrazten zuten lurrean eta harriak bultzaka buelta eman behar zitzaion.

738. Jolasten ari zela emakume bat lurrera bota zuen (PAS-043/015)

Pasai Antxoko eliza dena irekia zen. Behin elizan jolasten ari zela andre bat lurrera bota zuen.

739. Lan faltak ekarri zituen Pasaiara (PAS-043/016)

Aita eta ama biak Goizuetakoak ziren. Aitaren anaiak frantziara joan ziren soldadutza ez egiteko. Aitak lan falta zuenez Pasaiako portuan lan egiteko asmoz etorri ziren Pasai Antxora. Eskolarik ez zuela eta, ez zuen portuan lanik lortu eta ikaztegia jarri zuen.

740. Ikaztegia soto batean (PAS-043/018)

Errepide nagusian tranbia zegoen, bere osaba zen gidaria. Ondoren autobusa jarri zuten. Soto batean zegoen ikaztegia, eta marea igotzen zenean beti busti egiten zen.

741. Ikatza portutik (PAS-043/019)

Ikatza portutik ekartzen zuten ikaztegirako. Itsasontziei erosi egiten zieten. Saskiz jeisten zuten sotanora ikatza kamiolariek bizkar gainean. Berak ebakitzen zuen saltzeko egurra, aizkoraz.

742. Etxeetara ikatza bizkarrean (PAS-043/020)

Aita eta osaba Trintxerpera joaten ziren ikatza saltzera. Gurdia erabiltzen zuten hasiera batean, ondoren autoa. Etxera ikatza igotzeko, ordea, bizkarrean.

743. Zaldiak aita eta gurdia lurrera bota (PAS-043/021)

Gurdiko zaldia hil eta gazteago bat ekarri zuten. Egurra ebakitzen ari zela zaldia entzun. Zaldiak gurdia eta aita lurrera bota zituen.

744. Ikatza Trintxerpen, Antxon eta Erreterian banatzen zuten (PAS-043/022)

Ikatza Trintxerpen, Antxon eta Erreterian saltzen zuten. Bigarren ikaztegia jarri zuten Erreterian. Etxe guztiek behar zuten sukalderako ikatza. Ondoren, butanoa asmatu zuten.

745. Berogailurik ez etxean (PAS-043/023)

Berogailurik ez zegoen garai hartan normalean. Etxea berotzeko "ekonomika" erabiltzen zuten, sukaldean aritzeko, sua.

746. Izebak gozodenda batean egiten zuen lan (PAS-043/025)

Izebak lan egiten zuen Buenavistan, "Sirope Manzana" deituriko dendan. Gozoak egiten zituzten bertan. Sei edo zazpi emakumek egiten zuten bertan lan, eta gizon batek.

747. Berotzeko trikimailuak (PAS-043/026)

Izebaren etxera joaten zen lotara, eta lotarako arropa janztean hotzik pasa ez zezan, alkolez betetako poto bati sua ematen zion.

748. Ospela kentzeko pixa erabiltzen zuten (PAS-043/027)

Eskuetako ospelak kentzeko txiza erabiltzen zuren. Orinalean txiza egin eta eskuak igurzten zituzten honekin.

749. Amak etxean garbitzen zuen arropa (PAS-043/029)

Amak etxean garbitzen zuen arropa. Molinaon zegoen harraska, baina berak etxekoa erabiltzen zuen.

750. Amak ohean gelditzeko esaten zien (PAS-043/031)

Erdi-gaixo jarri bezain pronto amak ohean geratzeko esaten zien, bi dezima bazituzten ere.

751. Amak ez zien abesten (PAS-043/032)

Amak ez zien asko abesten, denbora faltagatik. Lanak egitean abestea oso ohikoa zen orduan.

752. Mikel Laboaren "txoria txori" (PAS-043/033)

Mikel laboaren "txoria txori" abesten du.

753. Sehaska kanta bat abesten zien amak (PAS-043/034)

Sehaska kanta doinua oroitzen du, amak abesten zion.

754. Apaizarekin asko abesten zuten (PAS-043/035)

Apaiza Aretxabaletatik etorri zen eta abestu egiten zuten. Astean behin eliza azpiko lokal batera joaten ziren eta kantak ikasten zituzten, hasieran erdaraz eta Aretxabaletako apaizarekin euskaraz, oso euskaltzalea baitzen.

755. Antxoko apaiza oso ezaguna (PAS-043/036)

Ariketa espiritualak egitera elizara etortzen ziren apaizak. Don Luis Agirre zen Antxoko apaiza, eta kanpora joaten zen bera lanera.

756. Eskolan liburu bakarra (PAS-043/037)

Eskola publikoan aritu zen bera. Ez zen oso ikasle ona, eskulanetan, ordea, bai. Lau urterekin hasi zen eskolan. Denaliburu batekin ikasten zuten: geografia, matematika... Maistra bi urtero aldatzen zen. Antzerkiak ere egiten zituzten.

757. Eskulanetan eskolan baino hobea (PAS-043/038)

Eskulanetan oso ona zela dio, eskolan baino hobea. Beti gustatu izan zaio matematika, baina problemak ez.

758. Maistra bakarra zen euskalduna (PAS-044/001)

Eskolako maisu eta maistrak nolakoak diren azaltzen du. Bakarra zen euskalduna. Euskaraz egitea debekaturik zuten.

759. Apezpikuari musu ematen zioten eraztunean (PAS-044/002)

Apezpikua eskolara etortzen zenean bere eraztunean musu eman behar izaten zioten. Mezara joatea oso garrantzitsua zen orduan, gustura joaten ziren.

760. Dotrina buruz ikastea gustatzen zitzaion (PAS-044/003)

Jaunartzea Pasaian egin zuen. Dotrina ere eskolan ikasten zuten, buruz. Etxeko balkoira ateratzen zen dotrina errepassatzera.

761. Lagunak udalekutara (PAS-044/004)

Udalekuetara ere joaten ziren bere eskolakideak, hilabete. Bera ez zen inoiz joaten, ikaztegian gelditzen zen lanean.

762. Ahizpa zaharrenen arropak beti (PAS-044/005)

Gazteena zenez, ahizpa zaharrenen arropa janzten zuen. Amak konpontzen zizkien arropak.

763. Umetako lanak: garbitu, josi... (PAS-044/006)

Bera ere ahizpa zaharrenarekin aritzen zen josten. Garbiketara ere aritzen zen.

764. Emakumeak lantegietan (PAS-044/007)

Bianchi enpresan telebistentzako tresnak egiten ziren. Emakume asko ibili ziren lanean Pasaiko enpresetan, baina aitak berari eta ahizpari ez zien uzten.

765. Urtasun akademia (PAS-044/009)

Urtasun akademia Nafarroa Etorbidean zegoen. Toki guztietatik etortzen zen jendea bertara. Kontabilitatea etab. erakusten zuten.

766. Apaindegian lanean (PAS-044/010)

Eskulanak eta antzerkiak asko gustatzen zitzaizkion. Ezkondu ondoren Gros auzoko apaindegi batean egin zuen lan, emakumeei harrera egiteko.

767. Apaindegian denetatik egiten zuten (PAS-044/012)

Jostuna zen lagun batek denda itxi eta apaindegian sartu zuen bera. Depilatzen ere ikasi zuen bertan, argizariarekin. Makilatu ere egiten zituzten emakumeak.

768. Mugikorra besterik ez (PAS-044/014)

Gaur egungo bizimodua orduko bizimoduarekin konparatzen du. Aisialdia asko aldatu dela dio, egun mugikorrarekin ez dela hitz egiten. Euskal dantzak ikasten zituzten.

769. Euskal dantzak ikasi zituen (PAS-044/015)

Euskal dantzak Ramoneda deituriko tokian erakusten zizkieten emakumeek. Festetan etab. dantzatzen zuten.

770. Gabonetako abesti bat (PAS-044/016)

Aretxabaletako apaizak erakutsi zien abestietako bat abesten du, gabonetakoa.

771. Etxeko jakiak (PAS-044/018)

Etxean batez ere babarrunak, dilistak eta patatak jaten zituzten. Eguberritan, berriz, oilaskoa oiloa eta bixigua, merkea baitzen.

772. Arrain mordoa orduan (PAS-044/019)

Arrain asko zegoen orduan. Oso freskoa zen, eta arrandegian erosten zuten.

773. Pasai Donibanetik Antxorako txalupa (PAS-044/021)

Txalupa bat zegoen Pasai Donibanetik Antxora etortzeko, motorrezkoa.

774. Ama itsasoaren beldur (PAS-044/022)

Behin hondartzara joan ziren. Amak ez zuen itsasoa ezagutzen, eta beldurturik etxera itzuli ziren.

775. Etxean beti euskaraz (PAS-044/023)

Etxean beti euskaraz egiten zuten. Pena handia ematen dio euskara ez transmititzeak.

776. Donostiako irlan ikasi zuen igerian (PAS-044/024)

Igerian gizonarekin ikasi zuen, Donostiako irlara joaten baitziren.

777. Molinao errekan egiten zuten umeek igeri (PAS-044/026)

Molinao errekan egiten zuten igeri batzuek Pasaian, bai neskak eta baita mutilak ere.

778. Mutilak eta neskak elkarrekin jolasean (PAS-044/027)

Batzuetan mutilek eta neskek elkarrekin jolasten zuten.

779. Jende asko joaten zen arrantzara (PAS-044/029)

Inguruan jende asko joaten zen arrantzara, txalupa eta kanaberaz.

780. Goserik ez du oroitzen (PAS-044/030)

Ez du gogoan jendea gosea pasatzen ikusi izana.

781. Martinez janari denda (PAS-044/033)

Martinez izeneko janari denda zegoen Pasaian. Bertara tomate poto hutsak emanaz gero, ordaindu egiten zuten.

782. Pasaiaiko merkataritza (PAS-044/035)

Hiru arrandegi zeuden Pasaian. Arropa dendak, berriz, gutxi. Tela dendak gehiago ziren. Lanerako arropa ere saltzen zuen denda bat oroitzen du. Tabernak, berriz, ugari.

783. Santa Barbara santua (PAS-044/037)

Santa Barbara santu bat zen, ekaitza zegoenean "Santa Barbara bendiga" esanez gurtzen zuten.

784. Lau anaiak gerran (PAS-046/002)

Bere lau anaiak gerran ibili ziren. Bi alde batean eta beste biak bestean.

785. Amarekin esne-saltzaile lanetan (PAS-046/004)

Ama sukaldean aritzen zen otorduak prestatzen. Esnea banatzen ibiltzen ziren ama eta Pepita gerra garaian.

786. Mariaren Alaben parte (PAS-046/006)

Gazte garaian dantzan ibiltzen ziren. Mariaren Alabetako bat zen. Eliza oso garrantzitsua izan zen gaztetan.

787. Etxean euskaraz abesten zuten (PAS-046/007)

Etxean euskaraz abesten zuten, baina ez ditu kantuak oroitzen. Amak egiten zuen kantuan batez ere: lotarako kantuak, etab. Izebak sagar handi bat edukitzen zuen burukiaren azpian, gauean jateko.

788. Hilotzak ur bedeinkatuz eta erramuz igurzten zituzten (PAS-046/008)

Elizako ospakizunak sakratuak ziren, etxean ospatu egiten zituzten. Ur bedeinkatuz eta erramuz igurzten zituzten hilotzak.

789. Kontzesi izeneko emagina (PAS-046/009)

Umeak etxean jaiotzen ziren. Pepita etxean jaio zen. Kontzesi izeneko emagina ibiltzen zen jaiotzetan laguntzen.

790. Gauza gutxirekin zoriontsu (PAS-046/010)

Amak ematen zion berari dirua, baina batzuetan soilik. Berak dirua sortu egiten zuen. Zoriontsu zirela dio, gauza gutxi izan arren.

791. Telebistarik ez baserrian (PAS-046/011)

Telebistarik ez zuten. Irratia berandu eta kostata eduki zuten. Irratia ekartzeko zenbait trikimailu asmatzen zituzten anaiek.

792. Arropa eskuz garbitzen zuten (PAS-046/012)

Arropa garbitzeko ama eta Pepita herrira jaisten ziren arropa zikinarekin, harraskara. Iturri moduko bat zen. Arropa garbitzeko "tximbo" xaboia erabiltzen zuten. Zabaldu, berriz, "al verde" edo etxean egiten zuten.

793. Ura errekatik jasotzen zuten (PAS-046/013)

Etxean ez zuten urik, ur bila beheko errekatik jasotzen zuten marmita bidez. Argia, berriz, aita ekarri zuen, kandlekin ez baitziren moldatzen.

794. Ukuilua zen komuna (PAS-046/014)

Ukuilua zuten komuntzat.

795. Sukaldea egur bidez (PAS-046/016)

Egurra erabiltzen zuten sukaldean. Egurra anaiek mozten zuten.

796. Amak ezagutzen zituen sendabelarrak (PAS-046/018)

Amak ezagutzen zituen sendabelarrak.

797. Trintxerpen ferratoki bakarra (PAS-046/020)

Ferratoki bakarra zegoen Trintxerpen.

798. Zapata bakarrak: alpargatak (PAS-046/022)

Hasieran alpargatak erabiltzen zituzten.

799. Ez zuen igerian ikasi (PAS-046/023)

Ez zuen igeri egiten ikasi. Ama, berriz, joaten zen hondartzara.

800. Dantzazalea oso (PAS-046/024)

Dantza egitea asko gustatzen zitzaion.

801. Gurasoak mutrikuarrak (PAS-049/005)

Gurasoak mutrikuarrak zituen. Ezkondu ostean etorri ziren Donibanera, lanarengatik: aitak Andonegi tailerrean egiten zuen lan arotz moduan, San Pedron. Ama saregilea izan zen. Gurasoen senideak ere etorri ziren, pixkanaka, lan gehiago zegoelako Pasaian Mutrikun baino.

802. Zazpi urterekin eskolara (PAS-049/006)

Umetako oroitzapenak: kalean ibiltzen ziren asko. Zazpi urterekin hasi zen eskola publikoan, eta ez zekien gaztelaniaz. Mojengana ere joaten ziren umetan, jolastera. Ez zitzaion eskola gustatzen. Maistra erdaldunak zituzten. Gurasoak ere ez ziren oso ondo moldatzen erdaraz.

803. Mutilak eta neskak aparte, eskolan (PAS-049/007)

Eskolan euskaraz eginez gero ez zuen arazorik izan. Neskak eta mutilak aparte egoten ziren. Jolastorduan sokasaltoan eta pelotan ibiltzen ziren.

804. Umetako lanak (PAS-049/008)

Koskortzen zirenean, etxean lagundu behar izaten zuten. Lurra eta arropa garbitzen zituen. Bonantza gaineko labaderoa. Kaldera buru gainean hartuta ibiltzen ziren. Chimbo eta Lagarto xaboiak. Kantari ibiltzen ziren labaderoan. Txanda hartu beharra zegoen, garbitzeko.

805. Labaderoan arropa garbitzen eta kantari (PAS-049/009)

Irratian entzundako abestiak ikasten zituzten. Ramonita emakume handi bat zen, eta hark kaxa bat ipintzen zion askara iristeko, labaderoan. Etxean jartzen zituzten zintzilik, balkoian. Behin gogoan du "al verde" ipini zituztela maindireak, zelaian.

806. Ikatza eta egurra sukalderako (PAS-049/010)

Sukaldean ikatza eta egurra erabiltzen zuten, ekonomikan. Aitak ekartzen zuen ikatza; sare batekin batzen zuen ikatza baporeek botatakoa, Trintxerpen. Mendira joaten ziren egur bila.

807. Almejatara, arrozarentzat (PAS-049/011)

Ez ziren arroketara joaten, baina almejatara bai, amak arroza egiten zuenean. Casa Nicolasa pare horretara, itsasbeheran. 9 lagun ziren etxean. Berehala igartzen zuten almejak non zeuden, eta aitzur txiki batekin ateratzen zituzten. Kamonila bila, Gaztelura.

808. Enrike Arzak medikua (PAS-049/014)

Don Enrike Arzak zen orduko medikua. Harekin jaio ziren denak. Mezetara joaten zen lehenengo. 9 senide ziren, eta 13 bizi ziren etxean. Ohe batean 3 eta 4 lagun lotan.

809. Bizimodua "txoil desderdin" orain (PAS-049/015)

Bera laugarrena da, eta senideak zaintzea ere egokitu zitzaion. Orduan ez zegoen aurrerapenik. Lurrezko botilak eramaten zituzten ohera, berotzeko. "Orain txoil desberdin da". Ama arduratzen zen umeen pardelez. Gerra garaian Mutrikura joan ziren, eta han mojekin ibili zen eskolan. Bueltan eskolan hasi zen berriz, baina ez zuen gustuko.

810. Gerra hasi zenean, Mutrikura (PAS-049/016)

Gerra hasi zenean 10 urte zituen. Getariara joan ziren itsasoz. Gero berriro joan ziren, baina Mutrikura. Izeba baten etxera. Nazionalen balek leihoan jotzen zuten.

811. Nazionalak Mutrikura sartu zirenean (PAS-049/017)

Ama komentura eraman zuten, ume jaioberriarekin, gau erdian. Osaba batek bi gudari eraman zituen etxera. Anaiari falanjisten txapela ipini zioten, eta ama haserre.

812. Donibaneko Batzokia (PAS-049/018)

Familia abertzalea zen. Donibaneko batzokira joaten ziren. Dantzan ikasten zuten: pospolinak. Bera ez zen plazan dantza egitera iritsi. Antzezlan politikak egiten zituzten bertako aktoreek. Ama 'emakumetakoa' zen (Emakume Batzakoa).

813. Aita Ondarretako kartzelan (PAS-049/019)

Aita kartzelan egon zen. Ez zekiten non zegoen. Txalupan egin zuten ihes Mutrikutik, eta harrapatu egin zituzten. Ondarretako kartzelan zegoela jakin zuten. Bisitan joanda ahizpari "hable en cristiano" esan zioten.

814. Aita kartzelan eta ama ospitalean (PAS-049/020)

Aita eta osaba kartzelan zeuden bitartean Donibanen zeuden beraiek. Familia batek asko lagundu zien. Amak flebistis zuen eta oso gaizki egon zen, ospitalean. Amonarekin zeuden beraiek. Ahizpa zaharrenak 16-17 urte zituen, eta neskame joan zen Bilbora.

815. Gerran fusilatuak (PAS-049/021)

San Pedroko bikarioa hil zuten, gerra hasieran, baina ez daki nola gertatu zen. San Juanen gutxienez bi fusilatu zituzten.

816. Errazionamendua (PAS-049/022)

Errazionamendua ematen zieten Mutrikun. Donibanen ere bazegoen, baina janaria ematen zegoenak ez zien eman nahi. Aita lehengo lekuan hasi zen lanean, bueltan: Andonaegi arotzerian. Euskararen egoera gerraostean: berak ez du jazarpenik gogoratzen.

817. Garai bateko arropak eta oinetakoak (PAS-049/023)

Ez zuten arropa asko izaten. Playerak eta alpargatak zituzten. Igandetan dotoreago beti. Prakash janzten noiz hasi zen: Suitzara joan zenean.

818. Miarritzera umezain, udatan (PAS-049/024)

Amari laguntzen egon zen etxean, urte askoan, baina halako batean lanean hastea erabaki zuen: Miarritzera joan zen umezain, udan. Gehiago ordaintzen zuten hemen baino.

819. Sareak egiten PYSBEn (PAS-049/025)

Donibanen etxeak garbitzen ere ibili zen, eta PYSBEn ere bai, sarea egiten. 12-13 lagun zebiltzan saregile, gizon zein emakume. Sareak nola egiten diren azaltzen du. Amak erakutsi zion etxean, sare txikiarekin.

820. PYSBE eta MEIPI (PAS-049/026)

PYSBEri eta MEIPIri buruz hitz egiten du.

821. Arrainik ez zitzaien falta (PAS-049/027)

Bajurako ontziak plaza inguruan egoten ziren, hamar bat. Arrainik ez zitzaien falta: osaba bat zuten itsasoan ibiltzen zena, eta aita ere arrantzara joaten zen, goizean goiz, lanera joan aurretik.

822. Plazan dantzan (PAS-049/028)

Igandetan txistulariak izaten ziren, plazan, jaiero. Gramola jarri zuten gero, eta dantza egiten zuten. Dantza lotua libre zen.

823. Mendira sagarrak harrapatzera eta esne bila Bordaundira (PAS-049/029)

Zinerik ez zen orduan. Mendira sagarrak lapurtzera joaten ziren. Gaztelutxon hartutako errege-sagarrak bueltarazi zizkion behin amak. Esne bila mojetara joaten ziren, Bordaundi baserrira.

824. Aitak baratza Errotetan (PAS-049/030)

Aitak baratza zeukan Errotetan. Babarruna jaten zuten asko, garbantzua ere bai... Antxoa debalde ematen zuten.

825. Donibaneko festak (PAS-049/031)

Sanjuanak eta santioak. Festa politak egiten zituzten sanjuanen, manolaz jantzita. Zezenak izaten ziren. Batzuetan uretara erortzen zen; abestia aipatzen du.

826. Ez zuen igerian ikasi (PAS-049/032)

Beatrizek ez zuen igerian ikasi. Salto egin zuen behin, eta uretatik atera behar izan zuten. Bainujantzirik ez zuten. Errekara ere joaten ziren. Behin kamioiarekin joan zen.

827. Santiotan, karrozetan manolak (PAS-049/034)

Santiotan karrozak izaten ziren, eta manolak abanikuekin. Gabonetan jaiotza prestatzen zuten plazan. Olentzero.

828. Umea jaiotzean, oilaskoak eta boladoak opari (PAS-049/036)

Umea jaiotzen zenean, bisitan joatea normala zen, baina ez zen meriendarik egiten. Oilaskoa eta 'boladoak' eramaten zituzten.

829. Bordatzen eta galtzerdiak pasaratzen (PAS-049/037)

Ez zen ezkondu. Bordatzen ikasi zuen, eta kanporako bordatzen zuen. Galtzerdiak pasaratzen ere ibili zen, arrautza formako bola batekin, eta puntua jasotzen.

830. Dotrina inportantea zen (PAS-049/039)

Dotrina euskaraz ikasi zuen, apaiz batekin. Etxean ere erakusten zien amak. Lehen jaunartzea 7-8 urterekin egin zuen.

831. Eskolan dena erdaraz, Errepublika garaian (PAS-050/002)

Zortzi izan ziren, bera zazpigarrena, baina hiru umetan hil ziren. Biteri eskolan ibili zen, Doña Josefa Agirre maistrarekin. Dena erdaraz egiten zuten eskolan.

832. Batzokira joaten ziren (PAS-050/004)

Eskolan laboreak egiten zituzten. Dotrinara ere joaten zen, sakristiara. Batzokira ere joaten zen, pospolinetara. Antzerkia ere egiten zuten.

833. Batzokiko antzerki taldea (PAS-050/006)

Antzerki taldeko aktoreen izenak esaten ditu.

834. Batzokiko pospolinak (PAS-050/008)

Behin bakarrik egin zuten antzezlanak, batzokian bertan. Dantzatu, berriz, askotan, herriko plazan. Pospolinetako abesti bat kantatzen du. Zentro errepublikarra ere bazegoen.

835. Gerra hasi zenean, 15 urte (PAS-050/010)

Eskolatik txangoak egiten zituzten. 15 urte zituen gerra hasi zenean. Anaia gerrara joan zen 17 urterekin. Batzuk hil ere egin ziren frontean. Anaia hildakoak biltzen egon zen.

836. Bilbora ihesi, gerra garaian; gero Ingalaterrara (PAS-050/012)

San Markos aldetik barku batek bonbak botatzen zituen. Irailean Bilbora joan ziren ihesi. Zallan egon zen gero, izeba batekin. Ingalaterrara joan zen, anaia txikiarekin. Liverpoolera bidali zuten bera, ikastetxe batera.

837. Ingalaterrara Habana itsasontzian (PAS-050/013)

Habana itsasontzian joan ziren Santurtzitik Ingalaterrara. Zorabiatu egin zen bidean. Ingelesek oso ondo tratatu zituzten errefuxiatuak. Donibanetik Santurtzira PYSBEko itsasontzian joan ziren.

838. Ama alarguna sareak egiten (PAS-050/016)

Anai bat gudari eta besteak txikiak ziren gerra etorri zenean. Ama gazte alargundu zen. Ama eta Piliren bi ahizpa saragile ibiltzen ziren, PYSBERako.

839. Bueltan, Filipinetara umezain (PAS-050/018)

Bueltan, Tornillos Molinao tailerrean hasi zen lanean. 1954an Filipinetara joan zen, Manilara, aberats etxe batera umezain. Pelotariak ere bazeuden han, eta frontoira joaten ziren.

840. Filipinetara itsasontzian, bidaia luzea (PAS-050/019)

Ferriols senar-emazteekin joan ziren barkuan, eta haiek laguntzen zieten. Napolin eta beste hainbat lekutan geratu ziren bidean. Hong Kongen zortzi egun egin zituzten, paperak egiten.

841. Tornillos Molinaon lanean (PAS-050/021)

Abenduan bueltatu ziren, hegazkinez: Bartzelonara lehenengo, ahizparen etxera. Tornillos Molinaon hasi zen lanean, lehenengo Antxon eta gero Erreterian. Torlojuak egiten zituzten.

842. Zerbitzu Sozialerako diru eske (PAS-050/023)

Itsulapiko batekin ibiliarazi zuten, Zerbitzu Sozialerako diru eske igandero, derrigortuta. Bandera espainola ezkutatu egiten zuen.

843. "Rojos separatistas" (PAS-050/024)

"Rojos separatistas" deitzen zieten bera bezala kanpoan ibili zirenei.

844. Euskararen egoera gerraostean (PAS-050/026)

Lau lagun ibiltzen ziren elkarrekin, bat bizkaitarra, eta beti gaztelaniaz hitz egiten zuten. Kanean entzuten zen euskara. Sarjento batek "agur" esaten zion.

845. Erreteriarra dantzara; zinea (PAS-050/028)

Erreteriarra joaten ziren dantzara, handik Antxora eta San Pedrora. "Cara al sol" tokatzen zenean, joan egiten ziren besoa ez altxatzeagatik. Zinean ere besoa altxa behar izaten zen, baina ez zuten dirurik zinera joateko.

846. Anaia arrantzan (PAS-050/029)

Errazionamendua. Anaia arrantzara joaten hasi zen, eta arraina eramaten zien. Anaia langile batailoian egon zen.

847. Irratia bai, telefonorik ez (PAS-050/036)

Irratia bazuten etxean, eta ordaindu egiten zuten edukitzeagatik. Telefonorik ez zuten.

848. Gazte modernoa (PAS-050/041)

Gaztetan beti gonarekin, baina gero prakekin. Filipinetatik ekarri zituen prakak. Moderna izan zen Pili gaztetan.

849. Esne bila Bordaundira (PAS-050/045)

Baserritarrek esnea saltzen zuten. Bordaundira joaten ziren esnetara, eta sagardoa ere izaten zuten han. Sagardotegiak.

850. Baserritarrek eta arrain saltzaileak etxez etxe (PAS-050/046)

Baserritarrek etxez etxe ibiltzen ziren fruta eta barazkiak saltzen, eta arrain saltzaileak ere bai. Angulak. Lezotik etortzen ziren baserritarrek astoak PYSBE ondoan uzten zituzten.

851. Sanjuandik Antxora motora (PAS-050/048)

Galiziarrek joaten ziren itsas txoriak saltzera, Trintxerpetik. Lehen sanjuandik Antxora ere bazegoen motora. Gerra garaian, arraunean. ez ditu batelerak ezagutu.

852. Emakumeen lanbideak (PAS-050/050)

Erreterian bi gailera lantegi zeuden, eta hara ere joaten ziren San Juango emakumeak. Goxokiak. Ligatzea erraza zela dio. Dantza egiten zuten. Oizartzen dantza lotua galarazita zegoen, Pasaian eta Erreterian ez.

853. Emakumeak tabernetan? (PAS-050/051)

Tabernetara lasai sartzen zen bera, lagunekin.

854. Igerian eta eguzkia hartzen (PAS-050/053)

Igerian ikasi zuen pixka bat. Eguzkia hartzea gustatzen zitzaion. Filipinetan ez. Arroketara joaten ziren eguzkia hartzera. Bainujantziak: ahizpak egin zion lehenbizikoa, gonarekin.

855. San Markos opila (PAS-050/058)

Ez dute karta-jokorako zaletasunik izan. San Markos bai: mendira joaten ziren, antxoa-tortillarekin eta opilarekin. Gabonetan, etxez etxe kantuan.

856. Egun bereziak (PAS-050/060)

San Jose egunean arkumea eta Gabonetan turroia. Erregeen opariak.

857. Pregoilariak (PAS-050/066)

Pregoilariak eta serenoak.

858. Amazuloa zen (PAS-050/074)

Ez zuen aitona ezagutu, amona bai. Herreran bizi zen; Lesakakoa zen. Ez zen askotan geratzen amonarenean lotan, oso amazuloa zelako.

859. Bilbon jaioa (PAS-051/002)

Bilbon jaio zen, 1933an, gurasoak han zeudelako momentu hartan.

860. Ama Hondarribiakoa (PAS-051/004)

Ama Hondarrabikoa zuen eta aita sanjuandarra. Non bizi ziren. Emaztea Txulotxon ezagutu zuen; Errenteriakoa. Ezkontzean etxe berrietara joan ziren bizitzera: portua ikusten da handik. Jubilatuta Hondarribiara joan ziren bizitzera, baina Sanjuan faltan botatzen zuen eta bueltatu egin ziren.

861. Bederatzi senidetan zaharrena (PAS-051/006)

Bederatzi senide ziren. Bera zaharrena. Anai asko ziren. Izebarekin bizi izan zen. Ama bizi zen etxean gertatutako istripua: ama Hondarribiara joan zen bizitzera.

862. Herreran eskolan; 14 urterekin lanera (PAS-051/007)

Herreran ibili zen eskolan, fraideetan. Txalupan joaten ziren. 14 urterekin aitarekin hasi zen lanean. Aitari motora errexisatu zioten gerra garaian, eta arraunean pasatzen zuten jendea beste aldera. Enbarkaderoaren egoera eskasa zen: jendea uretara erortzen zen.

863. Txalupa-garraioan 4 linea zeuden (PAS-051/008)

Lau linea zeuden motoretan. Meipi-Buenavista zen linea bat... Sanjuan-San Pedro bakarrik geratu zen. Autobusak ipini zituztenean desagertu ziren besteak.

864. Familiako negozioaren kargu (PAS-051/009)

Familiako negozioa zen. Osaba ibiltzen zen. 20 zentimo kobratzen zuen bidaia. Txitxareak biltzera joaten ziren, arrantzarako. Arrantzara ere joaten zen, familiekin, eta 10 duro kobratzen zuen arratsaldea. Pantxoak Kamarenean jaten zituzten. Langosta ere bai, baina berari ez zitzaion gustatzen.

865. Motora berria erosi eta konpondu (PAS-051/010)

Motora bat erosi, eta konpondu egin zuten. Konponketak egiten ari zirela, Kamara ondoan langosta agertu zeneko anekdota kontatzen du. Motora horrekin diru gehiago ateratzen zuen jendea arrantzara eramanda baino.

866. Arraunean hasieran, gero motoran (PAS-051/012)

Arraunean hasi ziren, gero gasolinarekin, baina garestia zen. Ondoren gasoilarekin. Arraunean 25-30 lagun eramaten zituen berak bakarrik; batzuetan bi joaten ziren. Arraina nola lortzen zuten.

867. Almejak eta lanpernak (PAS-051/013)

Almejak biltzen zituzten. Anaia zen trebea; kaldera batean ipintzen zituen almejak. Lanpernetara eramaten zuen gizon bat, txaluparekin. Urpeko arrantzara ere eramaten zuen jendea.

868. Itsasontzien karga (PAS-051/015)

Ikatza zekarten itsasontzi batzuek, Asturiastik. Kontrabandoko tabakoa. Eskolako umeekin ere egiten zuen lana, gida moduan.

869. PYSBEko itsasontziak (PAS-051/016)

PYSBEk 20 itsasontzi zeuzkan. Hiru hilabeterako joaten ziren arrantzara. Itsasontzien izenak. Bakailao arrantza gogorra zen, baina dirua egiten zuten. Uretara erosi zen baten anekdota.

870. 20 urtean ez da txalupan ibili (PAS-051/019)

Ez da 20 urtean txalupan pasatu beste aldera. Autobusean joaten da San Pedrora. Esaten du zorabiatu egiten dela.

871. Goizeko bostetatik gaueko hamaiketara (PAS-051/021)

Buenabistako linea zen handiena. San Pedroko portua egin zutenekoa. Motoren ordutegia: 05:30etatik 23:00etara. Bi txanda zituzten: goizekoa eta arratsaldekoa. Fulez betea zegoen itsasoa, eta sokak lotzeko ere lanak izaten zituen.

872. Behiak txapulan eramaten (PAS-051/022)

Behiak eramaten zituen San Pedrotik San Juanera, hiltegira. Arrain saltzaileak ere eramaten zituen. Bere ama Lezora joaten zen arraina saltzera.

873. Aita Santua eta mojak txalupan (PAS-051/023)

Itsasontziak Terranovara joaten hasi ziren. Laboatarrak. Aita Santua txalupan pasatu zutenekoa, 1953an. Mojak ere pasatzen zituen.

874. Emakumeak labaderora (PAS-051/025)

Emakumeak labaderora joaten ziren arropa garbitzera, Bonantzara.

875. Eskola publikoan lehenengo (PAS-051/027)

Eskola publikoan ibili zen lehenengo, eta gero Herreran. Txalupan pasatzen ziren San Pedrora eta gero oinez joaten ziren eskolara. 3 linea zeuden hasieran. MEIPIkoa ipini zuten laugarrena. Buenavistakoan ibiltzen zen jende gehien, udan: igeri egitera joaten zirenak. Igerian nola ikasi zuen.

876. Euritarako garai bateko arropa (PAS-051/030)

Igerian non ikasi zuen azaltzen du. Lurra altxatzen zuten eta barbarinak joaten ziren. Garai bateko oinetakoak: gomazko botak. Olioiz igurtzitako sirak. Motora itxi zutenean aurrerapen handia izan zen, bestela busti egiten zirelako.

877. Ama arraina saltzen eta aita motoran (PAS-051/031)

Ama arraina saltzen ibiltzen zen, Lezon. Aita motoran, etxeko negozioan. Beraiek 4 lineatako bat zuten; harreman ona zuten besteekin. Bi txalupa ibiltzen ziren eta bi lagun kobratzen.

878. Motorarekin izandako istripua eta arazoak (PAS-051/033)

Gerrako itsasontzi handi bat tartean zela izan zuen istripua kontatzen du. Hondoratu egin zitzaion motora. Larrialdiak ere pasatu izan zituen, sarea edo egurrak elizean trabatuta.

879. Gerra garaian Portugaletera (PAS-051/034)

Gerraontzi bihurtu ziren arrantzaontzi batzuk. Portugaletera joan ziren ihesi, gerra garaian. Errazionamientua: ogirik ez; Hendaiatik ekartzen zuten, estraperloko ogia.

880. Ez da dantzazalea izan (PAS-051/038)

Libre zuenean Erreteriarra joaten zen lagunekin, mokadua jatera. Dantzarik ez zuen egiten. Ixiar tabernara joaten ziren basoerdi bat hartzera.

881. Bajurako itsasontziak (PAS-051/040)

Bajurako itsasontziak. Antxoa, sardina, atuna... Emakumeak sarean ibiltzen ziren, sareak josten.

882. Herriko lantegiak, arrainaren bueltan (PAS-051/042)

Izotz lantegia zegoen MEIPIn. Buenavistan antxoa kontserba lantegi bat zegoen. PYSBEn bakailaoarekin egiten zuten lan eta MEIPIn legatza saltzen zuten. PYSBEko jangela. Zezenetarako sarrerak ematen zizkieten langileei, eta bakailo zatiak ere bai.

883. Luzuriaga ontziola (PAS-051/043)

Luzuriaga ontziolan egin zuen lana bere anaiak, itsasontziak konpontzen. San Pedrotik Luzuriagara ere linea ipini zuten: bosgarrena. Aizkorreta ontziola.

884. Arotzeriak (PAS-051/045)

Luzuriagan konpondu egiten zituzten, baina itsasontziak egin Clemente arotzerian. Aizkorreta eta Fontan tailerrak. Egurra usteldu egiten zen.

885. Sareak Alicanten eginak (PAS-051/047)

Sareak kanpotik ekartzen zituzten, Alicantetik, eta armatu egiten zituzten San Juanen.

886. Karga-deskargako langileak (PAS-051/049)

Lehorreko lanetan jende asko zebilen.

887. Zinema eta antzezlanak (PAS-051/050)

Zinema Trintxerpen zegoen, eta hara joaten ziren. Gero sanjuanen ere jarri zuten zinema. Victor Hugoren etxean antzezlanak egiten zituzten.

888. Estropadetan lanean (PAS-051/053)

Estropadetan jendea eramaten zuen ikustera, Kontxara. Festetan zezenak izaten ziren.

889. Txoriak harrapatzen, umetan (PAS-051/054)

Umetan kaniketan eta txibekin ibiltzen ziren. "Tres navios"-ka ere bai. Txoritara ere joaten zen: tarinak, karnabak... Kanposantuan izandako anekdota.

890. Egur bila mendira (PAS-051/056)

Egur bila joaten ziren mendira. Antonia bizilagunak aizkora gorde egiten zuen, basozaina agertzen zenean. Dutxarik ez zuten.

891. Dutxa publikoak Bonantzan (PAS-051/058)

Palanga erabiltzen zuten garbitzeko. Bonantzan dutxa publikoak zeuden.

892. Walky talkyak (PAS-051/062)

Walky talkyak erosi zituzten, lanerako. Irratia.

893. Batzokia plazan (PAS-051/067)

Batzokia plazan zegoen eta bere familiakoak hara joaten ziren. Bi denda zeuden han.

894. Boteroen gorabeherak (PAS-051/070)

Itsasgoran eta itsasbeheran izaten zituen arazoak, portua egin zutenetik. Buenabistako boteroak aipatzen ditu. Hiru zeuden lanean, eta gero bi.

895. Itsasoan itotakoak (PAS-051/072)

Lanpernetan ibiltzea arriskutsua zen. Arrantzan ere itotzen ziren, galerna aterata.

896. Ama gerratik ihesi zebilela jaio zen Libe (PAS-052/001)

Gerratean jaio zen, Bilbon. Amak herritik ihes egin behar izan zuen, beste askok bezala, eta Portugaleten bizitzen zegoela, jaio zen Libe.

897. Gerrarengatik ihesi joan Portugaletera eta Kataluniara (PAS-052/002)

Libe jaio eta bonbardaketak hasi ziren; oinez joan zen ama Libe besoetan hartuta Portugaletera. Han hilabete batzuk eginda, Kataluniara joan ziren eta hiru urte egin zituzten han. Bitarte hartan, aita hil egin zela esan zioten. Amak Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen. Itzuleran, aitarekin elkartu ziren, bizirik baitzegoen.

898. Aita Bermeon, familia Frantzian eta beraiek Katalunian (PAS-052/003)

Aitak Bermeon eman zuen gerrate garaia; arrantzan ibili zen gudarientzat. Abertzaleak izan dira familian. Aitaren familiakoak Frantziara joan ziren. Amak Kataluniara joatea erabaki zuen. Han Liberen anaiek baserrietan lan egiten zuten eta arratsean marmitetan esnea ekartzen zuten. Eibartarrekin egon ziren; ilaran egoten zen ama jateko zerbait jasotzeko.

899. Gurasoen etxea ukitu gabe; amonaren denda dena lapurtuta (PAS-052/004)

Bere aitaren lagun batek, udaltzainak, amari esan zion gerrarengatik joateko lasai, berak zainduko ziola etxea. Eta ukitu gabe topatu zuten itzuleran. Amonak taberna zeukan; dena ostu zioten. Bi emakume topatu zituzten zakuarekin jantzita, arroparik ez zeukatelako; amak jostunari oihal batzuk eman eta soineko bat egiteko aukera izan zuten.

900. Aita baporeko biltegian lanean, ama arraina saltzen (PAS-052/005)

Baxurako eta alturako arrantza bazegoen gerra ostean. Alkiza-Uria baporean lan egiten zuen aitak, biltegian, gizonak gobernatu, irteerak ematen... Legatzetan ibiltzen ziren gehien bat. Aitari bazkaria eramatera joaten zen eguerdietan: potajea eta arraina. Amak arraina saltzen zuen; batzuekin trukea egiten zuen eta beste batzuekin saldu.

901. Ama arraina saltzen herriz herri (PAS-052/006)

San Juanen edo Donostian hartzen zuen amak arraina. Dena oinez egiten zuen, ez baitzuten garraiorako dirurik. Bigarren anaiak gobernatzen zituen, eta arratsaldean joaten zen eskolara. Harreman estua izan du anai horrekin.

902. Arraina saltzen, burutia eta galdara hartuta (PAS-052/007)

"Burutia" deitzen zitzaion arrain saltzaileek buru gainean jartzen zuten oihalaria, eta haren gainean galdara ipintzen zuten. Eskuarekin hartzen zuten neurria, platerik ez baitzuten eramaten. Arratsalde erdira arte ez zen etxeratzen ama. Ama baporeen deskargan ere aritzen zen gauez. Lezo, Erreterria eta Oiartzunen saltzen zuen arraina amak, kalez kale. Amaren amak ikusi zuenean, lotsatu egin omen zen.

903. Adolfo presoarekin hizketan (PAS-052/009)

Bonantzako elizaren ondo-ondoan bizi izan zen. Umea zenean, kartzela eta hiltegia zeuden Bonantzaren. Kartzelakoekin hizketan ibiltzen ziren umeak; preso batek, Adolfo, estimutan hartu zuen eta kartoizko panpina handi bat oparitu zion kartzelatik irten zenean. Amak-eta janaria edo edaria eramaten zizkioten Adolfori. Kartzela nolakoa zen kontatzen du. Bonantzaren familia handi bat zirela kontatzen du.

904. Eskolako zigorrak eta kantu frankistak (PAS-052/011)

Eskola non zegoen azaltzen du. Eskolaren ondoan farmazia zegoen. Dena erdaraz egiten zuten; euskaraz eginez gero, jo egiten zituen irakasleak. Oso gaizki pasatu zuela eskolan dio, oso irakasle gogorak zirelako. Eguerdian egunero "Cara al sol" abesten zuten.

905. Hitz bat euskaraz egin ezin (PAS-052/013)

Elizak indar handia zeukan; dotrinara joan beharra zegoen. Ezin zuten hitz bat ere euskaraz egin. Aitari bazkaria eramaten zionean, galiziarrek egoten ziren, eta gaztelaraz egiteko agintzen zioten; Libek erantzun egiten zien.

906. Igandetean zinemara (PAS-052/015)

Zinemara joaten ziren; lehenbizi mutua eta gero ahotsa zeukana. Azaltzen du non ematen ziren filmak. Igandetean joaten ziren.

907. Dantzari trebea (PAS-052/017)

Euskal dantzetan ibili izan da; oso dantzari ona izan dela dio. Zumarragako soinu-jolearekin joaten ziren. Mugaz bestaldera joaten ziren eta beste bizimodu bat ikusten zuten han. Berak bakarrik ikasi zuen dantzan, San Juango plazan. Sari asko irabazi zituen.

908. Parisera dantzara joateko gonbidapena (PAS-052/018)

Lezoko Kresala familiakoek Parisen antzoki bat zeukaten eta bere bila joan ziren, hamasei urte inguru zituela. Amak ez zion joaten utzi. Artistak gaizki ikusita zeuden. Kubatarrak ere joan zitzaizkion bila baina amak ezetz esan zien. Balleta ikasi nahi izan zuen. Mugaz bestaldera joaten zirenean, poxpolin arropa gizonezko batek eraman eta ekarri behar izaten zuen, debekatua zegoelako.

909. Biarritzeko Kasinoan gertatutakoa (PAS-052/019)

Biarritzeko Kasinoan dantzatu zuenekoa kontatzen du.

910. Inprentako lana (PAS-052/021)

Ia Altzaraino joaten zen lanera oinez. Inprenta batean lan egiten zuen. Ugazabak oso ondo hartzen zuen. Anekdotak bat kontatzen zuen. Komuneko paperaren tutuak egiten zituzten. Inprentako makina oso handia zen; nola lan egin behar izaten zuen kontatzen du.

911. PYSBE enpresan sareak egiten (PAS-052/022)

Joan-etorria luzea egiten zitzaionez, PYSBEn hasi zen lanean, ezkondu arte. Senarrak etxean egoteko esan zion. Produkzioaren arabera kobratzen zuten. Sare berriak egiten zituzten beti. Guztira hogeita hamar emakume aritzen ziren saregile, eta gizonek puskak bateratzen zituzten.

912. Sareak nola egiten ziren (PAS-052/023)

Jende askok zekien sarea egiten. Antxoatarako sareak egiten plazan aritzen ziren. Sareak nola egiten ziren kontatzen du. Jostorrazak egurrezkoak izaten ziren. Sarea egiteko soka erabiltzen zuten, Bartzelona aldetik ekarritakoa.

913. PYSBEko lanak eta ohiturak (PAS-052/024)

PYSBEn sareak egiteaz aparte, bakailaoa lehortzen zuten. Jangelak ere bazeuden eta langile asko joaten zen hara bazkaltzera. San Roke egunean banketea ematen zuten; behin aitari eraman zion otarraina. Bakailaoa paketeetan saltzen zuten. Langileei kiloko paketea ematen zieten astero. Egun batez kale eginez gero, ez zieten asteko pakete hura ematen.

914. Medikuarengana joateko oztopoak enpresan (PAS-052/025)

Hemezortzi urte inguru zituela, sekulako elurtea egin zuen, eta osaba hil zitzaion Tolosan. Ospelak atera zitzaizkion eta egunero medikuarengana joaten zen. Lanean oztoporik ez izateko, medikuak enpresako jabeari eskutitza bidali zion.

915. Jostun lanetan (PAS-052/026)

PYSBEtik aterata, soka usaina izaten zuten eta etxera joaten zen aldatzera. Handik Trintxerpera joaten zen josten ikastera, Maria Luisarekin. Jostun lanetan ibili izan da, inguruko enkarguak betetz. Oihalak Donostian erosten zituen; plazan bi denda zeuden eta han erosten zuen gainontzekoa. Patroiak berak egiten zituen. Irakaslea oso zorrotza izan zuen.

916. Arropa zaharrak konpondu behar (PAS-052/027)

Jostun asko izaten zen herrian. Erropa zahar asko konpontzen zituzten. Adibide batzuk ematen ditu.

917. Umetan, enkarguak azukrearen truke (PAS-052/028)

Errazionamenduko kamioian etorri eta banaketa egiten zuenari laguntzen aritzen ziren umeak, eta azukre pixka bat edo zerbait ematen zien. Enkarguak ere egiten zituzten eta azukrea ematen zieten trukean, txoko batean jateko.

918. Txokolatea, ogi horia eta kokoa (PAS-052/029)

Errazionamenduak ekartzen zien txokolatea. Oso gutxika jaten zuten. Ogia hori-horia ematen zieten. Ama asko argaldu zen, umeei jaten emateagatik. Egur bila joaten ziren mendira, aizkora hartuta. Merkatariek ekarritako kokoa oso gustura jaten zuen.

919. Belaontzitik erorirako ikatza biltzen (PAS-052/030)

Beraiek ez ziren ikatza biltzera joaten. Pontona izeneko belaontzi handi batetik erortzen zen ikatza biltzen zuten batzuek.

920. Gona-frakak mendirako (PAS-052/031)

Mendizalea izan da. Alpeetan ibili izan da. Senarra mendian ezagutu zuen. Hemezortzi urte ingururekin hasi zen mendira joaten. Tolosar batek dantzan erakusten zuen, Don Jesusek; desterratuta zeuden senar-emazte haiek. Mendira haiekin joaten hasi zen. Gona-frakak josi zituen mendirako. Gero senarrarekin-eta joaten zen.

921. Mendirako galtzak josi zituenekoa (PAS-052/032)

Aitak galtzekin ibiltzea galarazi zion baina amak lagundu egin zion. Aitaren galtza zahar batzuekin beretzako galtzak egin zituen, mendirako. Kalerako galtzak askoz beranduago jantzi zituen.

922. Gomazko abarkak eta botak mendirako (PAS-052/033)

Gomazko abarkekin joaten zen mendira. Elurtea zegoen Txindokira joan behar zuen batean. Telefonorik ez zeukaten baina baziren herrian eta erabiltzen zituzten. Senargaiak botak oparitu zizkion orduan.

923. Itsasmendi elkaratearen sorrera (PAS-052/034)

Senargaiaren lagun batek anoraka ekarri zion Paristik. Asko joan izan dira mendira. Itsasmendi mendi elkartea senarraren ideia izan zen eta bien artean sortu zuten. San Juango taberna batean bilerak egiten zituzten. Lokal bat erosi zuten eta bazkide asko lortu zituzten. Lege bat jarri zuen bere senarrak, emakumeak ere sartu ahal izatea.

924. Ikastolako hasierako urte zailak (PAS-052/035)

Bonantzan ikastola non sortu zen kontatzen du. Batetik bestera ibili ziren umeak. Mendi elkaratearen gainean lokala erosi zutenean, umeen erdiek utzi egin zuten ikastola, gezur bat zabaldu zelako. Gurasoetako batekin izandako eztabaida kontatzen du. Berehala jende asko itzuli zen.

925. Ikastolako ikuskapenak eta diru-bilketak (PAS-052/036)

Ikastola elizatik sortutako zerbait zela deklaratu zuten. Gobernutik ikuskaria etortzen zenerako, dena elizako ikurrez betetzen zuten. Ikuskaria kataluniarra zen eta ulertzen zituela esaten zien. Handik Erreteriarra pasatu ziren ikasleak. Herriko jaietan tortilla asko egiten zituen, dirua biltzeko. Azoka ere jartzen zuten.

926. Ikastolako lehenengo maistra, Rosarito (PAS-052/037)

Hasierako ikastolak ez zeukan izenik. Lehenengo maistrak titulu gabekoak izan ziren. Nola moldatzen ziren kontatzen du. Titulu gabekoak Lazkaora joaten ziren prestatzera eta titulua lortu zuten. Lehenengo andereñoa Rosarito izan zen. Hark egindako lana kontatzen du.

927. Franco Donostiara joaten zenean, senarra kartzelara (PAS-052/041)

Ezkondutako zenerako, kartzelatik libre zegoen senarra, baina Franco Donostiara joaten zenean, Martuteneko kartzelara eramaten zuten. San Juanera bizitzera joan zirenean, pista galdu zioten. Abertzalea izatearren egon zen kartzelan senarra.

928. Amona Pantxika eta biraderadun organoa (PAS-052/046)

Amona Gerbasi eta bere ama, Pantxika Salero, aipatzen ditu. Estropada kontuak izaten ziren hizpide herrian beti. Arraunlariak zer jan behar zuten eztabaidatzen zuten gurasoek. Arraunlariak markak hautsi zituztenean, amonek denetarikoa denda zeukaten, eta biraderadun organoarekin denak dantzan jartzen zituzten. Amona Pantxika zortzi egunez etxeratu gabe egon zen.

929. Amona Gerbasiren komeriak (PAS-052/047)

Ileko tontorrak ordezkioak erabiltzen zituzten askok. Amonak tontorra galdu zueneko anekdota kontatzen du. Amona Gerbasi eta beste batzuk leihotik traineruak zaintzen aritzen ziren. Estropadetan San Pedrorrekin pikea izaten zuten, eta andre nagusiek elkarri direnak eta ez direnak esaten zizkieten.

930. Amona Gerbasi eta alabak, oso dotoreak (PAS-052/048)

Birramona ez zuen ezagutu. Amona Gerbasik Erreterian postua zeukan arrainarekin. Izeak oso jostun onak ziren eta beti ondo jantzita ibiltzen ziren. "Markesak" esaten zieten. Amonaren etxea oso dotorea zen; arrainaren truke baliozko gauza asko lortu zituen gerra ostean. Bera ez zela "señora" esaten omen zuen.

931. Arropa garbitzera labaderora umetatik (PAS-052/050)

Zortzi urterekin arropa garbitzera labaderora joaten zen. Osasun ona daukala dio. Xaboa "Lagarto" edo "Txinbo" erabiltzen zuten. Kantuz aritzen ziren han. Gazteleraz kantatzearen kontu hartzen zieten andre nagusiek.

932. Euskara San Juanen (PAS-052/052)

San Juanen urte batzuetan erdara oso aise egiten zela dio. Orain egoera buelta hartzen ari dela dio. Emigranteek euskaraz nola ikasi duten azaltzen du. Kanean erdaraz egitea modan jarri zen gerraostean. Bere senarrak gazteleraz asko egiten zuen.

933. Emakumeek hika egitea ez zen polita (PAS-052/053)

Anaiarekin dena hika egiten du, etxean ikasitakoa. Esaten zuten emakumeak hika aritzea ez zela polita. Amonari eta aitonari berorika egiten zion. Hika orain gutxi egiten du.

934. Menditik egurra ekartzeko zailtasunak (PAS-052/055)

Egurra ekartzen zuten menditik sukalderako. Arazoak izaten zituzten basozainekin. Anekdotak bat kontatzen du. Arbola gainetara igotzen ziren eta pinaburuak jasotzen zituzten.

935. Anaia txirlak biltzen (PAS-052/056)

Kamamila bila ez zen joaten, baina txirla bila bai. Tomate potoak itsasora botatzen zituzten eta halakoak txirlaz bete eta etxera ekartzen zituen anaiak. Aitzurrarekin ateratzen zituen.

936. Txangurroak, izkirak eta lapak biltzen (PAS-052/057)

Txangurroak eta izkirak batzera joaten ziren arroketara. Txangurroak eskuz harrapatzen zituzten, edo muskuiluekin erakarrita. Lapak batzera joaten zen aita. Dena arrozarekin nahastuta jaten zuten. Lanpernatara nortzuk joaten ziren kontatzen du.

937. Udan itsasoan eta iturrian garbitzen zuten gorputza (PAS-052/059)

Etxean ura bazeukaten. Galdaran ura berotu eta garbitzen ziren. Errekako iturri zaharrean garbitzen zuten gorputza udan, itsasoan ibili eta gero.

938. Saregileak (PAS-052/061)

Sareak tindatu egiten ziren. Corpus egunean prozesioa egiten zuten eta sare bat zuri mantentzen zuten. Bonantzan saregileak eta arrantzaleak ziren denak. Amaginarreba saregile ona zela kontatzen du. Plaza emakumez betea egoten zen sarea josten.

939. Pedro Etxeberria musikari eta margolariaz (PAS-052/062)

Pedro Etxeberria musikariari buruzkoak kontatzen ditu. Danborradarako kanta pareak egin zituen eta instrumentu asko batera jotzen zituen. Oso margolari ona zela dio. Bonantzako elizako aldarean bere margolan bat dagoela kontatzen du.

940. Aita itsasoan, baita Terranovan ere (PAS-055/003)

Aita iparraldeko itsasoetan, Azoreetan eta Terranovan bakailaotan ibilitakoa zela dio. Terranovan Saint Pierre et Michelin herrian zeukaten portua. Lauzpabost hilabetetako egonaldia egiten zuten han, mila tona arrain harrapatu arte. Urtean bi kanpaina egiten zituzten. Europa iparraldean

ezbeharra izan zuten behin. Tristura ematen zien aita joaten zenean eta alaitasuna etortzen zenean.

941. Marinel bakoitzarentzat fardela (PAS-055/004)

Arrantzaren gorabeheran, luzeago edo laburrago egoten ziren itsasoan. Txipiroiak, legatzak, txangurroak... ekartzen zituzten. Fardela, marinel bakoitzari etxerako ematen zioten arrain puska izaten zen. Marinelaren beste fardela legatzaren kokotsek osatzen zuten eta saldu egiten zituzten.

942. "Txakurrena", marinelen poltsikorako dirua (PAS-055/005)

Marinelek zigala txikiak egosi eta ozpinetan sartzen zituzten eta saldu. Oso goxoak izaten zirela dio. "Txakurrena" hitza azaltzen du; marinelek poltsikorako biltzen zuten dirua zen. Soldatatik aparte jasotzen zutena zen txakurrena.

943. Terranovako kanpainetako bizi baldintzak (PAS-055/006)

Alturako arrantzan ibiltzen zen aita. Bakailao kanpainak lauzpabost hilabetekoak izaten ziren. Oso gogorra zela esaten zien aitak. Marinelen artean liskarrak sortzen ziren, hotz handia egiten zuen, lo gutxi egiten zuten... Mahoizko, felpazko eta artilezko arropak izaten zituzten eta zira fin batzuk.

944. Etxeko sukaldea, bainugela eta komuna (PAS-055/007)

Amonarekin, amarekin eta izebarekin bizi izan zen. Etxean lan asko egiten zuten. Tranpadurak nolakoak izaten ziren kontatzen du. Ikatza errez aritzen ziren sukaldean. Bainatu, berriz, harraska handi batean bainatzen ziren. Bederatzi urte inguru zituela lehendabiziko bainugela izan zuten etxean. Komuna balkoietan edukitzea zen ohikoa eta lehenago, galdara bati egurra jarri gainean eta hala moldatzen ziren.

945. Amonak eskuz egindako koltxak besteen etxeetan (PAS-055/008)

Beraien amonak kontatzen zuen, gauetan gizonezkoak oheratzen zirenean, lurra garbitu ondoren, kakorratzarekin koltxak egiten zituela; eta gerra garaian, herritik ihes egin eta itzuli zenean, balkoi askotan bere koltxak zintzilik ikusten zituela.

946. Aitona lanean gaixotu eta berehala hil (PAS-055/009)

Aitona udaletxeko igeltseroa zen eta Jaizkibeleko tuneletara uraren aberia ikustera joanda, biriketako gaitza harrapatu eta hil egin zen. Amonak ez zuen alarguntasun saririk jaso eta bizimodu latza izan zuen.

947. Amona arrain saltzaile, egunean hogeita bost pezeta lortzeko (PAS-055/010)

Amona arraina saltzen hasi zen. Oinez joaten ziren Donostiara eta lote bat hartzen zuten. Trolebusa hartuta Erreteriarra eta Lezora joaten zen saltzera, eta lortu ezean, Oiartzuneraino joaten zen oinez. Hogeita bost pezeta behar izaten zituen egunero familia aurrera ateratzeko.

948. Amonaren irakaspenak (PAS-055/011)

Galdara eramaten zuen amonak buruan, azpian trapu kiribildu bat jarrita. Anekdotak bat kontatzen du. Mertzedes zeukan izena amonak. Kalean ibiltzea alferkeria zela esaten zien eta denetik ikasi behar zutela. Etxeko giroa deskribatzen du.

949. Amonaren tapakiak eta jatorduak (PAS-055/012)

Amonak oihaltzearen oherako tapakiak egiten zituen. Pisu izugarria izaten zutela dauka gogoan. Puntuak egiten zuen. Garai bakoitzean otordu desberdina prestatzen zuen amonak.

950. Lehenengo garbigailua eta labaderoko giroa (PAS-055/013)

Lehenengo garbigailuak xaboia ematen zien arropari; gero, bainuontzian kentzen zioten xaboia. Anila botatzen zioten arropa zuriari zuritzeko. Labaderoan ere garbitzen zituzten arropa batzuk; kontuak eta kantuak izaten ziren han. Jendea oso alai bizi zela dio.

951. "Lindo jardín de flores" kanta (PAS-055/014)

San Juango abestiak aipatzen ditu; "Lindo jardín de flores, San Juan de mis amores" abesten du.

952. Arraunlarien arteko piketik, estropadak (PAS-055/015)

Didier eta Otaegi musikariak aipatzen ditu. Estropadetan hasi zen lehenengo herria izan zela kontatzen du. Itsasgizonak traineruetan ateratzen ziren arrantzara; Hondarribikoen kontra desafioa egin eta irabazi egin zuten San Juanekoek. San Juan eta San Pedroren artean pikea egoten zen, bentara zein lehenago iritsi, arrainaren prezio hobea lortzeko. Horrela hasi omen ziren estropadak.

953. Emakumeen lan gogorak lehorrean; batelerak (PAS-055/017)

Gizonezkoak itsasoan edo gerretan zebiltzanean, emakumeak arduratzen ziren ekonomiaz. Itsasontzietako deskargak egiten zituzten eta, gabarretan, arraunean ekartzen zuten karga batelerek. Maria Kristina erregina etortzen zeneko pasarteak kontatzen ditu. Batelerak emakume oso trebeak eta langileak izan zirela dio. Braulia Goienetxea izan zen azkeneko batelera.

954. Emakumeak PYSBEren bakailaoa manipulatzeko (PAS-055/018)

Gizonak arraunean hasi ziren, bateleren orde. Pisu gogorrena eta lan gogorrena emakumeek egiten zuten. Eskolara joaten zenean, emakume asko ikusten zituen PYSBEren bakailaoa manipulatzera zihoazela. Jangelan bazkaltzen zuten batzuek, etxera familia artatzera joaten ziren beste batzuk.

955. Sareak egiten etxeetan (PAS-055/019)

Sare-konpontzaileak eta saregileak izendatzen ditu. Itsasotik jakinarazten zieten irratiz sareak hondatzen zitzaizkienean. Etxean sare asko egiten zituzten eta gero enpresetan muntatu egiten zituzten. Baxurako eta alturako sareak desberdinak izaten ziren, arrain motaren arabera.

956. Arrantzaren inguruko ekonomia oso indartsua Pasaian (PAS-055/020)

Pasaiaiko portuan arrantzaleen inguruan zegoen antolatuta ekonomia. Azaltzen du, gainbehera etorri zenean, gobernua ez zela gai izan egoerari irtenbidea emateko. Ontziola indartsua zegoen; 700 langile izatera iritsi ziren. Haren inguruan ere enpresa, denda eta langile asko zeuden. Trintxerperi deitzen zitzaion "Dolarraren herria". Anekdotak bat kontatzen du.

957. Gerrarengatik, Frantziara ihesi (PAS-055/023)

Gerra garaian, amaren aldeko amonari abisua eman zioten soldadu zeuden bi semeek haurrak hartu eta herritik alde egin zezan. Bilbon ondo hartu zituztela kontatzen omen zuen amonak. Handik Santanderrera joan ziren. Aita Ingalaterrara bidali zuten anai batekin. Amonak seme-alabak hartu eta Frantziara alde egin zuen. Herri txiki batean jarri ziren bizitzen eta oso ondo egon zirela kontatzen du; mutikoak basoan ibili ziren lanean, eta amona eta Rosaren ama mojen eskola batean. Lagun on bat egin zuten.

958. Itzulera gogorra; langile batailoian osaba bat hil (PAS-055/024)

Gerra bukatu arte egon ziren Frantzian amona eta haren hiru seme-alabak. Itzuli zirenean, oso egoera txarra topatu zuten. Langile batailoira eraman zuten Rosaren amaren anaietako bat eta bizi-baldintza txarren ondorioz, hil egin zen.

959. Gerraostean, hutsetik hasi behar (PAS-055/025)

Amonaren ahizpa batek amonaren etxeko gauza batzuk gorde ahal izan zituen baina gainontzekoa lapurtu egin zioten amonari. Aitonaren familiakoek zelaian baratzea egin zuen amonak. Sagarrak lapurtu egiten zizkietenez, behar baino lehenago bildu eta ohe azpian izaten zituzten.

960. Olinoa depositutik beteta; janari soberakinak txerrientzat (PAS-055/028)

Rosa ume zela, olinoa depositu batean izaten zuten dendan eta botila betetzen zieten. Gauzak paperean bilduta ematen zizkieten dendan. Janari soberakinak txerriendako izaten ziren eta baserriarrek biltzen zituzten. Arrainen hezurak sutara botatzen zituzten.

961. Oso irakurzalea (PAS-055/029)

Bigarren senidea izanik, ahizpa eta anai txikiagoak zaintzen zituen. Irakurzalea zen Rosa eta esku-argiarekin irakurtzen zuen ohean. Eskolan liburu klasikoak ematen zizkieten.

962. 90. hamarkadan Donibane lur jota (PAS-055/033)

90. hamarkadan pobrezia eta langabezia handia zegoen, PYSBEko arrastoak geratu ziren, harrizko jauregi baten arrastoak, portuko XVI. mendeko arrapalak oso egoera txarrean... Portu berriarekin behar guztiak aseko zituztela agindu zieten erakunde publikoek, baina ez zen hala izan.

963. Donibaneko bizimodu ona berreskuratu nahian (PAS-055/034)

Pasaia guztirako ekimenak egiten hasi ziren; horietako bat izan zen Pasaia Crucis, auzo bakoitzeko beharrak ezagutarazteko. Dekalogo bat osatu zuten: zentral termikoa kentzea lortu zuten, Antxon ur ertzetik paseatzeko eskubidea kendu zieten, Lonja San Pedron mantendu da... Lan gutxi sortu dela baina turismoa gehiegi dagoela dio. Lan asko zegoen lehen Donibanen eta asko galdu da.

964. Alde zaharra saneamendu gabe (PAS-055/035)

Pixkanaka berrikuntzak egiten ari dira Donibanen, baina gauza asko egin gabe daudela azaltzen du. Alde zaharrak ez dauka saneamendu sistemarik eta ur zikin guztiak badiara isurtzen dira. Alabortza hondartza berreskuratu egin zuten.

965. Pixkanaka Donibanen hobekuntzak lortzen (PAS-055/036)

Erriberak eta itsasertzak modu "pobrean" konpondu zituztela dio. Portuak itsasoko irteera guztiak kendu nahi zituen: eskailerak, arrapalak... Salaketa asko egin behar izan dituzte zikinkeriarengatik. Alabortzako hondartzako goiko magala egonkortu gabe dago.

966. Habanerak berreskuratu zituztenekoa (PAS-055/037)

Bonantza auzo elkartean habanerak sortu zituzten. Amonak kontatzen zien Santa Ana eguna ezkonduen eguna izaten zela eta habanerak dantzatzen zituztela. Ohitura berreskuratu zuten, lehenagoko garaia irudikatuz. Hamahiru bikote atera ziren lehenengo aldian. Zer kantatzen zuten azaltzen du. Bertako bizimoduarekin lotura egiten dute antzezpenetan.

967. Umetako jolasak (PAS-055/039)

Donibaneko auzo bakoitzean kuadrilla bana zegoen. Kanikekin bertan txulora, sokasaltoan, "Trenavios", "Txurrustaina, media manga, mangeton, nun nago?", gaztaina eta masustak biltzera, udan zizareak hartu eta arrantzan egin, igeri egin...

968. Umetan Santa Isabel gazteluan, Jaizkibelgo tuneletan eta sareetatik zintzilik (PAS-055/040)

Santa Isabel gaztelura askotan joaten ziren umetan, zaindaria bizilagun bat zelako. Hango jabeek sortu zuten PYSBE enpresa. Garai bateko kalabojoetan ibiltzen ziren han. Jaizkibeleko tuneletan ibiltzen ziren. Sareak lehortzen jartzen zituztenean, zabu moduan erabiltzen zituzten.

969. Umetako gaiztakeriak (PAS-055/041)

Behin, umetan, zelai batean sua egin zutenekoa kontatzen du.

970. Artilezko koltxoiak nola garbitzen zituzten (PAS-055/042)

Bazuten bainujantzia. Bederatzi eguneko bainuak, bederatzi egunez eguzkia hartzea eta horrelako ohiturak izaten zituzten amak-eta. Artilezko koltxoiak nola garbitzen zituzten azaltzen du.

971. Habaneretako abesbatza eta jantziak (PAS-055/043)

Habanerako abesbatzan abesten du. Zuzendariak eta musikariak izendatzen ditu. Hamabost urtez egin zituzten habanerak. Jantziak beraiek egin zituzten. Habaneren ohitura garai bateko jendearen joan-etorrietatik sortutakoa izan zen.

972. Pilar Sansinenea eta Jesus Elosegiren gizarte lana (PAS-055/044)

Bateleren zortzikoa berreskuratu zuten. Senar-emazte berezi batzuk joan ziren Tolosatik San Juanera, Pilar Sansinenea eta Jesus Elosegi, enpresa bat jartzera. Gizarte lan handia egin zutela kontatzen du; Koxtape atletismo pista, gaur-egunkaria...

973. Pilar Sansineneak erakutsitakoak (PAS-055/045)

Pilar Sansineneak euskara maitatzen erakutsi zien. Emigrazio handia zegoen eta oso erdaldundua zegoen Donibane, baita frankismoaren eraginez ere. Ikasbidea euskaraz erakutsi zien. Mugaz bestaldean errefuxiatu moduan ibili zirenez, han dantza taldea sortua zuten. Herrian ere dantza taldea sortu eta dantzak erakusten zizkieten. Josten ere aritzen ziren, baita bordatzen ere.

974. Aita itsasoratzean, nahigabea (PAS-055/047)

Aita itsasotik etortzen zenean, itsasontziz itsasontzi saltoka joaten ziren aitaren bila. Aita itsasora joaten zenean, negarra begietan zuela joaten zen. Eguraldi txarrekin beldurrez egoten ziren etxean.

975. Aita hil zenean, ama PYSBEra lanera (PAS-056/003)

Aita hil zenean, zazpi urte zituen. Amaren aldeko amona etorri zitzaizen etxera eta ama sareak egiten hasi zen. PYSBE aritu zen. Enpresan bakailaoarekin egiten zuten lana azaltzen du. Jatorduetan bakailaoa edo arrautzak izaten zituzten.

976. Aita gerraren eta errepresioaren ondorioz hil zen (PAS-056/004)

Aita kartzelan egon eta gero hil zen; bi bala zituen gorputzean atera gabe. Miseria handia pasatu zutela dio; ez beraiek bakarrik, ia denek. Aitak frontean bi bala jaso zituen; Bilbon harrapatu zuten eta kartzelara eramane. Aske utzi zuteneko oso gaizki zegoen. Amak ez du gerrari buruz ezer hitz egin nahi izaten. Aita errepublikanoa zen, osaba EAJkoa eta beste osaba ANVkoa.

977. Etxeak hutsik eta dena konfiskatuta (PAS-056/005)

Aberatsak eta emakumeak geratu ziren herrian gerra garaian. Fatxek etxeak hustu eta dena konfiskatu zuten, eta ondareak elkarrekin banatu. Batzuk etxerik gabe geratu ziren.

978. Amak lan asko, lantegian eta etxean (PAS-056/006)

Beraien etxearen jabea gertukoa zen eta diruz ordaintzen zuten errenta. Aita hil ondoren hasi zen lanean ama. Amak sei lanegun izaten zituen astean eta ordu askoko lan-jarduna. Etxeko-lanez ere arduratu behar izaten zuen, amonarekin batera.

979. Amonaren lanak; arropa garbitu eta txerria hazi (PAS-056/007)

Arropa garbitzera garbitokira joaten ziren, Bonantzara. Non zegoen azaltzen du. Etxean bost ziren eta soldata oso txikia zen. Txerria haztea otu zitzaion amonari eta egunero galdara batekin etxe batzuetara janari soberakinen bila joaten zen.

980. Lapikokoa, bakailaoa eta arraina jatorduetan (PAS-056/008)

Amonak prestatzen zuen bazkaria; beti berdina izaten zen: lapikokoa eta bakailaoa. Beste familia bat bizi zen beraiekin, ama eta bi seme-alaba; hura Oiartzuneraino joaten zen oinez arraina saltzera.

981. Errazionamendua eta baserriko esnea (PAS-056/009)

Eskolan esne-hautsa ematen zieten eta janari lata batzuk ere bai, kartilla batekin. Elizan edo eskoletan paperak ematen zizkieten eta gero dendan eskuratzen zituzten salgaiak. Baserritar bat esnea ekartzen hasi zenekoa gogoan dauka. Esne-gaina azukrearekin meriendatzen zuen.

982. Aitak txintxorro txikiak egiten zituen saltzeko (PAS-056/010)

Aitak txintxorro txikiak egiten zituen etxearen atzealdean eta saldu egiten zituen.

983. Txirlak biltzen eta barbarinak eta karramarroak harrapatzen (PAS-056/011)

Gaiztakeriak egiten ibiltzen zen mutikotan. Txirlak biltzen aritzen zen; itsasbeheran lurra harrotu eta itsasgoran barbarinak arrantzatzen zituzten. Soka batekin muskuilua bota eta karramarroak harrapatzen zituzten; mendian egosten zituzten eta plazan saldu. Lanpernak gizon helduen kontua ziren.

984. Frantsesek botatako txanponak urpetik biltzen (PAS-056/012)

Igerian nola ikasi zuen kontatzen du. Frantziatik turista moduan zetozenei uretara txanpona botatzeko eskatzen zieten eta ondoren umeek hartzen zituzten. Anekdotak kontatzen ditu.

985. Gerraka herriko beste auzoetako umeekin (PAS-056/013)

Sareak lehortzen jartzen zituztenean, umeak zintzilik ibiltzen ziren. Gaiztakeria handienak mendian egiten zituztela dio: esaterako, ezpata gerrak. Mutiko bat ia urkatuta zutenekoa kontatzen du.

986. Maisu errepublikanoarekin eskola partikularrak (PAS-056/015)

San Juango eskolan ibili zen. Liburu bakarra erabiltzen zuten eta hamabi urterako, Migelek dena ikasita zeukan. Antxora joan zen eta bi urtez ikasi zuen han maisu errepublikano batekin, partikularretan. Bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera kobratzen zuen.

987. Enpresako lanik txarrenak euskaldunentzat (PAS-056/017)

Euskara oso aberatsa baserritarrek zeukatela dio. Maisuak frankistak ziren. Gogoan dauka berak lan egiten zuen enpresan lanik txarrenak euskaldunentzat izaten zirela.

988. Kalean oso euskara gutxi gerraostean (PAS-056/018)

Kalean oso euskara gutxi hitz egiten zen. Aita-amek bazekiten euskaraz; gerra ostean gazteleraz egin beharra zegoenez, utzi egin zioten. Baserritarrek, arrantzaleek eta familia batzuek mantendu zuten euskara.

989. Euskara ikasten erretiroa hartu ostean (PAS-056/019)

Franco hil ondoren, udal-hauteskundeetara aurkeztu zen eta zinegotzi izan zen. Bere taldeko zortzi zinegotzietatik bik bakarrik zekiten euskaraz. Orduan hartu zuen kontzientzia. Euskaraz ikasi, erretiroa hartu ondoren ikasi zuen, euskaltegia Idoia Arbelaitzekin eta etxean bere kabuz.

990. Luzuriaga ontzian lanean (PAS-056/022)

Luzuriaga ontzian 400 langile inguru aritzen ziren lanean, eta inguruan beste hainbestek lan egiten zuen. Itsasontzi txikiak egiten zituzten. Lan asko izaten zuten. Trintxerpen ehundik gora itsasontzi egoten ziren, gehienak bakailaotarako. Bulegoan lan egiten zuen berak. Enpresa italiar batek Antxoko moila egin zuen eta han hasi zen lehenbizi.

991. Itsasontziak egiteko prozesua (PAS-056/023)

Luzuriagan itsasontziak hasi eta bukatu egiten zituzten, eta konpondu ere bai. Alzairua Asturiasetik ekartzen zuten. Kartoiarekin ereduak egiten zituzten eta neurrira moztu eta moldatzen zituzten piezak. Motorrak Alemaniatik edo Ingalaterratik ekartzen zituzten.

992. Luzuriagaz gain, lan asko Pasaian (PAS-056/024)

Luzuriaga oso enpresa handia zen. Langileetako asko kanpotarrak ziren. Galiziarak CNT sindikatuaren bidez etorri ziren Trintxerpera. San Juango jendea ez zen bakailaotara joaten; enpresetan lan asko zegoen. Argindar enpresak, arotzak...

993. Sagardotegietako ohiturak (PAS-056/027)

Arrantzaleek arraina erre eta afaria egiten zuten sagardotegian. Emakumeak sagardotegian edo tabernan ikustea oso arraroa zen, jaiak eta gizonarekin ez bazen. Pitxarrean saltzen zuten sagardoa. Goiz erretiratzen ziren normalean. Edalontzia hamar xentimo inguru izaten zen. Hamalau urte ingururekin hasten ziren sagardotegira joaten, gizonen moduan.

994. Urpean geratzen zen atletismo pista (PAS-056/028)

Korrika egiteko zaletasuna lagun artean sortu zitzaion. Ondo moldatzen zenez, hamasei urterekin hasi zen atletismoan lehiatzen. Jesus Elozegi eta Pilar Sansinenea atletismo zaleak ziren eta pista txiki bat egitea bururatu zitzaion. Itsasgoran pista urpean geratzen zen. Jende famatua etortzen zela dio. Anekdotak bat kontatzen du.

995. Txapelketaz txapelketa atletismoan (PAS-056/029)

Hasieran ez zuen entrenatzailerik izan baina gero bai, Donostiara joaten hasi zenean. Atletismoko pista zegoen tokian Iberdrolak zentral termikoa eraiki zuen. Orduan, Atletico de San Sebastian taldean hasi zen. Garai hartan profesionalak debekatuta zeuden; atletek ezin zuten kobratu. Txapelketetan ibili zen eta sarri lortzen zituen sariak. Lehendabizikoa du oso gogoan, Gipuzkoako txapelketa irabazi zuenekoa; herriko banda atzetik zeukala, harrera oso ona egin zioten San Juanen.

996. Zinegotzi zegoela, 23-F eta Carlos Saldiseren hilketa (PAS-056/033)

Bi gauza gogor tokatu zitzaizkion zinegotzi egon zenean: bata, 23-F (estatu kolpe saiakera) izan zen. Udalbatzarra egiten ari ziren lekutik gertu, polizia armatuaren etxea zegoen eta gogorra izan zen zer egin erabakitzea. Bestea, Carlos Saldiseren hilketa izan zen.

997. Aitona-amonen Aterpeko lehendakari (PAS-056/035)

Erretiratu ondoren, Aitona-amonen Aterpeko lehendakaria izan da hainbat urtez. Lokala non zegoen azaltzen du. Bidaia kulturalak antolatu izan dituzte Europa osoan zehar. Hilean behin txango bat egiten zuten. Ofizialki ez, baina jarraitzen du gauzak antolatzen.

998. Amonaren arropak eta zola mehedun oinetakoak (PAS-056/039)

Bere ume garaitik, dena aldatu dela dio. Amonak egiten zizkien arropak; erosi ia ez zuten egiten. Oinetakoen zolak oso meheak ziren eta erraz zulatzen zitzaizkion.

999. Arrantzaleen jantziak eta lehengo bizimodua (PAS-056/040)

Arrantzaleek gatzetan ibiltzeko eskalapoia erabiltzen zituzten; ikusiak ditu. Zirak oso gogorak eta lodiak izaten ziren. Oraingo bizimodua hobea dela dio, nahiz eta bizilagunen arteko harremana estuagoa zen eta ateak irekita egoten ziren. Norbait gaixo zegoenean, denak bisitan joaten zitzaizkion.

1.000. Antxoa debalde herritarrentzat (PAS-056/044)

Behar askorekin baina zoriontsu izan zirela dio. Bakoitzak berea aurrera ateratzeko nahikoa lan izaten zuten baina elkarri ematen zioten zeukatena. Antxoa ekartzen zutenean, adibidez, afaltzeko adina herritar guztiei ematen zien patroiak debalde. Debalde jasotakoa saltzen zuenik ere bazegoen.

1.001. Batelerak, arraunlariak eta motorak, jendea garraiatzeko (PAS-056/046)

Pasaian zeuden lineak aipatzen ditu. Jende askoren joan-etorria izaten zela dio. Aurretik arraunean eramaten zuten jendea batetik bestera; pertsona bakarrak arraunean hogeitaz inguru eramaten zituen.

1.002. Itsasontzietara "bibereak" eramaten (PAS-057/003)

Beraien etxeak "Panaderia" zeukan izena. Ogia egiten zuten. Okindegia itxi zutenean, denda izan zuten. Itsasontzietara 'biberiak' ere eramaten zituzten. "Gure ametsa" boua bakarrik biltzen zen eta beste barkuak bikoteka. Izenak esaten ditu.

1.003. PYSBEko itsasontziak (PAS-057/005)

Bakailotara joaten ziren ontzi batzuen izenak esaten ditu, PYSBEkoak. Orain Ubera liburutegia dagoen tokian arrain lantegia zegoen.

1.004. Senarra arrantzalea (PAS-057/007)

"Bibereak" eramaten zituzten itsasontzi "parejentzat": kapritxoak, gainerakoa armadoreak erosten zuelako. Bere senarra PYSBEko itsasontzietan ibili zen, Canadian bakailaotan. Senarraren ezkon-aurreko anekdota bat kontatzen du. Bermeokoa zen.

1.005. Irunen marisko jatetxea (PAS-057/009)

Senarra ezkondu arte ibili zen itsasoan. Gero, Contadores lantegian egin zuen lana. Senarrari diru asko tokatu zitzaion kinielan eta Irunera joan ziren bizitzera. Marisko jatetxea ipini zuten bertan: Bar Vizcaino.

1.006. Aitona-amonek irekitako okindegia (PAS-057/011)

Bederatzi anai-arreba ziren eta guztiak ibili ziren etxeko negozioan lanean, "Panaderia"n. Dendan egoten ziren eta ogia partitzera ere joaten ziren, karroarekin. Aurretik astoa ere izan zuten, baina berak ez zuen ezagutu. Aitona Felix eta amona Joxepari buruz hitz egiten du; haiek ireki zuten okindegia.

1.007. Astoa bueltaka, ogia egiteko (PAS-057/013)

Okindegia handia zela dio. Labea zeukaten. Astotokia zuten. Astoa bueltaka ibiltzen zen eta amasadora mugitzen zuen.

1.008. Karroarekin ogia saltzen (PAS-057/015)

Aita okina zen. Zazpi mutil ziren eta guztiek zituzten beren ofizioak. Karroarekin saltzen zuten ogia.

1.009. Biteri eskolan, erdaraz (PAS-057/021)

Biteri eskolan ibili zen. Mutilak maisuarekin eta neskak maistrarekin. Erdaraz izaten ziren klaseak.

1.010. Gerra hasi zenean, Bermeora (PAS-057/022)

Gerra garaian ama zazpi seme-alabarekin Bermeora joan zen eta handik Lekeitiora. Laster bueltatu ziren, aita bila joan zitzaielako.

1.011. Uretara salto egin zuenekoa (PAS-057/024)

Gerrako itsasontziei buruz hitz egiten du. Anekdota bat kontatzen du: uretara salto egin zuenekoa, bestaldera eraman zezaten.

1.012. Arraina saltzera Donostiara (PAS-057/026)

Arraina saltzen ere ibili izan da, kalderarekin. San Pedroko eliza ondora eramaten zuten botean eta autobusean joaten zen Donostiara, Bretxara.

1.013. Umetan "marimutilla" (PAS-057/027)

Bonantzara asko joaten zen. Oso marimutilla ei zen txikitan. Bonantzako bi lagunek, Dionisiak eta Manolik, edaria lapurtu ei zuten eta mozkortu egin ziren mendira joanda, baina bera ez, aita oso zorrotza zuelako. Umetako jolasak, Bonantzan.

1.014. Egurra eta ikatza; errazionamendua (PAS-057/029)

Aitak sua egiten zuen egurrezko kaxekin. Ikatza. Errazionamendua, kupoiak. Oliao garesti zegon eta koko olio urtzen zuten txapa gainean. Aita Tolosara joaten zen larunbatetan feriara.

1.015. Marinelak arraina partitzen (PAS-057/030)

Marinel bakoitzak bere arrain errazioa zeukan eta banatu ere egiten zuten. Behin izotz lantegian tuberia lehertu zela dio eta marinel bat hil zela. MAIPI eta PYSBE.

1.016. Udaletxeko teilatuak sua hartu zuenekoa (PAS-057/033)

Orain udaletxea den eraikineko teilatuak sua hartu zuenekoa. Istripu bat ere kontatzen du.

1.017. Lanpernak, almejak; etxeko boteak (PAS-057/035)

Lanpernetan jende asko ito dela dio. Almejatan etxe aurrean ibiltzen ziren. Txitxareak ere hartzen zituzten, arrantzarako. Bi bote zituzten: San Ignacio eta Panadero. 'Txintxorroa' erabiltzen ikasi zuen berak ere.

1.018. Behin larri ibili ziren zezenarekin (PAS-057/040)

San Juanen oso zezenzaleak direla dio. Behin larri ibili zen sokamuturrarekin, plazan. Txofrera ere joaten ziren zezenketak ikustera. Herriko festetan "manolak" ateratzen ziren.

1.019. Laguna zezena xaxatzen (PAS-057/044)

Euskal dantzak erakusten zituen bikotea aipatzen du: Pilartxo eta haren senarra. Karmengo amaren egunean sokamuturra egoten zen, eta lagun bat zezena xaxatzen ibili zen, haurra eduki baino bi egun lehenago.

1.020. Igerian nola ikasi zuen (PAS-057/048)

Igerian nola ikasi zuen. Lehengo bainujantziak: bata eta kuleroak.

1.021. Antxora josten ikastera (PAS-057/049)

Antxon ikasi zuen josten, Maria Luisa Aranarekin. Etxerako josten zuen.

1.022. Ganadua igerian hiltegira (PAS-057/051)

Ganadua igerian eramaten zuten San Pedrotik San Juanera, hiltegira. Bonantzako arrapatik igotzen zituzten. Osaba harakina zen.

1.023. Estropadak nola sortu ziren (PAS-057/055)

San Pedrokoak lagunak dira, estropada kontuez aparte. Lehengo traineruak egurrezkoak eta pisutsuak ziren. Estropadak nola sortu ziren.

1.024. Baserritarrak astoarekin kalera (PAS-057/058)

Baserritarrak kalera joaten ziren, astoarekin. Baserrien izenak esaten ditu. Esnea partitzen zuten etxez etxe.

1.025. San Markos tortela (PAS-057/061)

San Markos opilak, tortelak. Agustina Leteri egiten zizkion berak. "Amaidinak" egiten zion besoetakoari.

1.026. Etxean izan zituen seme-alabak; eskola garaia (PAS-057/066)

Bi seme-alaba ditu, Lurdes eta Jesus Mari. Etxean izan zituen biak. Mari Nieves komadrona aipatzen du, Herrerakoa. Bera 14 urterarte ibili zen eskolan; sari bat irabazi zuen Quijoteri buruz egindako idazlan batekin.

1.027. Gabonetan, arrain zopa (PAS-057/069)

Gabonetan zer egiten zuten. Arrain zopa eta konpota jaten zuten. Gauza gutxi ekartzen zuten erregeek. Kartoizkoak ziren panpinak.

1.028. Ama baserritarra, aita barku mekanikoa (PAS-058/002)

Aita Irungo Iparragirre baserrikoa zuen. Aitak 22 urte zituen ezkondu zirenean. Aita barkuen mekanikoa zen, Antxon, eta Trintxerpen ere egiten zuen lana. Bost senide dira, bera hirugarrena.

1.029. Gerra garaian Frantzian errefuxiatuta (PAS-058/004)

Bost urte zituenean, gerra hasi zen eta ihesi joan ziren. Lekeitio eta Bilbon egon ondoren, Frantzian egon ziren, Saint Settienen errefuxiatu kanpaleku batean. Gela handi batean egiten zuten lo, koltxoietan.

1.030. Aita Santoñara eraman zuten lanera (PAS-058/005)

Bueltan etorri zirenean, arratoiak jan zituztela esaten zieten. Bere familia ez zen politika kontuetan sartzen. Aita Santoñara eraman zuten lanera, mekanikoa zelako; bisitan joaten zitzaien Lekeitiora.

1.031. La Habana itsasontzian (PAS-058/006)

La Habana barkuan joan ziren, Bilbotik, ama eta bost umeak.

1.032. Bueltan Irunen baserrian bi hilabetez (PAS-058/007)

13 hilabeten ondoren bueltatu ziren. Aita libre utzi zutenean, Irungo aitonak eskutitza idazteko esan zion, familia bueltatzeko eskatuz. Baserrian egin zituzten bi hilabete. Beren etxean ez zen inor sartu lapurretara, bizilagunak balkoian bandera espñola ipini zuelako.

1.033. Errazionamendua eta estraperloa (PAS-058/008)

Bueltatu zirenean, errazionamendua eta miseria. Estraperloan babarrunak, patatak... denetik ekartzen zuten. 12 urte zituenean, gurasoek denda ireki zuten, eta bera ere han egoten zen lanean. Estraperlokoa zen ia dena. Bretxara joaten ziren baserritarrek eta haiei erosten zieten, dendarako. Ogi beltza Lekeition ikusi zuen lehen aldiz.

1.034. Estraperloko ogia eta patata (PAS-058/009)

Erretereriako okin bati erosten zioten ogi zuria. Bretxan erositako patatarekin gertatu zitzaiena kontatzen du. Denda non zuten esaten du, Biyonako lokalean. Biteri eskolan ibili zen.

1.035. 12 urterekin lanera: umezain lehenengo, gero etxeko dendan (PAS-058/011)

Biteri eskolan 12 urterarte ibili zen. Umezain hasi zen lehenengo eta gero dendan. Ez zitzaion dendan lana egitea gustatzen. Erosle askok zorrak zituzten eta diru eske ibili behar izaten zuen. Arratsaldetan partikularretara joaten hasi zen.

1.036. Neskak eta mutilak aparte eskolan (PAS-058/012)

Biteri eskolan neskak eta mutilak aparte egoten ziren. Adin askotakoak batera egoten ziren gelan. "Cacho atún" deitzen zien ikasleei maistra batek. Zigorrak. Erdaraz zen dena eta ahizpekin erdaraz egiteko ohitura dauka.

1.037. Eskolan "Viva España" kantatu behar (PAS-058/013)

Etxean dena euskaraz egiten zuten. Kanean erdaraz. Ikasi nahi zuten. Irakasleak oso zorrotzak ziren. "Viva España" kantatu behar zuten. Oholtzara ateratzen zuten marraztera. Enziklopedia bakarra zuten guztientzat eta mutilen gelara eramateak lotsa ematen zion.

1.038. Eskolan saria irabazi zuenekoa (PAS-058/014)

Lehiaketa bat irabazi zuten Antxonik eta berak, eskolan. Behin maistra gazte bat joan zitzaion, eta mahai guztiei zenbakiak ipini zizkien. Sariak ipini zituen ikasle onenentzat, urte bukaerarako. Eskola utzi zuenean, ahizpari esan zion zatiketak egiten erakusteko; aitak zuen hiztegi batean mapak begiratzen zituen.

1.039. Umetako jolasak; antxoa eske, paineluarekin (PAS-058/015)

Umetako jolasak. Eliza aurrean ibiltzen ziren, sokasaltoan, kanikeketan, buleka... "Atxibirikonkon"... Bonantzara joaten ziren, barkuek antxoa deskargatzen zutenean. Paineluarekin joaten ziren umeak, antxoa eske. Gero izebari ere eramaten zioten, Erretereriara.

1.040. Josten ikastera (PAS-058/016)

Sare konpontzaileak izaten ziren Bonantzán. Beraiek ez zuten ikasi. Josten ikastera bidali zituen amak ahizpa eta biak, Erretereriara. Gero Antxon 'corte y confección'. Etxean berak josten zuen gero.

1.041. Almejak jaten aspertuta (PAS-058/017)

Umetan almejetan ibiltzen ziren eta nazka hartu zien. Lapetara lagunekin joaten zen, baina berak ez zituen jaten. Lanpernak. Igeri egiten ikasi zuen, baina ez ei zen oso trebea. Bata zaharra bainujantzi moduan.

1.042. Zigarroa erretzen neska bihurriekin (PAS-058/018)

Kamamila bila joaten ziren. Bere ama ez zen belar zalea. Bera oso lotsatia zen umetan. Bihurriak ziren Bonantzako neska talde batekin elkartu ziren batean zigarroa erre zutela kontatzen du.

1.043. Dantzara Antxora; motora-lineak (PAS-058/019)

Gramola izaten zen plazan eta dantza egitea gustatzen zitzairen. Pilartxo Sansineneak euskal dantzak erakutsi zituen, geroago. Antxora joaten ziren, motoran, dantza egitera. Trenbidetik joateko ohitura zuten. Zortzi linea zeuden. Erreteriarra ere joaten ziren dantzara.

1.044. Zinema gustuko gaztetxotatik (PAS-058/020)

Zinera ere joaten ziren. Amak anaiarekin joaten uzten zion, Erreteriarra eta Antxora. Beti lagun batekin ibiltzen zen, Manolitarekin, eta Ategorrietako moja komentua batera joaten ziren, haiek kantatzen entzutera, eta handik Kursaalera, zinemara. Zentsuratuak zeuden asko ikusi zituzten. Ikusi zituzten pelikula batzuk aipatzen ditu.

1.045. "Itsutua" zezenekin (PAS-058/021)

Herriko jaietan, zezenak. "Itsutua" zen, zezenekin. Korrika egiten zuten. Zezena uretara ere erortzen zen. San Inazio egunean karrozak ateratzen zituzten, 'manolak' eta. Behin joan zen Txofrera, zezenketak ikustera.

1.046. Ganadua nola eramaten zuten hiltegira (PAS-058/023)

Ganadua nola eramaten zuten Bonantzako hiltegira. Goizeko seiretan eramaten zuten eta entzun egiten zuten. Itsasotik eramaten, igerian, ez zituen ikusi berak.

1.047. Pregoneroa eta serenoak (PAS-058/024)

Pregoneroa, bandoa jotzen zuena. Serenoak ere baziren.

1.048. Etxe ondoan gauetan festa (PAS-058/026)

Errespetua zieten nagusiei. Ama nahiko zorrotza zuten. Elizako eskailera atarian festa izaten zen egunero, eta beraiei ez zieten uzten joaten.

1.049. Labaderoak; etxean dutxa berezia (PAS-058/027)

Labaderoak. Beraiek ez ziren joaten Bonantzara. Errotetan zen beste bat; ama hara joan izan zen. Maindireak sasia zabaltzen zituen amak; palanganan jaboi-ura ipini eta beraiek maindireei botatzen zieten. Aitak dutxa berezi bat egin zuen komunerako. Komuneko papera: egunkaria.

1.050. Sukaldean ekonomika (PAS-058/028)

Sukaldean ekonomika zuten. Egurra eta ikatza erabiltzen zuten. Txotx eta ezpal bila joaten ziren umetan, sua egiteko. Ikazkina.

1.051. Jatekoa: babarruna, arraina, esnea... (PAS-058/029)

Babarruna egunero eta igandetan garbantzua. Arrainik ez zen falta. Olioaren tokian esnea botatzen zion amak arrainari. Esnea Lezoko baserri batetik ekartzen zieten. Beraiek Errenteriara eta Bretxara joaten ziren barazkiak eta fruta eroatera, etxerako eta dendarako.

1.052. Dendan 13 urtean (PAS-058/030)

13 urtean egin zituzten dendarekin. Fruta, barazkiak eta legunbreak saltzen zituzten. Ahizpa ezkondu zenean, haren ordezt joan zen lanera, Vitamex enpresara.

1.053. Vitamex enpresan lanean (PAS-058/031)

Vitamex enpresa non zegoen azaltzen du eta zer egiten zuten han: arrain-gibel olioaren refinatu, botilaratu eta saldu. Bost urte egin zituen han. Arratsaldean egiten zuen lana eta goizean josten ikastera joaten zen. Gero etxean geratu zen, eta aitaren tailerreko kontuak eramaten zituen.

1.054. Galtzerdiak konpontzen (PAS-058/032)

Galtzerdiei puntua jasotzen hasi zen, etxean, aita egindako makinarekin. Orduan dena konpontzen zen.

1.055. Arrantzale batekin ezkondu zen (PAS-058/033)

38 urterekin ezkondu zen, garai hartarako berandu samar. Ignacio Laboa arrantzalearekin. Barkuak izan zituzten: Divino San Luis eta Ama Begoñakoa. Erretiroa hartu zuenean, txipiroitara joaten zen.

1.056. Senarra berandu arte lanean, eta bera kezkatuta (PAS-058/034)

Zer arrantza egiten zuen senarrak, barkuarekin: antxoa, atuna... Donostian eta San Pedron saltzen zuten. Senarra 11 urterekin hasi zen arrantzan. Motorista zen, eta berandu bueltatzen zen etxera. Bera beti kezketan. Patroiak izandako istripua.

1.057. Galerna zegoenean (PAS-058/036)

Galerna zenean senarra zain egoten zen, bukatzean itsasora joateko. Eta bera kezkatuta. Txipiroitan gustura aritzen zen senarra. Patxiku tabernan gertatutako anekdota.

1.058. "Partilla" eta "txakurrena" (PAS-058/037)

"Partilla" izaten zen arrantzaleen jorrala. Arraina ere banatzen zuten, kaxa batzuk. "Txakurrena" deitzen zieten. "Ixil-boltsa". Senarra txipiroitan hasi zenean, bera joaten zen saltzera. Lehenengo San Pedron, bentan, eta gero Donostian, Bretxan.

1.059. Bizikletan eta igerian (PAS-058/039)

Bizikletak alokatzeko denda bat zegoen Errenterian. Guztien artean ordaintzen zuten, eta txandaka ibiltzen ziren, ikasteko. Txikiardira joan zen behin bizikletan, baina gaizki pasatu zuen bidean. Igerian non eta nola ikasi zuen.

1.060. Jaunartzea, Frantziatik bueltan (PAS-058/042)

Jaunartzeko argazkirik ez dauka. Frantziara joan ziren eta bueltan ez zuten dirurik berria erosteko eta txaketa tintatuta egin zuen Jaunartzea.

1.061. San Markos opila (PAS-058/044)

San Markos opila Irundik ekarrita jaten zuten.

1.062. Garbiketa lanetan ere ibili zen (PAS-058/045)

Garbiketa lanetan ere ibili zen, MEIPIn, etxeko dendan lanean zebilen bitartean: goizeko seiretatik zortziretara. Zer lan aukera zeuden emakumeentzat inguruan. Krisi garaia.

1.063. Aita umea zeneko ontziola (PAS-058/046)

Ontziolak. Aitak mutikotan beleroak nola egiten zituzten ikusten zuen, udaletxe ondoko zabalduan. Arotz lana baino gehiago gustatu zitzaion mekaniko izatea. Krisia etorri zenean, ahal zen lekura lanera.

1.064. San Pedro eta San Juan: liskarrak estropadetan (PAS-058/048)

San Pedro eta San Juan. Estropadetako lehia. Bera ez da zalea. Ez zen ikustera joaten. Behin joan zen San Juanek Kontxako Bandera irabazi zuela eta ospatzera, desfilera. Liskarra egon zen.

1.065. Senarrari erdara erakusten (PAS-058/050)

Etxean erdaraz egiten zuen senarrarekin, hark ikasi egin nahi zuen eta. Lotsatu egiten omen zen Kofradiara joaten zenean.

1.066. Lehenengo jornala (PAS-058/052)

1956ko jornala erakusten du, Vitalex enpresakoa.

1.067. Argazkiak erakusten I (PAS-058/054)

Argazkiak erakusten.

1.068. Argazkiak erakusten II (PAS-058/056)

Argazkiak erakusten.

1.069. Argazkiak erakusten III (PAS-058/058)

Argazki bat erakusten du, Antxoni Etxarri eta bere anai-arrebak agertzen direna. Honorata maistrarekin agertzen dira umeak. 1933ko argazkia da.

1.070. Ama arrantzale familiakoa, aita baserritarra: Bordaundikoa (PAS-059/002)

Hiru senidetan zaharrena da. Guraso biak sanjuandarrak zituen: ama arrantzaleen alaba eta aita baserritarra, Bordaundikoa. Gazterik ezkondu ziren. Bordaundi erre egin zen. Kalera bizitzera joanda zeuden ordurako. Bordaundin errentan egon zen bere familia.

1.071. Bonantzan sagardotegia (PAS-059/003)

Bordaundi baserrian toleara zegoen, eta sagardotegia zuten kalean, Bonantzan. Idiekin eramaten zuten sagardoa, barriketan. Arrantzaleak joaten ziren bertara, janaria beraiek eramanda (arraina parrilan egiten zuten).

1.072. Sagardoa txotxean eta botiletan saltzen (PAS-059/004)

Botiletan eta txotxean saltzen zuten sagardoa. Zazpi kupel izaten zituzten, eta aldiko bat irekitzen zuten. Probaketa ilbeheran egiten zen. Udan itxi egiten zuten. Kaskoa bueltan eramaten zuten, baina berezo batzuek botilak beraiek eramaten zituzten. Txanpain botilak.

1.073. Familiako emakumeak sagardoa basoka saltzen (PAS-059/005)

Bonantzako sagardotegian amona, gero ama eta izebak... ibili ziren lanean. Saltzea izaten zen beraien lana: basoka. Edalontziak uretan pasatzen zituzten, berriz erabiltzeko; aita tramankulu bat asmatu zuen. Botilaratzeko lanetan ere aritzen ziren. Erronda ordaintzeko, igelaren jokoa.

1.074. San Juango sagardotegiak (PAS-059/006)

San Juango sagardotegiak aipatzen ditu. 4 ezagutu zituen, baina izebak 11. Sistiagatarrenak ziren asko. Dolare handiena beraiena zen, Bordaundikoa.

1.075. Sagar motak; sagarra nola garraiatu dolareraino (PAS-059/007)

Sagarrondoak bazituzten, baina ez nahikoa: Zaldibitik ekartzen zuten sagarra. Sagarren izenak esaten ditu. Sagarra nola botatzen zuten ganbaratik dolarera. Sagarra garraiatzeko modua, idiekin eta poleekin.

1.076. Dolare elektrikoa; behiak eta soroa (PAS-059/008)

Dolare elektrikoa zuten. Sagardoa egiteko prozesua. Patsa oso gustura jaten zuten behiek. Lau behi zituzten, esnetarako. Azpiak egiteko, "iñaurkiña". Soroan zer zuten: babarruna, artoa... Babarruna zen eguneroko jatekoa.

1.077. Esnea eta barazkiak saltzera, astoarekin (PAS-059/009)

Umetan Bordaundin zenbat bizi ziren: 11 pertsona. Nahi adina babarrun zuten. Astoarekin jaisten ziren, eta esnearekin batera barazkiak eramaten zituzten. Zapiak erabiltzen zituzten. Lehengusuak asto-xestoetan sartuta eramaten zituzten. 14 urterekin hasi zen lan horretan, etxez etxe. Ama eta izeba ibili ziren, aurretik.

1.078. Etxeko amona xahartuta ezagutu zuen (PAS-059/010)

Etxeko amona xaharra zen berak ezagutu zuenean, erreumarekin. Sendabelarrak. Osasun onekoak izan dira. Hori bai, belaunak beti urratuta izaten zituzten.

1.079. Beste amona, arraina saltzen (PAS-059/012)

Beste amona (amaren ama) arraina saltzen ibiltzen zen. Oiartzuneraino joaten ziren antxoa saltzera. Bera ere joan izan zen, amona ondoezik zegoelako. Trintxerpera joan zen.

1.080. Arrain eske, zapiekin; sareak zintzilik (PAS-059/013)

Antxoa asko zegoen garai batean. Herritar batzuk (normalean gizonak) zapiarekin joaten ziren arrain eske. Sareak zintzilik egoten ziren, eta beraiek umetan han jostatzen zuten, debekatu zuten arte. Ama eta amona sareak konpontzen ibili ziren, etxeko baporean: Jesus Nazareno. Orduko flota.

1.081. Umetan sukaldetara jostatzen (PAS-059/016)

Umetako jolasak: sokasaltoan, harrika, itsaspean... baserrian, sukaldetara: herriko sarrerako zabortegian plater hautsiak eta lapikoak hartzen zituzten; belarrekin egiten zuten bazkaria. Kolunpioa eta "hondartza". Buztinarekin ere jostatzen zuten.

1.082. Eskola erdaraz; euskararen egoera (PAS-059/017)

Sokasaltoko abestiak erdaraz ziren. Eskola ere bai. Sei urterekin hasi zen eskolan. Neskak eta mutilak aparte. Salamancako maistra. Etxean aitag errieta egiten zien etxean erdaraz egiten baldin bazuten. Bere belaunaldiko askok euskara galdu egin zuten.

1.083. "Nere" hitza erabiltzen dute, "maitea" esateko (PAS-059/018)

Denda batean emakume batekin izan zuen elkarrizketa kontatzen du; hark esaten zuela euskarak ez zuela bikotearekin hitz egiteko balio, ez zeukala "amor mío" bezalako hitzik. "Nere" hitzari buruzko azalpenak. Euskara desprestijiatuta. Kosta zitzaien balioa ematea.

1.084. Eskolako giroa; Pilartxo Sansinenearekin (PAS-059/019)

Mutilek "Cara al sol" kantatzen zuten eskolan, neskek ez. Bandera espainola zegoen. Burla egiten zieten erdaraz ez zirelako ondo moldatzen. Pilartxo Sansinenearengana joatzen ziren, eta han euskaraz aritzen ziren, kantuan; josi ere egiten zuten.

1.085. Abertzaleak, baina saltsatan sartu gabe (PAS-059/020)

Familia abertzalea zen, nahiz eta ez lehen lerroan ibili. Aita baserrian egoten zen, ez zen inora joaten. Gero kartetan jokatzera ere joaten zen, jubilatatu zenean. Haren heriotza.

1.086. Errazionamendu-kartila eta orduko jatekoak (PAS-059/021)

Errazionamendu-kartilak zeuden. Barazkiak eta esnea saldu, eta azukrea eta haragia erosten zuten etxerako. Goserik ez zuten pasa. Arraina ere sobran zegoen. PYSBEn lan egiten zutenei bakailoa ematen zieten. Aspertuta zeuden babarruna eta bakailoa jaten. Garbantzua, haragiarekin. Tomatea botilaratu egiten zuten, ez zuten entsaladan jaten; letxua bai.

1.087. Euskararen kontzientzia; nola hasi zen ikastolan lanean (PAS-059/023)

Euskararen kontzientzia. Ikusten zuen bera desberdina zela, euskarara jotzen zuela. Ikastolan hasi zen irakasle, eta han ikasi zuen aditz batzuk nola esaten diren euskara batuan: "esan nau" esan beharrean, "esan dit". Ez zen ausartzen gero kalean hala esaten.

1.088. Lehenengo ikastolen sorrera (PAS-059/024)

Ikastolaren sorrera. Antxon Kontxi Beitia andereñoak ikastola sortu zuen, bere etxean. Nekane izeneko bat joan zitzaion laguntzaile bezala. Gero beste tokietan hasi ziren, sanjuanen ere bai. Herrerakoekin elkartzen ziren. Imanol Urbietaren abestiak erabiltzen zituzten. Ipuinak eta jostailuak asmatzen (makarroiekin, egutegiekin...). Folioak nola egiten zituen kontatzen du.

1.089. Batxilergoa eta Magisteritzako titulua (PAS-059/025)

Batxilergoa ikasten hasi zen. Ikastolak sortutako gela batean biltzen ziren, Donostian. Gau eskolan hasi zen, gero, Asuncionen. Haurra izan zuen, eta ez zuen bukatu. Bergarara joaten hasi zen gero, UNEDera, larunbatetan. Hala atera zuen Magisteritzako titulua.

1.090. Etena irakasle lanetan, umeak zaintzeko (PAS-059/026)

Euskaltzaindiako euskara titulua Azpeitian atera zuen. UNEDen Magisteritza titulua atera ondoren hiru urtean ez zen maistra lanetan ibili, bere umeak zaintzeko. Hirugarrena jaio zenean bueltatu zen ikastolara lanera.

1.091. Lehen ikastola, herriko hainbat lokaletan sakabanatuta (PAS-059/027)

Donibaneko lehen ikastola non zegoen azaltzen du, Bonantzan. Sakabanatuta zeuden, hainbat lokaletan. PYSBERen jangela izandakoan ere izan ziren gela batzuk. Lizeoa sortu aurretik, ikasle zaharrenak Erreterriako ikastolara joan ziren.

1.092. Lehen haur taldea izan aurretik, Erreterriara (PAS-059/028)

Pasaia-Lezo lizeoa bi herriek sortu zuten. Haur hezkuntzan ibili ia da beti. Bere hasiera: Erreterrian egiten zutena ikusita hasi zen; Arantxa Idiazabalek sortua. Askok kantatzen zuten... Zipitriaren metodologia izango zen seguruenez.

1.093. Euskaltzalea barru-barrutik; Oarsotarrak saria (PAS-059/029)

Oarsotarrak saria eman zioten 2018an, euskararen alde egindako lanarengatik. Euskaltzalea izan da beti. Kantujiran parte hartzen du orain ere.

1.094. Gurasoei eskerrak, ikastola aurrera (PAS-059/030)

60ko hamarkadan hasi zen euskaltzaletasuna pizten herrian, ikastola sortu zenean. Konfiantza handia ipini zuten gurasoek. Ez zen erraza, umeek kartillarik ez zutelako.

1.095. Gau eskoletan irakasle (PAS-059/031)

Euskara galdu zuten batzuek berreskuratu egin zuten. Bera izan zen gau eskolako lehenengo irakasleetako bat, Altuna eta Oñatibiaren metodoekin. Itsasmendi elkartearen goiko aldean, ikastola zegoen tokian.

1.096. Ikastolako lehenengo irakasleak (PAS-059/032)

San Juango ikastolako beste irakasle batzuek aipatzen ditu: Gema Sistiaga, Karmele Sistiaga, Joxean Goienetxea... Ixiar Korta, Maria Luisa Almandoz, "Aixkoras" apaiza... Iñaxi Lazkano joan zen berarengana, irakasleak behar zituela esaten.

1.097. Ez Dok Amairukoak; antzerkia (PAS-059/033)

Ez Dok Amairukoak beraien idoloak izan ziren. Laboa, Lertxundi... Euskarazko antzerki-lanik ez zuten ikusten orduan. Orain dabil bera antzerkia egiten, jubilatuetan. Bera baino helduagoek egiten zuten antzerkia, San Juanen, garai batean.

1.098. Umeen dantza-taldea (PAS-059/034)

Pilartxo Sansineneak dantza-taldea antolatu zuen. Herriko haur guztiak joaten ziren hara, mutil zein neska. Jaietan dantzatzen zuten.

1.099. Aldizkariak eta irratia euskaraz (PAS-059/035)

"Zeruko argia" aldizkaria hartzen zuten beti etxean. Aitak irakurtzen zuen. Irrati handi bat zuten. Basarri entzuten zuten irratian, euskaraz zegoen irratsaio bakarretakoa. Gurasoak Santo Tomas egunean Donostiara joaten ziren, errenta ordaintzera, eta euskarazko antzerkia ikusten zuten han. Amak ikasi zuen behiak jezten, baina beraiek ez.

1.100. Lapak eta lanpernak; kamamiloa (PAS-059/036)

Aita lapa bila joaten zen, arroketara. Ogi puska batekin lapa gordinak jatea gustatzen zitzaion. Behin olatuak harrapatu zuen, eta ez zen gehiago joan. Lanpernak. Kamamilo bila joaten ziren.

1.101. Aitak oilategian egindako dutxa; etxeko labaderoa (PAS-059/037)

Egurretarra. Ekonomika. Dutxa polita egin zuen aitak oilategian. Etxe atarian labaderoa zuten, arropa garbitzeko. Bertatik edaten zuten behiek ere. Maindireak zuhaitzetik zuhaitzera ipinitako soketan zabaltzen zituzten. Jostaketa bihurtzen zen. Maindireak "al verde", lixibaren ordez.

1.102. Arropa, herentziakoa eta jostunak egina (PAS-059/038)

Arropak jostunak egiten zituen, ez zuten tailaka saltzen. Herentziako arropa: batzuetan motzegi, besteetan luzeegi... Lehenengo Jaunartzeko soinekoa utzi egin zieten.

1.103. Josten ikasten; sukaldean trebeziarik ez (PAS-059/039)

Josten ikasten ibili zen, jostun batekin: Anjeli Mirones. Sukaldean ez zen oso trebea eta amak esan zion: "Ez zera, noski, ezkonduko, bestela familia gosiak hilko zaizu".

1.104. Sagardotegia eta taberna, gizonen kontua (PAS-059/040)

Emakumeak sagardoa erostera joaten ziren sagardotegira, baina normalean gizonak egoten ziren han. Amari lotsagarria iruditzen zitzaion neskak tabernara sartzea. Ikastolarekin batera, Itsasmendi elkarteak sortu zen.

1.105. Dantza egitera hara eta hona (PAS-059/041)

Migel Alkaraz korrikalaria animatzera joaten ziren eta baita futbolariak ere, eta estropadetan. Dantza Antxon, Erreterian eta Txikierrdin. Herriko plazan gramola izaten zen. Mutilek "bailamos?" galdetzen zuten.

1.106. Nobiotan mendira eta zinemara (PAS-059/042)

Senarra izango zuena nola ezagutu zuen, Itsasmendik antolatutako mendi irteeretan. Ordurako ez zen zinema-aretorik san Juanen; Erreteriarara edo Donostiara joaten ziren. Umea zela Kofradian zegoen zinea, eta kobratzen ere ibili zen; txintxo aurpegia zuela dio eta fidatzen zirela.

1.107. Olentzero ospatzeko ohitura (PAS-059/043)

Estropadak: animatzera joaten ziren. Arraunean birritan ibili da: Maridomingi zen, eta traineruan joan zen Olentzerorekin. Bera umea zela aita-eta ibili ziren Olentzero ospatzen, baina hori galdu egin zen, eta erregeak ospatzen hasi ziren. Bere umeei Olentzerok ekarri dizkie opariak beti etxean.

1.108. Arraun kontuak (PAS-059/045)

Osaba bat, Lujanbio, patroi ezaguna izan zen. Aitona ere ibili zen arraunean, Kontxan bandera irabazi zuten batean. Berak san Pedrokoak ere txalotzen ditu.

1.109. Herriko festetan balkoitik begira; zezenak (PAS-059/046)

Herriko jaietan jende asko ibiltzen zen. Balkoitik hankak zintzilik zituztela egoten ziren, amonaren etxean. Zezenak, dantza, buru-handiak... ikusten balkoitik. Entzierroetako anekdotak.

1.110. Karmengo amaren eguna (PAS-059/048)

Ez du ezagutu baporeekin egiten zen prozesioa. Karmengo Egunean baporeek banderak jartzea bai. Aitona Karmengo amaren oso zalea zen.

1.111. San Markos opila (PAS-059/049)

San Markos opilarekin mendira joaten ziren. Belardiak zapaltzen zituztela, eta aita ez zen konforme egoten. "Amaidinak" besoetakoari erosten zion opila, "tortela". Bera umea zenean arrautzak benetakoak ziren, ez txokolatezkoak; tintatuta egoten ziren.

1.112. Herriko motorak eta arrantzontziak (PAS-059/051)

Motorak: lehen linea gehiago zeuden. Askotan izaten zen behe-lainoa eta brujula erabiltzen zuten. Bajurako arrantzontziak sei bat ziren. Polita zen denak elkarren atzetik ateratzen ikustea. Alturakoak, berriz, mordoa zeuden.

1.113. Klase desberdintasunak (PAS-059/052)

Klase desberdintasunak. Hiletak ere desberdinak mailaren arabera. Berak ez zuen kalean diferentziarik igartzen aberatsen eta pobreen artean. Ez da gutxietsia sentitu baserritarra izateagatik; lagunak hara joaten ziren jostatzera.

1.114. Haurtzaroko oroitzapen onak (PAS-059/053)

Haurtzaroko oso oroitzapen onak ditu. Jostaketez aparte, baserriko lanak ere gustatzen zitzaizkion: belarretan egitea, adibidez.

1.115. Hitanoaren erabilera familian (PAS-059/054)

Aitak lagunekin hika egiten zuen, baina emakumeek ez; gutxi batzuek, ama baino helduagoek. Ama kalekoa zen. Aitak arrebarekin ere ez zuen egiten.

1.116. Irakasle moduan hastapenak (PAS-059/056)

Lizeoa 1977-78 inguruan ipini zuten martxan, baina hasieran ez zeuden Batxilergokoak. Rosarito Folgado izan zen irakasle moduan hasi zen lehenengoa eta apaizak arreba ekarri zuen.

1.117. Zer da euskara zuretzat? (PAS-059/057)

Euskara bizitzeko modu bat dela dio, barren-barrendik daukana.

1.118. 15 urterekin itsasora (PAS-060/002)

5-6 urtetik 12 urte bitartera eskolan ibili zen. 15 urterekin itsasoan hasi zen, arrantzan, aita jubilatutik egin zelako. Futbola, pilota, arrauna... utzi egin behar izan zituen. Marrazketa ere utzi egin zuen. 45 urte igaro ditu itsasoan lanean, bizimodu gogorra.

1.119. Olatu batek itsasora bota zuenekoa (PAS-060/003)

Galizian arrantzan zebiltzala izandako abentura kontatzen du, denboralak harrapatuta. Pixa egitera atera zen, eta olatu batek uretara bota zuen. Beste olatu batek, berriz, baporera itzularazi zuen.

1.120. Gurasoek nola ezagutu zuten elkar (PAS-060/005)

Aita Donibanekoa zuen eta ama Donostiako parte zaharrekoa. Amak arraindegian egin zuen lana, umetatik, ama gaixotu egin zelako. Aitak 45 urte zituen ama ezagutu zuenean. 22 urte inguru zituela hil zitzaizkion guraso biak.

1.121. Aita arrantzalea; hiru senide (PAS-060/006)

Plazan bizi ziren, balkoi zuria duen etxean. Aita arrantzalea zen, 12 urterekin hasia itsasoan. Familia pobrea zen. Hiru senide dira. Arreba sarea josten hasi zen 13 urterekin eta anaia itsasora joan zen 18rekin. Solteroa da: ezkontzeko asmoa zuela dio, baina ez zitzaiola ondo atera. Arrebarekin bizi da.

1.122. Baloiarekin jolasean plazan (PAS-060/008)

Plazan aritzen ziren futbolean. Itsaspean txitxare bila ibiltzen ziren, gero arrantza egiteko: pantxoak, barbarinak... Baloiarekin jolasean aritzen zirelako errieta egiten zieten helduek. Anekdotak pare bat kontatzen ditu. Pilotan ere plazan aritzen ziren. Futbolean Realarekin jokatzera ere iritsi zen.

1.123. Biteri eskolan, makilaren zigorra (PAS-060/009)

Biteri eskola publikoan ibili zen. Frankistak ziren irakasleak. Zigortu ere egiten zituzten, baserrietako mutikoek eramandako makilekin. Bere ama bi aldiz joan zen maisuarengana, kexuka. Zer ikasten zuten kontatzen du. Marrazketa ikastera gau eskolara ere joaten zen, gustura.

1.124. Futbola eta arrauna utzi beharra (PAS-060/011)

Futbola eta arrauna. 1961ean Kantauroko lehiaketa batean hartu zuten parte, batelarekin, Santanderren. Finalera iritsi ziren, eta irabazi egin zuten. Arrantza ez zen berak nahi zuena.

1.125. Antxoatan, ardoran (PAS-060/012)

Itsasoan ohitu egin zen denborarekin. Nagusiarekin batera egoten zen baporean. Ardoran, antxoatan; argi gorria botatzen zuten uretara, gero sarea botatzeko. Egunez antxoa sarda ikusten da, gorria. Gauez, berriz, zuria. Izandako baporeen izenak. Gran san Luisen hasi zen bera.

1.126. Atez ate arrantzaleei deika (PAS-060/013)

Arrantzan hasi zenean toyak harrapatzen hasi zen, marrazoaren familiakoa. Antxoa, txitxarroa, sardina... harrapatzen zuten. Egunean egiten zuten buelta. Bera joaten zen goizeko ordubietan atez ate arrantzaleei deika. Hiru orduko bidea egiten zuten. Baporea aldatu zutenean urrutiago joaten hasi ziren.

1.127. Arrainaren benta nola izaten zen (PAS-060/014)

Bentan saltzen zuten arraina, San Pedron, edo bestela Donostian. Bapore handiagoarekin baita Santanderren edo Galizian ere. Zazpiretan hasten zen benta, eta lehenengo iristen zenari hobeto ordaintzen zioten. Sei bapore zeuden San Juanean eta beste 3-4 san Pedron. Kanpoko baporeak ere etortzen ziren. Deskarga nola egiten zuten, poleekin.

1.128. "Partilla" eta "txakurrena" (PAS-060/015)

"Partilla" astean behin egiten zuten, kofradiara joanda: diru-banaketa. "Txakurrena", berriz, arrain asko zegoenean egiten zuten. "Txakurrena" hitza nondik datorren azaltzen du. Sobran zuten arraina partitu egiten zuten.

1.129. Arraina oparitzen (PAS-060/016)

Bonantzan egoten ziren sareak garbitzen eta pasatzen ziren emakumeei sareetatik askatutako antxoak ematen zizkieten. Batzuk paineluarekin ere joaten ziren bila.

1.130. Sareak "tanatzea" eta konpontzea (PAS-060/017)

Algodoizko sareak hondatu egiten ziren, eta "tanatu" egiten zituzten, tindatu. Karroan Alabortzako bidera eramaten zituzten eta "pabetan" lehortzen ipini. Lehortu ondoren emakumeek konpondu egiten zituzten; bera hantxe egoten

zen, guztiekin (batzuetan dozen bat), eta adarra jotzen zioten. Jostorratzak egurrezkoak ziren hasieran, gero plastikozkoak.

1.131. Plazan arrantzan, mutikotan, kainaberarekin (PAS-060/018)

Mutikotan arrantzarako kainabera eta pita erabiltzen zituzten, amua eta beruna, plazan bertan. Pantxoa txiki pila bat hartzen zituzten. "Zapatero" deitzen zioten arraina. Zaldi buztanarekin egindako pita erabiltzen zuen gizon bat ezagutu zuen.

1.132. Euskaraz etxean eta baporean (PAS-060/019)

Sare konpontzaileak "sareen sendagileak" zirela esaten du, bestela ezin zutelako itsasora joan. Euskaraz hitz egiten zuten beraien artean; bera zen gazteena itsasontzian. Gurasoak ez zekiten ondo erdaraz. Lehengo euskara egiten duela dio, ez oraingoa. Bertan jaiotako batzuek ez dakite euskaraz.

1.133. Eskolan ezin euskaraz egin (PAS-060/020)

Euskara desprestijiatua zegoen. Eskolan ez zieten euskaraz egiten uzten. Maisuak zigortu egiten zituen. "Cara al sol" kantarazten zieten. Plazan euskara eta gaztelania, umeen artean denetik entzuten zen.

1.134. "Apaidiña" bezala, Bibiano (PAS-060/022)

Bere "apaidiña" Bibiano zen, bera bezala. Aita, berriz, Balbino. Aitonaren izena jarri nahi zioten, Juan Migel, baina osaba tematu egin zen Bibianorekin. Aitak-eta estropadetan Kontxako bandera irabazi zuteneko argazkia aipatzen dute, 1924koa.

1.135. Etxea nolakoa zen; Felipe eta Antxon osabak (PAS-060/023)

Etxea nolakoa zen kontatzen du. Trasteleku batean txerriak eta oilaskoak izaten zituzten lehen, bera jaio aurretik. Trastelekuari "labea" deitzen zioten. Ikatzezko sukaldea zuten. Berak ez ditu ikatzezko baporeak ezagutu, baina osaba bat (Felipe) halako batek lehertuta hil zen. Osaba Antxon, berriz, fusilatu egin zuten, gerra garaian.

1.136. Antxoa bila gero eta urrutiago (PAS-060/024)

Antxoa martxotik ekainera harrapatzen da. Gero eta gutxiago zegoenez, gero eta urrutiago joan behar. Azken urteetan, astebete ere egiten zuten etxera itzuli gabe. Egunez eta gauez aritzen ziren arrantzan. Begiz ikusten zuten lehen arraina, ez zegoen radarrik.

1.137. Antxoa salmueran (PAS-060/025)

Antxoa salmueran ipintzen zuten, gatzarekin, barrika batean. Karga ipintzen zioten, zapaltzeko. 5-6 hilabetera ateratzen zuten. Lan da, baina gustatzen zaio. Sasoi batean antxoa sobran eta baserritarrek eramaten zuten baratzerako, baita legatz buruak ere.

1.138. Atunetan nola aritzen ziren (PAS-060/026)

Atunetan, ekainetik urrira. Etxera bueltatu gabe egoten ziren hainbat egunean. "Karnata" egitera joaten ziren lehenengo (antxoa, sardina), eta gero harekin atunetara. Zortzi lagun ibiltzen ziren kainaberekin eta bat "txista"rekin

jotzen eta atunak gora igotzen. Etxera bueltatu, 24 ordu egon, eta berriz martxa.

1.139. Baporeak nolakoak ziren (PAS-060/027)

Atunetako baporea nolakoa zen. Gogoan dauka lehenengo ohea: ura erortzen zitzaion. Gaur egun luxuzko itsasontziak ei daude. Jatekoa eta edatekoa.

1.140. Atunetan kazan egiteko, malutak (PAS-060/028)

Atunetan kazan ere egiten zuten, malutekin. Artoaren azala (txurikiña) orraztu egiten zuten lehen, baina gero plastikoa atera zuten; hura ere orraztu beharra zegoen.

1.141. Bajurako flota (PAS-060/029)

Bajurako arrantzontzien izenak aipatzen ditu, San Juangoak eta San Pedrokoak.

1.142. Ilargi betea eta ipar haizea txarrak arrantzarako (PAS-060/030)

Ilargi betea ez zen ona arrantzarako. Ardoran ilargi gabe aritzen ziren. Atunetan, ipar haizea zegoenean ere txarra.

1.143. Izurdeak harrapatzen (PAS-060/031)

Izurdeak jaten zituzten, jatekorik ez zutenean; arpoiarekin botatzen zituzten. Behin izurdea baporera arrimatzen ari zela, izurde txiki bat atera zen negarrez. Pena eman zion. Bota zuen azken izurdea izan zen.

1.144. Itsas txoriak harrapatzen (PAS-060/032)

Itsas txoriak ere jaten zituzten. Nola harrapatzen zituzten. Goxoak ziren jateko. Gaur egun debekatuta dago, baina sasoi batean emakumeek saldu ere egiten zituzten txoriak.

1.145. Berdela eta txitxarroa (PAS-060/033)

Berdela sarearekin edo aparejuarekin harrapatzen zuten. Hilabete inguruko kanpaina zen. Legatzik ez zuten harrapatzen. Txitxarroa ere bai. Orduan asko zegoen. Potakarra eta boga arrainak ere ez dira ikusten. Bisigutan eta txitxarroan Hondarribikoak ibiltzen ziren.

1.146. Olagarrotan ez, baina txipiroitan ibili izan da (PAS-060/034)

Mariskorik ez dute hartu izan; arrasteroek nahi gabe harrapatzen zuten. Olagarrotik ere ez du hartu izan, baina txipiroiak bai. Aita arraunean joaten zen, "txintxorro" txiki batekin, txipiroitara. Aguarinak egiten ziren lehen, jostorratzekin, baina gero plastikozko arrainak atera ziren.

1.147. Alturako arrantza eta kontserba lantegiak (PAS-060/035)

Alturako arrantzontzi asko zeuden. Dena galdu da. Trintxerpen diru asko zegoen. Kontserba lantegiak. Lanik ez zutenean, beraiek ere deskargan egiten zuten lana MEIPIn. Bakailaoarekin zer egiten zuten. PYSBEn lehortu egiten zuten, zintzilik jarrita.

1.148. Izotz lantegiak eta ontziolak; "milotarrak" (PAS-060/036)

Bi izotz lantegi zeuden. Jela hartzen zuten han, itsasora joan aurretik. Ontziolak. MEIPln baporeak egiten zituzten, Olaziregik. "Milotarrak" ezagutu zituen, arrainak deskargatzeko erabiltzen ziren saskiak.

1.149. Bajurako arrantzaren gainbehera (PAS-060/037)

Bajurako arrantza nolatan desagertu zen. Gasoila garestitu egin zen. Gazteek ez zuten arrantzan aritu nahi. Hotza pasatzen zuten, beti bustita.

1.150. Itsasontzian marrazten (PAS-060/038)

Marraztu egiten zuen itsasontzian, itsasoa bare zegoenean marrazteko. Lapitza eramaten zuen beti.

1.151. Platera, antxoa saltzeko neurria; herriko kartzela (PAS-060/040)

Herriko emakume batzuk arraina saltzen ibiltzen ziren kalean. Antxoa saltzeko neurria platera izaten zen. Perratokirik ez du ezagutu. Serenoa bai. Kartzela ere bai, Bonantzako elizaren atzean. Bera ere sartu zuten behin, baloiarekin kristal bat hautsi zuelako. Agapito zen arduraduna. Serenoak gauzez ere aritzen ziren. Pregoneroa. Zorroztalea joaten zenean, euria egingo zuela esaten zuten.

1.152. Emakumeak koltxoiak jotzen (PAS-060/041)

Traperoak. Herriko emakumeak koltxoiak jotzen gogoratzen ditu. Artilea harrotzeko.

1.153. Herriko sagardotegiak eta dantza (PAS-060/042)

Sagardotegiak. Errekatxo, Bonantzan. Batzuk aipatzen ditu. Lehorrean zegoenean, berak nahiago zuen kirola egin. Dantzan ere hasi zen, herriko jaietan. Gramola egoten zen plazan; Anitak ipintzen zituen eskatutako piezak, pezeta baten truke.

1.154. Xexenaren aurrean korrika (PAS-060/043)

Ez zen oso zinezalea, baina bazegoen zinea herrian. Herriko jaietan, xexenak. San ignazio egun batean gertatu zitzaiona: zezenak adarrearekin jo eta erortzean orkatila hautsi zuen.

1.155. Lehen errespetu handiagoa (PAS-060/046)

Gurasoei errespetu gehiago zitzaien lehen. Gaur egunekoa lotsagarrikeria iruditzen zaio. Errespeturik ez dagoela dio. Herriko jaietan, plazan bizi dira, eta tinbrea jotzen diete...

1.156. Labaderoan emakumeak; San Markos tortela (PAS-060/047)

Labaderoa non zegoen azaltzen du. Amari laguntzen zion batzuetan, kargarekin. Karmengo Amaren egunean egiten zen bapore prozesioa ezagutu zuen. San Markos tortela; Donostiako amaidiñak bidaltzen zion.

1.157. Lehengo motorak; sagarrak lapurtzen (PAS-060/048)

Motora linea gehiago zeuden zen. Meipi-Antxo... Sagarrak "ostutzer" joaten ziren, eta behin Xeberiano baserritarrak jo egin zien.

1.158. Bibiren marrazkiak (PAS-060/050)

Erretiroa hartu zuenean marrazten hasi zen. Beti gustatu izan zaio. Marrazki batzuk erakusten ditu.

1.159. Mutrikun jaioa, gerra sasoian; gurasoak mutrikuarrak (PAS-061/002)

Mutrikun jaioa, 1936an, gerraren ondorioz. Gurasoak mutrikuarrak ziren, kontuengatik Pasaia joanak. Andonaegi ontzian egiten zuen lana eta amak sareak konpontzen zituen. Zortzi senide ziren. Gerra hasi zenean, Mutrikura joan ziren ihesi.

1.160. Arotza, aita bezala (PAS-061/003)

Aita arotza zen. Joxe Mari ere bai. Bere kabuz ikasi zituen arotz lanak. Aitari bazkaria eramatera joaten zen, jolasorduan, Trintxerpera. Aita arrantzara joaten zen, lanera joan aurretik.

1.161. Aitarekin arrantzan: txitxarroa eta txipiroiak (PAS-061/004)

Txitxarrotara joaten zen aitarekin eta anaiekin, arraunean, "txintxorroarekin". Baita txipiroitara ere. Arrain asko zegoen sasoi hartan: "Arraia kaka bezela zeon". Olio falta zen.

1.162. Donostiaraino arraunean (PAS-061/005)

Mutikotan ikasi zuen arraunean. Donostiaraino ere joaten ziren, udan. Arrebak postua zeukan. Ohikoa zen txintxorroarekin batera eta bester ibiltzea, bestela ordaindu egin behar zen eta. Orduan ez zegoen hainbesteko trafikorik itsasoan.

1.163. Almejetan, urre bilatzaileen gisan (PAS-061/006)

Almejetan ibiltzen ziren. San Migel mareak. Lezoraino hondartza zegoen eta han almejak urte guztian egoten ziren, baina jendea marea biziak zeudenean bakarrik ibiltzen ziren almejetan, herrigunean bertan. Txitxareak ere itsaspean hartzen zituzten, arrantzarako. Barbarinak.

1.164. Txoritan, erreklamoan (PAS-061/007)

Txoriak harrapatzen ere ibiltzen ziren mutikotan, erreklamoan, "bixkarekin". Animaliak hiltzeko mentalitatea zegoen. Karnabak. Kaiolara ala lapikora. Lanpernak hartzea arriskutsua zen, ez zen mutikoen kontua.

1.165. Umetako jolasak: patina, pilota... (PAS-061/008)

Patin bat zeukan umetan, aitak egina. "Tres navios" harrapaketa jolasean aritzen ziren. Pilotan ere bai. San Juan nolakoa zen azaltzen du eta herriko "auzoen" izenak esaten ditu: bixi-bixi, zinkuentarreka... futboleko jokatzeko zuten elkarren kontra.

1.166. 13 urterekin bakailao lantegian lanean (PAS-061/009)

Biteri herri eskolan ibili zen, 6 urtetatik 13 urtera. 14 urte bete gabe hasi zen lanean, PYSBE bakailao fabrikan. Gero arotzerian hasi zen, hantxe bertan.

1.167. Mezetara joan behar; ikatza batzen itsasoan (PAS-061/010)

Eliz atarian jostatzen zuten. Bezperak. Amak mezetara joan al zen galdetzen zion. Uretara eroritako ikatza batzen ibiltzen ziren itsasoan, sarearekin. Lehortu eta sutarako erabiltzen zuten. Egurra aitak ekartzen zuen Trintxerpetik, "kixkurra". Arrebak-eta joan izan ziren "pinutegira", abar bila. Ekonomia zuten.

1.168. Etxean 12 bizi ziren; euskaraz kalean ere (PAS-061/011)

Etxe ederra zuten dio, handia. Oheetan binaka egiten zuten lo. 12 lagun bizi ziren etxean. Gurasoak, zortzi senide, amona eta osaba alarguna. Amak mutrikuarrez hitz egiten zuen etxean. Gerraosteko urteak izan arren, kalean euskaraz egiten zutela dio, eta maisuak eskolan errieta egiten ziela.

1.169. Euskararen egoera gerraostean (PAS-061/013)

Kalean euskaraz egiten zuten. Juanito lagunak ere bai, gurasoak kanpokoak izan arren. Galarazita zegoen, baina etxean eginez gero... Lagun batzuei gertatu zitzaiena, Irunen: "Habla en cristiano" esan, eta kontra egiteagatik kuartelera eramán eta ilea moztu zietela.

1.170. Gerra garaiko kontuak (PAS-061/014)

Gerra garaiko kontuak. Atxilotuak eta hildakoak. Ihesi joan ziren familia asko. Kanpoan jaiotakoak aipatzen ditu. Abertzale amorratuak ei ziren familian, arreba batez ere.

1.171. Osaba Bixente Ameriketara joan zen (PAS-061/015)

Osaba Bixentek batelak egiten zituen, arotz trebea zen hura ere. Ameriketara joan zen, Bartzelonatik eta Frantziarik igaro ondoren. Lehengusuak aipatzen ditu. Ameriketan arotz-lanetan ere aritu zen.

1.172. PYSBEko arotzerian lanean (PAS-061/016)

PYSBEko aroztegian ibili zen lanean. Oso lantegi handia zen. Liburuekin ikasi zuen, eta bere kabuz lanean. Aldizkariak erosteko iparraldera joan behar izaten zuen. Orduko arotz batzuk aipatzen ditu.

1.173. 1960 inguruan aroztegia zabaldu zuten (PAS-061/017)

1960 inguruan lau lagunek aroztegia ipini zuten. Gero anaia eta biak geratu ziren. Altzariak egiten zituzten: sukaldeko armairuak, aulkiak... eta denetik: egurrezko lurra jarri... Egurra: pinua, intxaurra, lizarra... inguruko zerrategiak aipatzen ditu. Gurdian eta botean ekartzen duten egurra. Anekdotak.

1.174. Aroztegiko tresnak (PAS-061/018)

Etxe azpian zuten aroztegia. Makinak eta tresnak aipatzen ditu. Altzariak egin zituzten gehiena azken urteetan.

1.175. Jira nautikorako prestatutako karroza (PAS-061/019)

Jira Nautica antolatzen zuten. 1971. urtean, oso karroza ederra egin zuten: baserri bat, gabarra baten gainean. Gabarra moilara arrimatu zuten. Lizarazu kontrastistak lortu zuen egurra. Baserriaren arrakasta ikusita, hurrengo urtean idi pareia ere egin zuen: idi-proba.

1.176. Jira nautikorako prestatutako karroza II (PAS-061/020)

Hurrengo urtean arrain-benta egin zuten, baina ez zuen arrakasta bera izan. 15.000 pezeta eman zieten lehenengo karroza egiteagatik, baina harekin ez zitzaien ezertarako iritsi.

1.177. Itsasmendi elkarte; ikastola (PAS-061/021)

Itsasmendi elkarte. Juantxo Azkarraga eta Libe Garbizu mendizaleek sortu zuten, baina beste ekintza batzuk egiten zituzten: dantza... Ikastolan ere ibili izan zen laguntzen, mahaiak eta aulkiak konpontzen.

1.178. Nobio garaiko kontuak: dantza, zinema... (PAS-061/023)

Emaztea Trintxerpekoa da. Nola ezagutu zuen kontatzen du. Andregaiaren zain egoten ziren etxepean. Erretereriara joaten ziren, dantzara. Zinema-aretoak eta dantzalekuak aipatzen ditu: Fantasio eta Cantábrico. Ligatzea zaila zen, dena baitzen bekatua. Musu emateko ere nahikoa lan. Birjintasuna.

1.179. Hamarretarako etxera; neskek askatasun gutxiago (PAS-061/024)

Hamarretarako etxera joan behar izaten zuten. Behin hamabietan joan zen etxera, eta errieta egin zioten. Neskek askatasun gutxiago zuten, hala ere. Koinatuaren anekdota kontatzen du.

1.180. Musikazalea: klarinetea jotzen bandan (PAS-061/025)

Klarinetea jotzen zuen musika bandan. Elizan ere kantatzen zuen, mutikotan. Solfeoa ikasi zuen. Lau lagun hasi ziren klarinete-bokila bakarrarekin praktikatzen, musika tresna gutxi zeuden eta. 13 urte ingururekin hasiko zen bandan.

1.181. La Constancia bandaren entseguak eta kontzertuak (PAS-061/026)

La Constancia banda, gerra aurretik sortua. Musika bandak non entsegatzen zuen eta non jotzen zuten kontatzen du. Klarinetea bandarena zen.

1.182. Klarinetea eta kantak: bandako abestia (PAS-061/028)

Bandako adinekoek musika tresnak zituzten, baina gehienak bandarenak ziren. Berak estutxea egin zion, egurrezkoa. Klarinete berriak 3.000 pezeta

balio ei zuen. Kantatzea asko gustatzen zitzaion. Euskarazkoak ere kantatzen zituzten. Bandako abestia kantatzen du eta nondik datorren azaldu.

1.183. Herriko kanta estropadei buruz (PAS-061/029)

Denetik kantatzen zuten, irratirik ez zegoen eta. 1923an Madrilén egindako zarzuela baten bertsioa egin zuen pasaitar batek estropadei buruz.

1.184. Estropadekin lotutako kontuak, mende hasierakoak (PAS-061/032)

Estropadak. Ez zen traineruan ibili, Pedro eta Andoni anaiak bai. Aita ere bai. 1920ko kontuak aipatzen ditu: boikota egin zuten, donostiarrek ez zutelako zegokien balizan buelta eman, eta hurrengo urtean Zarautzen jokatu ziren estropadak. Ohikoa zen estropadak ikustera joatea Donostiara, itsasoz. Behin autobusean bueltatu zela kontatzen du, oso mutikotan.

1.185. Pikea San Pedrokekin; aitaren arraun-kontuak (PAS-061/033)

Pikea bazen San Pedrokekin, estropadak zirela eta. Aitak La Unión taldean egiten zuen arraun: erdiak sanjuandarrak ziren eta erdiak sanpedrotarrak. Donostiarrekin ere pikea zuten.

1.186. Eskola garaiko kontuak; errazionamendua (PAS-061/035)

Biteri eskolan ibili zen. Neskak eta mutilak aparte. Zer ikasten zuten. "Cara al sol" kantatu behar izaten zuten. Errazionamenduarekin ere gogoratzen da. Ogi beltza eta olio gutxi.

1.187. Baratza, babarruna, esnea... (PAS-061/036)

Aitak baratza izan zuen gerra aurretik. Joxepa arreba zaharrenaren anekdota kontatzen du: haziak erosten zituen, ereiteko izan beharrean jateko. Babarruna. Esnea Bordaunditik ekartzen zuten, marmita txiki batekin. Igandetan garbantzua.

1.188. Osaba arrantzalea zen; Gabonetan denak elkartzen ziren (PAS-061/037)

Beraiekin bizi zen osaba arrantzalea zen. Orduko itsasontzien izenak aipatzen ditu. "Partia" etxera eramaten zuen: antxoa... aitak ere arrantzatzen zuen. Potajea ia egunero. Gabonetan konpota eta bakailoa. Denak elkartzen ziren eta kontuak aditzen egoten ziren.

1.189. Kontu kontari eta kantari; irratia (PAS-061/038)

Kontu kontari egotea zen berarentzat onena, adibidez Gabonetan. Eta kantari. Irrati gabeko garaia ere gogoan du. Labaderoan ere kantari egoten ziren emakumeak. Garbigailurik ez zen artean.

1.190. Komuna, ur beroa eta dutxa (PAS-061/039)

Komuna bai, dutxarik ez. Ur beroa ekonomikan berotzen zen; deposito txiki bat zuen, iturriarekin. Garbiketa lababoan egiten zuten. Ur Kirolak elkartean bazegoen dutxa bat, eta han dutxatzen ziren.

1.191. Etxe zaharretik berrira (PAS-061/040)

Etxez aldatu zirenean, aurrerapen handia iruditu zitzairen: ur beroa, baldosa lurrean... Etxe berria erosi zuten, kooperatibena. Zaharra oso ederra zen, baina obra handia zuen egiteko. Etxea nolakoa zen azaltzen du: ganbara, sotoa... Berogailurik eta pijamarik ez zegoen. Adreilua edo ur bero botila oherako.

1.192. Igeri egiten nola ikasi zuen, umetan (PAS-061/041)

Bainujantzirik ere ez zuten: galtza zaharrekin bainatzen ziren. Umetatik ikasi zuen igeri egiten, "potorruak bezela". Nola ikasi zuen kontatzen du, arrantzako kortxoekin.

1.193. Sendabelarrak eta medikua (PAS-061/042)

Mendira kamamilo bila joaten ziren; balkoian jartzen zuten lehortzen. Karakolak txikituta, erremedio bat egiten zuen amak. Don Enrike medikua Altzan bizi zen. Kopetan hartutako kolpea nola sendatu zion amak.

1.194. Aitak batela egin zuen ganbaran (PAS-061/044)

Serenoak ezagutu zituen, bandoa ere bai... Joxe danborreroa eta zesteroa zen. Aitak batela egin zuen ganbaran, eta atzetik zelaira atera zuten. Patioan egosi zituzten saihetsetako egur piezak.

1.195. Familia Mutrikutik Pasaiara lan bila (PAS-061/045)

Gurasoen izenak eta amonenak. Ez zituen aitonak ezagutu, biak galerna berean ito zirelako, Mutrikun. Pasaiara lan gehiago zegoen Mutrikun baino. Horeratik joan zen hainbeste jende. Lantokiak aipatzen ditu.

1.196. Zinkuentarreka auzoan jaioa (PAS-062/002)

Enrike Arzak medikuarekin jaio zen, etxean, Zinkuentarreka auzoko etxe batean. "Zinkuentarreka" hitzari buruz hitz egiten du, "zinkuenta" horrek "asko" esan nahi duela.

1.197. Mutikotan aitari laguntzen (PAS-062/003)

Ama Eratsungoa zuen, nafarra. Neskame etorri zen. Aitak portuan egiten zuen lana, baina baratza ere asko maite zuen. Kasetak egin zuen aitak oiloentzat, txerrientzat... Aitari laguntzen zioten baratzean eta iratze-metak egiten.

1.198. Dutxarik ez etxean; arropa gutxi (PAS-062/004)

Aitaren lanari buruz hitz egiten du. Lokomotoa batekin ibiltzen zen, materiala garraiatzen (ikatz...). Etxean ez zegoen dutxarik. Dutxa publikoak. Arropa gutxi zuten eta desegokia: hotza pasatzen zuten.

1.199. Binaka lotan, hotz gutxiago (PAS-062/005)

Etxean berogailurik ez zuten. Senide guztiak ekonomikaren bueltan elkartzen ziren. Binaka egiten zuten lo. Sei senidetan laugarrena da.

1.200. Biteri eskolan, gaztelaniaz eta kolpeka (PAS-062/006)

Biteri eskolan ibili zen. Non zegoen azaltzen du. Frankismo garaia zen, eta erdaraz ikasten zuten. Etxean euskaraz egiten zuten, baina kalean erdaraz.

Kanta frankistak kantatu beharra. Maisuak makilarekin jotzea ohikoa zen. "La letra con sangre entra" esaldia.

1.201. Neskak eta mutilak aparte eskolan (PAS-062/007)

Elizaren indarra izugarria zen. Eskolan neskak eta mutilak aparte izaten ziren, eta ez zuten harremanik. 14 urterarte ikasten zuten. 10 urte bitartekoak elkarrekin zeuden eta 10-14 bitartekoak beste gela batean. Inork ez zuen ikasketekin jarraitzeko aukerarik izan.

1.202. Elizaren boterea eta erdal giroa (PAS-062/008)

Ez ziren konturatzen Elizak zuen botereaz. Harrituta geratu zen batek esan zionean ohera errezatu gabe sartzen zela. Eskolaren eta Elizaren eraginez dena erdaraz egiten zuten kalean, nahiz eta etxean euskaldunak izan. 20 urterekin kontzientzia hartu zuten eta koadrilakoak euskarara pasatu ziren.

1.203. Umetako jolasak eta gaskoieraren arrastoak (PAS-062/009)

Umetako jolasak erdaraz ziren. Jolas batzuek aipatzen ditu. Bules" eta "gailenes" aipatzen ditu. Sokasaltoan "Pinis pinis" abesten zuten neskek, eta denborarekin ohartu zen gaskoieraz zela. Gaskoieraren arrastoak: hainbat toponimo aipatzen ditu.

1.204. Gaskoieraren historia Pasaian (PAS-062/010)

Gaskoieraren historia. XVI. mendean bizi-bizirik zegoen Pasaian. 1920 inguruan desagertu zen. Trecet abizenekoak izan ei ziren azken hiztunak. Abizen batzuk aipatzen ditu: Puy, Laboa, Trecet... Donostiako mendi guztien izenak gaskoieraz direla dio.

1.205. Gaskoiak XII. mendetik Pasaian (PAS-062/011)

Gaskoiak XII. mende bukaeran joan ziren Pasaiara, Antxo erregearen bitartez. Artisauak ziren eta oso onak negoziarako: familia batzuek oso dirudunak ei ziren, Donostian. 1668an boterea kendu ei zieten, idatzi baten bidez. Oso gutxi aztertu zela dio.

1.206. Puy abizena nondik datorren; kankak gaskoieraz (PAS-062/012)

Puy abizenari buruz. Laboa abizena. Jasota ditu esaldi batzuk eta kankak gaskoieraz, euskararekin nahasirik.

1.207. Tronboia jotzen, behartuta (PAS-062/014)

Anaiak Constancia bandan jotzen zuen, eta hark behartuta sartu zela dio. Tronboia jotzen zuen, baina musikari gorrotoa hartu zion, irakasteko moduarengatik. 17 urterekin utzi zuen.

1.208. Gaztetxotan pilotan eta atletismoan; Koxtapeko pista (PAS-062/016)

Pilota gustatzen zitzaion, eta txapelketetan hartzen zuen parte. Eskuz jokatzeko zuten. Baziren pilotari onak herrian. Atletismoan ere ibili zen. Jesus Elosegik eta Pilar Sansineneak, beste batzuekin, Koxtapeko pista eraiki zuten; ur azpian geratzen zen marea igotakoan. Koxtape elkarteak sortu zen gero, pista desagertu arren.

1.209. Atletismotik arraunera (PAS-062/017)

Atletismotik arraunera. Koxtape atletismo taldea gero arraun elkarte bilakatu zen. Jexus Elosegik eta emazteak sortu zuten Koxtape. Euskaltzaleak ziren, batez ere Pilartxo Sansinenea: euskaraz ematen zuen dotrina.

1.210. Atletismo lasterketak eta arrauneko hasierako urteak (PAS-062/018)

Atletismoan lasterketetan hartzen zuten parte. Sei ziren. Antxon Basurkok eta Migel Alkarazek maila handia eman zutela dio. 1969an arraunean hasi zen, banku mugikorrean. Hasierako urteetan non entrenatzen zuten kontatzen du eta lehen lehiaketak. Kontxako banderan zazpi aldiz parte hartu du. Hainbat sari irabazi zituzten.

1.211. San Juan- San Pedro pikeari buruz (PAS-062/019)

Ez dago arrauneko pikearen alde: San Pedroren aurka ez du ezer. Koxtaperen argazki bati buruz hitz egiten du. Olinpikoei buruz hitz egiten du.

1.212. Aita eta aitona arraunean ibiliak (PAS-062/020)

Aita ere arraunean ibili zen. Aitona Martzialek Kontxan parte hartu ei zuen, eta torloju bat sartu ei zitzaion ipurdian.

1.213. Igogailu enpresatik Euskal Filologiara (PAS-062/022)

15 urterekin gaur egun Otis deitzen den igogailu enpresan hasi zen lanean. Herreran zegoen, eta 500 langile baino gehiago ziren. 1982ko krisialdian jendea botatzen hasi ziren, eta joatea erabaki zuen. Euskal Filologia ikasten hasi zen orduan, 36 urterekin, 8 eta 5 urteko haurrak zituela.

1.214. 60ko hamarkadako loraldia (PAS-062/024)

Euskara kezka eta zaletasun. 20 urterekin hizkuntza aldatu zuten koadrilan. Ez Dok Amairuren jarraitzailea izan zen. Koinatak Urritzak taldean abesten zuen. Gerora, irakasle bihurtu zenean, ikasleak Iparraldera eramaten zituzten. Casenave eta Niko Etxart aipatzen ditu.

1.215. Euskara galdutako belaunaldia (PAS-062/026)

Zaharragoak euskaldunak ziren, baina bera eta gazteagoak ez hainbeste. Askok galdu zuten euskara. Galdutako belaunaldia aipatzen du. Pertsona solte batzuek berreskuratzeko ahalegina egin dute. Ikastolaren sorreraren eta alfabetatzearen garrantzia. Bera EUTGra joan zen.

1.216. Itsasmendi eta Yola elkarteak; sagardotegiak (PAS-062/029)

Itsasmendi elkarte eta Yola elkarte aipatzen ditu. Emazteek janaria eramaten zieten senarrei, Yola elkarte gastronomikora. Sagardotegiak ere baziren. Garaiko matxismoa.

1.217. Almejak, lapak eta lanpernak (PAS-062/030)

Almejetan ibiltzen ziren, aita batez ere. Aita lapa bila joaten zen Jaizkibelera. Lanpernetan ibiltzea arriskutsua da. Anaietako bat arrantzan ibili zen. Arrainik ez zen falta etxeetan.

1.218. Arrantza-ontziak eta arrai-saltzaileak (PAS-062/031)

Bajurako arrantza-ontzien izenak esaten ditu. Alturakoak zenbatuta, 250 bat itsasontzi egongo ziren guztira. Sare konpontzaileak eta arrain saltzaileak emakumeak ziren. Dendan erosketak egiten zituelako gaizki ikusi zen gizona aipatzen du.

1.219. Labaderoa; baserritarrekin harremana (PAS-062/032)

Labaderora joaten zen amarekin. Baserritarrekin harreman handia zuten. Aita Gaztelutxo baserrikoa zen eta ama ere baserritarra zen. Lan egiteko bizi ziren. Esne partitzaileak. Bonantzan lotzen zituzten astoak.

1.220. Zinema-aretoa San Juanen (PAS-062/034)

Zinema-aretoa zegoen apezetxean. Bakeroen pelikulak botatzen zituzten. "Yola-Berri" tabernaren parean ere izan zen beste bat.

1.221. Jaizkibel mendiaren izenari buruz (PAS-062/036)

Toponimia zalea da. Anekdota bat kontatzen du. Gaztetan, koadrilako batek Jaizkibel mendiaren ustezko jatorriaz hitz egin zion. Esanahia azaltzen du. Helduen Hitza elkarteko ibilaldietan ere azalpenak ematen ditu berak.

1.222. Toki-izen bitxiak eta kondairak (PAS-062/038)

Pasaiako toki-izena bitxiak. Antxo Santxo erregearengandik datorrela dio. Nafarroako herri batzuei buruz hitz egiten du, -ain bukaera dutenak izenean. Justiz merenderoaren jatorri posibleaz hitz egiten du: Nafarroako erregea bertako alabaz maitemindu zelako kondaira.

1.223. Koxtapeko dokumentuak erakusten I (PAS-062/040)

Koxtape elkarteko arrauneko gauzak erakusten ditu. Argazki batzuk erakusten ditu. 1959ko diploma bat ere erakusten du.

1.224. Koxtapeko dokumentuak erakusten II (PAS-062/042)

Eguberrietan, abenduaren 25ean Koxtapekoek lasterketa egiten zuten Guadaluperaino. 1979ko diploma bat erakusten du. 1965ean sortu zen Koxtape.

1.225. Pasai Donibaneko "Zurruna" kalea I (PAS-067/002)

Garai batean, Pasai Donibanen kale bakarra zegoen eta bertan jaio zen, plaza inguruan. "Zurruna" deitzen zioten kale zati horri. Hemeretzi urtera arte bizi izan zen hor, eta etxea ezin izan zutenez erosi, herriko sarrerara aldatu ziren.

1.226. Ama, hogeita hamar urterekin ezkondu zen (PAS-067/004)

Amaren gurasoak Mutrikukoak ziren. Aitarenak, Donibaneko "Borda Andi" baserrikoak. Ama hogeita hamar urterekin ezkondu zen eta jatetxeetan eta neskame bezala lan egiten zuen.

1.227. Ama, jatetxe ospetsuenetan lanean (PAS-067/005)

"Bordaundi" baserria gaur egun desagertuta dago, baina garai batean garrantzi handikoa izan zen. Aita portuko lantegi batean administraria zen.

Amak, etxeko lanak egiten zituen eta jatetxe garrantzitsuetan lan egiten zuen (Panier Fleuri, Camara, Nicolasa...). Igandetan, aitarekin joaten ziren ama lanean zegoen jatetxera eta denak elkarrekin bueltatzen ziren Donibanera oinez.

1.228. Amak, arraina erosi eta saltzen zuen (PAS-067/007)

Amak, arraina ere saltzen zuen. Portuan arraina erosi eta Pasai Antxoko merkatuan saltzen zuen. Eskalapoiak erabiltzen zituen. Egurrezkoak ziren. Merkatuko postua alokairuan zuen.

1.229. Zerbitzariak, kofia eta uniformearekin (PAS-067/008)

Sanferminetan, ama Iruñera joaten zen astebetez Las Potxolas jatetxean zerbitzari lanak egitera. Kofiarekin eta uniformeaz jantzita joaten ziren garai batean zerbitzariak.

1.230. Etxeko zereginak eta administrari ikasketak (PAS-067/009)

Amak, bazkarirako mahaiko elementu guztiak jartzen zituen: hainbat edalontzi eta kopa, platerak, ontziak... jatetxean bezala. Etxean, zazpi pertsona bizi ziren. Etxeko zereginak, berak eta amak egiten zituzten arren, aitak beti animatu du Gema ikasteko ere. Hamabost urterekin Urtasun akademian (Pasai Antxo) administrari ikasketak egiten hasi zen.

1.231. Etxean beti euskaraz egin da (PAS-067/010)

Familia oso abertzalea izan du Gemak. Bera gaztea zenean, gaztelania asko entzuten zen kalean. Kuadrillan hogeit bat izanik, beste birekin bakarrik egiten zuen euskaraz. Etxean, beti euskaraz egin da.

1.232. Gerra garaian, bi aitonak espetxean (PAS-067/011)

Bi aitonak espetxean egon ziren gerra garaian. Bat Ondarretan zegoela, amona joan zen bere bila eta gaztelaniaz jakin gabe bertarik atera zuen. Bestearen aztarna alabak lortu zuen Bilbon neskame zegoela.

1.233. Euskal kulturaren aldeko militantea (PAS-067/012)

Donibaneko batzokiko sortzaileak izan ziren gurasoak. Alderdi politikoak legeztatu zirenean, Gemak ez zuen nahi izan inongo alderdirekin lotu, eta horrek etxean tirabirak sortu zituen. Euskal kulturarengatik egin du lan beti, baina ez politikarekin.

1.234. San Joango dantza taldea (PAS-067/014)

Hamalau bat urterekin euskal dantza taldean hasi zen. Taldeak ez zuen izenik, "San Juango dantza taldea" deitzen zioten. Mixtoa zen, baina beti mutilen falta zegoen. Irakaslea, Julia Aldasoro zen.

1.235. Garai bateko gaztetxea (PAS-067/015)

Dantza taldeko entseguak, elizako lokal batean egiten zuten, "Aterpea" deitzen ziotena. Lokal hori zen beraien gazte garaiko gaztetxea. Bertan, kultura ekitaldiak antolatzen ziren, jaiak, "guatekeak", kontzertuak... Larunbatero guatekea zegoen eta Antxotik ere jendea joaten zen. Zuzeneko musika izaten zen.

1.236. Guatekeak igandero Camara jatetxeko ganbaran (PAS-067/016)

Hogei bat urterekin, igandero guatekea antolatzen zuten Camara jatetxearen ganbaran. Goizean, pantxoak eta arrainak harrapatzera ateratzen ziren, Pontika txaluparekin, eta gero guatekean horiek ateratzen zituzten, jatetxean sobratutako postre eta pasteekin batera.

1.237. Igerian ikasten plazako aldapan (PAS-067/017)

Donibaneko plazan, uretara jaisteko aldapan ikasi zuen igerian. Ikasten zebilela, flotagailuak ihes egin zion eta uretatik atera behar izan zuten. Pare bat urtez egon zen igeri egin gabe, beldurragatik, baina kuadrillako guztiek ikasi zutenez, azkenean berak ere ikasi zuen.

1.238. Garai bateko bainujantziak (PAS-067/018)

Bolantedun bainujantzi hori bat ekarri zion behin aitona eta horrekin ibiltzen zen egunero. Etxean, amak eta Gemak bakarrik zekiten igerian. Amak, bainujantziaren gainetik gona janzen zuen igeri egiteko.

1.239. Amaren aitona galernaren ondorioz hilda (PAS-067/019)

Ettxekoak ez dira arrantzaleak izan eta ez da egon arantzara joateko afizioa. Gema Albaolarekin itsasoratu zenean, amak beldur handia zuten, bi aitona Mutrikun izandako galerna batean hil zirelako.

1.240. Hizkuntza-errepresioa frankismoan (PAS-067/021)

Herriko ikastetxean ikasi zuen. Ettxeko zapatilak eramaten zituzten eskolara. Eskolan gaztelaniaz ikasten zuten eta ikasleen artean, kalean ere, horrela egiten zuten. Hizkuntza-errepresioa. Familia gehienetan denek zekiten euskaraz, baina kalean ez zen egiten.

1.241. Donibaneko "Zurruna" kaleko giroa (PAS-067/023)

"Zurruna" kalean jolasten zuten egunero, 20.30-21.00ak arte. Giro handia egoten zen bertan: antzerkia, zezenetan, sokasaltoan... Familia handi bat osatzen zuten bizilagun guztiek. Ia ez zuten zaborrik sortzen, dena berrerabili egiten zelako. Organikoa, txerriarentzat izaten zen.

1.242. Pasai Donibaneko "Zurruna" kalea II (PAS-067/024)

Baserritarrekin harreman zuzena zuten. "Zurruna" kaletik gora Jaizkibelera igotzen zen eta handik pasatzen ziren baserritarrak eta baita polizia ere.

1.243. Donibaneko lehenengo telebistak (PAS-067/025)

Umea zenean, garbitokira joaten zen amarekin, baina gero garbigailuak sartu zituzten etxeetan. Lehenengo, bere lagun Maria Kristinaren etxean izan zen eta haurrak begira egoten ziren. Arropa garbitzen zuen baina ez zion ura kentzen. Telebista ikustera ere, Maria Kristinaren etxera joaten zen. Donibaneko lehenengo telebistan, Meipi auzoko taberna batean ipini zuten.

1.244. Zinema, arrantzaleen kofradian (PAS-067/026)

Donibaneko zinema, arrantzaleen kofradia antolatzen zen. Bost pezetarekin filma ikusten zuten eta goxokiak jaten zituzten. Umetako eta gaztetako oroitzapen onak ditu, nahiz eta etxean senide batzuk gaixorik egon.

1.245. Txistua jotzen ikasi zuen Itsasmendi elkartean (PAS-067/027)

Itsasmendi elkartea sortu zen Gemak 15-16 urte zituenean. Ikastaroak antolatzen ziren eta bertan txistua jotzen ikasi zuen. Pieza batzuk ikasi eta jaietan diana jotzen ibiltzen ziren. Itsasmendiko 50. urteurrenean, musikari guztiak bildu ziren.

1.246. Donibaneko lehenengo ikastola (PAS-067/029)

60ko hamarkadan, ikastolaren mugimendua hasi zen Donibanen, Bonantza elizaren lokal batean. Rosarito Folgado izan zen lehenengo irakaslea. Gemaren anaia txikia ez zuten bertan matrikulatu, oraindik ezjakintasun handia zegoelako.

1.247. Donibaneko ikastolako lehenengo irakasleetako bat (PAS-067/030)

Ikastolaren lehenengo lokala ireki eta gero, "Aterpea" lokalean klaseak ematen hasi zen Lurdes Sistiaga irakaslea. Itsasmendi elkarteko kideek ere, proiektuan lagundu nahi zuten, lokal bat erosi zuten eta goiko aldean ikastolako gela berriak sortu zituzten eta bertan hasi zen Gema lanean irakasle bezala, 1972-1973 ikasturtean. 20 ikasle zituen, baina hurrengo urtean 40 izan ziren.

1.248. Oreretako ikastolan, irakasle izateko formatzen (PAS-067/031)

Donibaneko ikastolan irakasle bezala hasi zenean, Gemak ez zuen titulurik. Ez zioten ordaintzen, baina mesedez formatzeko eskatu zioten eta bi hilabetez egon zen Oreretako ikastolan ikasten. Kaputxinoek komentuak gela batzuk utzi zituen ikastoletako irakasleak formatzeko.

1.249. Elbira Zipitriaren metodologia (PAS-067/032)

Elbira Zipitriaren metodologia ikasi zuten lehenengo ikastolako irakasleek.

1.250. Gau eskolak eta euskararen alfabetizazioa (PAS-067/033)

Ikastolan klaseak emateko materialak, irakasleek prestatzen zituzten eta beraien artean partekatzen zituzten. Ikastolan irakasle izateko eskatu zioten euskaraz zekielako, baina Gema ez zegoen alfabetatuta eta Oñate atibiaren liburuxkak erabili zituen horretarako. Pixkanaka-pixkanaka joan zen euskara batuan alfabetatzen, gero klaseak eman ahal izateko.

1.251. Ikuskatzailearen aurrean, tituludun irakasleak bakarrik (PAS-067/034)

Gau eskolan euskara batuan alfabetatzen zenbiltzanak, ikastolan irakasle-laguntzaile bezala hasi ziren lanean. Ezin ziren irakasleak izan, ez zutelako titulorik. Ikuskatzailea joaten zenean, tituludun irakasleak ateratzen ziren harekin hitz egitera. Behin, ikuskatzaile batekin gertatu zitzaiona kontatzen du.

1.252. Ikastolan, guardia zibilarekin arazoak (PAS-067/035)

Herriko festa batzuetan, ikastolak errepresioaren aurkako karroza bat atera zuen eta guardia zibila joan zen gero ikastolara, ateratako haurrak eta irakasleak identifikatzera.

1.253. Rosarito Folgado, Donibaneko ikastolako lehenengo irakaslea (PAS-067/036)

Ikastolako lehenengo irakaslea Rosarito Folgado izan zen, karabinero edo mugazain baten alaba. Lourdes Sistiaga eta Miren Etxezarreta izan ziren hurrengo irakasleak.

1.254. Pasaia-Lezoko ikastolaren sorrera (PAS-067/037)

Pasai Donibanen, Antxon, San Pedron eta Trintxerpen bazeuden ikastolako gelak, eta momentu batean, Lezoko gelek in batera, ikastola sortu zuten. Herri-ekimen bat bihurtu zen eta herriak asko inplikatu ziren ikastolaren sorreran eta antolakuntzan. Ikastolako ikasleen gurasoak asko inplikatu ziren, adibidez irteeretan, tailerretan...

1.255. Pasai Antxo eta San Pedroko ikastolako lehenengo irakasleak (PAS-067/038)

Pasai Antxoko ikastolako lehenengo irakasleak, Kontxita Beitia eta Nekane Azurmendi izan ziren. Lehenengo etxebizitzetan ematen zituzten klaseak. Kontxita Beitiak, Elbira Zipitriaren metodologia erabiltzen zuen. Pasai San Pedron, Pilartxo Arratibel izan zen ikastolaren aitzindaria eta lehenengo irakaslea. Pasaia-ko ikastolak sortuta, bilerak egin zituzten denen artean eta ikastola amankomun bat sortzea erabaki zuten, Lezorekin batera.

1.256. Donibaneko ikastolako lokal ezberdinak (PAS-067/040)

Donibaneko hasierako ikastolan, hainbat tokitan eman ditu klaseak Gemak: Itsasmendiko lokalean, elizako gela batzuetan eta Lurdes Txiki kaleko bi sototan. Haur-hezkuntzan zortzi urte eman zituen, baina ikasleen hastapena ikusi nahi zuenez, lizeo berrira pasatu zen irakastera. Oso etapa polita dela kontatzen du.

1.257. Pasaia-Lezo lizeoaren kokapena (PAS-067/041)

Pasaia-Lezo Lizeoaren proiektua gauzatzeko eta eraikina egiteko, espazio asko behar zen eta Donibaneko Gaztelutxo ingurua proposatu zen horretarako. Aurrekontu asko behar izan zuten ikastola eraikitzeko eta festetan eta bestelakoetan, irakasleak, gurasoak eta laguntzaileak, tabernak jartzen zituzten, ogitartekoak saldu...

1.258. Bergarako UNED-en ikastolako irakasle titulua ateratzen I (PAS-067/043)

Pasaia-Lezoko lizeoa sortu zenean, maila bakoitzeko gela bat zegoen (gaur egun, 4 gela daude). Irakasle asko zeuden titulu gabe eta orduan, ikasketak burutzeko proiektu bat atera zen. Eskoriatzako irakasle-eskolan zegoen Fernando Etxeberria izan zen proiektuaren sortzailea, eta helburua, ikastolako irakasleek titulua lortzeko magisteritzako ikasketa batzuk sortzea izan zen. Klaseak, Bergarako UNED-en jasotzen zituzten.

1.259. Bergarako UNED-en ikastolako irakasle titulua ateratzen II (PAS-067/044)

Ikastolako irakasleentzat magisteritzako titulua ateratzeko, Gemak 25 urtetik gorakoentzako unibertsitaterako sarrerako azterketa egin behar izan zuen. Magisteritzako klaseak asteburuan eta udako oporretan izaten ziren, Bergarako UNED-en.

1.260. Bergarako UNED-en ikastolako irakasle titulua ateratzen III (PAS-067/045)

Ikastolako irakasle-titulua ateratzen ibili zenean, Gema ama zen. Hala ere, oso motibatuta zeuden eta gai izan ziren aurrera eramateko. Bergaran, Maria Lagundiaren komentuan lo egiten zuten eta elkarte gastronomikoetan afaria prestatzen zieten. Hiru urtean atera zuten titulua.

1.261. Pasaia-Lezo lizeoko lehenengo irakasleak (PAS-067/046)

Pasaia-Lezo lizeoko lehenengo irakasle guztiak gazteak ziren eta gaur egun erretiratuak daude: Emi Mujika, Agustin Migeltorena, Jon Alvarez, Xabier Portugal, Gema Sistiaga... Markos Sistiaga idazkaritzan zegoen.

1.262. Gurasoak baserritarrak (PAS-068/002)

Ama Hondarribikoa zuen, Lixinabar baserrikoa. Aita, berriz, San Juango Arrango baserrikoa. Aitaren arreba bat 24 urterekin hil zen lanpernak batzen zebilela.

1.263. Lanpernetan ibiltzea arriskutsua zen (PAS-068/003)

Lanpernak biltzea oso arriskutsua zen. Zuloetan egoten dira eta adi egon behar da mareekin eta olatuekin. Kostakoa izan arren, ez zaio asko gustatzen arraina. Ahizpa batek esaten zion kaletarra ematen zuela, eta ez baserrikoa.

1.264. Hamar senidetan gazteena (PAS-068/005)

Gurasoak ezkondu zirenean, ama Arrokaundieta baserrira joan zen bizitzera. Bi anai eramane zituen berarekin eta ezkondu arte elkarrekin bizi izan ziren. Hamar senidetan gazteena da Mari Karmen. Ezagutu ez zituen neba bikiak izan zituen eta urtero haien heriotza egunean mezetara bidaltzen zituen amak gainontzeko seme-alabak.

1.265. San Juango Don Enrique Arzak medikua (PAS-068/006)

Arrokaundieta baserrian jaio zen, medikua Don Enrique Arzak zela. Anaia zaharra soldaduskatik gaixorik bueltatu zen eta medikuarengana joaten zen Mari Karmen botiken bila. Medikua familiak hitz egiten du.

1.266. Maizterrak Arrokaundietan (PAS-068/008)

Arrokaundietan maizterrak ziren. Haize bortitz baten ondorioz trenkada baat erori zen eta baserriaren jabeak ez zuenez konpondu nahi izan eta Eguzkialdera bizitzera joan ziren. Abereak Arrokaundietan mantendu zituzten.

1.267. Arrokaundietako bizimodua (PAS-068/009)

Familia handia zuten eta otorduetan beti potajea jaten zuten. Baserriko nagusia haiengana joaten zen askotan bazkaltzera ere. Ez zuten ur-korronterik eta iturritik hartzen zuten edateko ura eta garbitokian garbitzen zituzten arropak. Eguzkialdeara bizitzera aldatu zirenean, Mari Karmenen lana zen ura etxera eramatea iturritik.

1.268. Eguzkialdea etxean, ez argiritik eta ez urik (PAS-068/010)

Eguzkialde etxean hasieran ez zuten ur-korronterik. Arrondo auzoraino ura eramane zuten eta bertara joaten ziren ur bila eta arropa garbitzera. Geroago heldu zen ura etxeetara. Argirik ere ez zuten.

1.269. Elizan familia bakoitzak bere hildakoentzako kandelak kaxa (PAS-068/011)

Argizaiolak hildakoentzat erabiltzen ziren. Elizan, familia bakoitzak bere hildakoen kandelak jartzeko leku bat zuen. Hasiera batean piztuta mantentzen zen kandela hura.

1.270. Puy familiarekin harreman handia (PAS-068/012)

Legorburu izan arren bere abizena, "Arrokaundietakoak" bezala ezagutzen dituzte San Juanen. Puy familiarekin harreman handia izan dute beti eta janaria trukatzeko ziren.

1.271. Imanol Puyrekin izandako azken elkarrizketa (PAS-068/013)

Imanol Puy zendu aurretik berarekin izandako azken elkarrizketa gogoratzen du. Umetako kontuez aritu ziren.

1.272. Arrokaundietan garia ereiten zen (PAS-068/016)

Arrokaundietan garia ereiten zuten eta baita sagardoa egin ere. Inguruko baserrietan ez du uste garirik ereiten zenik. Ogia egiten zuten. Trukea.

1.273. Anai-arreba guztiak baserritik kanpo lanean (PAS-068/017)

Gurasoak baserritik bizi ziren baina gero anai-arreba guztiek baserritik kanpo egin dute lan, arotzerian, igeltseritzan, itsasontzietan... Baserrian ere lan handia egindakoak dira denak. Etxeko egurra nola garbitzen zuen astean behin.

1.274. Arropak garbitzera garbitokira; latsariak (PAS-068/018)

Ura ekartzen zuen eta koloretako arropa garbitzen zuen garbitokian, Bonantza gainean dago garbitokia eta Trintxerpetik ere jendea joaten zen bertara arropa garbitzera. Garbitokian kontuak kontatzen eta kantatzen ibiltzen ziren. Emakume batzuk lanbide moduan zuten arropak garbitzea.

1.275. Arropak buru gainean eramaten zituzten (PAS-068/019)

Mari Karmenek kolorezko arropak garbitzen zituen. Alkandorak garbitzea zaila zen eta amak poltsiko barruak ondo garbitzeko esaten zion. BEstela, berriz garbitu behar zituen. Arropak buru gainean eramaten zituzten.

1.276. Bertsoak ikasten ur bila zihoan bitartean (PAS-068/020)

Ur bila joatea zen bere etxeko zereginetako bat eta bidean bertsoak ikasten zituen. Bertsolari famatuen bertsoak ez ezik, Altzako familia bateko seme baten bertsoak ere bazekizkien.

1.277. Libururik ez eta sendagaien paperak irakurtzen zituen (PAS-068/022)

Bertsopaperak Errenteriako Xenpelar liburu-dendan saltzen zituzten. Umetan irakurtzea asko gustatzen zitzaion Mari Karmeni eta libururik ez zuenez, botiken paperak irakurtzen zituen.

1.278. Sei birigarro zituzten etxean (PAS-068/024)

Anaiek birigarroak harrapatzen zituzten eta etxean sei izan zituzten. Behin, Donostiako dentista batek birigarroak kantatzen ikusi eta bat eraman zuen. Donostian, ordea, txoriak ez zuen kantatzen. Mari Karmen txoriaren bila joan zen eta San Pedrotik San Juanera txalupan igarotzen zebilela hasi zen berriz kantuan birigarroa.

1.279. Akerra kartzelan sartu zutenekoa (PAS-068/025)

Gaur egun ez dira ikusten garai bateko kilkerak, tximeletak, ipurtargiak... Behin etxeko akerrak ihes egin zuen eta Llanos familiaren lorategian loreak eta zuhaitzak jaten harrapatu zuten. Kartzelan sartu zuten akerra eta Mari Karmen haren bila joan zen. Bertan zegoen usainaz gogoratzen da.

1.280. Odolkia banatzearen ordainetan jasotzen zuena (PAS-068/026)

Odolkia urtero egiten zuten baserrian eta Mari Karmen ibiltzen zen auzokoan artean banatzen. Ordainetan, beste zerbaitek jasotzen zuen.

1.281. "Casera patatera" esaten zieten (PAS-068/027)

Viteriren eskolan ikasi zuen. Egutero lau aldiz egiten zuen bidea eskolara joateko. Galarazita zegoen euskaraz hitz egitea. Bere lagun Juanita eta Mari Karmenekin gertatutako anekdota bat kontatzen du. "Casera patatera" esaten zieten kaleko umeek.

1.282. Señorita Elena maistra (PAS-068/028)

Neskek eta mutilek banatuta ikasten zuten. Maisu eta maistra, senar-emazte katalan batzuk ziren. Irakasle onak ziren. Señorita Elenarekin izandako pasadizo bat kontatzen du.

1.283. Jostea asko gustatzen zitzaion (PAS-068/029)

Hamalau urtera arte ibili zen eskolan. Denetik ikasten zuten. Brodatzen ikasten ibili zen mojetan ere. Ahizpa batek zeukan etxeko jostunaren funtzioa.

1.284. Astoaren bila joatea bere lana zen (PAS-068/030)

Baratzean ez da ibili, anai asko zituelako. Barazkiak jasotzen zituen. Astoaren bila joatea bere lana izaten zen.

1.285. Umetako jolasak I (PAS-068/032)

Umetako "hay luz" eta "amarrotan" jolasak nola jolasten ziren kontatzen du. "Tatari" jolasean ezkutatu egiten ziren.

1.286. Umetako jolasak II (PAS-068/034)

Bonantza auzoko Juana Bautista oso ona zen pilotan. Berak ezkerreko eskuarekin jokatzeko nahita eta irabazi egiten zien. Beste joko batzuetara ere jolasten zuten: tabak, kanikak...

1.287. San Juango merkatuan saltzen (PAS-068/036)

Eskola utzi zuenean, barazkiak eta frutak banatzen hasi zen. San Juango plazara joaten zen saltzera eta normalean familia berdinek baserritar berdinei erosten zieten. Esnea ere saltzen zuten. Anaiek etxetik kanpo ere lan egiten zutenez, ezkontzen joan ziren heinean behiak saldu zituzten.

1.288. Mezetara ez joateko trikimailuak (PAS-068/038)

Ama elizkoia zuen. Telebista etxera heldu zenean, gotzaina agertzen zen bakoitzean guztiak sukaldetik kanpo bidaltzen zituen. Amak mezetara bidaltzen zion eta berak tranpa egiten zuen ez joateko.

1.289. Misioetarako grina nola piztu zitzaion I (PAS-068/039)

Mari Karmen misioetan ibili da. Umetan ez zen elizkoia edo fededuna, baina gaztetan beste batzuk gaizki bizi zirela ikustean, laguntzeko grina piztu zitzaion.

1.290. Misioetarako grina nola piztu zitzaion II (PAS-068/040)

"Salamankara" eta "Bautista Basterretxe" abestiak kantatzen ditu. Elizatik antolatutako txango batean, beste pertsona batean miseria ikusi zuen eta horren gainean ez pentsatzeko, horrelako kantuak abesten zituen autobusean. Txangoaren hurrengo egunean Don Diego abadearengana joan zen eta misioetara joan nahi zuela esan zion.

1.291. Moja sekularra izateko prestatzen I (PAS-068/041)

Abadeari esan zionean misioetan joan nahi zuela, honek lehenengo moja izan behar zuela esan zion. Mari Karmenek ez zuen moja izan nahi baina

Donostiako "Adoratrices"-era joan zen, mojen bizitza nolakoa zen ikusteko. Hogei urterekin amak esan zion lanean jarri behar zuela eta Mari Karmenek moja izan nahi zuela esan zion. Moja izateko prestatu zen bitartean, arrandegi batean lan egiten zuen.

1.292. Moja sekularra izateko prestatzen II (PAS-068/042)

Moja sekularra izateko prestakuntzan, denboraldi bat eman zuen Saturrarango seminarioan. Seminaristekin hitz egitea galarazita zuten.

1.293. Markina Eskola Laboralean lanean (PAS-068/043)

Luz Urbietak, Don Joaquin Goikoetxeaundia abadearen taldera eraman zuen Gasteizera. Moja izateko prestaketa beste modu batekoa zen han, Mari Karmenen gustukoagoa. Handik Markinara joan zen Eskola Laboralean laguntzera. Eskolaren eta elizaren inguruan talde asko sortu ziren. Bermeoko 29 mutil zeuden barnetegian. Mari Karmenek egiten zituen lanak aipatzen ditu.

1.294. Markinako Eskola Laborala (PAS-068/044)

Igande goizetan sukaldean bi bakarrik gelditzen ziren eta probak egiten ibiltzen ziren. Batzuetan janaria bota behar izaten zuten. Eskola Laboralean denetarik zegoen: zinema, giza-zentroa... Oso giro ona zegoen Markinan eta denen artean laguntzen ziren. Markinan urte asko eman zituen eta bizkaitarra sentitu izan da askotan.

1.295. Angolara misioetan (PAS-068/045)

Angolara misioetara joateko prestaketak egin zituen Madrilén eta gero bi urtez Lisboan. Portugesa eta tropikoetako medikuntzako gaiak ikasi zituen bertan. Angolara misioetan joateko hainbat betekizun bete behar zituen. Garrantzitsuena moja izatea zen eta Mari Karmen sekularra zen. Uniforme moduko batekin ibili behar izaten zuten. Gero uniformeak kendu zituen.

1.296. Misioetan eta bizitzan garrantzitsuena taldea egitea zen (PAS-068/047)

Angolara iritsi eta bi egunera 13 neska angolar heldu ziren eta Mari Karmen izan zen haien arduraduna. Hortz ederrak zituztela gogoratzen du. Mari Karmenek esan zien berak dena barkatzen zuela, gezurra ez ezik. Nesketako batek esan zion, hor ez beltzek ezta zuriek ez zutela egirik esaten. Talde polita egin zutela gogoratzen du.

1.297. Misioetako lantaldeetako dinaminak (PAS-068/048)

Misioetako lantaldean, lanak banatu zituzten eta hamabost egunetik behin aldatu egiten ziren. Lantalde barruko dinamika nolakoa zen kontatzen du.

1.298. Angolako bitxien lapurreta Markinako Laboralean (PAS-068/050)

Markinan Laboralean lanean zegoela, Angolako neskek oparitu zituzten bitxiak lapurtu zituzten. Mari Karmenek ikasle guztiei eskutitz bat idatzi zien eta 15 mutilek gauzak bueltatu zituzten. Mutiletako batek, aurretik izan zuten tirabira batengatik egin zuela esan zion.

1.299. Angolan erditzeetan laguntzen (PAS-068/052)

Angolan misioetan ibili zenean, aurretik inoiz egin ez zituen gauzak egin behar izan zituen eta irudimena erabili behar izaten zuten. Erditzeak nolakoak izaten ziren eta berak nola lagundu zuen kontatzen du.

1.300. Misioetan paludismoaz gaixotu zen (PAS-068/053)

Angolan misioetan zegoela paludismoaz gaixotu zen eta bueltatu behar izan zuen. Urtero, bero asko dagoenean paludismoaren sintomak izaten ditu. Angolatik Markinara bueltatu zen barnetegira lanera.

1.301. Emakume baserritarrentzat osasun-arreta (PAS-068/055)

Baserriko emakumeak gutxitan jaisten ziren herrira txertoak hartzera edota tentsioa neurtzera. Mari Karmen hasi zen baserriz-baserri emakume hauei atenditzen.

1.302. Gasteizen formatzen jarraitu zuen (PAS-068/057)

Markinako lanaz nekatuta, Gasteizera joan zen familia-prestakuntzako ikastaro bat egitera eta bide batez euskarazko EGA ziurtagiria eta gerontologiako beste ikastaro bat ere atera zuen. Beti elizaren bueltan ibili izan da Mari Karmen, katekesia ematen eta

1.303. Sekularren rola elizako ospakizunetan (PAS-068/059)

Kontzilioaren ondoren, Bizkaiko elizbarrutiak erabaki zuen abaderik ez zegoen elizetan sekularrek meza eman zezaketela. Apatamonasterion ibili zen ospakizunak antolatzen (ez mezak ematen) Mari Karmen. Hala ere, hilean behin abadea joaten zen eta meza ematen zuen. Gainontzekoak laguntzaileak ziren.

1.304. Emakume sekular erretiratuak Gasteizen (PAS-068/060)

Erretiratu ondoren Gasteizera joan zen bizitzera bere talde sekularreko beste emakume batzuekin. Laguntzaile bezala lanean jarraitzen dute.

1.305. San Juango herriari esker ona (PAS-068/062)

Misioetako lanak eta laguntzaile bezala egindako lanari esker asko ikasi du. San Juango herriari ere esker handia zor dio.

1.306. Ama, neskame izatetik jatetxearen nagusi izatera (PAS-069/002)

Pasai Donibaneko Camara etxean jaio zen. Amona Lakuntzakoa zen eta neskame bezala hasi zen lanean Camara jatetxean. Bertako jabearekin ezkondu zen eta bera ere nagusia izatera pasa zen. Aitona Burgosekoa zen.

1.307. Aita, Terranovan arrantzale (PAS-069/003)

Aita Galdakaakoa zen eta bakailaoa arrantzatzen zuen Pasai Donibanen zegoen Pysbe enpresarentzat. Galerna ontziko bigarren ofiziala zen. Behin, Terranovatik bueltan, Camara jatetxera joan zen bazkaltzera eta han nagusien alaba ezagutu zuen; herrian geratu zen bizitzen eta ezkondu egin ziren.

1.308. Pasai Donibaneko Camara jatetxea (PAS-069/004)

Aiton-amonak eta ama ibiltzen ziren jatetxean lanean. Amona sukaldean, eta besteak jatetxean. Familiako beste senide batzuk ere egiten zuten bertan lan.

1.309. Sei urterekin Galiziara bizitzera, aitaren lana zela eta (PAS-069/005)

Aitak, 8 hilabete pasatzen zituen Terranovan. Itsasoko lana utzi eta lehorreko lanetan hasi zen Galiziako Baiona herrian, ontziak prestatzen (mantenua, garbiketak, janaria erosten, antolakuntza...) eta familia guztia bertara mugitu zen. Felipek sei urte zituen eta bertan 19 urte zituela bueltatu zen Pasaiara. Aste Santuan, ama Pasai Donibaneta bueltatzen zen jatetxean lan egitera eta seme-alabek udako 2 hilabeteak ere bertan pasatzen zituzten.

1.310. Camara jatetxea neguan itxi egiten zen (PAS-069/006)

Camara jatetxea neguan itxi egiten zenez, amonak eta herriko beste emakume batek, beraiekin pasatzen zituzten hilabete batzuk Galizian.

1.311. Galiziatik Pasai Donibanera 19 urterekin (PAS-069/007)

Galiziatik bueltatu ziren, gurasoek Camara jatetxeko ardura hartu zutenean. Gaur egun ere jatetxe familiarra da.

1.312. Aitaren ontzia bueltatzen zeneko oroitzapenak (PAS-069/008)

Aitaren ontzia Pasai Donibanera bueltatzen zeneko oroitzapenak kontatzen ditu. Gero, arraina nola deskargatzen zuten ikustera ere joaten ziren. Hala ere, aitarekin zuen harremana ez du gogoratzen.

1.313. Udak Jaizkibeleko Lete baserrian pasatzen zituen (PAS-069/009)

Camara jatetxean udan lan asko izaten zutenez, etxeko txikienak, Felipe eta Miguel bere anaia, Jaizkibelen zegoen Lete baserrira eramaten zituzten. Bertan igarotzen zituzten udako 2 hilabete. Feliperentzat munduko lekurik ederrena zen, eta bertan kokatzen du umetako oroitzapen garrantzitsuenetako bat. Gaur egun, baserria ez da existitzen eta pena ematen dio.

1.314. Jaizkibeleko Lete baserria (PAS-069/010)

Lete baserrian pasatzen zituen udak. Familiako etxekoandrea Agustina deitzen zen. Egunero Pasai Donibanera jaisten zen esnea eta barazkiak saltzera. Oroitzapen ugari ditu. Hamalau urtera arte joaten ziren Letera udak pasatzera. Gero, jatetxean lagundu behar izan zuten.

1.315. Jatetxean, Pasaia eta inguruko produktuak (PAS-069/012)

Camara jatetxean arraina beti inguruko arrantzaleetatik lortu dute. Orain dela gutxi arte, jatetxean prestatzen diren txipiroiak, herriko batek bokanan bertan harrapatutakoak izan dira.

1.316. Belaontzian Mallorcatik Hondarribira (PAS-069/014)

Lagun batekin Mallorcatik Euskal Herrira etorri zen belaontzian.

1.317. Garai batean, jatetxeko jeneroa inguruko baserrietatik (PAS-069/016)

Camara jatetxeko jenero guztia Pasaiaetik edo ingurutik erosten zuten. Gaur egun gauzak aldatu dira, inguruko baserriak desagertu egin direlako. Askotan Donostiara joaten ziren enkarguak egitera.

1.318. Camara jatetxearen ondoan bainatzen (PAS-069/017)

Garai batean, denbora libre gehiago zuten. Gaztetan, Camara ondoan bainatzen ziren.

1.319. Almejak hartzen marea baxuan (PAS-069/018)

Pantxeke osaba almejak biltzen ibiltzen zen. Camara jatetxe aurrean marea jeisten zenean, almejak eta arrantzarako zizareak hartzen zituen.

1.320. Frantsesek botatako txanponak uretan harrapatzen (PAS-069/019)

Garai batean, frantses asko joaten ziren Camara jatetxera. Frantsesek txanponak botatzen zituzten uretara, eta Felipe eta gainotzeko haurrak txanponak harrapatzen saiatzen ziren. Asko galdu egiten zirenez, marea jaisten zenean, bertara joaten ziren txanpon horiek berreskuratzen. Pasai Donibaneko mutikoen diru-iturri garrantzitsua zen. 'Tximista' deitzen zioten mutil bat zen diru gehien lortzen zuena. Txanponak botatzeko erabiltzen zuten esaldia.

1.321. Umetako eta gaztetako jokuak eta kirolak (PAS-069/022)

Pasai Dobinanen familia guztiek zeukaten txalupa. Udan, gazteek txaklupak hartu eta estropadak egiten zituzten. Gaztetan arraunean, igerian, pilotan eta "barrene" jokuan ibiltzen ziren plazan. Hemeretzi urterekin hasi zen mendian ibiltzen.

1.322. Arrauna oso garrantzitsua izan da Pasai Donibanen (PAS-069/023)

Arrauna oso garrantzitsua izan da Pasai Donibanen, ez bakarrik estropadekin. Arrauna dotore egiten zela kontatzen du Felipek.

1.323. Traineruak non gordetzen ziren (PAS-069/024)

Donibanetarrek odolean sartuta dituzte estropadak. Arraunlariak, idoloak ziren. Garai bateko traineruak egurrezkoak ziren. Traineruak Bonantza elizatik aurrerago dagoen etxe baten azpikaldean gordetzen ziren eta estropaden aurretik bertara joaten ziren, traineruak nola prestatzen ziren ikustera.

1.324. Pasai Donibaneko traineruaren garaipenen ospakizunak (PAS-069/025)

Estropada garaiko oroitzapenak. Amak eta izebak, beti negar egiten zuten, Pasai Donibanek galdu edo irabazi. Itsasontzi txikian joaten ziren estropadak

ikustera. Garai batean, itsasoz eramaten zituzten traineruak Donostiara, Kontxako banderara. Pasai Donibanek irabaziz gero, musika-banda ateratzen da eta ordura arte irabazitako bandera guztiak ere ateratzen ziren. Emakumeen taldeak bandera asko irabazi ditu eta ospakin berbera egiten da.

1.325. Etxe askok txerria zuten eta handiena, Camara jatetxekoa (PAS-069/027)

Garai batean, Pasai Donibanen etxe askotan txerria izaten zuten. Camara jatetxean ere bazuten, eta oraindik "txerritokia" deitzen diote leku horri. Txerririk handiena Camara-koa zen. San Martinen, kaletik eramaten zen txerria hiltegiaraino.

1.326. Saregileak Pasai Donibanen (PAS-069/028)

Saregileak emakumezkoak izaten ziren gazteluko bidean egoten ziren.

1.327. Antzinako Pasai Donibaneren irudia (PAS-069/030)

Herri guztian zehar, boila dauden bezala, pabak egoten ziren. Bertan txalupak eta sareak lotzen ziren. San Pedron ere berdin egiten zen.

1.328. Ikasketak gaztelaniaz (PAS-071/002)

Anunciata moja ikastetxean egin zituen ikasketak, Batxiler laborala barne, dena gaztelaniaz. 17 urte zituenean, euskararekiko mugimendua hasita zegoen eta Nekane Auzmendiaren etxera joaten ziren euskara ikastera.

1.329. Norberaren euskarekiko kontzientzia piztu zitzaion (PAS-071/004)

Senideen artean, umetan euskaraz hitz egiten zuten. Eskolan hasi zirenean, gaztelaniaz hitz egitera pasatu ziren. Gaztea zela, giro euskalduna berpizten hasi zen Antxon eta ekimen askotan sartuta zegoen Jone.

1.330. Nekane Auzmendi andereñoa (PAS-071/006)

Nekane Auzmendi andereñoak euskarazko klasean ematen zituen Blas de Lezo kalean. Kontxita Beitia zen bere aurreko andereñoa.

1.331. Kontxita Beitiaren ikastola (PAS-071/012)

Kontxita Beitia, 1960an ikastola sortu zuen. Gaur egun Eskalantegi kalea den etxebizitza bateko logelan ematen zituen klaseak.

1.332. Pasaiako ikastolako irakasle moduan nola hasi zen (PAS-071/013)

Nekane Auzmendi, Idiazabaletik heldu zen Pasaiara izeba batekin. Blas de Lezo kalean ematen zituen klaseak, bere etxean. Majisteritzako ikasketak bukatu gabe zituela, Pasaian klaseak emateko eskatu zioten. Klaseak nolakoak ziren.

1.333. Pasaiako Ibaindoko ikastola (PAS-071/014)

Xabier Urtazunen familiak, Pasaian Ibaiondoko ikastola aurrera eramateko lokala utzi zuen. Errekrea eraikineko goiko partean egiten zen, baina beti ez ziren igotzen.

1.334. Pasaia-Lezo lizeoaren sorrera (PAS-071/016)

Lehenengo udal demokratikoekin batera hasi zen Pasaia-Lezo lizeoaren proiektua ere. Lizeoaren helburua, Pasaia eta Lezoko ikasle guztiak elkartzea zen.

1.335. Pasaia Antxon, ikastola sakabanatuta (PAS-071/019)

Jone, Pasaia Antxoko ikastolan lanean hasi zenean, Benita eta Juliana ziren irakasleak. Lokal ezberdinak zeuden: batzokian, Ibaiondon, Villa Juanitako hartzaindegia...

1.336. Berauneko ikastolan, ikasleak elkartuta (PAS-071/020)

Lizeora joan baino lehen, badiako herri guztietako haurrak elkartu zituzten Beraunen eta gero San Pedron. Autobusek batzen zituzten haurrak. OHO-ko ikasleak ere zeuden Beraunen.

1.337. Nekane Auzmendirekin euskarazko klaseak jasotzen (PAS-071/021)

Eskolara joan aurretik, Nekane Auzmendiren etxera joaten zen euskarazko klaseak jasotzera.

1.338. Elizaren laguntza ikastolen sorreran (PAS-071/022)

Pasai Antxoko ikastola, elizaren babespean garatu zen. Nomina batzuetan, apaizaren izena agertzen zen.

1.339. Pasai Antxon gaztelania zen nagusi (PAS-071/025)

Pasai Antxoko giroa 60. hamarkadetan oso erdalduna zen. Kanpotik lanera etorritako jende asko zegoen eta gaztelania zen nagusi.

1.340. Ikasketak bukatu baino lehen hasi zen ikastolan lanean (PAS-071/028)

Majisteritza ikasi zuen haurrak asko gustatzen zitzaizkiolako. Ikasketak amaitu aurretik eskaini zioten Pasaian klaseak ematea. Berak argi zuen klaseak euskaraz eman nahi zituela. Senarrak ez zekien euskaraz eta ikasi zuen.

1.341. Pasaia Antxoko hasierako andereñoetako bat (PAS-071/031)

Pasai Antxoko ikastolan hasi zen lanean, Celia izeneko azkoitiar batekin. Herriz-herri egiten zituzten bilerak. Programazioak sortzen zituzten. Ikasturtea bukatzen zenean, ikastaroak egitera joaten ziren.

1.342. San Pedroko Pilartxo Arratibel andereñoa (PAS-071/033)

San Pedroko ikastolako "alma mater" Pilartxo Arratibel izan zen. Karmele Laka izeneko beste irakasle bat ere gogoratzen du bertan.

1.343. San Juaneko ikastolan lan egitea errazagoa zen (PAS-071/037)

San Juaneko ikastolara lanera joan zenean, hizkuntzaren erabileraren aldetik ezberdintasun handia nabaritu zuen Pasai Antxorekiko.

1.344. Ikastola txiki guztiak elkartzea oso positiboa izan zen (PAS-071/038)

Ikastola txiki guztiak elkartzea oso lan positiboa izan zela uste du Jonek. Lizeoa sortzeko, dirua jarri zuten familiek. Gurasoek, "Gaztelutxo" elkartearen sortu zuten.

1.345. Lizeoa eraikitzeko baimenak (PAS-071/040)

Senarra udalean zinegotzi izan zen ikastolaren alde lan egiteko. Lizeoa eraikitzeko baimena, Pasaiaiko Udalak eman behar zuen.

1.346. Euskararen aldeko militantzia (PAS-071/044)

Euskararen inguruan eta euskararen alde bizi izan dira beti.

1.347. Andereñoak oso aktiboak ziren (PAS-071/050)

Garai bateko irakasleak oso aktiboak ziren. Naturarekin kontaktu handia zuten, ibilaldi asko egiten zituzten haurrak besoetan hartuta, asko kantatzen zuten...

1.348. Pasaiaiko andereñoak gogoratzen (PAS-071/051)

Pilartxo Arratibel, Gurutze Urresti eta Margari Irioigien irakasleak gogoratzen ditu.

1.349. Ikastolako taldea familia bat bezalakoa zen (PAS-071/052)

Ikastola familia bat bezalakoa zen. Momentu oso onak pasatu dituzte baina eztabaida handiak ere egon dira. Gurasoen prestutasunaz, inplikazioaz eta kofidantzaz hitz egiten du.

1.350. Euskararen erabilera gaur egun baxua da (PAS-071/054)

Gaur egun, haur gehiagok dakite euskaraz baina erabilera ez da altua.

1.351. Nafarroatik Pasai Antxora bizitzera (PAS-072/002)

Don Boscon ikasi zuen eta gero majisteritza Donostian. Gurasoak, Baztan ingurutik joan ziren Pasaiara bizitzera. Aitak, Luzuriaga lantegian lan egin zuen.

1.352. Pasai Antxon ez zen euskararik entzuten (PAS-072/004)

1970ean iritsi zen Agustin Pasai Antxora eta ez zuen euskararik entzuten kalean. Gurasoak nahiz eta euskaldunak izan eta nahiz etxean euskaraz hitz egin, kalean eta eskolan ez zuen euskaldunik ezagutzen. Antxon, lanera kanpotik etorritako jende asko zegoen eta Lezo edo Donibanerekin alderatuz, ezberdintasun handiak zeuden hizkuntzan, janzkeran...

1.353. Euskaldun izatearen kontzientzia (PAS-072/006)

Familia euskalduna zuen baina ez euskaltzalea. Nafarroatik Pasaiara joandako jende asko, geroago euskaltzaletu zen. Gogoan du, 14-15 urterekin, politikan sartuta zegoen anaia nagusiak esan ziola hortik aurrera beti euskaraz hitz egingo zutela. Garai hartan Agustinek gaztelaniaz hitz egiten zuen lagun askorekin, gaur egun euskaraz egiten du.

1.354. Gau eskolako irakasle hamabost urterekin (PAS-072/008)

Kaputxinoen auzo elkartekoek euskarazko klaseak jaso nahi zituzten baina ez zuten irakaslerik. Agustinenagana joan ziren ea berak emango zituzten galdezka. 15-16 urte zituen.

1.355. Majisteritzan euskaraz alfabetatzen (PAS-072/009)

Majisteritzako ikasketak hasi zituenean, euskaraz zekiten ikasleen ardura izan zen gainontzekoei erakustea. Horretarako, Koldo Mitxelenaren "Idazlan autatuak" erabili zuten. Geroago, Bergarako UNED-era joan zen euskarazko titulua ateratzera.

1.356. Pasai Antxoko euskarazko gau eskolak (PAS-072/010)

Pasai Antxoko gau eskolak, herritarren ekimenen bidez sortu zen. Kexaldi elkarteak ematen zituen eta San Fermin eskolan ere klaseak ematen zituen. Helduentzat eskolak ziren bereziki.

1.357. Pasaia-Lezo lizeoan lanean (PAS-072/011)

Pasai Antxoko ikastolako Nekane Auzmendiren eszedentzia bat bete behar eta azkenean Andoainen bukatu zuen irakasle bezala. Soldadutzara joan zen gero, eta bukatzean, Pasaia-Lezo lizeoan lanean hasi zen 1980an. Ikastolako beste irakasle batzuei buruz hitz egiten du.

1.358. Kexaldi elkarte (PAS-072/013)

Kexaldi elkartearen inguruan sortu ziren gau eskolak, udalekuak, dantza-taldea... Udalekuetako begirale moduan ibili zen Agustin.

1.359. Pasai Antxo, herri erdalduna (PAS-072/014)

Pasai Antxo gaur egun erdalduna da. Euskaldunak alde egiten dutela dio Agustin. Antxo euskalduntzea lortzen duenak, Euskal Herria euskaldunduko du.

1.360. Irakasgai ezberdinak eman ditu lizeoan (PAS-072/015)

Pasaia-Lezo lizeoan, irakasgai asko eman ditu: euskara, matematika, natur-zientziak, gizarte... Azkenengo urteetan matematika ematen zuen, zuzendaritzako lanak ere aurrera eramateko. Lehen hezkuntzan, irakaskuntza libreagoa zen.

1.361. Eguraldi ona zegoenean, klasea kanpoan ematen zen (PAS-072/016)

Lizeoan, naturarekin harreman handia zuten. Eguraldi ona egiten bazuen, mendira edo naturara joaten ziren. Gaur egun formalismo handia dago.

1.362. Lizeoko lurraren birkalifikazioa (PAS-072/018)

Lizeoa eraiki behar zenean, udal gobernuak dimititu egin nahi zuen. Dimititu aurretik, lizeoa egingo zen lurra udalbatzan birkalifikatu zuten, hau eraikitzeke aukera izateko.

1.363. Metodologia berriengan mesfidantza (PAS-072/022)

Guraso batzuek, ez zituzten ulertzen metodologia molde berriak. Emi Mujikak kontatzen du.

1.364. Herria lizeoaren alde (PAS-072/024)

Lizeoa eraikitzeke behar ziren baimenak lortzeko prozesuan, herria proiektuaren alde agertu zela kontatzen du Emi Mujikak.

1.365. Lizeoaren kokapena, kuartelarentzat aproposa (PAS-072/026)

Lizeoa eraikitzen ari zeneko anekdota bat kontatzen du Emi Mujikak. Barne ministroa joan zen Pasaia, guardia zibilarren kuartela bisitatzera. Parean lizeoa eraikitzen zeuden eta ikastetxe bat izango zela esan ziotenean, kuartel batentzat leku egokia zela esan zuen.

1.366. Publikazio garaian, lizeoko gerente (PAS-072/028)

Agustin eta Emi, Pasaia-Lezo lizeoko zuzendariak izan ziren. Ikastolen publikazioaren garaian, Emi gerente bezala izendatu zuten.

1.367. Gurasoen eskutik sortu ziren ikastolak (PAS-072/029)

Gurasoek ikastolan izan zuten inplikaziorik gabe, ez litzateke lizeoa existituko. Gurasoek ausardia asko izan zuten haien seme-alabak ikastolara eramaten. Lizeoko ikasleak lehenengo aldiz selektibitatea egitera joan zirenean, denak oso urduri zeudela kontatzen du Emi Mujikak.

1.368. Ikastolan erlijioa bai edo ez? (PAS-072/030)

Ikastolaren metodologiaren barruan, erlijioa irakasgai bezala eman edo ez erabakitzeke eztabaida handiak egon zirela kontatzen du Emi Mujikak.

1.369. Amak 40 urterekin euskara ikasi zuen (PAS-073/003)

Gurasoek nahiz eta euskaraz ez jakin, alabak ikastolara eraman zituzten. Ama horrela hasi zen hitz batzuk ikasten. Bera irakaslea zen baina ez ikastolan, baina ikastolakoei uzten zien bere fitxa, inpekziarako. Lagun batek esan zion kontuz ibiltzeko, Donibaneko norbaitek salatu zuelako. Orduan, ikastolara joaten hasi zen, euskara ikasi zuen eta 40 urterekin ikastolako andereño bezala lanean hasi zen. Maria Luisa Almandoz zen bere amaren izena.

1.370. Nekane andereñoaren ikastolaren gogoetak (PAS-073/004)

Koro 3-4 urterekin hasi zen Pasai Antxoko ikastolan, Nekane Auzmendi andereñoarekin. Bi gela zeuden. Ikastolako gogoetak. Handik Ibaiondo izeneko eraikinera joan ziren eta gero Beraungo ikastolara. Arantza Arruti, Nekane Auzmendi ziren Ibaiondoko irakasleak. Inazita Lazkano hasierao ikastolan ere bazegoen.

1.371. Beraungo ikastola; pikeak ikasleen artean (PAS-073/005)

Beraunera ikastolara joan ziren 5. edo 6. mailan, geroz eta jende gehiago zegoelako ikastolan eta ez zegoelako lekuri denentzat. Irakasleak aipatzen ditu. Beraunetik Lezo-Pasai Lizeora joan ziren. Inguruko herriko ikasleak heldu zirenean, lekua kendu zietela sentitu zuten eta gaiztoak izan zirela aitortzen du.

1.372. Txabolsotoa, lizeorako dirua biltzeko ekimena (PAS-073/007)

Txabolsotoa, Pasaia-Lezo lizeorako dirua lortzeko ekimena zen. Hala ere, elkartzeko, hitz egiteko, kultura sustatzeko... lekua ere bilakatu zen. Ikastolara seme-alabak eramaten ez zituzten guraso asko ere joaten ziren bertara. Txabolsotoa, Kutxaren lokal batean zegoen. Rifak ere saltzen zituzten.

1.373. Ikastolako ikuskaritzaren bisitak (PAS-073/012)

Behin, andereño Nekaneren senarra inspektorez mozorrotu zen eta ikuskaritza pasatuko zuela esaten sartu zen ikastolara. Haurrak urduri jarri ziren, baina dena broma bat zen.

1.374. Nekane Auzmendi, andereño zorrotza (PAS-073/013)

Nekane Auzmendi izan zuen andereño bezala. Oso zorrotza zen berarekin.

1.375. Beraungo ikastolatik San Telmora (PAS-073/014)

Ez zen lizeora ikastera joan, Beraunen bukatu zuenen oraindik bukatuta gabe zegoelako. San Telmo lizeora joan zen bera eta bere klasekide batzuk Errenteriako ikastolara.

1.376. Euskaldunei "las vascorras" esaten zieten (PAS-073/026)

Beraun, ikastola kanpoan egoten ziren emakumeak "las vascorras" deitzen zieten ikastolako ikasleei. Eztabaidak izaten zituzten haiekin eta baita herriko beste hainbatekin. Pasai Antxon ere "las vascorras" deitzen zieten euskaldunei eta mojetan ikasten zutenei "las cucarachas". Zumardian liskarrak izaten zituztela kontatzen du. Hasieran Beraunera Pasai Antxokoak bakarrik joaten ziren.

1.377. Euskararen egoera Pasai Antxon 60. hamarkada hasieran (PAS-074/003)

60. hamarkadaren hasieran hasi zen Kontxita Beitiaren ikastolan ikasten. Lau urte zituen eta hamar urtetararte egon zen bertan. Orduan, euskararen egoera guztiz zapaldua zegoen. Nekanek etxean ikasi zuen euskaraz eta ez zekien ia gaztelaniaz. Herrian, eskola publikoak edo nazionalak zeuden eta

baita mojen ikastetxea ere. Gurasoak oso ausartak izan ziren horrelako egoera batean haurrak ikastolara eramateagatik. Nahiz eta haurrak izan, bazekiten euskararen zapalkuntza zegoela eta ikastola klandestinoak zela.

1.378. Kontxita Beitiaren ikastolaren egunerokotasuna (PAS-074/007)

Kontxita Beitiak ikastola klandestinoak ematen zituen bere gurasoen etxeko logela batean. Ikastolaren egunerokotasuna zein zen kontatzen du. Lurrean eserita jasotzen zituzten klaseak.

1.379. Irteerak inguruko mendietara (PAS-074/008)

Astero, irteerak egiten zituzten inguruko mendietara. Urtean behin Arantzazura joaten ziren. Jolasordurik ez zegoen, baina beti jolasten egoten ziren. Herrian jendeak bazekien etxe hortan klaseak ematen zirela klandestinoki.

1.380. Pasai Antxoko lehenengo ikastolako kokapenak (PAS-074/009)

Pasai Antxoko lehenengo ikastola, gaur egungo Eskalantegi kalean zegoen, Kontxita Beitiaren gurasoen etxean. Kontxita ezkondu zenean, Oarso kalean hasi ziren klaseak jasotzen eta azkenik, Nekane Auzmendiren etxean, Amarretxeta kalean. Bederatzi urterekin bukatu zen ikastolako bere etapa eta Santo Tomas Lizeoan jarraitu zituen ikasketak, beste 4-5 lagunekin batera.

1.381. Santo Tomas lizeoan ikasketak (PAS-074/011)

Santo Tomas lizeoan, urteko jakintza guztiak ekaineko azterketa bakar batean gainditu behar zituzten. Euskara ikasten zuten irakasgai bezala, nahi eta gainontzekoa gaztelaniaz izan.

1.382. Ikastolarekiko esperantza gurasoen partetik (PAS-074/012)

Ikastola klandestinoetara seme-alabak bidaltzen zituzten gurasoek bazekiten nora eramaten zituzten haurrak. Esperantza handia zeukaten guraso haiek.

1.383. Elizaren babesa ikastolei (PAS-074/014)

Elizak ikastolari lagundu zion Pasai Antxon ere. Don Pedro Jimeno, Don Luis Agirre, Emeterio Sorasu... gogoratzen ditu.

1.384. Ikuskaria zetorreanean gastelaniazko liburua atera behar (PAS-074/015)

Ez du gogoratzen ikuskaritza inoiz agertu zenik ikastolan. Baina dikuskaria agertu ezker, gastelaniazko liburu bat zeukaten ateratzeko. Egunerokotasunean, Xabiertxo edo Martin Txilibitu eta euskarazko ipuinak erabiltzen zituzten.

1.385. Ikastolako eguberriko jaialdia Don Bosco aretoan (PAS-074/017)

Ikastolan zegoen garaian, oraindik ez zen Olentzero kalera ateratzen. Etxez-etxe joaten ziren kantatzera, jaiotzak antolatzen zituzten... Don Boscoko aretoan eguberriko jaialdia egiten zuten.

1.386. Ikastolara joatea zerbait berezia zen (PAS-074/024)

Haurrak izanda ere, konturatzen ziren leku ezberdin edo berezi batera jaoten zirela (ikastolara). Bazekiten ere euskaldunak zirela.

1.387. Kontxita Beitia andereñoa (PAS-074/026)

Kontxita Beitiaren lanaz hitz egiten du. Emakume ausarta, jantzia eta konprometitua izan zen.

1.388. Pasai Antxoko ikastolaren kokapen ezberdinak (PAS-074/030)

Pasai Antxon hiru ikastola ezagutu zituen: Kontxita Beitiarena Eskalantegi kalean, Oarso kalekoa eta Nekane Auzmendirena. Ibaiondon eta geroago Beraunen ere ikastola egon zela badaki.

1.389. Pasai Antxoko eta lizeoaren ibilbideak (PAS-074/035)

Ikastolaren ibilbideak poz asko sortzen dio. Pasaa-Lezo lizeoaren behar handia zegoen eta erabat positiboa ikusten du lizeoaren proiektua egin izana.

1.390. Zinegotzia izan zen frankismo garaian (PAS-075/004)

Pasai Dnibanera bizitzera joan zenean, mugimendu kultural handia zegoen, Zinegotzi izendatu zuten frankismo garaian. Hamar urtez egon zen zinegotzi bezala eta gero alkatea izan zen.

1.391. Lezo-Pasaia lizeoarekin izandako harremana (PAS-075/010)

Donibaneko ikastolarekin harremana izan du seme-alabek bertan ikasten zutelako, Itsasmendi elkarteko kide zelako eta batez ere, herriko zinegotzi eta alkatea izan zelako lizeoa eraiki zen garaian.

1.392. Lezo-Pasaia lizeoaren proiektua I (PAS-075/014)

Lizeoren proiektuan, zailena eraikitzeko baimen juridikoak lortzea izan zen. Donibaneko herriak izendapen berezi bat duenez eta inguruko mendiak babesa dutenez, ikastola "eraikin berezi" bezala kalifikatu zuten.

1.393. Lezo-Pasaia lizeoaren proiektua II (PAS-075/015)

Lizeoaren proiektuko bigarren pausoa lurra erostea izan zen. Tartean ibili zen zinegotziari buruz hitz egiten du.

1.394. Alkateen Mugimenduko Ekimena (PAS-075/017)

Andres Aramendi zen alkatea, bera zinegotzi bezala hasi zenean. Alkateen Mugimenduko ekimen batera joan ziren behin Bergarara.

1.395. Pasaian Udalak dimititu zuenean (PAS-075/018)

Hondarribian, Alardean, guardia zibilak mutil bat hil zueneko. Luzuriaga lantegian istiluak egon ziren eta udalbatzak dimititu egin zuen.

1.396. Lezo-Pasai lizeoko lurak erosten (PAS-075/019)

Pasaiko udalbatzak dimitu arren, salbuespen bezala, lizeorako izango ziren lurren erosketak baimentzeko elkartu egin ziren berriz ere.

1.397. Lizeoari lotuta (PAS-075/025)

Lizeorako lurak erosi zituztenean, piska bat desbinkulatu zen eta ikastolako batzordean bakarrik jarraitu zuen

1.398. Ikastolan lan egiteko eskaintza (PAS-076/003)

Lourdesi, ikastolan lan egiteko eskaintza egin zion Inazi Lazkanok, nahiz eta berak ikasketarik ez izan. Geroago atera zituen tituluak. Inazi, titulu gabeko irakaslea zen ere.

1.399. Pasai Antxo eta Trintxerpeko ikastolen hasierak (PAS-076/005)

Antxoko eta Trintxerpeko ikastolak nola hasi zen kontatzen du Lourdesek. Herrerao ikastolarekin ere harreman estua zuten.

1.400. Pasaia badiako hasierako ikastoletako irakasleak (PAS-076/007)

Pasaia badiako hasierako ikastoletan zeuden irakasleak aipatzen ditu: San Pedron Pilartxo, Trintxerpen Gurutze, Herrera Agurtzane eta Antxon Kontxita Beitia eta Nekane Auzmendi. Pasai Donibanen, Ixiar Korta eta Maria Luisa Almandoz.

1.401. Elbira Zipitriak sortutako irakasle-sarea (PAS-076/009)

Elbira Zipitriak, urteekin handitzen joan zen irakasle-sare bat sortu zuen.

1.402. Ikuskaritzakoa agertzen zenean, ezkutatu beharra (PAS-076/010)

Badiako ikastolen artean harremana zuten. Behin, San Pedron ikastolan zebilenean abisu bat jaso zuten ikuskaritzakoa inguruan zebilela esanez.

1.403. Donibaneko ikastolaren sorrera (PAS-076/012)

Rosarito Folgado izan zen Donibaneko lehenengo irakaslea. Etxean ematen zituen klaseak, titulu gabe. Lourdes hasi zenean, klaseak Bonantzaren ematen zituzten Ixiar Kortarekin batera. Rosarito Folgado irakaslea, mugaizain baten alaba zen. Hasierako ikastolan bi gela zeuden, Rosaritorenak eta Maria Angelesen gela.

1.404. Bonantzaren eta "Aterpean" ikastolako klaseak ematen (PAS-076/013)

Ixiar Kortarekin batera hasi zen Lourden klaseak ematen Bonantzaren, garbitokiaren ondoan. Metodologia zein zen kontatzen du. "Aterpea" deitzen den lekuan ere klaseak ematen ziren.

1.405. Hasierako Donibaneko ikastola, herritik sakabanatuta (PAS-076/016)

Herri guztian zehar zeuden ikastolako gelak: Bonantzaren, Aterpean, Itsasmendi elkartearen ondoan, Lourdes Txiki galeko atzeko partean...

1.406. Badia guztiko irakasleak eraikin batean biltzeko beharra (PAS-076/018)

Bilerak eta batzarrak, badia guztiko irakasleen artean egiten ziren. Guztiek ikusten zuten eraikin handi bat eraikitzeko beharra. Jose Luis Arzuaren papera.

1.407. Gaztelutxo elkarteak; bazkidetzak (PAS-076/020)

Lizeoa eraikitzeko, hasieran Udalak beste lursail bat eskaini zion, baina txikiegia zen. Gaztelutxo elkarteak zer zen kontatzen du. Lizeoaren proiektua aurrera ateratzeko elkarre bat zen. Bazkidetzak.

1.408. Lizeoa egiteko diru-bilketak (PAS-076/021)

Hasieran batean Lizeoaren aurrekontua 80 milioi pezetakoa zen baina askoz ere gehiago ordaindu behar izan zuten. Dirua nola biltzen zuten kontatzen du: txabolsotoa, taberna, pintxoak...

1.409. Pasaia txabolsotoak (PAS-076/022)

San Pedroko senar-emazte batek, haien taberna lizeoarentzat dirua lortzeko lokal bezala utzi zuten. Txabolsotoa deitu zitzaion eta arrakasta ikusita, badiako gainontzeko herrietan ere horrelako tabernak zabaltzen hasi ziren. Dirua, beti lizeoari bideratuta zegoen. Jaietan zabaltzen zuten.

1.410. Rifak, irakasleen soldatak hobetzeko (PAS-076/023)

Rifak saltzen ziren, irakasleen soldatak hobetzeko.

1.411. Hasierako ikastolan, baliabide gutxi (PAS-076/024)

Hasierako ikastolak ematen ziren geletan kuxinetan esertzen ziren lurrean. Hasieran, komuneko paperik ere ez zeukaten ikastolan. Etxetik eraman zuen ikasle bakoitzak. Xabiartxo liburua eta Urbietaren kantak erabiltzen zituzten.

1.412. Lizeoaren aurretik zeuden irakasleak (PAS-076/027)

Lourdeselek Gema Sistiaga irakasle izatera animatu zuen. Gero, Karmele Sistiaga, Joxean Goienetxea, Joxe Antonio Etxezarreta abadea, Manu Labaien... izan ziren lizeoa sortu aurreko irakasle batzuk.

1.413. Lizeora igotzeko autobusaren kuota (PAS-076/028)

Lizeoko kuotaz gain, autobusaren kuota ere bazegoen eta ikasle guztiek ordaintzen zuten kantitate berdina. Donibanekeok ere, nahiz eta haiek oinez joan.

1.414. Berauneko ikastola iluna zen (PAS-076/029)

Lizeora joan aurretik, San Pedron eman zituen klaseak ere. Beraunera ere joaten ziren Donibanekeo irakasleak. Margari eta Koro ziren irakasleetako batzuk.

1.415. Lizeoaren inaugurazio eguna (PAS-076/031)

Lizeoaren inaugurazio eguna gogoratzen du. Ikurrin erraldoi bat jarri zen. Lizeoa zabaldu zenean, ez ziren bertara ikasle guztiak joan. Batzuk, Errenteriako ikastolara joan behar izan zuten.

1.416. Lizeoa poliki-poliki hasi zen betetzen (PAS-076/033)

Lizeoa inauguratu zenean, ikasleak poliki-poliki joaten hasi ziren, mailako. Ez ziren denak batera joan. Sukaldea, jangela, komunak, gimnasioa... behealdean geratzen zen espazioetan sortu ziren.

1.417. Herrerako ikastola (PAS-076/036)

Hasiera batean Herrerako ikasleak ere Lezo-Pasaia lizeora batu behar baziren ere, azkenean ikastola eraiki zuten han ere. Intxaurrendokoak eta Altxakoak ere bertara joan ziren.

1.418. San Pedroko lehenengo ikastola (PAS-076/039)

San Pedroko Pilartxo Arratibelek ikastolan, Felisa izeneko beste irakasle bat ere bazegoen. Elizako lokal ematen zituzten klaseak.

1.419. Ikasleak elkartu zituzten lizeora joan aurretik (PAS-076/042)

Portuan ere ikastolako klase batzuk egon zirela gogoan du. San Pedrotik eta Trintxerpetik sakabanatuta zeuden ikastolako ikasleak, eskola nazionalak izandako eraikinera joan ziren ikastera. Herri ezberdinetako haurrak elkar ezagutzeko, elkartu egin zituzten maila batzuetatik aurrera.

1.420. Trintxerpeko hasierako ikastola (PAS-076/044)

Behin Beraungo ikastolara joan zen ordezkapen bat egiteko. Trintxerpeko hasierako ikastoletako bat musika eskolan zegoela uste du.

1.421. Irudimena behar zuten ikastolan, materialik ez zegoelako (PAS-076/046)

Materialik ez zuten izaten ikastolan eta edozer gauza erabili zuten: hostoak, goxokiak... Irudimen handia behar izaten zuten.

1.422. Ikastola itxiko zenaren zurrumurruek (PAS-076/049)

Itsasmendi elkartearen gainean zegoen ikastolari buruz hitz egiten du. Ikastola itxiko zenaren zurrumurrua zabaldu zen eta ikasle askok, gehienak mutilak, Don Bosco ikastetxera joan ziren.

1.423. Lizeoa gurasoek sortu zuten (PAS-076/050)

Gurasoek ikastolarengan jarritako konfiantzagatik sortu zen lizeoa. Irakasleak ere oso inplikaturik zeuden.

1.424. Batxilergoko probak nola gainditu zituen (PAS-076/051)

Lourdes ikastolan klaseak ematen hasi zenean, ez zeukan inolako ikasketarik. Jose Antonio Etxezarreta abadeak lagundu zion batxilergorako probak prestatzen.

1.425. Elizak asko lagundu zion ikastolari (PAS-076/052)

Ikastolak elizaren babes eta laguntza handia izan du. Ikuskaritzarentzat, irakasleak katekistak izaten ziren.

1.426. Hasierako ikastoletako gelen egoera eskasa (PAS-076/053)

Hasierako ikastolako gelak ez zeuden prestatuta klaseak emateko, baina gurasoak prest zeuden haurrak bertara eramateko. Aterpeko lokala oso umela zen.

1.427. Ikastolako urteak, bizitzako politenak (PAS-076/055)

Hasierako ikastolako urte haiek izan dira bere bizitzako politenak.

1.428. Etxeko emakumeek gaztelaniaz egiteko joera zuten (PAS-077/002)

Etxean beti euskaraz egin dute baina ahizpa eta bera gaztelaniaz hitz egiten hasi ziren, eta gero amarekin ere. Aitak ez zuen onartzen eta etxera heltzen zenean, euskaraz egiten zuten.

1.429. Ahizpak mojetan eta anaia ikastolan (PAS-077/003)

Anaia, 1965ean jaioetakoa, izan zen Lezo-Pasaia lizeotik ikasketak amaituta atera zen lehenengo promozioiko ikasleetakoa bat. Karmelek bost urte egin zituen Anuntziatan ikasten eta beka baten bidez, Zaragozako unibertsitate laboralean egin zituen beste bi urte.

1.430. Herriko kultur ekintzetan parte hartzen zuen (PAS-077/004)

Nahiz eta kanpoan ikasten zuen, bisitan joaten zenean edo behin ikasketak bukatuta, herrian egiten ziren kultur ekintzetan parte hartu izan du.

1.431. Euskararekiko kontzientzia berandu piztu zitzaion (PAS-077/005)

Euskararekiko kontzientzia berandu sortu zitzaion. Etxean ez ezik, kuadrillarekin eta eskolan gaztelaniaz egiten zuten, nahiz eta ia denak familia euskaldunetatik etorri. Euskararekiko kontzientzia nola piztu zitzaion kontatzen du.

1.432. Ikastolan nola hasi zen lanean (PAS-077/006)

Donostian Turismoko ikasketak egiten ari zela, Joxe Joaquin Irigarai ikastolan lan egiteko eskatu zioten. Ezetz esan zuen baina iraila heltzean irakaslea falta zenez, bera eta beste bat jarri ziren 3. mailakoen tutore bezala eta klaseak partekatzen zituzten. Asko gustatu zitzaion irakasle lana eta bertan gelditu zen.

1.433. Turismo ikasi eta gero, majisteritza (PAS-077/007)

Turismoko tituluak ez zion balio irakasle izateko eta majisteritza ikasi zuen. Joxe Joaquin Irigarairi esker da irakaslea.

1.434. Donibaneko ikastolak herrian zehar kokatuta (PAS-077/009)

Pasai Donibaneko ikastolarekin izan zuen lehen harremana, ipuin kontalari bezala izan zen. Anaia, Aterpean ikasten zuen. Gero, Juan XXIII kalearen goialdean hasi zen bera klaseak ematen. Donibanen ikastolako gelak non zeuden azaltzen du.

1.435. Hasierako ikastolako gurasoen inplikazioa (PAS-077/011)

Hasierako ikastoletako gelako baldintzak nahiko eskasa ziren material aldetik. Hala ere, oso urte politak izan ziren eta orduko guraso horien ausardia goraipatzen du. Batzuk kredituak eskatu zituzten.

1.436. Saioka liburua erabiltzen zuten (PAS-077/012)

Ikastolan lanean hasi zenean, gau-eskolak ere eman zituen. Saioka liburuak erabiltzen zituzten.

1.437. San Pedroko eta Donibaneko haurrak lehen aldiz elkarrekin ikastolan (PAS-077/013)

1974a hasi zen Karmelen ikastolan lanean, Emi Mujikarekin, Manu Labaienekin... Urte hartan, San Pedrokoak eta Donibandarrak elkartu zituzten bere gelan. San Pedroko haurrek motorra pasa eta bere etxera igotzen ziren, denak ikastolara joateko.

1.438. Lizeoko autobusa (PAS-077/014)

1974an lizeoaren proiektua garatzen zegoen oraindik, baina badiako haurrak elkartzea erabaki zuten lizeora joan aurretik. Denek erabiltzen zuten autobusa.

1.439. Gaztelutxo elkarte lizeoaren proiekturako sortu zen (PAS-077/016)

Badiako herri guztietan zegoen ikastola, baina ezin ziren ikasketa guztiak bertan egin. Hori dela eta, lizeoaren proiektua sortu zen. Hasieran, Lezo, Pasaia eta Herreraren artean izango zen. Gaztelutxo elkarte sortu zen guzti hori kudeatzeko. Kide batzuk gogoratzen ditu.

1.440. 15.000 pezetako akzioak lizeoa sortzeko (PAS-077/020)

Lizeoaren eraikuntzan laguntzeko, familia bakoitzak eta laguntzaile bakoitzak 15.000 pezetako akzioak erosi zituen.

1.441. Txabolsotoa, herriaren kohesiorako tresnak (PAS-077/021)

Txabolsotoak taberna edo gaur egungo txosnak ziren, ikastolarako dirua lortzeko erabiltzen zena. Taberna bat baino gehiago zela kontatzen du Karmelek eta herriaren kohesioa lortzeko tresnak izan zirela uste du. Donibanen, txabolsotoa errekan egiten zen.

1.442. Lizeorako diru--bilketak (PAS-077/022)

Bertso-saioak eta trikitalarien jaialdiak gogoratzen ditu lizeoarentzat diru lortzeko. Kepa Junkera gogoratzen du. Rifak ere saltzen ziren.

1.443. Ikastolako irakasleen inplikazioa eta militantzia (PAS-077/023)

Ikastolarekiko izan zuten inplikazioa oso handia izan zen. Ikastolako irakasleen bilerak larunbatetan egiten zituzten. Txangoak ere larunbatetan egiten zituzten. Mendiko txangoak Itsasmendirekin batera egiten zituzten.

Itsasmendik hilero bi autobus antolatzen zituen mendira joateko: helduentzat eta haurrentzat.

1.444. Antxon elkartzen ziren ikastolako metodologia lantzeko (PAS-077/024)

Pasaiako eta Lezoko ikastolako irakasleak Antxon elkartzen ziren metodologiaz hitz egiteko. Lourdes Sistiaga dauka erreferenteetako bat bezala.

1.445. Pasaiako badiako lehenengo andereñoak (PAS-077/026)

Badiako lehenengo ikastola Antxokoa izan zen. Geroago sortu ziren San Pedron, Trintxerpen eta Donibanen. Nekane Auzmendi, Gurutze Urreisti, Pilartxo Arratibel, Margari... gogoratzen ditu.

1.446. Lizeoko lurren birkalifikazioa (PAS-077/028)

Pasaiako Udalak dimititu zuenean, Joxe Mari Leharda eta Jose Luis Arzuak hartu zuten gobernua. Haien bidez lortu zen lizeoarentzat izango ziren lurren birkalifikazioa.

1.447. Ikuskaritzakoak bisitak ikastolara (PAS-077/030)

Ikuskaritzakoak Lezora heltzen zirenean, abisua ematen zen badiako gainontzeko ikastolei. Ikuskaritza etorri zeneko egun bat kontatzen du. Irakasleak asko haserretu ziren ikuskaritzakoak emandako tratuatik.

1.448. Guraso eta irakasleen inplikazioa ikastoletan (PAS-077/032)

Hasieran inork ez zekien ia ikasleek eskolaratze-txartela lortuko zuten edo ez. Hala ere, gurasoek ikastolara eraman zituzten haurrak. Ikastolako gelak ere, irakasle eta gurasoen artean txukuntzen zituzten. Soldata ere ez zen oso altua.

1.449. Gau-eskolakoak barnetegia Lizartzan (PAS-077/033)

Gau eskolak ematen zituen ikastolan, Oñatibiaren metodologia erabiliz. Lizartzan barnetegi bat antolatu zuten gau-eskolakoekin.

1.450. Maria Luisa Almandoz irakaslea (PAS-077/035)

Maria Luisa Almandozek irakasle titulua zeukan baina ez zekien euskaraz. Titulua ikastolari utzi bazion ere, hori ez zen legala, eta Maria Luisak euskara ikasi eta ikastolako irakasle bezala lanean hasi zen. Antxokoa zen eta Donibanen zen irakasle.

1.451. Donibaneko lehenengo ikastola Bonantzán (PAS-077/039)

Gurasoek ikastolekiko apostua egin zuten bezala, irakasleek ere egin zuten. Karmele Donibaneko ikastolan lanean hasi zenean, honek Escuela Parroquial Bonanza zuen izena.

1.452. Euskaraz zekielako eskatu zioten ikastolan lan egitea (PAS-078/003)

1972-1973 ikasturtean hasi zen Donibaneko ikastolan lanean. Bere erreferentea Lourdes Sistiaga izan zen. Berak fitxatu zuen ikastolarako, gau

eskoletan euskaraz alfabetatzen zegoenean. Gemak ez zuen irakasle titulurik eta Oreretako ikastolan bi hilabetez egon zen irakasle lanetarako pixka bat formatzen.

1.453. Donibaneko ikastolaren kokapen ezberdinak (PAS-078/004)

Donibaneko ikastola, Bonantza eliza ondoan sortu ziren. Ikastolako gelak herri guztitik zeuden sakabanatuta: Aterpean, Itsasmendi elkartearen atzeko etxeetan, Lourdes Txiki kalean, Pisbe lantegiko jangelan eta aazkenik lizeoan.

1.454. Ikastolako ikuskaritzakoen bisitak (PAS-078/006)

Irakasle asko titulu gabe zeuden eta beste pertsona batzuenak erabiltzen zituztenak. Maria Luisa Almandozek adibidez, bere titulua utzita zeukan ikastolari. Gertakari bat kontatzen du. Irakasleek asko eman zuten.

1.455. Gaztelutxo elkartearen sorrera (PAS-078/008)

Gaztelutxo elkartearen, gurasoak ez ezik, lizeoaren proiektuaren aldeko jendeak ere hartu zuen parte. Joxe Mari Legarrak hartu zuen Pasaian alkatetza, proiektu hau aurrera eramateko. Irakasleen inplikazioa ere bazegoen, baina gehien bat gurasoen aldetik.

1.456. Lizeoa Donibanen eraikitzearen arrazoia (PAS-078/009)

Donibanen bakarrik zegoen lizeoa egiteko lurra. Lekua zoragarria izan arren, autobus asko behar ziren ikasleak bertara joateko eta horrek kuotak handitu zituen ere. Gurasoak eta bazkideak ziren lizeoa ordaindu zutenak.

1.457. Badiako herrien arteko ikastolako irakasle-sarea (PAS-078/011)

Ikasleak lizeora joan aurretik, barruti ezberdinetako ikasleak elkartzen hasi ziren. Irakasleak ere elkartu egiten ziren, denek eduki eta metodologia berdintsuak emateko. Edozein herritan klaseak emateko prest egon behar zuten.

1.458. Lizeora joan aurretik, Beraunen (PAS-078/012)

Lizeora joan aurretik, haurrek Beraunen ikasi zuten. Han, herri batzuk elkartuta zeuden dagoeneko. Irakasle bakoitzak talde berdinarekin 2-3 ikasturte egiten zituen.

1.459. Pasaia txabolsotoetan, euskaraz (PAS-078/014)

Lizeoarentzat dirua lortzeko diru-iturri bat taberna zen. Barran lanean zeudenek euskara erabiltzen zuten beti eta tentsio momentu bat edo beste bizi izan zuten. Gaur egungo txosnen estilokoak ziren txabolsotoak.

1.460. Tira-birak guardia zibilarekin (PAS-078/015)

Eguberrietan eta herriko festetan, herriko ekintzetan parte hartzen zuten ikastolatik. Behin, errepresioa isladatzen zuen karroza bat egin zuten eta gaurdia zibila joan zitzaien azalpen eske. Haurrak koartelera eramanez nahi zituzten baina irakasleek ez zieten utzi.

1.461. Ikastolaren inguruan bolondres ugari (PAS-078/016)

Ikastolako mantenu-lanak (garbiketak, arotzak, iturginak...) irakasleek eta herri jendeak egiten zituzten ezer kobratu gabe. Bere osabak ikasle txikientzat egindako mahai eta aulki txikiak gogoratzen ditu.

1.462. Ikastolaren alde lan egin zuen jendea (PAS-078/017)

Ikastolaren traba nagusia ekonomikoa izan zen, nahiz eta traba politikoa erre bazegoen. Baina ikastolaren alde lan egin zuen jende asko egon zen.

1.463. Legeaz zekien pertsonak behar ziren (PAS-078/019)

Simon Garinek asko lagundu zuen ikastolaren proiektuan ere. Legegizona zen eta horrelako jendea behar zuten ere.

1.464. Zotzak eta garbantzuk matematika irakasteko (PAS-078/021)

Ikasle txikienekin edozein material erabiltzen zuten ikasteko (zotzak edo garbantzuk matematiketarako, adibidez). Imabol Urbietaren abestiez asko baliatu izan ziren.

1.465. Ikastolan lan egitea oso aberasgarria izan da (PAS-078/022)

Ikastolan lan egitea oso aberasgarria izan da Gemarentzat. Momentu onak eta txarrak pasa dituzte, baina momentu onean erretiratu dela uste du. Egindako lan guztia alferrikakoa ez dela izan uste du.

1.466. Mentxu Alkortaren dantza-eskolan (PAS-078/024)

Mentxu Alkorta dantzari klasikoaz hitz egiten du. Ikastolan ezagutu zuen, batzuetan dinamizatzailerik egiten zituelako. Mentxurekin dantza eskolak jaso zituen.

1.467. Mentxu Alkorta eta Gema Sistiaga trikitilariak (PAS-078/025)

Mentxu Alkortak trikitia jotzen ikasi zuen eta Gemak panderoa. Kostaldean trikitilari bikoterik ez zegoela eta, elkartu egin ziren Mentxu eta Gema. Nola hasi ziren kontatzen du.

1.468. Emakumezkoen lehenengo trikitilari bikotea (PAS-078/026)

Trikitilari bikote bezala, Gema eta Mentxu izan ziren lehendabiziko emakumezkoak.

1.469. Trikitixa elkartea (PAS-078/027)

Trikitilari eta panderoaren inguruko ikerketa bat prestatu nahi izan zuten baina ez zuten gobernuaren laguntzarik izan. 1986an trikitilarien elkarteari buruz jakin zuen. Joseba Tapia eta Iger Goenagak elkartu zen bertan, eta ikerketa aldetik zerbait egin behar zutela pentsatu zuten.

1.470. Arraguan lehenengo kontzertua (PAS-078/030)

Mentxu Alkortak eta Gemak, Arraguan (Oiartzun) jo zuten lehenengo aldiz kontratupean. Aurretik Ergoieneko jaietan aritu ziren haien kabuz jotzen eta Arraguarako deitu zieten. 1986a zen.

1.471. Kantik hartu eta moldatu (PAS-078/031)

Plazan jotzeko erreperitorio bila joan ziren Urruñara, Atxaflabaita jatetxera. Nahiz eta Mentxu Alkortak pieza txikiak sortzen zituen bere lanean, plazan jotzeko dagoeneko zeuden kantik hartu eta moldatu egiten zituzten, batez ere letrak.

1.472. Plazan jotzean, disfrutatzea zen beraien helburua (PAS-078/032)

Mentxuk eta Gemak bazekiten zer nahi zuten jo, noiz eta nola. Disfrutatzea zen beraien helburua. "Faborez 6" diska grabatu zuten, Trikitixa Elkartearen laguntzaz.

1.473. Andeetan trikitia eta panderoa jotzen (PAS-078/033)

Leku askotan jo zuten, baita Andeetan ere, 3000 metrotara. Albaola elkartearekin ere egin dituen bidaietan, musika eramaten saiatu izan da beti.

1.474. Albaolako kidea (PAS-078/034)

Albaola elkarteko kide egin zen 2000. urtean.

1.475. Behobia hamabi aldiz egin du (PAS-078/035)

Itsasmendi elkartearekin asko joan da mendira. Kirolarekiko zaletasun handia dauka. Musika, dantza eta kirola dira bere zaletasunak. Behobiako lasterketan 12 aldiz hartu parte, bat Caracasen zegoela.

1.476. Trikitixa elkartearekin festibal eta topaketetan (PAS-078/039)

Manuel Dorronsorekin ikasi zuen panderoa jotzen. Trikitixa elkartearekin leku askotan egon da topaketetan: Bartzelonan, Portugalen, Italian... beste trikitilari batzuekin (Joseba Tapia, Alaitz eta Maider...)

1.477. Emakume trikitilariak eta genero berdintasuna (PAS-078/040)

Garai bateko emakume trikitilariak ez zuten batere erreza izan. Ez zegoen ondo ikusita. Errespetu faltak jasan izan dituzte, baina adi bat zutenez ez zitzaien inporta. Hala ere, imaginatzen du emakume trikitilari gazteagoek (Alaitz eta Maider, Maixa eta Ixiar...) gaizkiago pasatu izango zutela.

1.478. Trikitiaren mundua maskulinoa da (PAS-078/041)

Trikitixa elkarteko lehendakari zeneko bazkari bat gogoratzen du, non bera zen emakume bakarra. Trikitiaren mundua maskulinoa eta askotan matxista da.

1.479. Emakume trikitilarien historia jasotzen (PAS-078/042)

Trikitixa elkartearen, emakume trikitilarien historia jasotzea da helburuetako bat. Elkarteak ateratzen dituen liburuak.

1.480. Pilartxo Arratibel izan zen beraien izeba (PAS-079/002)

Aita euskaraz egiten saiatzen zen beti. Ama, familia euskaldunekoa zen baina Antxon gaztelania asko erabiltzen zen eta joera hori izaten zuten. Haien izeba, Pilartxo Arratibel, euskaldunagoa zen. Denbora asko pasa zuten berarekin.

1.481. Pilartxo Arratibel, iloben begietatik (PAS-079/007)

Pilartxo Arratibel Borja eta Estibalitzen izeba izan zen. Bere bizitza eta Pasai San Pedroko ikastolaren hastapenak kontatzen dituzte. Etxe honetan bertan hasi zen Pilartxo ikastolako klaseak ematen.

1.482. Pilartxo Arratibel, sormen handiko emakumea (PAS-079/008)

Pilartxo Arratibel andereñoari antzerkia asko gustatzen zitzaion. Harreman oso ona zuen umeeekin. Pianoa eta txirula jotzen zituen. Sormen handia zuen.

1.483. San Pedroko ikastolen egoitza ezberdinak (PAS-079/011)

San Pedroko Dunixi ikastola 1966an sortu zen, Pilartxo Arratibelen etxean. Gero, eliza-etxearen azpira mugitu zen ikastola. Handik, zahar-etxera aldatu zen eta Felisa ere klaseak ematen hasi zen. Felisak irakasle titulua zuen. Zahar-etxetik portura lekualdatu zen ikastola eta irakasle gehiago ere gehitu ziren. 1979an, lizeora ikastera joan zen. Lehenengo maila lizeoan hasi zuten lehenengo belaunaldikoa da Estibalitz.

1.484. Lizeora 5.maila egitera (PAS-079/013)

San Pedron hasi zen ikastolan eta Donibanera pasatu ziren 3.mailan. 4. urtea Meipin egin zuten eta 5.enean lizeora joan ziren. Donibanera motoran joaten ziren.

1.485. Pilartxo Arratibelen biografia (PAS-079/015)

Pilartxo Arratibelek bederatzi anai-arreba zituen, baina haietako 6 umetan edo gaztetan hil ziren. Pilartxok mojetan ikasi zuen eta pianoa jotzen, bordatzen, antzerkia egiten... ikasi zuen. Elizkoia zen arren, kutsu modernoa ere bazuen. Bere zaletasunak, natura, euskara eta eliza ziren.

1.486. Ikastolako kontuak (PAS-079/017)

San Pedron zahar-etxean (asiloan) ikasten zutenean, ama birhinari kantatzen zioten. Portuan aldiz, goiko pisuan munstroak zeudela uste zuten.

1.487. Musika irakasteko teknikak (PAS-079/020)

Pilartxo Arratibelek musika nola erakusten zuen kontatzen du Borjak.

1.488. Gurasoen inplikazioa ikastolan (PAS-079/022)

Gurasoen inplikazioa ikastola aurrera eramateko: tabernak, txosnak, txabolsotoak, pintxoak prestatu...

1.489. San Pedro, herri inplikaturak (PAS-079/024)

San Pedron beti egon da kulturarekiko lotura: antzerkiak, desfileak...

1.490. Ikastolak herriaren babesa zuen (PAS-079/026)

Ikuskaritzakoak Pasaiaira joaten zirenean eta oraindik ikastola ilegala zenean, eskola ofizial bateko maistrak ikasle bat bidaltzen zuen Pilartxo Arratibeli abisua emateko.

1.491. Felisa, San Pedroko tituludun andereñoa (PAS-079/027)

Pilartxo Arratibelek irakasle titulua atera zuenean, gogo txarrez atera zuen. Felisa zen tituludun irakaslea. Nolakoa zen kontatzen dute.

1.492. Pilartxo Arratibelen nortasuna (PAS-079/028)

Pilartxo Arratibel oso jatorra eta maitakorra zen. Etxean batzuetan jenio txarra zuen.

1.493. Pilartxo Arratibelek urtero jartzen zuen jaiotza (PAS-079/034)

Jaunartzea eta katekesia beti euskaraz ezagutu dute. Gabonetan jaiotza-bizia eta jaiotzen lehiaketak egiten ziren. Pilartxo Arratibeli ez zitzaion Olentzeroren figura gustatzen. Jaiotza handia ipintzen zuen etxean.

1.494. Jaietan baserritarrez janzen ziren (PAS-079/035)

San Pedroko jaietan egun batez beti baserritarrez janzen ziren eta gainontzekoetan arrantzalez.

1.495. Gau eskolan San Pedron (PAS-079/037)

Ikastolaz kanpo beti egon da dantza-taldea San Pedron. Euskarazko gau eskolak bazeuden, baina ez ikastolarekin lotuta.

1.496. Euskal giroa San Pedron (PAS-079/038)

Euskal giroa egon da San Pedron beti. Antzerkia egiten zuten, marrazketa, solfeoa... Antzerkiak Candi Osak antolatzen zituen.

1.497. Pilartxo arratibel, herrian oso maitatua (PAS-079/042)

Pilartxo Arratibel oso maitatua izan da San Pedron. Ixilean jende askori lagundu zion Pilartxok.

1.498. Pilartxo Arratibelek euskararen egoerarekin asko sufritzen zuen (PAS-079/044)

Pilartxo Arratibel, Donostiako beste bi irakaslerekin joaten zen oporretan Fiterora. Irakasleekin oso harreman ona zeukan. Euskararen egoerarekin asko sufritzen zuen. Berdina gertatzen zitzaion gazteak elizara ez joatearekin edo natura ez babesteagatik.

1.499. Hasieran, ikastolarekin kezkak (PAS-079/048)

Borjarekin ikastolan ikasitako batzuk, ikasketak beste leku batean bukatu zituzten. Estibalitzen kasuan ordea, ia denek ikasketak lizeoan egin zituzten.

1.500. Ikastolan erabiltzen zuten materiala (PAS-079/050)

"Poxpolin" liburua ikastolan erabiltzen zuen Borjak. Musika-tresnak zituzten gelan. Zetazko panpinak eta loreak egiten zituzten.

1.501. Gurasoak ikastola margotzen eta kortinak josten (PAS-079/054)

Ikastolako kortinak etxeetan josten zituzten amek. Ikastola portuan egon zenean, gurasoak gelan margotzen ibili zirela gogoratzen du Borjak.

1.502. Lizeora joan aurretik, herri batzuetako haurrak elkartu zituzten (PAS-079/056)

Lizeoan denak elkartu aurretik, San Pedrokoak eta Donibaneako haurrak alde batetik, eta Trintxerpekoak, Antxokoak eta Lezokoak bestetik elkartu zituzten. Bostgarren mailan sartu zen Borja lizeoan eta eraikina bukatu gabe zegoen, obretan.

1.503. Lizeotik antolatutako irteerak (PAS-079/060)

Lizeotik, Oriora eta Sobronera gaua pasatzera joaten zirela gogoratzen du Estibalitzek. Faroko bidetik ere ibiltzen ziren. Bilboko Artxanda parkera joan izan dira, Gamarrako igerilekuetara, Santimamiñeko kobazulora...

1.504. Pilartxo Arratibel, erizain lanetan ikastolan (PAS-079/062)

Estibalitzek gogoratzen du, nola hiru urterekin haurrek negar egiten zutela ikastolara joatean. Ez zuen ulertzen, izeba Pilartxorekin zeudelako eta berak normaltzat hartzen zuelako. Pilartxo Arratibelek, askotan erizain lanak egin behar zituela gogoratzen du.

1.505. "Pasaian jaio gera" abestia (PAS-079/063)

Pilartxo Arratibelek asmatu zuen "Pasaian jaio gera" abestia kantatzen dute.

1.506. "Lo dago gure haurtxoa" abestia (PAS-079/065)

Pilartxo Arratibelek asmatu zuen "Lo dago gure haurtxoa" abestia kantatzen dute.

1.507. Seme-alabak ikastolara eramango zituela argi zuen (PAS-080/003)

1965ean Pasai San Pedrora ezkondu zen eta seme-alabak hasieratik ikastolara eraman nahi izan zituen, euskaraz ikas zezaten. Bere amak ez zuen begi onez ikusi.

1.508. Lizeoaren ideiaaren sorrera I (PAS-080/004)

Seme-alabak ikastolara eraman nahi izan zituenean, Ibon Fresnedok azaldu zizkion ikastolako helburuak, funtzionamendua... Konturatu ziren haurrek ez zutela aukerarik ikasketa guztiak euskaraz egiteko eta badiako ikastola guztietako irakasleekin bilerak egiten hasi ziren.

1.509. Lizeoaren ideiaren sorrera II (PAS-080/005)

Simon izendatu zuten lizeoaren ideatzaile nagusi bezala eta Hezkuntzako Ministerioak hori jakinda, proiektuarekin aurrera ez joateko esan zion. Simonek aurrera egin zuen. Andres Aramendi alkatearen laguntza izan zuten.

1.510. Lizeoaren ideiaren sorrera III (PAS-080/006)

Barruti bakoitzeko bi kidez sortutako batzorde bat sortu zuten eta Simon zen lehendakaria. Hamar kideko batzordea sortu zen eta lizeo bat eraikitzea adostu zuten. Mila ikasle aurreikusten zituzten eta barruti guztietan lizeoaren helburua eta proiektua nola egingo zen azaltzen hasi ziren.

1.511. Lizeoaren kokapena (PAS-080/007)

Banketxeetara joaten hasi zen Simon, lizeoaren proiektu aurrera eramateko dirua lortzeko. Abalak eskatu zituzten ere. Chinarro arkitektoarekin kontaktuan jarri ziren. Barruti guztiek nahi zuten lizeoa haien herrian izatea.

1.512. Lizeoaren proiektua: baimenak (PAS-080/010)

Lizeoaren proiektua aurrera zihoanez, Madrilera joan zen Simon, Hezkuntzako Ministerioan baimena eskatzera. Proiektua oso ondo hartua izan zen. Udalak ere lizentzia eman zuen obrak egiteko.

1.513. Lizeoaren proiektua: abalak sinatu eta obrekin hasi (PAS-080/011)

Abalak emateko, barruti bakoitzeko alkatearekin bilerak egin zituzten eta baimenak notarioarekin sinatu zituzten. Bankuan aurkeztu zituzten abalak eta lizeoaren eraikuntzarekin hasi ziren. 1979an inauguratu zen.

1.514. Lizeoaren antolaketa, mantenua... (PAS-080/012)

Lizeoaren antolakuntza eramateko batzorde bat sortu zen, azpitalde ezberdinekin: pedagogia, garbiketak, kirolak... Lizeoaren mantenuaz arduratzeko, etxebizitza bat eraiki zen lizeoan bertan eta familia bat bizi zen bertan.

1.515. Lizeoa sortzeko, gutxienez 8 gela (PAS-080/022)

Lege berri batek esaten zuen institutu bat egiteko gutxienez 8 gela behar zirela.

1.516. Emiliano ikasketa-burua (PAS-080/026)

Badiako ikastolen ikasketa-burua Emiliano izan zen.

1.517. Legarda alkateak sinatu zituen lizeorako baimenak (PAS-080/031)

Legarda alkateak sinatu zituen lizeorako baimenak. Andres Aramendi, frankismo garaiko Pasaiaiko azken alkatea izan zen.

1.518. Barruti guztietan egiten zituzten bilerak (PAS-080/033)

Bilerak barruti guztietan egiten zituzten, txandakatuz. Beste lizeo edo institutu batzuekin izan zituzten bilerak, baina denak oso berriak ziren.

1.519. Gurasoen inplikazioa, guztiz boluntarioa (PAS-080/035)

Gurasoek boluntario bezala laguntzen zuten ikastolako proiektuan. Erabaki bat hartu aurretik, gurasoekin hitz egiten zen beti.

1.520. Irakaskuntzari ez zegozkion gauza orokorrak antolaketa (PAS-080/039)

Irakaskuntzari ez zegozkion gauza orokorrak antolatzea zen bere eginkizuna lizeoaren barruan.

1.521. Lizeoa Donibanen eraikitzearen arrazoiak (PAS-081/002)

Donibaneko lurretan lizeoa eraikitzearen arrazoiak kontatzen ditu.

1.522. San Pedroko lehenengo ikastola (PAS-081/003)

San Pedroko lehenengo ikastola asiloan zegoen. Pilar (Pilartxo Arratibel), Amaia Lasa eta Felisa ziren irakasleak. Amaia zen tituludun irakaslea.

1.523. Pilartxo Arratibel San Pedroko andereñoa (PAS-081/005)

Pilartxo Arratibel izan zen San Pedroko ikastolako lehenengo andereñoa.

1.524. Pasaiaiko alkatea, frankista eta euskalduna (PAS-081/006)

Pasaiaiko alkateak, Andres Aramendik, fama txarra zuen San Pedron, gerra irabazi zuten bandokoa zelako. Hala ere, euskalduna zen eta euskararen alde lan egin zuen.

1.525. San Pedroko ikastolaren kokapenak (PAS-081/007)

Pasaiaiko alkateak, San Pedroko ikastolarentzat lokalak utzi zitueen portuan. Geroago, eskola nazionalen eraikina izandakoan jarri zen ikastola.

1.526. Ikastolan frankismoaren azken etapan (PAS-082/004)

Ikastolan pasatako urteak, urte gatazkatsuak izan ziren.

1.527. San Pedroko lehenengo ikastolako ikaslea (PAS-082/006)

San Pedroko ikastolaren sorrera. Elizaren babespean hasi zen ikastola. Pilartxo Arratibel izan zen lehenengo andereñoa. Felisa izan zen bere andereñoa eta berarekin ikasi zuen irakurtzen eta idazten. Gaur egun zaharren-egoitza dagoen "asiloan" zegoen orduan ikastola. Apaizaren etxe azpian ere lokalen bat bazegoela gogoratzen du.

1.528. Donibaneko ikastolako lokal ezberdinak (PAS-082/007)

Hirugarren mailatik aurrera eta lizeoa eraiki aurretik, Donibanera joaten ziren. Hainbat lokaletan egon ziren eta lizeora joan aurretik Bisme enpresako lokal batzuetan egon ziren. Zortzi urterekin, motorra pasatzen zuten egunean 4 aldiz. Lizeoan badia guztiko barrutietako haurrak elkartu ziren.

1.529. San Pedroko txabolsotoa (PAS-082/009)

San Pedron, txabolsotoa "torrean" egiten zen, motorra hartzen den lekuan. Beste lokal batzuk egon ziren. Rifak eta merkatua ere antolatzen zen, dena lizeorako diru-bilketak egiteko.

1.530. San Pedroko ikastolako irteerak (PAS-082/010)

Ikastolako irteerak egiten zituzten San Pedroko ikastolatik. Donuts eta Gurelesako lantegietara, Zabalegira... 30 bat haur izaten ziren.

1.531. Ikastolen jarraipena kolokan ikusten zen (PAS-082/011)

San Pedroko ikastolako gelan 30 bat ikasle ziren. Hirugarren maila egitera Donibanera joan behar izan zutenean, klase erdia joan ziren. Gainontzekoak beste ikastetxe batzuetara joan ziren. Ikastolen jarraipenari buruz ziurtasunik ez zegoen.

1.532. Lizeoko lehenengo ikasleetako bat da (PAS-082/012)

Lizeoa eraikitzeko proiektua aurrera atera zenean, badiako haurrak pixka bat elkartzan hasi ziren. Lizeoan ikasitako 2. belaunaldikoa da Jon. Aldaketa handia izan zen lizeora joatea.

1.533. Donibanen eta lizeoan izan zituen irakasleak (PAS-082/013)

Donibanekoekin lagunarteko pikeak zituzten. Donibanen bere irakasleak Karmele Sistiaga eta Joxean Goikoetxea izan ziren. Laugarren mailako irakaslea Manu Labaien izan zen eta 5.etik 8.era Markos Zabaleta.

1.534. Lizeotik oso ondo prestatuta ateratzen ziren (PAS-082/017)

Lizeoa erabat laikoa eta akademikoki zorrotza zen. Jendeak uste zuen ikastolak sasieskolak zirela, baina ez da egia. Ondo prestatuta atera ziren handik.

1.535. Guraso eta irakasleen ausardia ikastolen sorreran (PAS-082/018)

Herriaren eta euskararen alde lan izugarria egin zuten haurrak ikastoletara eraman eta ikastolaren alde egin zuten guraso haiek. Gaur egun ezingo litzake horrelako zerbait egin. Irakasleak ere oso onak eta inplikatuak ziren. Militantzia oso barneratuta zeukaten.

1.536. Ikastola bultzatzeko ekimenak (PAS-083/002)

Donibaneko ikastolan ikasi zuen eta 6. maila egin zuen lizeoan. Ikastola bultzatzeko ekimenak gogoratzen ditu. Etxean lizeoari buruz entzundakoak kontatzen ditu.

1.537. Ikastolako irakasleak; metodologia (PAS-083/005)

Ikastolan izan dituen irakasleak: Lourdes Sistiaga, Karmele Sistiaga, Javier Portugal eta Maria Luisa Almandoz izan ziren. Haur eskolan lurrean eserita egoten ziren eta idazten ikasten hasi zirenean, mahaietan.

1.538. Gelan ia denak sanjuandarrak; txangoak (PAS-083/007)

32 ikasle ziren klasean, denak donibanetarrak, Lezoko 2 eta San Pedroko 2-3 ikasle ezik. Txangoak eta irteerak egiten zituzten ikastolatik.

1.539. Azoka, ikastolarentzat dirua lortzeko (PAS-083/009)

Lizeoa sortzeko arrazoiak. Diru bilketa ezberdinak egiten ziren, tabernak eta azokak sortuz. Erreka auzoan ipintzen zen taberna, eta azoka, Camara jatetxearen parean. Amak azokan txandak egiten zituen. Gurasoek ez zeuden ikastola eta lizeoaren talde motorrean.

1.540. Katekesia eta jaunartzea euskaraz (PAS-083/015)

Ikastolan ikasi zuen Gure Aita errezatzen. Katekesia eta jaunartzea euskaraz izaten zen.

1.541. Hemezortzi urterarte lizeoan (PAS-083/016)

Lizeoko 3. edo 4. promoziokoa da Marixabel. Bertara joan zirenean eraikina bukatu gabe zegoen. 7. mailan zegoela inauguratu zen lizeoa. Negua zen, eguraldi ona egiten zuen eta ikurrina jarri zutela gogoratzen du. Maila bakoitzeko bi gela zeuden. Lizeora autobusez igotzen ziren eta oinez jeitsi.

1.542. Ikuskaritzakoen bisita tentsio handiko momentua zen (PAS-083/018)

Ikuskaritzakoak ikastolara joaten zirenean, irakasleak oso urduri jartzen ziren eta ikasleak urduri jartzen ziren. Tentsio handiko momentua izaten zen.

1.543. Ikastolako anekdotak (PAS-083/024)

Lourdes Txikin ikastolan zebilenean gertatutako anekdota bat kontatzen du.

1.544. Frankismoaren azken urteak (PAS-083/029)

Franco hil zenean 7-8 urte zituen eta ez du errepreseio garai hura gogoratzen.

1.545. Ikastola jende askoren borondatez sortu zen (PAS-084/002)

Badiako ikastolak eta lizeoa, jendearen borondatez sortutako proiektua izan zen. Itsasmendi, dinamizatzaile handia izan zen ere.

1.546. Itsasmendi elkarteak gauza asko biltzen zituen (PAS-084/004)

Donibanen, Bonantzako ikastolan hasi zen ikasten. Itsasmendi elkarteak gauza asko antolatzen zituen eta dena nahastuta bezala zegoen: txistua, dantza, ikastola, mendia...

1.547. Bonantzako ikastola (PAS-084/005)

Bonantzan gela haundi batean ikasten zuten. Lourdes Sistiaga zen bere irakaslea. Ipuinak gogoratzen ditu.

1.548. Donibaneko ikastolako gelak eta Maria Luisa Almandoz (PAS-084/006)

Bonantzatik Itsasmendi gaineko lokaletara pasatu zen eta gero Lourdes Txikiko lokaletara. Irakasleak nortzun ziren. Maria Luisa Almandoz. Ixiar Korta eta Aizpea izeneko irakasle bat ere gogoratzen ditu.

1.549. Lizeoko lehenengo promozioa (PAS-084/008)

Lourdes Txikiko lokaletan eta Pysbeko jangelan jaso zituten ikastolako klaseak. Lizeora joan zen 8. maila egitera. Urtebete eta bi urte zaharragoak zirenak, 8. maila egitera Oreretara joan ziren. Lizeoa ez zegoen bukatuta.

1.550. Lizeoko 25. urteurreneko eguna (PAS-084/009)

Lizeoaren 25. urteurrena gogoratzen du.

1.551. San Juango eta San Pedroko ikasleak elkarrekin (PAS-084/010)

1972an badiako ikastolak elkartu zirenean, San Pedroko 3 ikasle batu zitzaizkien sanjuandarrei. Barruti guztikoak eta Lezokoak, lizeoan elkartu zituzten lehenbiziko aldiz. Kurtso bakoitzean modu ezberdinean batzen zituzten ikasleak.

1.552. Franco hil zeneko oroitzapenak (PAS-084/011)

Nahiz eta frankismoan jaio zen, nahiko askeak zirela gogoratzen du. Franco hil zen egunean, ikasle bat puro batekin agertu zen ikastolan.

1.553. Lizeoaren denen ikastola zen; militantzia (PAS-084/012)

Lizeoaren kokapenaz eztabaidatu zenean, argi utzi nahi izan zen denen ikastola zela. Berdin zuela non egongo zen kokatuta. Eta denek autobusa ordaindu behar zutela ere, nahiz eta lizeora oinez igo. Lizeoaren sorrerak militantzia bat suposatzen zuen, gaur egun ez dagoena.

1.554. Lizeoarako kuotak eta diru-bilketak (PAS-084/013)

Familia bakoitzak 15.000 pezeta jarri behar izan zituen lizeorako. Diru-bilketak ere egiten ziren: rifak, txabolsotoak, taberna jaietan...

1.555. Lezo-Pasaia lizeoaren izena (PAS-084/015)

Urte askoz, Pasaia Lizeoa izan zen, baina Lezo-Pasaia Lizeoa izena jarri zitzaion gero. Lezoarrak beti egon dira proiektuan inplikaturak.

1.556. Irakasleen herri eta baserrietara txangoak (PAS-084/017)

4. mailan Manu izan zuten irakasle eta historia asko ikasi zuten berarekin. Lehiaketak antolatzen zituen eta irabazleak txangoetara eramaten zituen. Txango asko irakasleen herrietara eta baserrietara egiten zituzten.

1.557. Ikastolarekin txangoak (PAS-084/019)

Txikiagoak zirenean ez zituzten txango handiak egiten. Inguruko zuhaitzak ikustera, dendara, plazara... joaten ziren. Geroago, irakasleak, zeuzkan baliabideak erabiltzen zituen txangoak antolatzeko.

1.558. Gabonetan ekintza asko zeuden, Itsasmendik antolatuta (PAS-084/020)

Gabonetan, Itsasmendiren inguruan ateratzen ziren denak batera: ikastolakoak, dantzakoak...

1.559. Ikuskaritzakoak agertzeko beldurrez (PAS-084/022)

Ikuskaritzakoak lizeora joaten baziren, ondo portatu behar izaten zutela gogoratzen du. Irakasleak kezkatuta egoten ziren.

1.560. Eskola nazionalak eta ikastola, guztiz ezberdinak (PAS-084/023)

Anaia nagusia eskola nazionaletara joan zen eta berak kontatzen zituen gauzak eta Maria Eugeniak ikastolan bizitako egoerak guztiz ezberdinak ziren.

1.561. Ikastolareriko dudak lehenengo urteetan (PAS-084/025)

Amak, ikastolarekiko dudak zituen, ez zekielako ea nahiko ikasiko zuten. Guraso batzuk oso inplikaturik zeuden. Batzuk aipatzen ditu.

1.562. Lizeoa sortzeko ahalegin handia egin zen (PAS-084/026)

Lizeoak suposatzen zuen kostuaz konzienteak ziren.

1.563. Ikastolan fitxak erabiltzen zituzten gehienbat (PAS-084/028)

Umetan, ipuin asko kontatzen zizkietela gogoratzen du. Ez du gogoratzen ikasleen libururik zutenik. Matematikak fitxetan eta koadernoetan egiten zituzten.

1.564. Ikastolara heltzeko garraioak: motoreak, autobusa... (PAS-084/029)

San Pedrotik San Juanera joaten ziren ikasleak, motorean pasatzen ziren. Lezokoak lineako autobusean.

1.565. Irakasle guztien oroitzapen ona du (PAS-084/031)

Ikastolako irakasleen artean, Lourdes Sistiaga da gehien gogoratzen duena. Izan dituen irakasle guztien oroitzapen ona du. Maria Luisa, Ixiar, Manu, Emiliano.... Emilianorekin denbora asko pasatzen zuten eta urte askoz izan zen bere irakasle.

1.566. Filosofiako ikasketak (PAS-084/032)

Filosofiako karrera ikasi zuen, momentu hortan hori gustatzen zitzaiolako. Ez zuten pentsatzen zertarako balioko zitzaien karrera bat edo beste bat ikasi. Gaur egun izugarrizko presioa daukate ikasleek. Behin bukatuta, irakasle bezala hasi zen lizeoan.

1.567. Ikastolako anekdotak (PAS-084/036)

Amasara joan ziren behin ikastolarekin. Baserri batean, ikasle batek hanka sartu zuen zulo batean. Beste batean, Marcos izeneko irakasle batek bere baserrira eraman zituen ikasleak eta haren emaztea erori egin zela gogoratzen du.

1.568. Aita joaten zen ikastolako bileretara (PAS-084/040)

Ikastolako bileretara gehienbat aita joaten zen. Ama jostuna zen eta lan asko egin behar izaten zuen.

1.569. Lizeoko gelak margotzen (PAS-084/041)

Lizeoko irakasle bezala hasi zenean, gela batzuk margotzen ibili ziren. Kilometroak antolatzen ere ibili da.

1.570. Gurasoen lan eta diruaz sortu zen ikastola (PAS-085/003)

Ikastola, euskara eta euskal kultura bultzatzeko sortu zen. Gurasoek sortu zuten haien diruarekin eta lanarekin.

1.571. Ikastolako ibilbidea, San Pedrotik Lizeora (PAS-085/005)

Apaizaren etxearen parean hasi zen ikastolan 3 urterekin. Gero, zahar-etxeko (Asiloa) goiko geletan ikasi zuen Felisa irakaslearekin. Urte batzuk geroago, sanjuandarrekin elkartu zituzten Pysbeko jangela batean. Handik Lourdes Txikiko lokal batera aldatu ziren eta azkenik 1979an lizeora. San Juanera motorean joaten ziren. Lizeora joaten zirenean, autobusak jarri zituzten ere.

1.572. Pilartxo Arratibel, San Pedroko ikastolako aitzindaria (PAS-085/007)

Andereño Pilartxo Arratibel izan zen San Pedroko ikastolako lehenengo andereñoa. Andereño Felisa batu zitzaion gero. Markos Zabaleta ere gogoratzen du, San Juanen ikasten zeudela. Pilartxo Arratibelek ikastola, hartzaindegi baten antzekoa zen. Kantuak abesten zituzten, jolasak egin...

1.573. Txabolsotoa San Pedron (PAS-085/009)

Ikastolarako dirua ateratzeko txabolsotoa antolatzen zen.

1.574. Eliza eta ikastola eskutik helduta (PAS-085/011)

Hasierako ikastola eta eliza elkarrekin zeuden. Andereñoak oso elizkoiak ziren, mezak euskaraz ziren, jaunartzea euskaraz...

1.575. Hasierako ikastolako eta beste eskolen arteko hezkuntza-maila (PAS-085/013)

Ikastolatik pasa ziren denek ez zuten beste eskola batzuetan lortzen zen hezkuntza-maila berdina lortu. Batzuk klase partikularretara joan behar izan zuten gero selektibitatea ateratzeko. Irakasleen lana ere bikoitza zen, klaseak euskaraz prestatu behar zituztelako, gaztelaniazko materialarekin.

1.576. Hasierako ikastolan hezkuntza-maila lortzeko oztopoak (PAS-085/015)

Ikastolan ikasi zuten ikasle asko, beste eskola batzuetara joan ziren selektibitatea egiteko. Didakak selektibitatea lizeoan egin zuen eta maila ona lortu zuen, baina oztopoak zeudela uste du.

1.577. San Pedroko asiloko ikastolako gogoetak (PAS-085/017)

San Pedroko asiloan ikastolra joaten zenean, baloia itsasora joaten zitzaiela gogoratzen du. Arrantzaleek sarearekin batzen zieten baloia. Terraza txiki batean jolasten zuten. Pilartxo eta Felisa andereñoak zorrotzak ziren.

1.578. Francoren bisitetan, aita kartzelara (PAS-086/003)

Errenterian, Madalenako ermitaren parean bizi ziren. Mozkortzen zenean, aita "Gora Euskadi Askatuta" bezalako lemak esaten zituen, Francok herria bisitatzen zuen bakoitzean kartzelan sartzen zuten, istilurik ez sortzeko.

1.579. San Pedroko lehenengo ikastola (PAS-086/005)

San Pedrorra bizitzera joan zenean, euskara gutxi egiten zen han. Lehenengo ikastola Pilartxo Arratibelen etxean izan zen, gero beste lokal batzuetan, gero asiloan...

1.580. Ibon Fresnedo ikastolako lehendakaria (PAS-086/009)

Joxeba elektrizista izan da eta San Pedroko ikastolan lantxoak egiten zituen debalde. Gurasoak beti zeuden laguntzeko prest. Ibon Fresnedo izan zen San Pedroko ikastolako zuzendaria.

1.581. Joxe Etxebarria abade euskalduna (PAS-086/010)

Elizarekin oso harreman ona zuten ikastolakoek eta Joxe Etxebarria abadeak asko lagundu zien. Semeari Didaka izena jarri nahi zioten eta abadeak ez zien trabarik jarri.

1.582. Pasaiaiko ikastola klandestinoak: andereñoak (PAS-086/013)

Ikastolan askotan klandestinoki ibiltzen ziren. Ikuskaritza zetorrela jakiten zutenean, haur batzuk etxera bidaltzen zituzten, tituludun gabeko irakasleak ateratzen zituzten... Pilartxok adibidez ez zuen titulurik. Beste andereño batzuk aipatzen ditu.

1.583. Euskararen alde lanean (PAS-086/020)

Paco Iriartek euskal dantzak erakusten zituen Pasaian. Joxeba beti aritu da euskararen alde lanean, udaletxera joaten baimen bila... Andres Aramendi zen alkate lizeoa sortu zenean.

1.584. Lizeoa legalitatearen barruan sortu zen (PAS-086/021)

Baimenik gabeko ekimenak egiten zituzten ikastolatik. Joxebak argi zuen seme-alabak ikastolara eramango zituela, nahiz eta klandestinoa izan. Lizeoa modu ofizialean sortu zen, legalitatearen barruan. Ibon Fresnedo izan zen lehendakaria.

1.585. Gaztelutxo elkarte (PAS-086/023)

Gaztelutxo baserriaren lurretan lizeoa eraikitzea erabaki zen. Gaztelutxo elkarte sortu zen horretarako. Simon Garinek asko lagundu zuen lizeoaren sorreran.

1.586. Lizeoaren garraio-sistema (PAS-086/025)

Lizeoa sortzeko egindako lanarekin oso konforme dago. Garraio sistema oso ona zuten.

1.587. Ikastola egoera berezia zen (PAS-087/003)

Nahiz eta frankismo garaian hazi, etxean eta ikastolan euskaraz egiten zuenez, ez zen egoeraz oso konziente izan. Baina atzera begira, konturatzen da ikastola zerbait berezia zela, gurasoen kezka edo ikuskaritzakoak joaten baziren atera behar zituzten liburuez. Lagunen artean ere, batzuk ikastolan jarraitu zuten eta beste batzuek ez.

1.588. San Pedroko ikastolaren sorrera (PAS-087/008)

Ibon Fresnedoren alaba batek Elbira Zipitriarekin ikasten zuen eta San Pedron ikastola sortzeko ahaleginetan hasi zen. Berarekin batera, Simon Garin, Felix Larrañaga, Lizaso... eta haien emazteak ibili ziren. Lokalen mantenua gurasoek egiten zuten.

1.589. Ikuskaritza bazetorren, liburuz aldatu behar zuten (PAS-087/009)

Ikuskaritzakoa bisitan joaten bazen, zituzten liburuak ezkutatu eta beste batzuk ateratzeko agindua zeukaten.

1.590. San Pedroko hasierako ikastola (PAS-087/010)

Pilartxo Arratibelen ikastolan asko abesten zuten eta musika asko jorratzen zuten. Zahar-etxera (asilora) mugitu ziren gero, Felisa andereñoarekin. Ikastola nolakoa zen. Xabiertxo liburua ikastolan zegoen.

1.591. Felisa andereñoarekin zahar-etxean (PAS-087/012)

Pilartxo Arratibelek ez zeukan irakasle titulurik, katekista zelako. Felisa heldu zenean, berak bazuen titulua. Felisa zorrotzagoa zen, binaka esertzen ziren... Egunero Bibliako pasarte bat irakurtzen zuen eta ikasleek marrazki bat egin behar izaten zuten. Gero, abestu egiten zuten.

1.592. San Pedroko Dunixi ikastola I (PAS-087/013)

San Pedroko ikastola, hasieran Dunixi ikastola deitu zen. Gero, Kepa Deun ikastola izena jarri zioten.

1.593. San Pedroko Dunixi ikastola II (PAS-087/015)

Ikastolari Kepa Deun izena zergatik jarri zioten kontatzen du.

1.594. San Pedroko ikastolako kokapenak (PAS-087/017)

San Pedroko ikastola, Pilartxo Arratibelen etxean hasi zen. Handik liburutegira pasatu ziren eta gero eliza azpiko lokal batzuetara. Azken hauetan hasi zen Migel Mari ikastolan. Hemendik zahar-etxera (asilora) pasatu ziren eta handik, Migel Mari Donibanera pasatu zen baina hurrengoak Esnebidera ikastera pasatu ziren.

1.595. Badiako irakasleak ikastolan elkartzeko hasiak (PAS-087/019)

1972tik aurrera, barrutiko ikastolak elkartu nahi izan zituzten, egingo ziren lizeoaren proiektuaren barruan. Sanjuandarrak sanpedrotarrekin elkartu zituzten eta antxotarrak lezotarrekin. Azkenengo mailak, ordea, denek batera egin zuten.

1.596. Lizeoan hasi ziren lehenak (PAS-087/021)

San Pedrotik San Juanera motorean joaten ziren egunero. Eguraldi txarra zegoenean, sanjuandarren etxean bazkaltzen zuten. Pysbeko bulegoetan zegoen ikastola. Markos Zabaleta irakaslearekin Juan XXIII etxeetan egon zen ikastola. Bertan egon ziren lizeoa zabaldu arte. Lizeoa bukatu gabe zegoen eta obretan zegoela hasi ziren bertan ikasten. Lizeoko klase bakarra ziren.

1.597. Txabolsotoak (PAS-087/023)

Txabolsotoak, gaur egungo txosnak ziren, ikastolarentzat dirua lortzeko. Azokak, rifak... ere egiten zituzten.

1.598. Txabolsotoa San Pedron sortu zen (PAS-087/025)

Txabolsotoa San Pedron asmatu omen zen. Betidanik entzun izan dute.

1.599. Jaunartzea euskaraz (PAS-087/027)

Jaunartzea bi egunetan egiten zen, hizkuntzaren arabera.

1.600. Arantzazura Errobi entzuten (PAS-087/028)

Ikastolarekin Arantzazura askotan joaten ziren. Autobusean Errobi entzuten joaten ziren. Irakasleak fededunak izaten ziren.

1.601. Irakasle gazteak ikastolan (PAS-087/030)

San Pedron izan zituzten irakasleak fededunak eta elizkoiak ziren. Gerora, irakasle gazteak izan zituzten, pentsaera modernoago batekin. Horrelako irakasleak izatea oso aberasgarria izan zen beraientzat. Irakasle berri hauek metodologia berriagoa zeukaten eta elizatik guztiz aparte zeuden.

1.602. Emakumeen papera ikastolen sorreran (PAS-087/031)

Gurasoen papera ikastolaren sorrera eta garapenean oso garrantzitsua izan zen. Beti aipatzen dira gizonezkoen izenak, baina beraien emazteak ere hor zeuden tortilak egiten, tabernan lanean...

1.603. Seme-alabak ikastolara eramateko erabakia (PAS-087/032)

Amak erabaki zuen ikasketak ikastolan bukatuko zituela. Aita, jesuitetan ibilitakoa zen. Momentu horretan, semea ikastolara eramateko autua hartzea ez zen erraza izan.

1.604. Irakasle gehienak, emakumezkoak (PAS-087/034)

Irakasle gehienak emakumezkoak ziren.

1.605. H-arekin idazteagatik, ETAzalea omen? (PAS-087/038)

Amaia Lasa izan zuen irakasle bezala. Bapatean desagertu egin zela gogoratzen du, ETAko kide zela eta ez zela leporatuz. Garai hartan, H-arekin idazten zietenei ETAkoak zirela esaten zitzairen. Amaia Lasak antza, H-rekin idazten zuen

1.606. Xabiertxo liburua (PAS-087/040)

Eskolan Xabiertxo liburua erabiltzen zuten, baina beti ikastolan zeuden. Apaizarekin harremana zuenez, Xabiertxoren 1.º edizioko liburu bat oparitu zion, beltzez forratuta. Gai elizkoiak jorratzen ditu, naturarekin batera.

1.607. Don Ramon apaizaren itzulpen sabinianoak (PAS-087/042)

Don Ramon apaizak, txabolsoarentzat zerrendak euskaratzen zituen modu sabiniano batean.

1.608. Lizeoak barruti guztiak biltzen ditu (PAS-087/044)

Pasaiaiko barrutiak betidanik nahiko banatuta egon izan dira. Lizeoarekin, bateratasun bat lortu zen eta gaur egun ere lotzen du.

1.609. Lizeotik oso prestatutak atera ziren (PAS-087/046)

Selektibitatearen zati bat euskaraz egin zuten eta presioa zegoela gogoratzen du, ikastolan egoteagatik zerbait demostratu beharra edo. Migel Marik unibertsitate ikasketak Madrilen egin zituen eta oso maila ona zuela gogoratzen du.

1.610. Irakasleen baserrietara asteburupasa (PAS-087/049)

Irakasleekin asteburupasa joaten ziren irakasleen baserri edo herrietara. Markos Zabaletarekin Zegamara joaten ziren. Emiliano Mujikarekin Gabiriara joaten ziren. Parrokoaren etxean lo egiten zuten.

1.611. Gaztetatik langile eta kultura mugimenduetan (PAS-088/002)

Frankismoan euskararen egoera larria zen. Euskara bultzatu du oso gaztetatik, lehenengo Errenterian eta gero San Pedron. 1971an San Pedrora bizitzera joan zen eta kultura mailan inplikatzeko hasi zen. Aresti elkarteak sortu zuten euskara bultzatzeko.

1.612. San Pedroko gau eskoletako sortzaileetako bat (PAS-088/004)

San Pedroko gau-eskolen sortzaileetako bat izan zen. Irakaslea ere izan zen.

1.613. Gau eskolaren aldizkaria (PAS-088/006)

Gau eskolak ikastolarekin batera ateratako aldizkari bat azaldu eta erakusten du. Gau eskola 1975 edo lehenago sortu zen.

1.614. Lizeoaren obran eraldaketak (PAS-088/011)

Lizeoaren obrak luzatu egin ziren eta lanak eraldatu behar izan ziren. Joxe Ignaziok borondatez hartu zuen parte lizeoaren obran.

1.615. Ikastolen metodologia nolakoa izan behar den (PAS-088/014)

Gau eskoletatik, lizeoa bultzatu nahi zuten. Lizeoa eta beste ikastetxe batzuen arteko ezberdintasuna bermatu nahi izan du beti. Hala ere, ikastolek erdal eskolen metodologia berdina jarraitzen dutela uste du.

1.616. Hasierako eta gaur egungo ikastolen metodologia (PAS-088/015)

Garai bateko ikastolen metodologia eta gaur egunekoak ez du zerikusirik. Metodologia xamur eta errazaren aldekoa da. Gaur egun, lehiakortasun larregi dago.

1.617. Pasai San Pedroko ikastolako lehendakaria (PAS-088/018)

Simon Garin, Larrañaga, Zurutuza... izan ziren lizeoaren proiektuan parte hartutako batzuk. Pasai San Pedroko ikastolako lehendakaria izan zen. Gurasoekin eta irakasleekin egiten ziren bilerak, haien iritzia jasotzeko.

1.618. San Pedroko ikastola (PAS-088/024)

Gaur egun erretiratuen elkarte dagoen lekuan egon zen ikastola San Pedron. Hortik lizeora joan ziren ikasleak.

1.619. Don Ramon apaizaren euskarazko itzulpenak (PAS-088/026)

Ikastolak elizarekin zuen harremana. Don Ramon apaizak euskarazko itzulpenak egiten zizkien. Euskaltzale amorratua zen.

1.620. Gaur egun ez dago garaiko militantziarik (PAS-088/029)

Joxe Ignazio topografoa da eta zekien guztia jarri zuen lizeoari laguntzeko. Bakoitzak dakiena eman behar du. Gaur egun ez dago militantziarik, elkarlanik, auzolanik...

1.621. Gaztelutxo elkarte (PAS-088/039)

Gaztelutxo elkarte, lizeoa sortzeko sortu zen.

1.622. Ikastolak belaunaldiarteko harremanak bultzatu behar ditu (PAS-088/040)

Ikastolak belaunaldiarteko harremanak bultzatu behar ditu. Azken bi urteetan, Joxe Ignazioaren elkartearen bidez, gabonetako postal nominatiboak egin dituzte ikasleek. Trintxerpen ere, belaunaldiarteko harremanak sortzeko ekintzak egin dira.

1.623. Herri txikietan zerbait sortzea zailagoa da (PAS-088/041)

Herri txikietan zerbait sortzea balore gehiago dauka herri handietan sortzea baino, jende gutxiago dagoelako.

1.624. Trintxerpen garai batean euskararik ez (PAS-089/002)

Ikastolen sorrerako garaian, Trintxerpen oso gutxi entzuten zen euskara. Bermeo, Ondarroa eta inguruetatik joaten ziren arrantzaleei entzuten zitzaien gehien bat. Beste denak kanpotarrak ziren: galiziarak, extremeñoak... Ines izan zen ikastolan ikasi zuen familiako lehena.

1.625. Trintxerpeko ikastola I (PAS-089/003)

San Pedron ikastola sortu zenean hara joan zen ikastera. Denbora gutxira sortu zen Trintxerpen eta 1.mailatik 4.mailara denek elkarrekin ikasten zuten. Atsedenaldi guztia abesten pasatzen zuten. Martin Txilibitu eta Xabiartxo liburuak erabiltzen zituzten.

1.626. Trintxerpeko ikastola II (PAS-089/005)

San Pedroko ikastola 1966an sortu zen. Pilartxo Arratibel zen andereñoa eta asko abesten zuten. Ikasturte berdinean Trintxerpen zabaldu zen ikastola, Bordatxon, Arraindegi kaleko goikaldean. 1.go, 2., 3. eta 4. mailakoak elkarrekin ikasten zuten. Beste gela batean haur eskolakoak zeuden Gurutze Urresti andereñoarekin.

1.627. Trintxerpeko ikastolako sortzaileak, Egiatarrak (PAS-089/007)

Trintxerpeko ikastolako lehenengo andereñoa Carmen Laka zen. ikastola, Xabin eta Doni Egiak bultzatuta sortu zen. Familia euskaldunen seme-alabak joaten ziren ikastolara.

1.628. Trintxerpeko txabolsotoa (PAS-089/008)

Trintxerpeko txabolsotoak, portu inguruan antolatzen ziren, herriko jaietan. Etxetik janaria prestatzen zen eta bertan saldu.

1.629. Herrera eta Altza, lizeotik kanpo (PAS-089/009)

4. maila bukatuta Herri Ametsa ikastetxera joan zen eta batxilergoa egitera Oreretara ikastolara. Bere anaia gaztea lizeora joan zen. Hasieran Herrera eta Altzakoak ere lizeoaren proiektuan sartuta zeuden, baina azkenean ezetz erabaki zuten.

1.630. Lizeoaren inaugurazio eguna (PAS-089/011)

Lizeoaren inaugurazioan txistua jo zuen bertan. Hotz handia egiten zuela gogoratzen du.

1.631. Pilartxo Arratibelekin beti kantuan (PAS-089/013)

Pilartxo Arratibel oso alaia zen. Beti kantatzen ibiltzen ziren eta ipuin asko kontatzen zikien. Elizkoia zen eta kanta batzuk erlijiosoak izaten ziren.

1.632. Trintxerpeko ikastolako andereñoak (PAS-089/014)

Trintxerpeko ikastolan asko kantatzen zuten. Carmen Laka andereñoa serioa eta oso diziplinatua zen. Ikasturteko azken egunean Carmenen urtebetetzea izaten zen eta kohete bat eramaten zuen. Gelan adin ezberdinekoak zeudenez, familia bat bezalakoa ziren. Gurutze Urresti eta Carmenen iloba bat, Jone, zeuden ikastolan ere.

1.633. Trintxerpeko ikastolako materialak, liburuak... (PAS-089/018)

Martin Txilibitu eta Xabiertxo erabiltzen zuten ikastolan. Koadernoan egiten zituzten gauzak. "Ikasteko" izeneko liburu bat gogoratzen du. Liburu asko gaztelaniaz ziren eta itzulpenak egiten zituzten. Plastikozko koloretako zotz batzuk erabiltzen zituzten, plastilina, buztina...

1.634. Bordatxotik Gran Sol zinearen parera (PAS-089/019)

Bordatxo ikastola txiki gelditu zen eta Gran Sol zinearen parera mugitu zen ikastola.

1.635. Gurasoen inplikazioa ikastolan (PAS-089/020)

Ikastolarentzat dirua biltzeko txabolsotoak antolatzen zituzten gurasoek. Gelak txukuntzen, pintatzen eta garbitzen ibiltzen ziren ere.

1.636. Trintxerpeko ikastolaren kokapenak eta andereñoak (PAS-089/021)

Trintxerpeko ikastolaren kokapenak. Margari Irigoien irakaslea ez du gogoratzen, bera ordurako Herreran zegoelako ikasten. Lehenengo andereñoak, Jone Egia, Carmen Laka eta Gurutze Urresti izan ziren.

1.637. Ikastolako metodologia ezberdina zen (PAS-089/024)

Ikastolaren metodologia ezberdina zen. Bera ikastolatik etxera heltzean solfeora, txistura... joaten zen eta beste ikastetxe batzuetara joaten ziren bere anai-arreba nagusiek beti etxekolanak zituzten.

1.638. Euskarazko lehenengo ipuinak (PAS-089/028)

Argazkian agertzen diren euskarazko ipuinetan oinarritzen ziren hizkuntza lantzeko.

1.639. Trintxerpeko ikastolatik farora txangoak (PAS-089/030)

Trintxerpeko ikastolako argazki bat, Carmen Laka andereñoarekin. Atsedenaldiak kantatzen pasatzen zituzten. Batzietan txangoak egiten zituzten faro aldera.

1.640. Jaunartzea euskaraz (PAS-089/031)

Jaunartzea euskaraz egin zuten. Garaiko apaiza oso euskaltzalea zen eta Carmen Lakarekin harreman handia zuen. Katekesia gurasoek ematen zuten.

1.641. Hasierako ikastolen inguruan, gurasoek duda (PAS-089/033)

Ikastola zerbait berria zenez, guraso batzuek seme-alabak atera egin zituzten fraideetara eramateko.

1.642. Gurasoak ikastolarekin oso inplikatura (PAS-089/034)

Gurasoak oso inplikatura zeuden ikastolarekin. Amak, alabaren bat etxetik kanpo lan egitea eta euskara ikastea nahi zuen.

1.643. Egiatarrek izan ziren Trintxerpeko ikastolaren sortzaileak (PAS-089/036)

Trintxerpeko ikastolaren ideiarekin sorrera Arraindegi kalean sortu zen. Bertan Egiatarrek galdatedi bat zuten. Carmen Laka, lehenendo andereñoa, haien koinata zen. Ondarroakoa zela uste du.

1.644. Trintxerpe, San Pedoren barruan (PAS-089/038)

60. hamarkadan, Trintxerpe San Pedroko barrutiaren barne zegoen auzo bat zen. Hala ere, bazeukan bere nortasuna.

1.645. Trintxerpeko musika-eskola eta dantza-taldea (PAS-089/044)

San Pedorekin ere harremana izan du, aita bertakoa zelako. Trintxerpeko musika eskolan ikasi zuen txistua jotzen, umea zelarik. Orokorrean ez zegoen euskal giro baina zegoen gutxia, musika eskolaren eta dantza-taldearen inguruan sortzen zen. Txistua jende askok jotzen zuen eta inguruko herrietarako joaten ziren jotera. Dantza-taldea potentea zen.

1.646. Ikastola familia handia bat bezalakoa zen (PAS-089/046)

Ikastolarekiko oso oroitzapenak onak ditu. Modu aktibo batean ikasten zuten eta irakasle, guraso eta ikasleen artean harremana oso estua zen.

1.647. Gurutze Urresti, Trintxerpeko andereñoa (PAS-090/004)

Bere amak ez zuen irakasle titulurik baina euskaraz oso ondo egiten zuenez, Karmele Lakak deitu zion ikastolan lan egiteko. Gero atera zuen titulua, Nekane Auzmendirekin praktikak egin ondoren.

1.648. Gurutze Urresti, euskararekin oso konprometitua (PAS-090/006)

Gurutze Urrestik, bere amak, euskararekiko konprometitu handia zuen. Hala ere, irakasle bezala hasi zenean oraindik frankismoan zeuden eta beldurra izan zuen.

1.649. Ikastolan asko abesten zen (PAS-090/007)

Lurrean eserita egoten ziren ikasleak, borobilean. Asko abesten zuten.

1.650. Gurutze Urresti andereñoa (PAS-090/009)

Gurutze Urresti, luneren ama, Trintxerpeko ikastolako lehenengo andereñoetakoa izan zen. Ikastolaren kokapenak.

1.651. Ikastolarentzat dirua lortzeko ekimenak (PAS-090/010)

Ikastolarako dirua lortzeko, jaialdiak, azokak, marmitako lehiaketak, zozketak, txabolsotoak... antolatzen zituzten.

1.652. Ikastolaz oso harro (PAS-090/012)

Hasierako andereñoak beti zeuden prest denerako. Gurasoak ere oso implikatuta zeuden. Bere ama oso harro zegoen ikastolaz. Nahiz eta kanpoan bizi, seme-alabak euskaraz hezitu ditu lunek.

1.653. 60. hamarkadako euskararen egoera Trintxerpen (PAS-091/002)

Euskararen egoera nahiko eskasa Trintxerpen haurrak zirenean.

1.654. Pilartxo Arratibelen ikastolan (PAS-091/004)

Bi urterekin San Pedroko ikastolara eraman zuten Olatz, Pilartxo Arratibelekin. Bi urtera Trintxerpeko ikastola sortu zen.

1.655. San Pedroko ikastolatik Trintxerpekora (PAS-091/008)

Pilartxo Arratibelen ikastolako oroitzapenak: lurrean eserita, piano bat eta hartz bat zeuden, abestiak, loreak biltzera joaten ziren... Handik Trintxerperako joan zen ikastera, Arrandegi kaleko goikaldean zegoen Bordatxora. Bi edo hiru gela zeuden. Hiru ikasturte egin zituen hor eta gero Herrerara pasa zen eta handik BUP eta COU egitera Oreretako ikastolara. Andereño Carmen Laka izan zuen lehenengo andereñoa Trintxerpen.

1.656. Trintxerpeko ikastolatik, ikastetxe erlijiosora (PAS-091/009)

Teok Trintxerpeko ikastolan hasi zituen ikasketak Carmen Lakarekin. 5. maila egitera ikastetxe erlijioso batera joan zen. Ikastolako bere mutil batzuk jarraitu zuten ikastolan, baina bera ez.

1.657. Hasierako ikastolen metodologia (PAS-091/010)

Ikastolako oroitzapenak. Teok 4. mailan liburu bat zutela gogoratzen du. Zotzekin ikasten zuten, eskulanekin... Biak Carmen Lakarekin egon ziren.

1.658. Trintxerpeko Carmen Laka andereñoa (PAS-091/011)

Trintxerpeko andereñoak: Carmen Laka, Gurutze Urreisti... Carmen zorrotza zela esaten zen. Atsedenaldia gaur egunekoarekin alderatuz, ezberdina zen.

1.659. Ikuskaritzakoak ikastolan (PAS-091/012)

Ikuskaritzako bisitarik ez du gogoratzen Trintxerpen. Olatzen senarrak Elbira Zipitriarekin ikasi zuen eta hark bai bizi izan ditu horrelakoak.

1.660. Gurasoen inplikazioaz ikastolan (PAS-091/019)

Gurasoek ikastolaren alde txabolsotoan lan egiten zuten, kuotak ordaintzen zituzten... Gerora jakin izan dute gurasoen inplikazioaz.

1.661. Jendearen ausardia eta militantzia (PAS-091/021)

Ikastolen hasieran jendea oso ausarta izan zela uste dute. Teok ez daki gaur egun horrelakorik egin ahal izango litzatekeen. Lehengusu zaharragoek ez dute euskaraz hitz egiten.

1.662. Elizak jarrera euskalduna erakusten zuen (PAS-091/023)

Ikastolatik kanpo, dantza-taldean eta musikan ere euskaraz egiten zen baina ez zen egoera orokorra. Katekesia euskaraz zen eta elizak jarrera euskaldun bat zuela gogoratzen dute. Apaizan jatorrak ziren.

1.663. San Pedro eta Trintxerpe (PAS-091/024)

Jaunartzea euskaraz egin zuten, Trintxerpen bertan. San Pedro eta Trintxerpek parrokia bana dutenez, bakoitzak bere bizitza egiten zuen. Bi herri ezberdin ziren.

1.664. Ikastolako oroitzapen onak (PAS-091/025)

Trintxerpe txikiagoa zen baina ikastola sortu zen ere. Carmen Lakaren oroitzapen onak dituzte.

1.665. Ikastetxe erlijiosoa dena gaztelaniaz eta mutilak bakarrik (PAS-091/026)

Ikastolatik eskola erlijiosora joan zenean, euskaraz ezin egitea eta denak mutilak izatea izan ziren gauza arrotzenak. Ikastolan, neskak eta mutilak beti elkarrekin ibiltzen ziren. Gainera, klaseak handiagoak ziren, disziplina gehiago zegoen, autobusa hartu behar zuen...

1.666. Txabolsotoa Trintxerpen (PAS-091/028)

Txabolsotoa lokal batzuetan egoten zen. Gurasoak ibiltzen ziren tortilak egiten, zerbitzatzen... Ikastolarako dirua jasotzeko antolatzen zen.

1.667. Lizeoko inaugurazioan txistua jotzen (PAS-091/031)

Nahiz eta beste ikastetxe batean ikasi zuen gero, lizeoaren inaugurazioan txistua jotzen egon zen Olatz.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com